
INRI

na 275865
ZRV
3485

# JESU-KRISTEN IMITACIONIA

## CUBEROUACO USCARALA,

HERRI BERAURTACO ARHUEC BATEC,

Bere Jaun aphecçupiaren baimentouarcki

UTÇULIA.

PAUBEN,
DUGUE' eta J. DESBARATZ,
Beithan Mounheçcu Leterectan eçarria.

M. DCC. eta LVII. guerren ourthian.

ILLUSTRISSIMO
AC
REVERENDISSIMO
IN CHRISTO PATRI
DOM. DOM.
FRANCISCO DE REVOL,
EPISCOPO OLERONENSI,
Regi ab omnibus Consiliis, &c.

*QUI potiori jure dedicaretur opusculum, ex quo viri non pauci & pietate conspicui, & doc-*

NOURI çucen justouagoreki gomenda leite librugnou, hagnbesteguiçon bai debocionaç, bai jakitiaç, bes-

ten artian ſegnalaturic çaudianec, bere biciciarenchedehouniala erakharteco, guidataco hartu ukhen diena; ecieç COURE HANDITARCUNARI, ô jaun apheççupu ecinago arguitarçuneç betheric cirena, çourebicitcechuchenian, colore bicielibareçphintaturic beçala, agueri direnen gagnen, libru tchipi hountan edireiten diren eſcola hounac,

*trinâ morum componendorum hauſere normam, quam AMPLITUDINI TUÆ, clariſſime præſul, in cujus moribus, quæ in hocce libello reperiũtur præceptiones viam ſanctorum ingrediendi, eaſdem vivis expreſſas coloribus videre licet, tum vocem tuam audientibus, cùm omnibus probati præſulis partes adipiſci cupienti-*

*busquarum præceptionum cum pars diæceſeos curæ tuæ commiſſa careret adjumentis : ideo, ut omnium rudes linguarum, præter vernaculam, percipiendarum ex earum lectione utilitatũ fierent participes, hic idem liber ad ipſorum tranſlatus idioma, AMPLITUDINI TUÆ commendandus traditur nec non & tuendus ;*

çougnen ikhouſtia eçpeita neke çoure botçari behatcen direnentaco, eta jaun apheççupu mundu oroç laidatu den baten eguinbiden jardieſtia deſiratcen dien ororentaco. Eta noula çoure carguian, eta eſcupian den dioceſaren pharte-batec ecin eſcola houn hoyetaric ajuturic ukheiten beitcian, bere ſortcepeneco lengouagia baicic etçakialacoç: hartacoç hanco iça-

lec ere, beſtec hebentic idokitçen dutien abantalletaric, ukhen lecen pharte, hen uſcarala utçuli içan den librugnou haur ÇOURE HANDITARÇUNAREN gomendiaren, baietare ſuſtenguiaren pian eçarri içan duçu; amourecatic hec ere ounxa eçagut ahal decen çougnen juſtoki, eta complitukiheben içkiribaturicdaudian gaiçac, çuc eguiten, eta erraiten dutuçune.

*quò incolæ ejus pernoſcere valeant, quam concinnè, quæ inibì ſcripta leguntur, ea concordent cum tuis tum dictis tum factis; ſimul & tuo prælucente exemplo, conſequi poſſint virtutem, quæ hominem extra ſe vagantem ad cor reducit; quaque adjuvante ſentiant ſe omni operi fructuoſo faciundo impares eſſe, niſi divi-*

| | |
|---|---|
| *na gratia sibi indiguis præstet auxilium, sesesque efficiat idoneos complendis mandatis ad vitam æternam ducentibus.* | ki, pareyu batetan juntaturic edireiten diren, eta thempora berautran jardiex ahal decen, çoure exemplu ederraren arguia aitcineric dielaric, |

guiçona bere herramentietaric bere beithan sar eracitcen dian berthutia, eta haren berauren ajutiareki boroga decen obra hounen baten ere eguiteco indarric eçtiela bere mengouaren araur Jincouaren graciaren sokhorriaç laguntiac eçpadira, eta indartsu guertha eracitcen eçpadutu bicitce eternaliala guidatcen dien manu saintien complitceco.

| | |
|---|---|
| *Hâc igitur adjuti gratiâ liquidò perspi-* | Gracia horren lagungoua dielaric arren eçagu- |

turen dicie clarki, ſegur-nuçu, libru tchipi hounen behin beno haborotan iracourtetic, çougnen maithagarri, eta profeitable den, çouri artçagn hounari beçala jarraikitia; orotan gainti berec ikhouſten dien temphoran, çuc eçtuçula deuſere eguiten Jeſu-Kriſten, çougnen medioç Jincouaganat hullanguia ukheiten beitugu, imitacioniareki uduripen miragarribat

*cient, confido, ex hujuſce libelli repetita non ſemel lectione, quam ſuave & utile ſit, te ducem & paſtorem ſequi; præſertim cum ipſimet intueantur nihil prorſus à te geri, quod miram non probet conſonantiam cum imitatione Domini noſtri Jeſu-Chriſti per quem habemus acceſſum ad Deum; quantique momenti ſit, pro ſalu-*

*re adipiſcendà, iiſdem tuis inhærere veſtigiis, ut quò tendere debent omnium chriſtianorum vota, eòdem pervenire conentur, nullique labori parcant, ut optatum felicem exitum aſſequantur. Dignitatis tuæ auctoritas, vitæ cum integritate juncta non parum impellet, venerande omnibus modis præſul, eōs qui omni alio ſer-*

eçtianic; eta çougnen eſcuſa gabeden, ſalbamentiaren jardieſteco, çuc herecha eiçten deiçcuçunentan gagnen ebiltia; amourecatic Khiriſti ororen botouec hedatu behar dien lekhiala heltcera iſſeya ditian, eta cer nahibeita phenari iheſſiric eçtecen eguin, deſiratcen dien urrhentce dohaxiaren atçamaiteco. C,oure guehiengouaren autoritate bicitce chahiareki junta-

turic dagouenac, ô Jaun apheçcupu guiſa oroç ouhouratu içatia merechi duçuna, borthiçki boulcaturen citiçu bere lengouagia baicic, beſteric batere eçtakienac , nouicere libru haur iracourturen beitie, heben, bere bicitciaren chuchentceco , eta bihotçaren debocioniareki eſtecatceco, propi diratexiala eçaguturen dutien gaicen ororen ſu eta goço handibatexi com-

*mone intelligibili carentes iſta ſola utentur lectione , ad ſummo cum ſtudio arripiendũ quidquid in hocce eminet libello oportunum, & moribus componendis, & pietati colendæ, modo adſit juſſio atque præcipiatur ab amplitudine tua, interventu Rectorum, illius frequens uſus, ut ſuâpte comprobent experentiâ quãtus abs ſe fruc-*

*tus ſpiritualis ſit percipiendus, dum ſerió pièque huic vacabunt lectioni.*

plitcera, COUREHANDITARCUNAREN maniac, çougn Jaun erretoren medioç enthelega eraciren beiteyeçu, erakhar ditçan-ber houni ahal beçagn ardura ſo eguitera, amourecatic berec borogaturen dien gaiçac ſegurta ditçan, çougnen handi datekian frutu eçpiritual jardiexiren diena, iracourte ſaintu hountan debotki, eta gogouaihourat baçtertu gabe thempora emplegaturen dienian.

*Id præterea conſecuturi videntur utilitatis pueri ſcolas frequentantes, quod, ut latinam & gallicam, ſic ſuam*

Beſthalte eſcolan dabiltçan haurrec uduri da abantalla haur jardiexiren diela, uſcararen iracourten ikhaſten dielaric, hala

noula latia eta francesa ikhasten beitutie, hanitcheç ehignerago gogouan etchekiren dutiela catichimaneracousten çaitcen eguia saintiac, eta Jincouaren laidoriouen canticouac; erregentec eracouxi deikeyenian bere lẽgouagiaren hagn laster iracourten, noula bestetan trebatcen beitutie.

Triballugnou hounen mouldeçco leteretan eçartia ounhesten ba-

*genuinam linguam perlegere si ediscant longe facilius & doctrinæ christianæ rudimenta, & laudes Deo cani solitas memoriæ mandaturi sint; postquam à ludimagistris, eadem qua cæterarum linguarum facilitate, istius legendæ modum edocti fuerint.*

*Quod si annueris Illustrissime præsul ut hæc in lu-*

*cem edatur lucubratiuncula, (qui tuus in Deum commissasque tibi oves futurus est amor), hæc tua solius laus erit, quod primus Antecessorũ omnium in tam pingue pietatis pabulum conduxeris partem gregis, quæ ne delibare quidem quidquam potest in aliis pascuis: quæque æternùm, spero, tuæ in se benignitatis servabit memoriã*

duçu, ô Jaun apheçcupu ecinago complitu cirena, (hori beitate Jincouaganat eta çoure manu pian eçarri içan çaitçun ardietarat duçun amouriouaren segnalebat,) haur dukeçu çoure handitarçunari baicic ecin emaiten den laidoriobat; çu ciratekiala çoure aitcinetico ororen lehena, ardi saldotic phartebat hagn baçca houniala eraman dukeçuna, çougnec bes-

te baççagutan batetanere mut hurricecin phauſſatcen beitcian, eta çougnec harentacoukhen duçun hountarçunaren orhitmentcha bethierecoç beguiraturen beitu ſegurki, eçagutcia ere bai kharreiaturen. Lã hounen eguiliaç dena beçambat, bere deſircuntericandienac compliturik litikeçu, harec eguin dian iſſeyugnou haur C.OURE HANDITAR. C.UNAREN

*Quod attinet ad eum qui ſuam in hanc tranſlationem contulit operam, votorum apicem attigiſſet, ſi hic ſuus labor & tuæ placeret AMPLITUDINI, & eorum conduceret ſaluti, in quorum gratiam, Deo juvante, ſuſceptus confectusque eſt, ſique eodem tempore liquere poſſet quam venerabundus quantaque cum reverentia ſit AMPLITUDINIS*

*PLITUDINIS TUÆ obſervantiſſimus eique Addictiſſimus.*

*M... M...*

gogoco baliç, eta nouren ere abantallataco, Jincouaren ajutiarexi, haſſi eta acabi içan beita, hen beren ſalbamentiala hel eracitceco cerbutcha ahal ledin, eta moyan berautçaç clarxi agueri içan ledin, çougnen luharraituric, eta çoumbat aphalmenturexi den COUREHANDITARCUNAREN beguirari eta cerbutchari leyalbat, eta hari ecin haboro eſtecatu denbat.

M... M...

## *JAUN BICARI GENERALAREN APROBACIONIA.*

IRacourtu diçut Jaun Apheçcupiaren manuç *Jesu-Kristen Imitacionia çuberouaco usoarala berri beraurtaco jaun apheç bateç orai berri utçulia* libru hori atencionereki iracourturen dianac ikhassiren diçu bere buriaren ounxa eçagutcen, mundu falsu, eta erhouaren mesperetchatcen, eta bihotça celialat altchatcen dialaric çoung diren moyan segurac hara heltceco. Hartacoç counbeni dela jujatcen dit lehen beno lehen içan dadin imprimatia Jincouaren gloriagatic, eta çuberoua herrico fidel ororen profeitu eçpiritualagatic. Mauleco hirian baranthallaren laurguerren egunian, eta mila çaçpi ehun, eta berrogueieta hamassei guerren ourthian.

JAUREGUIZAHAR Mauleco Erretor eta Diocesaco Vicari Generala.

## IACOURC ALIARI.

HAUR duçula, ene iracourçale maitia, çouregatic çoure lengouagiala utçuli içan den librubat, çougn mundu ororen erranalia, eſcriptura ſainta berhecten delaric, beita, bere ſalbamentia eguin nahi dianaren, içaten ahal den libruric hobena, eta baliouſena; hartacoç ere eçtuçu heltu-bada batere haboro lengouagetara utçuli içan denic, (hagnbeſtera drano jouan içan duçu, ſokhorri eçpiritual hounen bat bederac bere herriari emaiteco ukhen dian nahicun e borchitça) arraçou horrec berac ſaldouatan deſira eraci deyo lan hounen eguiliari, bere herritar gachouer ſortcepeneneſco lengouagia baicic êçtakianer ſokhorri berauren emaitia, ouſteç Jincouaren bide herſian ebiltia, bere buriaren aphal etchekitia, mundiari guerla thai gabeçco-baten eguitia, eta celialaco imbeya ſaintubaten ukheitia, libru hounen medioç eçagut eraciric, bere ſalbamentiaren eguitera erakharriren çutian: bena bere flakheciaç loxaturic egon içan da thempora luçaç benturatu

gabe bere desircuntiaren complitcera.

Açkenecoç hargatic loxa houra garhaituric, arrebitu içan-da uscaraçco libru gachognon hounen arguiala aguer eracitcera, ousteç eci, ( noula haxarrebati beitaude gaiçac oro ) hartaric landa içanen den nourbait, harec hux eguin lutukianac chuchenturen, eta hobekiago haren lehen isseya eçariren dianic, edo beste çoumbait arguitarçun çouri, ene iracourçale maitia, emaitera ekharri içanen denic. Nitçaç dena beçambat, Jincouac balexa, enian ukhen beste dessegnic batere, haren gloria handiaren tcherkhatcia, eta çoure salbamentiari bide segurbaten eracoustia baicic, amourio propi traidore gachto harec pharteric batere ukhen gabe, çougn, ouhougn estalguneç estalgune nountic cer ebaxiren dian dabilambat beçala, guiçonen bihotcetan sarteen beita, hen obra houn ousté dutienen gaichtotceco, eta eçdeustéco, eta hetaric phacu ukhen behar lukienen her gal eracitceco.

Houra da altchaturaci çahar çougnitçac gabetu behar dugula apostoliac erraiten deicuna, ceren haren propitagia den beçala orhiaren hant, eta mingatç eracitceçoua: orobat uxu-den amourio

harec, laidable ouſte dutugun eguitatiac banitateçco aïciaç hant eracitcen dutialaric urrintçutcen beitutu, eta hen merechimentia oro eçdeuſetara erakharten. Houra-da guiçon çahar çougntçaç bilaici behar dugula apoſtolu berac manu emaiten deicuna, amourecatic guiçon berriaren beçtimenta houneç beçtituric bekhatu originaletic baratu çaicun khoçu gachto haren countre buhurtcen ikhas deçagun, eta goure mente orotan açken haxiala drano hari guerla eguiten. Houra-da hitç bateç exai eçaba ecin ikhouſten ahal dugunbat, goureki ſorthu, goureki hil behar dianbat, hartçaç cerbutchatcen-da eçpiritu gaichtoua goure bere laçouetan atçamaiteco, eta gouri eskien artetic eççapa eracitceco ſalbaçale adorabliac merechitu deiçun gloria eternala.

Arren cer dirokegu çuc eta nic, ene iracourçale kharioua, beſteric phenſa, baicic ere behar dutugula goure phenſamentiac beleratç etcheki, eta goure eguin ahalac oro bihotçtoiki emplegatu, hagn ikharagarri den, eta hagn eçabaki bere phoçoua barreiatcen dian exayaren countre, amourecatic gutan abantalla ukheiteço lutukian bidiac cerra diatçogun.

Lehen phenſamentu ukhen behar duguna da guihaurdanic eçkitakiala hagnbeſte itchoura hounen uduriaren pian gordatcen-den exayari buhurt, barneticco, eta campotico ſokhorriac gabe, ceren guihaurtan eçpeitirogu ediren flakecia, eçcaçkeria, eta eritarçun baicic. Barnet couac daude Jincouac bere gracia ſaintiaç eçpiritien arguitarçun, eta bihotcen gortharçun emaiten deiçunetan, çougnen merechitceco hanitch cerbutchatcen beitçaiçcu compoticouac.

Campotico horic aldiç daude exemplu houner jarraikitian eta libru hounen iracourtian. Elikidiçu eskietara eror ahal libru ſokhorri pouchantagoric eman litciroçunic, eciec hounec emanen beiteiçu. Eci batcen eta beſten ukheiteco moyanic hobena, eta llaburena bada ſant auguſtinec dioyan beçala, goure burien, eta Jincouaren ounxa eçagurcia. Etciniro, coumbat nahibeita tchercu eguinic, ediren libruric, hobeki eçagut eraci litciroçunic, çougnen goure enthelegu ororen gagnetico den Jincouaren içaria; eta çougnen ecin erran ahal beno aphalago-den goure eçdeuſtarçuna, goure flakecia, eta goure ajutu mengouá.

Har eçaçu arren har, ene iracourçale maitia, boçtario handircki, çuc orotan gainti çoure ſortcepeneſco lengouagia baicic eçtakiçuna, libru çoure cihauren eguin içan dela udurituren çaiçun haur. Hounen iracourtiareki batian aguerturen çaitçu, lehen gorderic egoiten ceitçun eſcaskeriac eta maculac, hetaric ſendotceco moyana edireiten duçularic. Heben orai drano cihaurtçaç ouſtekeria ſobera houn ukhen dutuçunen foundamen gabia eçaguturen duçu, hetarico ſoltantcharen Jincouari galthatceco. Heben çoure eçdeuſtarçuna çoumbatetara drano douen ſendituren duçu, çuc khurutche eta aphaltarçun baicic eçtuçula merechi ounxa ikhouſteco. Heben ikhaſſiren duçu, Jincouaganic baicic ecin egurukiten duçula, çoure ſlakecia gaiçkiala hagn erortoki denaren açcargarri eta ſendogarri moyan houn denic batere. Libru hounen eſcolec çoure eçpiritiari ſegurantça oſſobat emanen dicie, hobiago dela Jincouaren beguien aitcineco guiçon bekhatuç eſtaliric liçanbat ere, bena umilitatiaren handitarçuneç beguiac celialac goititcera ecin benturatcen denbat, ecieç ſuperbious bere hounki eguin hanitcheç phacu liçatian-

bat; ceren bere buriac aphal daduçcaner Jincouac hullandanic ſo ſeguiten beitu; gora daduçcaner aldiç eç hurrundanic baicic.

Eçtuçu balimba iheſſiric eguinen çoure arimari hagnbeſte abantalla ukhen eraci ahal dirouan iracourte baliouſari. Eç ſegur beçala nuçu cihaurec, ihourc erran ahal litciroçun beno hanitcheç hobeki, ikhouſſiren, eçaguturen, eta goçaturen dutuçula hountan edirenen dutuçun eguia ſaintiac. Has-cite ſolamentç boronthate oſſobateki, Jincouari çor dutuçun gaicen complitcian fidel içanen cirela: eta borogaturen duçu cihaur beithan cerbait hounialat boulcaturen çutianic, eta çoure bicioueç ahalketuric, hen countre houn diren conſellier behaturen cira, iſſeyatcen cirelaric her jarraikitera. Eçaguturen duçu orano ſegurki çoure debocionalatco hotçtarçuna khambiaturen dela, celialaco berotarçun ſaintu batetara; eta çoure gaiçkialaco enjoguidura herturen dela, eta hounialacoua, emendaturen.

Bena noula libru hounec iracourtu içan behar beilukc familia oſſouec hobekienic profeita ahal lirouen beçala, houn tiçale; hortaco, familiaco guehien iracour-

ten dakienec iracour lecen açcarki eguniancapitulubat goician edo arraxaldian, oroc entçun ahal liroyen beçala, michcandiec hagn ounxa, noula gagneraticouec; hel baledi aldiç lanen hanitchtarçunac eliroyen uxarteric eman, egun oroç eguin bide horren complicecо, elukeye behar amenx iganteric eç bestaric eitei igaraitera hoçcurru saintu hori bere arimer eman gabe.

Içanen da duda gabe çoumbait erraile, uscararen iracourteco usantcha gabiac gaitç, phenous, eta goço gabe guertha eraciren diala eguin bide horren complitcia, hori hala içanic ete haxarrian, guerouala bethi hertuç jouanen dira, ihour costumatcen den beçala, eta emeki emeki beste lengouagen iracourtia ikhasten den beçala hounena ere ikhassiren-da. Arraçou hori dela causa erregentec behar lukeye escolier uscara baicic eçtakianer libru hountan iracourten erakaxi. Guisa hortan gaitç uduri den gaiça ehituren da, eta goço eta profeitu hahororeki batbederac iracourturen-du berac enthelegatcen dian lengouagia. Eçtuçu arren estacuriarie batere ukheiten ahal, çoure arimari sokharri houn horren emaitetic guibeltcen ahal çutianic.

Cihauren barnetico eçagutcia har eçaçu jakiletaco, eïa ihourc erran ahal litcirocun beno hobeki eçtuçuneç ſendituren, libru hounen iracourtian bihotceco khambiamentiac bide chuchenian ebiltecо, eta Jincouaganatco deſirac haren complitukiago cerbutchatceco, eta eia hanitch orduç celuco inſpirarçunec etçutieneç bicikiago hounkiren, ecieç hanitch pheredicnren entcutiac. Mendrenetic amenx hori dateke iſſeyugnou hounen eguiliac Jincouari bere ſboto aphal beno apalagouetçaç çouretaco galthatūren dian gracia, amourecatic haren lan-eguina çoure arimaren ſalbamentutaco, eta Jincouaren gloriaric handienarentaco guertha ahal dadin hala biç.

Hitç çoumbaiten enthelegatcia neke çatekiala gente comunaren uduriturie, hen beren eçagutceco moyana jardiex ahal deçan amourecatic phena hartan datekianac, eçarti içan dira hollen çola çoumbaitetan, hen enthelega eraciteeco mengoua cirela ouſte ukhen dutugun arguiac.

Jesu-Kristen Imitacionaren laur Librietan diren Capitulien.

# TABLA

Edo çougn hollatan edirenen diren chifrla.

## LEHEN LIBRIA.

I. Cap. JESU-CRISTEN Imitacioniaç eta mundu houhtaco banitaten mesperetchiaç. 1
II. Bere buriaç sendimentu aphal baten ukheitiaç. 7
III. Eguiaren jakitiaç. 4
IV. Eguin behar diren gaicetan, cer aitcinetic ikhoussi behar-den. 23
V. Escriptura saintaren iracourtciaç. 14
VI. Estecamentu gaichtouetçaç. 16
VII. Esperantcha banouari, eta goratarçunari ihessi eguitiaç. 17
VIII. Nabastarre handieguier ihessi eguitiaç. 19
IX. Obedienciaç eta besteren pian içatiaç. 20
X. Elhe soberari gogoua emaitiaç. 22
XI. Bakiaren jardiestiaç; eta proseitatceco zelouaç. 24
XII. Gaiça nahi eçtugunen heitciaren abantallaç. 27

XIII. Tentacionen apaifatciaç. 33
XIV. Judicamentu temerariouari iheffi eguitiaç. 34
XV. Amourioç eguin içan diren obretçaç. 36
XVI. Befteren menxduren ounhcftiaç. 38
XVII. Comentietaco biciteiaç. 40
XVIII. Aita faintien exemplietçaç. 42
XIX. Fraideedo religous hounbatec eguin behar dutian obretçaç. 46
XX. Jehiltarçunaren, eta ihour gaoe içatiaren amourіouaç. 51
XXI. Bihotceco dolumenaç. 57
XXII. Guiçonaten miferien eçaguteiaç. 60
XXIII. Hilteiaren ardura gogouan ukheitiaç. 65
XXIV. Açken jujamentiaç eta bekhatoren phenetçaç. 71
XXV. Goure biciree ororen gaiçkitic hounialat utçulteiaç. 77

---

## BIGUERREN LIBRIA.

I. CAP. ESPIRITUCCO biciteiaç. 88
II. Jincouaren manu pian umilxi jartiaç. 93
III. Gniçon pherestu bakia maite dianaç. 95
IV. Bihotçaren chahutarçunaç, eta intencioniaren fimpletarçunaç. 97
V. Bere buriaren eçaguteiaç. 99
VI. Contcentcia hounbaten alagrantciaç. 102

VII. Jesusen gaiça ororen gagnetic maite ukheitiaç. 105
VIII. Jesukilaco adichkidegoua nabassiaç. 107
IX. Consolacione ororen gabeciaç. 111
X. Jincouaren graciari çor den eçagutciaç. 117
XI. Jesusen khurutchiaren maithaçalen aphurtarçunaç. 121
XII. Khurutche saintiaren erregue bidiaç. 124

---

## *HEREN LIBRIA.*

I. Cap. JESU-KRISTEC arima fidelari barnetic etchekiten dian elhestaç. 135
II. Othoitcen-du Jincoua bere bihotcian mintçatceen entçun deçan. 137
III. Umilitatereki behar diela Jincouaren hitçac entçun, eta hanitchec eçtuticla aski pheçatcen. 140
IV. Eguian eta umilitatian Jincouaren aitcinian bici behar dela. 145
V. Jincouaren amouriouac eguiten dutian gaiça miragarrieç 146
VI. Eguiaçco maithaçaliaren borogatciaç. 154
VII. Umilitatiaren beguiraren pian, graciaren estalteiaç. 158
VIII. Jincouaren aitcinian bere buriaren charretaco igaren eraciteiaç. 162

IX. Gaitec oroc Jincouaganat ; açken urthentcialat beçala, jouan eraci behar diela. 165
X. Gaiça eçtibat dela, mundia mespetetchaturic, Jincouaien cerbutchian içatia. 167
XI. Behar dutiala ihoure bihotceco desirac ounxa ikhertu eta chuchentu. 171
XII. Pacentciaren bere phuntiala eçartiaç, eta, araguiaren nahicunaen countre, borrocatciaç. 173
XIII. Jesu-Kristen exempliala, cerbutchari umilbatec ukhen behar dian obedientciaç. 176
XIV. Behar diela Jincouaren jujamentu estaliec luçaç pheçatu içan, guihauren obra houn oustec urgullusu eraci eçkitcen amourecatic. 179
XV. Noula egon, eta mintçatu behar den, gaiça desiratcen ahal diren orotan. 182
XVI. Jincouatan beraurtan behar dela tcherkhatu eguiaçco consolacionia. 185
XVII. Goure arrancurec oroc Jincouatan eçarri behar diela. 187
XVIII. Mundu hountaco miseriec behar diela pacentcia eçtibateki soferitu Jesu-Kristen exempliala. 189
XIX. Goitçarreuen ounheltiaç, eta nour eguiaçki pacient den, borogatciaç. 192
XX. Guihauren flacutarçunaren aithort-

eiaç eta mundu hountaco miseriet-
çaç. 195
XXI. Jincouatan phaussatu behar dugula, hountarçun, eta dohagn ororen gagnetic. 199
XXII. Jincouaren hanirch guisataco hounki eguinen orhitmentchaç. 204
XXIII. Bake handibat erakharten dien laur gaiçaç. 208
XXIV. Eçtela behar, sobera jakin-nahireki, besteren bicitcia tcherkhatu. 212
XXV. Certan dagouen bihotceco bake ossoua, eta eguiaçco arimaren profeitda. 213
XXVI. Eçpiritu libertatiaç goçateen denaren goratarçunaç, çougn ihourç merechitcen beitu, oracioniaç lehen, ecieç iracourtciaç. 216
XXVII. Guihauren amourio propiac, ecinago guibeltcen gutiala, hountarçun ororen gagnetic denaganic. 219
XXVIII. Mardalleren mihien countre. 222
XXIX. Noula thurburarçunaren jitiareki, jincouac othoitu, eta benedicatu behar dian. 223
XXX. Jincouaren sokhorriaren galthatciaç, eta graciaren arçara ukheiteco esparantchaç. 225
XXXI. Creaturen ororen eiçtiaç, Jereaçalia ediren ahal dadin amourecatic. 229
XXXII. Bere buriaren eiçtiaç, eta desircunte gaichto orotaric bilaiçtiaç. 233
XXXIII. Goute bihotçaren khambiacor iça-

tiaç, eta jincouaren açken intencione ukhen beharıdugunaç. 236
XXXIV. Maite dienaren goçoco dela jincoua, gaiça orotan, eta ororen gagnetic. 238
XXXV. Tentacioniaren countre eçtela segurantçaric bicitce hountan 2 1
XXXVI. Guiçonen judicamentu banouen countre. 244
XXXVII. Bere buriaren jincouari offoki eta purki emaitiaç, 246
XXXVIII. Campotico gaiçen gobernu hounaç, eta dangeretan jincouari herlatciaç. 249
XXXIX. Erreus ihour eçtadin içan eguitecouetan. 151
XL. Guiçonac beraurganic deus hounec eçtiala, eta eçtaitiala deusceçereglorifica. 252
XLI. Ouhoure themporal ororen mespeeetchiaç. 256
XLII. Guiçonetan eçtiala behar eçarri goure bakiac. 257
XLIII. Munduco jakite banouaren countre. 259
XLIV. Campotico gaicen eçagutcian eçtiala behar ihoure sarthu. 262
XLV. Eçtiela behar oroc sinhexi içan, eta çougnen chi den, ethesteran hux eguitia. 264
XLVI. jincouatan ihoure ukhen behar dian confidantchaç, goure countre erraiten diren elhen, ounhexteco. 268
XLVII. Gaiça greugarriec oroc, bicitce

eternalagatic, soferitu içan behar diela. 272
XLVIII. Eternitateco egunaç, eta bieitce hountaco miserietçaç. 275
XLIX. Bicitce eternalaren desiratciaç eta harat joua tera illeyatcen direner, çougnen hountarçun handiac dau-dian haiduru 280
L. Cer gu sagiguiçon eskerniatiac, jincouaren eskietan jarri behar dian. 287
LI. Obra aphaler ihoure estecatu behar diala gorenetart ecin helteen denian. 293
LII. Gu çonac ouste ukhen behar dialâ lehenago merechi dutiala açote colpiac, eciez consolacioniac. 294
LIII. Jincouaren gracia eçtela laxet lurreco gaicetan, goço harteen diekilan. 298
LIV. Graciaren, eta naturaren boulca ecin alkharreki compostatcen ahal direnetçaç. 301
LV. Naturaren gastatu içatiaç, eta jincouaren graciaren eguitate açcarraç. 308
LVI. Guihauren buriac eitci behar dutugula eta, Jesu-Krist, khurutchiaren kharreiatcian imitatu. 313
LVII. Guiçona eçtadin içan sobera descorajatu, çoumbait faltatara erotten denian. 317
LVIII. Gouretaco sobera gora diren gaicetçaç; eta eçtiela behar jincouaren jujamentu estaliec sobera chehe

tcherkhatu. 320
LIX. jincouatan berautan goure' esparantcha, eta confidantcha oro eçarri behar dugula. 327

## LAURGUERREN LIBRIA.

I. CAP. COUMBAT aphalmenture. ki jesu-Kristec errecebitu içan behar dian. 331
II. jincouac guiçonari sacramentu hountan hountarçun, eta caritate handibat eracousten diala. 346
III. Houn dela ardura comuniatcia. 350
IV. Debotki comuniatcen dienec haniteh hountarçun, jardiesten diela. 355
V. Althareco sacramentiaren handitarçunaç, eta aphec gouaren goratarçunaç.
VI. Galtobat, eïa cer eguin behar den comunionia beno lehen. 358
VII. Contcentcia propiaren ikherciaç, eta biciteeç khambiatcian, fermo içatiaç. 359
VIII. jesusec khurutchen gagnen eguin dian oberendaç, eta bere buriaren jincouaren eskietan eçartiaç. 364
IX. Behar dutugula goure buriac, eta guc dutugun gaiçac oro jincouari eskentu, eta orogatic houra othoitu. 366
X. Eçtiala ihoure arhinçki eitci behar comunione saintia. 371

XI. Ecinago Jesu-Kristen khorpitçaren, eta escriptura saintaren behar handibat diala arima fidelac. 376

XII. Jesu-Kristen errecebitceco behar diala ihourc arrancura handibateki adelatu. 383

XIII. Arima debotbatec behar diala bihotç ossoç teherxhatu sacramentu hountan Jesu-Kristeki juntatu içatia. 386

XIV. Jesu-Kristen errecebitceco çoumbait arima debotec-dien desir suçbethiaç. 389

XV. Graciaren debocionia ihourc jardiesten diala umilitatiaç, eta bere buriaren eçdeustiaç. 392

XVI. Goure beharruniac behar dutugula Jesusi eracouxi, eta gracia berauri galthatu. 395

XVII. Jesu-Kristen errecebitceco ihoure ukhen behar dian bihotceco desir handiaç eta amourio suç bestiaç. 398

XVIII. Eçtiala behar guiçonac sacramentu hounen, sobera jakin beharreki, ikherçale içan; bena bai Jesusen umilki imitaçale, fede sacratiaren pian, bere ikhoustia eçaten dielaric. 403

*Tablaren acabantça.*





# JESU KRISTEN IMITACIONIAREN LEHEN LIBRIA.

Bicitce eçpiritualaren houn eta profeitable diren abisiac.

---

## LEHEN CAPITULIA.

*Jesu Kristen Imitacioniaç, eta mundu hountaco banitaten mesperetchiaç.*

1 ENI jarraikiten dena eçtabila ulhunpian, dio Jinco-Jaunac; hoyec dira Jesusen hitçac, çougneç abisatiac beikira, behar dugula haren eguitatia, eta bicitcia * imita-

* Imitatcia erran nahi-da berce batec hitçoç eta obraç complitu dutian gaicen Jarraikitia, eta hen beren eguitia.

tu, nahi baguira eguiaçki arguitu içan, eta uxumentu orotaric escantçatu.

Goure arrancuraric handiena biç arren, Jesusen bicitciaren ardura eçpiritian uкheitia.

2. Jesusec eracousten deiçcun gaiçac, saintu ororenac beno baliousago dira, eta haren eçpiritia lianac, han editen liro * manna estalia.

Bena heltcen-da, ebangeliouaren ardura entçutiagatic, hanitchi etçayela bihotça hounkitcen, ceren eçpeitie Jesusen eçpiritia:

Nourc ere goçatu, eta ounxa enthelegatu nahi beitutu Jesusen hitçac, harec behar du isseyatu Jesusenaren araur bere bicitce ororen igaraitera.

3. Cer profeitu duçu Trinitatiaç hitçhandiric erraitia: Trinitatiaren gogoco eçpacira, umilitatiaren ukhen gabeç. Eguiaçki hitç handiec eçtie justoüa, eta saintia eguiten: bena bai bicitce berthutousac Jincouari кhario içan eracitcen.

Nahiago-dit bihotceco dolumena sen-

* Manna cen Jincouac judiouer desertian cirenian celutic jaix eracitcen cian haççurru miracullousbat, çougnec Sacramentu Saintiaren miracullia ordian danic segualatçen beitcian.

ditu, ecieç jakin, çougn hitceç enthelega eracitçen den.

Baceneki ere eſcriptura ſainta oro gogoç, eta filoſofo ororen jakitiac ; cer profeitu çunuke Jincouaren gracia eta amourioua gabe.

*Banitaten banitatia* dio çuhurrac *eta oro dira banitate*, ſalbu Jincouaren nˌite ukheitia, eta haren cerbutchatcia.

Haur-da çuhurtce handia, mundiaren meſperetchieç celuco erreſomalat joüaitia.

4. Banitatebat-da arren aberaſtarçun galdu behar dienen tcherkhatcia, eta hetan eſparantchà ukheitia.

Banitatebat-da orano ouhouren jardieſteco eguin ahalaren eguitia, eta bere buriaren goratcia.

Banitatebat-da araguiaren nahicunter jarraikitia, eta certçaç ere hagu garraçki ihourc gaçtigatu içan behar beitu, haren deſiratcia.

Banitatebat-da bicitce luçebaten nahi ukheitia, eta haren ounxa igaraiteç eç acholatu içatia.

Banitatebat-da bere gogouaren oraico bicitciareki eſtecaturic etchekitia, eta guero cer jin behar den aitcinetic eç ikhouſtia.

Banitatebat da laster beno lasterrago igaraiten den gaiçaren maite ukheitia, eta bethi iragnen dian alagrantcia hairduru daucunaren lekhiala lasterrecaç eç jouaitia.

Ardura orhit-cite erran çahar houneç, eçtela so eguiteç beguia assetcen, ecetare beharria entçuteç.

Isseya-cite arren, çoure bihotçaren gaiça ikhousten ahal direnen amouriotic soltatçera, eta ecin ikhousten direnetrat igaren eracitcera; eci araguiaren desirer jarraikiten direnec, contcentcià theyutcen dicie, eta Jincouaren gracia galtcen.

---

## II. CAPITULIA.

### *Bere buriaç sendimentu aphal baten ukheitiaç.*

I. GUiçon oroc naturalki jakitia desiratcen die; bena cer profeitu emaiten-du jakitiac, Jincouaren loxa gabe?

Jincoua cerbutçhatcen dian laborari umilbat hobiago-da duda gabe, ecieç filosofo urgulluxu-bat, çougnec bere ari-

maren arrancuraric ukhen gabe, celuco içarren lafterrac gogouatcen beitutu.

Bere buria ounxa eçagutcen dianac, beraurtçaç eçtu pheretchuric ukhenen, ecetare guiçonen laidoriouetan placeric harturen.

Nakitçan ordian munduco gaiçac oro, eçpalin banu * caritatia, cer balio luke jakite harec Jincouaren aitcinian, çougnec jujatu behar beinai ene gaiça eguinetan gagnen?

2. Eçtuçula hanitch jakiteco defircunte handieguibat, ceren barreiarçun, eta inganio handiric han edireiten beita.

Jakitoufec bere burien aguertçeç placer hartcen-die, eta çuhurrac deithu içateç.

Hanitch gaiça dira, çougnen jakitia arimaren aphur; edo batere eçpeita profeitable.

Ounxa-da centçu gabia, befte, falbamentiari baicic fo eçtaudian gaicer eftecatcen dena.

Elhe hanitchec eçtie arima affetcen, bena bicitce hounac bai enthelegurari

* Caritatia-da hirour berthute theologaletaric handiena çougntçaç jincoua maite beitugu gaiça ororen gagnetic eta proximoua goure buria beçala.

indar emaiten, eta contcentçia chahiac Jincoua beithan confidantchà handibat ukhen eracitcen.

3. Coumbatenaç haboro eta hobekiago beitakikeçu, hambatenaç garratçkiago jujatu içanen cira, saintukiago bicitcen eçpacira.

Etcitiala arren handious içan jakiteç, bateç ere: bena loxa ukhen eçaçu lehenago eman içan çaiçun eçagutciaç.

Uduri baçaiçu hanitch badakiçula, eta aski enthelegu houna duçula: halaric ere jakin eçaçu hanitcheç haboro direla çuc eçtakitçunac.

Eçteçaçula handiarena eguin, (bena aithor eçaçu lehenago çoure jakin gabia. Ceren nahi duçu çoure buria bestebat beno haborouago etcheki, denen gagnençu beno jakitousagoric hanitch, eta çuc beno hobeki leguia enthelegatcen dienic?

Nahi baduçu abantallouski cerbait jakin, eta ikhassi: maite ukheçu eç eçagutu içatia, eta çutçaç eç pheretchuric eguitia.

4. Bere buriaren ounxa eçagutcia, eta mesperetchatcia-da, jakiteric baliousena, eta gorena.

Bere buriaren aphur etchekitia, eta

besterenetçaç sendimentu hounic eta goraric ukheitia-da, çuhurtarçun, eta ounxatarçun handibat.

Ikhous baceneça ere bestebat aguerriç bekhatu, edo beste çoumbait itchoustarçunen eguiten: halaric ere etçunuke behar ouste ukhen, çu houra beno hobe cirela: cereneta eçpeitakiçu çoumbat themporaç hounian egon citakian.

Oro guira erorcor, bena eçtuçula ouste badela ihourere çu beno erorcoragoric.

## III. CAPITULIA.

### *Eguiaren jakitiaç.*

1. DOhaxu da eguiac berac, eç figura eta hitç igaraiten direm elibatec, bena bere beithan den beçala arguitcen diana.

Goure oustekeriac, eta goure * cent-

* Bost centçu dira çougn beitira ikhoustia, entçutia urrinstatcia, goçatcia, eta hounkitcia çougnec centçu comun hunian dagouenetic harteen beitutiebere propitagiac, eta arçara berriç hareganat utculteen bost sendimentu horien bat banaca gutan ediren eracitseco.

ciac aphur ikhousten-du, eta ardura inganatcen gutu.

Cer profeitu-da gaiça estalieç, eta eçagutu eçtireneç mintçatcia, eçtugunen gagen behar, açken judicioçco egunian, hen jakin gabeç laidoric ukhen.

Erhokeria handibat-da gaiça abantallous, eta behar direnetçaç casuric eguin gabe, bolontarcoki gaiça berritcepen ekharten eta damu baicic eguiten eçteikiener esteca guitian. Beguiac dutugularic eçtugu ikhousten.

2. Cer achola dugu filosofoüec genero eta espeça deitcen dutien hitcetçaç.

Nouri ere verbo eternala mintçatcen beita, houra hanitch oustekeriataric escantçutcen-da.

Gaiçac oro verbo hareç beraç eguin içan dira, eta oroc lengouage bera etchekiten die, eta haxarre houra-da gouri mintço çaicuna.

Ihourc ere houra gabe eçtiro, eç enthelega eç juja ounxa.

Cougnentaco orano gaiçac oro bat beitira, eta bat hartara oro erakharten, eta oro hartan, ikhousten beitutu, houra bihotç fermobatexi içaten, eta Jincouaren bakian egoiten ahal-da.

O Jinco eguià cirena, eguin naçaçu

bat çoureki caritate bethiiragnen dianian.

Debeiatcen nuçu ardura gaiça hanitchen eutçuteç, eta iracourtceç: çutan duçu nic nahi dudan, eta desiratcen dudan gaiça oro.

Ichil bite dotorac oro, mutu bite creaturac oro, çoure aitcinian: çu baicic eztakidala ihour mintça.

3. Coumbatenaç nourbait bere beithan sartcenago beita, eta bere bihotcian simpletcenago: hambatenaç gaiça haboro, eta handiagoric enthelegatcen du phena gabe: cereneta celutic entheleguiaren arguia ukheiten beitu.

Eçpiritu chahu, simple, eta fermoa bat eçta hanitch lanetan barreiatcen: cereneta oro Jincouaren ouhouretan eguiten beitutu, eta isseyatcen beita, berauri so daudian gaicetaric libraturic, phaussian jartera.

Cerc haboro destorbatcen, eta khecha eracitcen çutu, ecieç çoure bihotceaco erortokiduraren aski hil eraci gabiac.

Guiçon pherestu, eta debot batec campoian eguin behar dutianac, aitcinetic bere beithan ikhousten, eta alkharren oundouan eguiteco berheçten dutu.

Eta hec eçtie inclinacione biciousaren nahicuntetara erakharten; bena berac

plega eracitcen dutu hourac, arraçou-chuchenaren maniala.

Nourc-du borroca açcarragobat, ecieç bere buriaren goitcera isseyatcen denac?

Goure eguitecoric handienac içan behar luke, goure burien goitcia, eta egun oroçguiren beno indartsiago guerthatcia, eta hounian profeitu çoumbaiten eguitia.

4. Mundu hountaco gaiça complitienec oroc badie çoumbait eçcastarçun bercki nahastecaturic, eta goure eçpiritiaçco ikoustec oroc, badie çoumbait ulhuntarçun.

Cihauren eçagutce umila, Jincoua ganatco bide seguragobat ducu, ecieç barna beno barnago jakiten tchercatcia.

Eçta oguenic eman behar jakitiari, edo cernahibeita gaiçaren eçagutce simpliari, çougn beraurtan dagouelaric houn beita, eta Jincouaren maniaç eçarria: bena * contcentcia hounbat, eta bicitce berthutousbat bethiere hobiago-dira.

Bena noula haboro beitira jakitiari,

* Contcentcia-da guiçonac bere barnian eta ariman dian eçagutcebat, çougnec eracousten beiteyo eguiten dian, edo eguin behar dian gaiça houn edo gaichto dela.

ecieç bicitce hounari eftecatcen direnac; hartacoç ardura inganatcen dira, eta cafi profeituric batere, edo aphur baicic eçtie jardieften.

5. O balie hangnbefte arrancura bicioven çagnetaric idokitceco, eta bethutiaren hen plaçan eçarteco: noula beitie galto berriric eguiteco; eleite populian hagnbefte gaiçhtokeria eta * efcandal içan; ecetare comentietan hagnbefte lachukeria.

Gaiça fegura da açken judicioçco egunian etçaicula galthatu içanen, cer iracourtu dugun; bena bai cer eguin dugun; eç çougnen ounxa mintçatu guiren bena bai cougnen debotki bici içan guiren.

Erradaçu, noun dira orai, burçagui eta jaun bici cireno ounxa eçagutu çuntian hourac oro, eta fama handibat bere jakitiaç jardiexi cienac?

Beftec orai citicie hen carguiac, eta etcikit hen orhitmentcharic badieneç. Bici cireno uduri çuçun cerbait cirela, eta orai hitcic eçtiçu ihourc hetçaç erraiten.

* Efcandala-da edo befteri, edo berauri bekhatu eguiteco bidiaren eracouftia edo hartcia, eta exemplu eta hitç gaichtoenetçaç bekhatiala eror eracitcia.

6. Ala beita laster igaraiten munduco gloria! Jincouac balexa hen bicitcia, jakitiaren araur içan liçan! ordian cikecien ounxa iracourtu eta ikhassi.

Çoumbat dira mundian jakite banobateç galtcen direnac, çougnec Jincouaren cerbutchiaç acholic eçpeitie.

Eta umil beno lehenago handi içatia haitatcen beitie: hartacoç bere phensamentietan khebat beçala eçdeusturen dira.

Nourc ere caritate handibat beitu houra da eguiacki handi.

Nour ere bere beithan tchipi beita, eta ouhouriaren goratarçuna eçdeusentaco etchekiten beitu, houra-da eguiaçki handi.

Nourc ere lurreco gaiçac oro gorotça beçala etchekiten beitutu, Jesu Krist irabaç deçan amourecatic, houra da eguiaçki çuhur.

Eta ounxa-da eguiaçki jakitous, nourc ere bere boronthatia utciric, Jincouarena eguiten beitu.

## IV. CAPITULIA.

*Eguin behar diren gaicetan, cer aitcine-tic ikhoussi behar den.*

1. ECta behar elhe, eç phensamentu orori bere sinheſtia eçarri; bena gaiçac behar du luçaç eta abiſamentureki Jincouaren eretcian phecatu.

Elas ardura ihourc ſinheſten, eta erraiten du chikiago gaiçkia, ecieç houna beſterentaco, hagnbeſte guira ſlacu!

Bena gente complitiec eçtutie chignera ſinheſten elhe erraiñac oro: ceren beitakie guiçonaren ſlacutarçuna gaiçkialat ekharri, eta bere elhetan aski huxcor dela.

2. Cuhurtce handibat da, eguin behar diren gaicetan eç arhinegui içatia, eta berauren ſendimentietan eç gogorki egoitia.

Hari ſo dagouen phuntubat-da orano, çougn nahibeita guiçonen elhen eç ſinheſtia, eta entçun eta ſinhexi dutian gaicen, eç beſteri berhala arraerraitia.

Harçaçu çoure conſellia guiçon çuhur, eta contçenteiá maite dian bateki:

eta nahiago cirela, cihaur beno hobiago batec eracousten deitçun gaiçer, ecieç cihaurc ediren dutuçuner, jarraiki.

Bicitce hounac guertha eracitcen du guiçona çuhur Jincouaren eretcian, eta hanitch gaïçatan jakinxu.

Coumbatenaç guiçona bere beithan umilago, eta Jincouari manentago içaten beita: hambatenaç çuhurrago date bere eguiteco orotan, eta bakia hobeki ukhenen du.

---

## V. CAPITULIA.

*Escriptura saintaren iracourtciaç.*

1. EGuià, eç elhen edertarçunà, escriptura saintan behar da tchercatu.

Eguin içan den eçpiritu berian, iraçourtu ere behar du escriptura saintac.

Escriptura saintan profeitia lehenago, eçieç elhestaren goratarçuna behar dugu tchercatu.

Hagn gogo houneç behar dutugu iracourtu libru debotac, eta simpliac, noula goraki, eta jakitereki eguin içan direnac.

Eçteçaçula iskiribaçaliaren famari soric eguin, ala jakite tchipitaco, ala handitaco içan den; bena eguiaren berauren amouriouac iracourcera erakhar citçala.

Eçteçaçula galtha, nourc hori erraiten dian, bena gogüa emaçu, cer erraiten den.

2. Guiçonac igaraïten dira, bena Jincoüaren eguiac *b*ethi *i*raiten-du; Jincoua hanitçh maneriaç mintçatcen çaicu ihouren bereheçkeriaric eguin gabe.

Hanitchetan escriptura saintaren ircourtcian, goure sobera jakin nahiac nahasten gutu; nouicere ossoki enthelegatu, eta chehe ikhertu nahi beitugu simpleki sinhexi behar gunukian gaiça.

Nahi baduçu profeituric jardiexi, iracour eçaçu umilitate, simplicitate, eta fede ossobateki, nahi ukhen gabe jagoiti jakitous baten fama.

Galtha, eta entçun itçaçu gogo houneç saintien hitçac deus erran gabe, çaharren erranac etçaitçula desplaçent: eçi arraçouric gabe eçtutuçu erraniçan.

# VI. CAPITULIA.

## *Estecamentu gaichtoueçaç.*

1. CEr nahibeita guisaç, guiçonac cerbait gaichtoki desiratcen badu, berhala bere beithan erreus bilhatcen-da.

Urgulluxia, eta abariciousa secula eçtira phaussian jarten : eçpirituç aldiç praube, eta umil direnac, bake handibatetan daude.

Nour ere eçpeita orano bere buriari ossoki hil, berhala tentatu, eta garhaitu içaten-da, gaiça tchipi eta char elibatetan.

Eçpirituç flacu, eta cerbait guisaç araguiaten nahicunterara erortoki dena, nekeç daite lurreco desiretaric ossoki solta; eta hartacoç ardura dutu tristeciac hetaric hurruntcen denian, coleratcen ere da arhinçki, nahi diana eguiten etçayonian.

2. Bena desiratcen dian gaiça ukheiten badu, berhala contcenciaren theyu ukheitiac, sor eta pheçu guertha eracitcen du, cereneta jarraiki beita bere pas-

ſioniari, çougnec eçpeïteyo ajuturic emaiten, bake tcherkhatcen dianaren ukheiteco.

Arren paſſioner buhurtceç, eta hec nahi eçtiena eguiteç edireiten-da bihotceco eguiaçco bakia.

Eçta arren bakeric guiçon araguiari, eta campotico gaicer enjogui-den baten bihotcian; bena bai debocionia, eta gaiça eçpiritualac dutianarenian.

## VII. CAPITULIA.

*Eſparantchá banouari, eta goratarçunari iheſſi eguitiaç.*

1. BAnitatous-da, guiçonetan, edo creaturetan bere eſparantchá eçarten diana.

Eçtuçula ahalkeric; Jeſu Kriſten amourecatic beſteren cerbutchian içateç, eta mundu hountan praube uduriteeç.

Eçtuçula cihaurtan confidantcharic, bena Jincouatan eçar eçaçu çoure eſparantchá.

Eguiçu çutan dena, eta Jincouac çoure boronthate houna ſokhorrituren diçu.

Etcitiala fida çoure jakitian, eç çougn nahibeita guiçonen adrecian; bena bai lehenago Jincouaren gracian, çougnec umilac ajutatcen beitutu, eta bere burietan fidatcen direnac aphaltcen.

2. Etcitiala glorifica çoure aberaxturçunetan, hanitch balin baduçu, eccetare çoure adichkidetan, photerous direlacĉç, bena Jincouatan, çougnec gaiçac oro emaiten beitutu, eta berauren emaitia, gaiça ororen gagnetic desiratcen beitu. Etçitiala handi çoure khorpitçaren handitarçunaç, edo edertarçunac, çougn eritarçun tchipi batec gastatcen, eta itchousten beitu.

Eçteçaçula bihotcian har contentamenturic çoure adreciaç, edo eçpiritu ukheitiaç: beldurreç desplacer eguin deçaçun Jincouari, çougni çor. beitutuçu çuc dutuçun hountarçun naturalac oro.

3. Eçtuçula ouste bestiac beno hobe cirela; beldurreç gaichtouago baten igaren citian Jincouaren aitcinian, çougnec beitakitça guiçonaren barnian diren gaiçac oro.

Etcitiala urgulluxu çoure obra hounetçaç: ceren guiçonenac eç beçalaco beitira Jincouaren jujamentiac; cereneta hanitchetan guiçoner placer eguiten

dian gaiçac, desplacer equiten beiteyo.

Cerbait hounic balin baduçu, bestec badiela hobiagoric sinhex eçaçu, amourecatic umilitatia beguira deçaçun.

Damuric eztuçu ulhenen beste ororen pian çoure buriaren eçarteç: bena jar bacinte bakhoitç baten ere gagneeic, galtce handibat eguin ciniro.

Arima umilbat goçatcen da bake iraipous bateç: bena urgulluxiaren bihotcian ardura daude jeloskeria eta colera.

## VIII. CAPITULIA.

*Nabastarre handieguier ikessi eguitiaç.*

1. ECteçaçula çoure gogoüa hux nouri nahibeita, bena eguitçu çoure eguitecouac gente çuhurreki, eta Jinco beldurtieki.

Bekhanki içan cite gente gaçteki, eta herriç campocoueki.

Aberaxac etitçaçula lausenca, eta handien aitcinian etciti ala aguer plachereki.

Umileki eta simpleki, deboteki eta pherestieki içan cite ardura, eta hounia la erakharten dien gaicetçaç mintça cite.

Emaçte çoumbaiteki etcitiala nabassi

içan : bena comunian emaçte pherestiac oro Jincouari itçaçu gomenda.

Jincouareki beraureki, eta haren aingurieki nabasli içatia desira eçaçu, eta guiçonen eçagutciari ihessi eguiçu.

2. Ororentaco caritate ukhen beharda, bena eçta houn ororeki nabassi içatia.

Heltcen da çoumbait aldiç persona eçagutu eçten batec dian fama hounbat, eta eçagutu den beçagn sarri, ikhousliac greutcen beitutu.

Ouste dugù çoumbait orduç, bester placer eguiten dugula, heganat jouaitiaç, eta ordian hasten guira, her haboro desplacer eguiten ; ceren goure gaichtokeriac hobeki eçagutcen beitutie.

---

## IX. CAPITULIA.

*Obedientciaç, eta besteren pian içatiaç.*

1. GAiça handihat da obedientcian egoitia, guenhienbaten pian bicitcia, eta bere burçagui eç içatia.

Hanitcheç segurago-da guehiengouan beno, besteren manu pian egoitia.

Hanitch gente daude obedientcian

bortchaç lehen, ecieç amoure houneç, eta hec phena soferitcen die, eta arhinçki mourmouceyatcen dira.

Eta eçtie eçpiritiaren libertatia jardiexiren, Jincouaren amourecatic, bihotç osoç, besteren petico içateç content eçpadira.

Lasterca cite horrat eta hounat eçtuçu phaussia edirenen; guehien-baten goberniaren içate umilaren pian baicic.

Hobeki içan oustiac, eta lekhien khambiouac hanitch gente inganatu dutu.

2. Eguia-da, bat-bedera bere sandimemriaren araur, gogo houneç gobernatcen dela, eta ekharriago dela, bere sendimentuco direneganat.

Bena Jincoua goureki bada, bortchatu guira çoumbait orduç, goure sendimentiaren eiçtera; bakiaren ukheitia dela causa.

Nour-da aski çuhur, ororen osoki jakiteco.

Etcitiala arren sobera fida çoure sendimentiari, bena ikhas eçaçu bestenari behatcen gogo houneç.

Houn bada çoure sendimentia eta houra eiçten baduçu, Jincouaren amourecatiç, eta bestebati jarraikiten bacira, hantic haboro profeitu idokiren duçu.

3. Eci entçun diçut ardura erraiten a consselliari behatcia, eta haren hartcia segurago dela, ecieç emaitia.

Hel ahal daite orano bat bedareren sendimentia houn den: bena segnale-da ihour urgulluxu, eta buru gogor dela, besteren sendimentiari behatu nahi eçteniam, nouicere arraçouac eta gaiçac hala nahi beitie.

---

## X. CAPITULIA.

### *Elhe soberari gogoua emaitiaç.*

1. HUrrunt cite ahalaç guiçonen heroxetaric: eci munduco eguite couetan sartciac nahasten diçu ihour açcarki, nahibada intencione chahubateki erabil ditian.

Eci banitatiaren theyarçuna, eta escla bogoua berhala har eraciten dicucie.

Ourxa nahi nikeçu hanitchetan ichilic egon ninçan, eta guiçonen artian enintçan içan.

Bena ceren hagn gogo houneç mintçacen guira, eta alkharreki elhestatcen: contcenciari oguenic eguin gabe bekhanki arçara ichilic egoitiala utçultcen guirenen gagnen.

Hagn gogo houneç elheſtatcen guira, cereneta alkharren elheſtetaric, alkharren conſolacionia tcher khatcen beitugu, eta goure bihotça, hanitch phenſamentu ſouerteç ſorthaturic dagouena, arhintuche nahi beicunuke.

Goço handibat hartcen dugu, nouiecere mintçatçen beikira, edo phenſamentian igaraiten beitutugu, guihaurc hanitch maite, edo deſiratcen dutugun gaiçac, edo goure countre eçtirela borogatcen dutugunian.

Bena elas deus irabaci gabe ardurago: eci campotico conſolacione horrec damu handibat eretchekiten deyo, celutic bihotciala jiten denari.

Hartacoç iratçarriric, eta othoitcetan egon behar dugu, beldurreç themporà prfeituric gabe igaren deçagun.

Conbeni edo houn bada mintçatcia, erraçu houniala erakhar dirouan gaiça çoumbait.

Uſantcha gaichtouac, eta goure profeitiaç arrancuraric eç ukheitiac, mihia eçacholatuki erabil eraciteen deicu.

Hargatic orogatic gaiça eçpiritualeç debotki eleſtatciac profeitu eçpiritualian; ajutu handiric emaiten-du: orotan gainti, nouicere bihotceç eta eçpirituç

Jincouari bardin juntaturic daudianac, elhestatcen beitira.

---

## XI. CAPITULIA.

*Bakiaren jardiestiaç, eta profeitatceco zelouaç.*

1. BAke handibateç goça ahal guinteke, eçpagunu nahi bestec erraiten, eta eguiten dutien gaicetçaç, eta gouri so eçtaudianetçaç bihotça ocupaturic etcheki.

Noula thempora luçaç bakian egoiten ahal-da, besteren eguitecouetan sartcen dena campotico horrat-hounatcac tcherkhatcen dutiana? aphur edo bekhanki bere beithan sartcen dena?

Dohaxu-dira simpliac, ceren bake handibat ukhenen beitie.

Noulaç saintietaric çoumbait hagn debocionian barna, eta celuco gaicen hagn ikhousle houn içan dira?

Cereneta issiyatu içan beitira lurreco desircunte orotaric nekeç bada nekeç bere burien soltatcera eta hartacoç bihotçossoç Jincouari juntaturic çaudialaric, bere

contcentciari

contcentciari ſo çaudian gaicerthr ebucu-
tic gabe gogoua eman uknen ahal beitie.

Gu guihauren paſſionetçaç ſobera arrancuratcen guira, eta gaiça igaraiten diren elibateç, ſobera phenatan jarten.

Bekhanki orano bicio bakhoichbat oſſoki garhaitcen dugu, eta egun oroç profeitu çoumbaiten eguiteco ſuric eçtugu hartcen hartacoç ephel eta hotç baratcen guira.

3. Oſſoki goure burier hil baguinte, eta bihotcian eçpagunu nahaſcuraric baterе: ordian guintçake celuco gaiçac goça ahal: eta eçpiritia heganat goitituric etchekitia, cer den, cerbait guiſaç boroga.

Goure berhaçtapoguric handiena, eta oro da: ceren eçkiren paſſionetaric, eta nahicuntetaric ſoltatcen, eta ceren eçkiren iſſeiatcen, ſaintien bide hounian ebiltera.

Nahi eçtugun çumbait gaiça tchipi ere heltçen çaicunian, ſobera ſarri coragia galtcen, eta munduco conſolationetarat gogoua utcultcen dugu.

4. Guducan egoitera guiçon courajous elibat beçala iſſeïa baguinte: Jincouaren ſokhorria gutan gagna celutic jaiſten, dudu gabe, baroga guiniro.

Eci Jincoua, çougnec guihaurri guerla eguiteco bidiac emaiten beiteiçcu; garhait ditçagun amourecatic; prest-da, bere burier guerla eguiten, eta haren gracian esparantchà eçarri diaiten ajutatcera.

Campitico gaicen eta ceremonien beguiratcian baicic, goure erreligioniaren profeitia eçarten eçpadugu; goure debocionia sarri acabiren-da.

Bena, escripturac dioyan beçala, dugun egotch çagniala achcora colpia, amourecatic goure passionetaric chahaturic arimaren bakia goça deçagun.

5. Ourthe oroç bicio bakhotchbat çagnetaric idoki bagueneça, sarri complitu guertha guinteke.

Bena orai contrarioüa ardura borogatcen dugu, guisabateç noun, hounialat utçultcen hasten guirenian hobiago, eta chahiago edirciten beikira, ecieç hanitch ourthe debocionian igaren oundouan.

Emendatu behar luke egun oroç gu beithan debocioniaren, eta profeitiaren suyac: bena orai hanitch uduritcen çaiçu dela; nourbaitec lehen su hartaric beguiratcen ahal badu aphurbat.

Bortcha aphurbat haxarrian goure burier eguin bagueneça, guero gaiçac

oro ehiki eta alagueraki eguin ahal guinrçake.

6. Gaiça ufatien eitçtia greu çaicu bena greuago da orano, bere boronthatiari buhurtcia.

Bena gaiça tchipiac, eta ehiac goitcen eçpadutuçu; nouiç goithuren dutuçu gaitçagouac.

Bortcha eçaçu haxarrian çoure enjoguidura, eta ahatç eçaçu çoure coftuma gachtoua: beldurreç guida citçan emeki emeki nekecia handiago batetara.

O eçagut baceneça çougnen bake handia cihauri, eta befter çougnen alagrantcia handia eman cinirouan, çoure buriaren ounxa gobernatceç: oufte dit, profeitu eçpiritualaren arrancura haboro baçunukiala.

---

## XII. CAPITULIA.

### *Gaiça nahi eçtutugunen beltciaren abantaliaç.*

1. HOun da gouretaco çoumbait greutar un ukhen deçagun çoumbait aldiç, eta hel dakigun nahi eçtugun gaiçaric; ceren hanitchetan

guiçona bere beithan ſar eracitcen beitie, eçagut deçan amourecatic, mundian deſterraturic dela, eta eçt‹e›çan bere eſparantchà hanco ga‹i›cetan eçar.

Houn-da çoumbait orduç, ukhen deçagun goure ſendimentien countre jouaiten direnetaric, eta gutçaç ſinheſte char dienetarîc, çoumbatere goure intençioniac eta eguitatiac houn beitira. Hoyec ardura umilia eracitcen gutie eta banalo‹r›iatic beguiratcen.

Eci nouicere guiçonec gutçaç pheretchu aphur eguiten beitie, eta gutan eç ſinheſte hounic hartcen, ordian Jincoua goure bihotceco jakiletaco hobeki tchercatcen dugu.

2. Hartacoç guiçonac behar luke guiſabateç Jincouatan bermatu, noun elian behar beſteren conſolacione hanitch tchercatu.

Nouicere boronthate hounetaco guiçonbat thurburatu, tentatu, edo phenſamentu gaichtoueç atacatu beita: ordian eçagutcen-du Jincouaren beharra handiago diala, çougn gabe beitaki eçtiroualla hounkiric batere eguin.

Triſtetcen-da, haſperen eguiten-du, eta oracione erraiten ere badu ordian, ſoferitcen dutian miſeriegatic.

Ordian debeyatcen-da luçaçegui bicitciaç, eta desiratcen luke hiltcia jin lekion, amourecatic arimà khorpitcetic solta ledin, eta Jesu-Kristeki içan.

Ordian orano ounxa eçagutcen-du segurantcha, eta bake osobat mundian ecin içaten ahal dela.

---

## XIII. CAPITULIA.

### *Tentacionen apaisatciaç.*

1. MUndian bici guireno, eçkiteke thurburarçun, eta tentacione gabe içan ahal.

Hartacoç Job saintiaren librian iracourten dugu, guiçonaren lurren gagneco bicitcia tentacionebat dela.

Hori dela causa, bat-bederac bere tentacionetan gagnen, arrancurareki içan behar luke, eta gouaitan egon oracionetan: beldurreç, debriac, çougnec eçpeitu secula loric eguiten, eta unguru unguru beitabila, nour irex ahal dirouan, ediren deçan inganatceco artia.

Eçta hagn debot, eç hagn saintu denic, çougnec eçtutian çoumbait orduç

bere tentacioniac, eta hetaric erras gabe ecin içaten guira.

Tentacioniac hargatic guiçonaren ecinago abantallous arduran içaten dira: nahi bada greugarri çaitçon, eta phenagarri; ceren hetçaç umiliatcen, chahatcen, eta jakintsutcen beita.

Saintiac oro thurburarçun, eta tentacione hanitchetaric igaren içan dira, eta hetaric profeitu idoki ukhen die.

Eta tentacioniac ecin sustengatu ahal ukhen dutienac, erori içan dira, eta galdu seculacoç.

Eçta comentu hagn sainturic, eç lekhu hagn baçterric, noun tentacioniac, edo phenac eçtiren edireiten.

3. Guiçona, bici deno, eçta erras tentacionetaric solt içanen; cereneta bekhatu originalaren khocian sorthu guirenen gagnen, guihaureki kharreïatcen beitugu tentacionen uthurburia.

Tentacione, edo thurburarçun bataren jouaitiareki, bestebat jiten da, eta bethi ukhenen dugu cerbait soferitceco: eci goure dohaxutarçunaren hountarçuna galdu dugu.

Hanitchec tentacioner iheſſi eguitia tchercatcen die, eta hetara dolorousgiago erorten dira.

Isseiaç beraç ecin garhaitcen dutugu ; bena pacenciaç, eta eguiaçco umilitatiaç, exaïac oro beno aççarrago guerthatcen guira.

4. Achaletic baicic hurruntcen eçtenac, herroua idoki gabe, aphur profeitaturen-du ; tentacioniac berhala utçuliren çaitço, eta lehen beno gaiçkiago edirenen-da.

Hobekiago goithuren dutuçu (Jincouaren sokhorriareki batian) emeki emeki pacenciareki, eta luçaç egurukitiareki, ecieç cihauren buriaren countre gogortcen eta buhurtcen cirelaric.

Ardura conseillu har eçaçu, tentatu cirenian, eta eçteçaçula gogorki trata, tentacioniaç atacatu dena : bena consola eçaçu, cihauri eguin liçacien, nahi çunukian beçala.

5. Tentacione gaichtouen ororen haxarria-da goure eçpiritiaren khambiamentia, eta Jincoua beithan confidantcha aphurren ukheitia.

Cereneta, hala noula itchas mareac ountcibat horrat hounat erabilten beitu, gobernari gabe denian, guisa berian, tentacioniac hanitch guisaç iharraustendu, bere dessegn hauna ciçten dian guiçonbat.

Suyac borogatcen-du burdugna ; eta tentacioniac guiçon justoua.

Hanitchetan eçtakigu cer dirogun; bena tentacioniac eracousten deicu cer guiren.

Horregatic gogoua handibatetan egon behar da, orotan gainti tentacioniaren haxarrian; ceren chikiago exaya goithu içanen beita, eçpiritiaren borthan sartcera ihoulere eiçten eçpada, bena hela erran dian beçagn sarri, alharcetic campo jarri behar çayo.

Hartacoç çahar-batec erran ukhen-du haxarriac bara itçac; berantegui erremedioua adelatcen-duc, nouicere luçakeria handieç gaitçac çahartu beitirateke.

Eci lehenic eçpiritiala jiten-da phensamentu simplebat; guero imaginacione açcarbat, açkenecoç placera ; çotucu gaichtoua, eta baimentoua.

Eta manera hortan exai gaichtoua osoki sartcen-da, hari haxarrian music eman gabeç.

Eta çoumbatenaç luçaçago hari mus emaitera ihour lachatcen beita : hambatenaç flakiago egun oroç bere beithan guerthatatcen-da, eta exaya haren countre photerousago.

6. Batcec, conbertitcen hasten dire-

nian, tentacioneric gaitcenac soferitceri dutie, bestec açkencian, beste çoumbait aldiç bici diren thempora orotan hetçaç hounkiac dira.

Aski arhinçki çoumbait tentatu içaten dira, Jincouaren çuhurtarçunac, eta justotarçunac compostatu dian beçala, çougnec guiçonen hegnac, eta merechimentiac pheçatcen beitutu, eta gaiçac oro aitcinetic chuchen eçarten, bere haitatien salba eracitceco.

7. Hartacoç esparantchà eçtugu behar galdu, tentatu guirenian: bena hambatenaç su habororeki Jincoua othoitu behar dugu, amourecatic placer gutian goure tentacionian urgaitci, çougnec segurki, jondane phauleren erranaren araur, tentacionia garhait eraciren beiteicu, haren sustengatceco indarrac emaiten deiççularic.

Umilia ditçagun arren goure arimac, Jincouaren escu pian, tentacione eta thurburarçun ototan; cereneta eçpirituç umilac salbaturen eta goraturen beitutu.

8. Tentacionetan, eta thurburarçunetan cer den guiçona agueri-da; çoumbat profeitatu dian, eta hetan merechimentia handiago-da, eta berthutia hobeki aguertcen-da,

Eçta miracullu, guiçona debot, eta suç betheric bada, gaitcic senditcen eçtian themporan: bena pacient bada gaitcian denian, profeitu handibaten espa-rantcha içanen-da

Tentacione handietaric çoumbaitec beguiratcen dutie bere buriac, eta tentacione egun oroç heltcen diren tçhipietan ardura eiçten dutie garhaitcera: amourecatic umiliaturic, behinere bere beithan confidantcharic eçar eçtecen tentacione handietan, hagn gaiça tchipietan erorten direnen gagnen.

---

## XIV. CAPITULIA.

*Judicamentu temerariouari ihissi eguitiaç.*

1. CIhaurganat beguiac utçul itçaçu; eta gogoua emaçu, besteren obrac judica eçtitçatçun.

Besteren judicatcian, guiçona banoki triballatcen-da eta ardurago hux, eta bekhatu benial eguiten-du: bere buriaren juditcatcian aldiç: eta chehe ikerttcian bet'i abantallouski triballatcen-da.

Gaiçac bihortcian dutugun beçala,

herçaç ordinarioçki goure jujamentia ekharten dugu: eci guihauren amourio propi uxiac, eguiaç jujatcia ehignera gal eracitcen deicu.

Jincoua baliç bethiere goure desircuntiaren intencione chachia, eçkinteke hagn ehignera nahas, besten goure sendimentien countre jouaitiaç.

2. Bena arduran cerbait guihaur beithan gorderic bada, edo campotic jiten çaicu, çougnec bereganat thiratcen beicutu.

Hanitchec, eguiten dutien gaicetan, bere buriac gordalluç tcherçatcen dutie jakin gabe.

Uduri-da orano bake hounbatetan daudiala, gaiçac hen gogara jouaiten direno: bena nahi eçtien beçala heltcen badira, berahala sutan jarten dira eta tristetcen ere hai.

Aski ardura aharrac jaikiten dira adichkiden, eta herritarren, religiousen, eta deboten artian, sendimentu batetaco eçtirelacoç.

3. Costuma çaharra nekeç iraurc eiçten-du, eta eçtu placeric hartcen, berac ikousten dian beno hurrunago jouan eraci decen.

Goure arraçoun gagnen, edo adre-

cian haboro bermatcen bacira, ecieç Jesu Kristen berthutiari çor duçun obediencian, bekhan' i eta berant cirate guiçon arguitubat, ceren Jincouac nahi beitu arimà ossoki haren pian jar dadin, eta arraçou ororen gagnetic, amourioſuç bethe bateç goiti dadin.

---

## XV. CAPITULIA.

*Amourioç eguin içan diren obretçaç.*

1. MUnduco gaiça orogatic, eta nouren nahi beita maite ukheitia gatic, eçta behar gaiçkiric batere eguin; bena obra houn hassiac eitci behar-du çoumbait orduç phenaric gabe, edo hobiago batetara khambiatu, beharrian denari hounki eguitia gatic.

Eci horren eguitiac, obra houna eçtu galtcent, bena bai hobiago batetara khambiatcen.

Campotico obrac caritatia gabe deuſere eçtu balia; bena caritatiareki eguiten diren gaiçac oro, çoumbat nahi-beita tchipi, eta meſperetchatu diren, abantallous guerthatcen dira.

Eci Jincouac gogoua haboro emaitendu,

du, çoumbat amourioreki ihourc obra eguiten dian, ecieç obrari berauri.

2. Hanitch maite dianac, hanitch eguiten du, hanitch eguiten-du, ounxa eguiten dianac, eta ounxa eguiten-du, comunaren houna bere boronthatia beno lehen eguin nahi dianac.

Hanitchetan uduri-da caritatia bera dela, eta beitate araguiaren inſpirarçuna: ceren naturaren enjoguidura, guiçauren boronthate propia, phakiaren ukeiteco eſparantchà, eta goure khorpitcen aiſiaren nahicuntià bekhanki goure obretaric hurruntu nahi beitira.

3. Eguiaçco caritate oſſoua dianac deuſetan ere eçtu bere buria tchercatcen; bena beſteric eçtu deſiratcen, baicic ere gaiçac oro Jincouaren gloriataco içan ditian.

Jhouriere eçtu imbidiaric ekharten, ceren bere alagrantciaric batere eçpeitu maite, eta bere beithan eçpeita nahi alagueratu, bena Jincouatan gaiça houn ororen gagnetic dohaxu içatia deſiratcen-du.

Eçtu ſinheſten ihour-ganic hountarçunic batere jiten dela: bena bai oro oſſoki Jincouaganic, çougneganic uthurburu batetaric beçala tourrouſtac jaiſten

beitira, eta çougntan saintiac oro goça-
men handireki finalki phaustatcen beitira.
O nourc ere beiluke egun iaçco caritate
hartaric tchincabat, eçagut liro duda
gabe lurreco gaiçac oro banitateç bethe-
ric daudiala.

---

## XVI. CAPITULIA.

### *Besteren menxduren ounhestiaç.*

1. GUiçonac pacienki behar dutu
egari, bere beithan, edo beste-
tan ecin chuchentcen dutian gaiçac,
Jincouac beste çoumbait chuchentarçun
eman dirouan artio.

Phensa eçaçu heltubada hola hobe de-
la, çoure borogatceco, eta çoure pa-
centciarentaco, houra gabe goure mere-
chimentiac balio aphurretaco direlacoç.

Behar duçu hargatic phena horietaric
soltatciagatic Jincoua othoitu, placer
çutian sokhorritu, amourecatic eçtiki
egar ahal ditçaçun.

2. Nouicere nourbait, behin edo ber-
ritan abisatu içaneç gueroç, eçpeita be-
hatcen; eitçaçu hareki debadiotic ukhen
gabe; bena oro Jincouaren eskietan eçar

itçaçu, amourecatic ouhouratu içan dadin, eta haren boronthatia complitu, haren cerbutchari orotan; harec bacikiçu ounxa gaiçkien hounialat utçul eracitcen.

Isseia-cite besteren menxduren, eta cer nahi beita flakeciaren sustengatcera: ceren cihaurc ere hanitch beituçu, bestec ounhexi behar deitcienic.

Eçpadiroçu çoure buria eçar cihaurc nahi çunukian beçala; noula ukhen direçu bestebat cihauren gogaraco.

Bestiac gogotic nahi guintikeçu menxduraric gabe, eta haregatic guihaurenetçaç eçcutuçu bilainçten.

3. Nahi gunuke, bestec bere faltetan gaçtigu garratcic ukhen lecen, eta guihaurc gouretan ecin ounhesten diçugu batere.

Besteren libertate soberà etçaicu eder, eta hargatic etçaicu houn; music ukhen deçagun, galchatcen dugun gaiçan.

Nahi dugu bestiac tincaturic eguin biden chediaç egon ditian, eta guihaurc ecin ounhesten dugu bortcharic batere eguin diç guien.

Hortic arren eçagun-da clarki, çouguen bekhanki pheçatcen dugun goure proximoua guihaur beçala.

Oro balira complitu, cer gunuke Jincouaren amourecatic bestc ganic soferitceco.

4. Bena orai Jincouac guisabateç gaiçac eçarri dutu, noun na i beitu ikhas deçagun, batac bestiaren carguen egarten: ceren eçpeita ihourere macula gabe, ihourere carga gabe, ihourere besteren mengoua eçtenic, ihourere beretaco aski çuhur denic; bena behar dugu alkhar egari, alkhar consolatu, alkhar sokhorritu, alkharri eracouxi, eta alkhar abisatu.

Gagneran deusec ere eçtu hobeki eçagut eracitcen, çougnen handi den bat bederaren berthutia, noula desditchatu içatiac.

Eci jin beharreç eçtie guiçona flaca erracitcen, bena bai noulaco den eracousten.

## XVII. CAPITULIA.

### *Comentietacō bicitciaç.*

1. IKassi beharduçu, çoure buriari hanitch gaiçatan buhurtcen, bestekila nahi baduçu bakia, eta junto içatia beguiratu.

Eçta gaiça aphurra, comentietan, edo alkharreki bicitceco juntatcen direneki egoitia, eta han berian, plagnitceco arraçouric eman gabe, hil artio fidelki iraitia.

Dohaxu-da han berian bicitce hounbat kharreiatu diana, eta açkentce hounbat ukhen diana.

Nahi bacira behar den beçala egon, eta berthutian aitcina jouan, çoure buria bidejanbat, eta desterratubat beçala etcheki eçaçu lurren gagnen.

Nahi baduçu bicitce saintubat kharreiatu, behar duçu Jincouaren amourecatic, erho beitcina beçala içan.

2. Arropac eta khorouac aphur baliotaco dira, bena bicitceco manerien khambioüac, eta passionen osloki hil eracitciac, eguiaçco fraidia eguiten dicie.

Nourc ere, Jincouaç beraç, eta bere arimaren salbamentiaç campo, cerbait besteric tchercatcen beitu, harec eçtu thurburarçun eta dolore baicic edirenen.

Bakian ere ecin luçaç egoiten-da, tchipienic, eta beste ororen petico içatera, isseiatcen eçtena.

3. Cerbutchatcetco jin cira, eta eç gobernatceco: jakin eçaçu soferitceco, eta

triballatceco deitu içan cirela, eta eç elehestetan themporaren igaraiteco, eta aurher içateco.

Comentietan arren guiçonac borogatu içaten dira, hala noula urhia labe bero batetan.

Han ihour eçtauke, bihotç osloç Jincouaren amourecatic umiliatu nahi eçpolin bada.

## XVIII. CAPITULIA.

### *Aita saintien exemplietçaç.*

1. SO eguin eçaçu aita saintien exemplu bicier, çougntan eguiaçki complitu içatia, eta religioniaren goratarçuna, hagn beste arguireki agueri beitira, eta ikhoussiren duçu çougnen aphur; eta casi eçdeus den, cer ere guc eguiten beitugu.

Elas cer-da goure bicitcia, henarekilan bardintcen-bada!

Jesusen saintiec, eta adichkidec Jincoua cerbutchatu ukhen-die gossian, eta egarrian, hotçian eta picarraitarçunian, triballian eta egnhetcian, belletan, eta bagouretan, mihiçco eta ecpirituçco ora-

cione saintietan, hanitch falsun cargu eta mesperetchu igourtsten cielaric.

2. O çoumbat thurburarçun pheçuric soferitu dien Apostoliec, Martirec, Confessorec, Birginec, eta beste Jesu Kristen hatcer jarraiki nahi içan derenec oroc!

Eci arimac mundu hountan hugu ukhen dutie, bicitce eternaleco beguira litcen amourecatic.

Ala beitie aita saintiec desertian bicitce hersia, eta praubia kharreïatu! Ala beitie soferitu tentacione luceric, eta phenousic! Ala beitira exayaç ardura içan eskerniatu! Ala beitie Jincouari eskentu oracione ussuric, eta suç beroheric! Ala beitie penitencia garratcic eguin! Ala beitie zelo eta su handiric ukhen profeitu eçpiritualarentaco! Ala beitie guerla borthitcic eguin bere biciouen heçteco! Ala beitie Jincouaganat intencione chahia eta chuchena ukhen!

Egunaç triballatcen, ciren, eta gayac oraiconetan igaraiten çutien: çoumbatere triballatcen cireno eçpirituçco oracionetic eçpeitciren ekhuratcen.

3. Bere themporà oro profeitableki emplegatcen cien, eta orenac oro Jincouaren othoitceco llabur uduritcen ceitçen.

Celuco gaicen eçpirituç ikhousteç goçatcen ciren, eçtitarçunaren handitarçunac ahatç eracitcen ceyen khorpitçaren sustengatceco mengoua cien haçcurriaren hartcia.

Adio erraiten cien aberastarçuner, carguier ouhourer, eta ascacier orori: mundutic etcien deus desiratcen; phenareki, bicitceco behar ciren gaiçaç, hartcen çutien: dolureki mengoua cienian ere khorpitça sokhoritcen cien.

Praube ciren arren lurreco gaicetan, bena ecinago aberaxugracian eta berthutian.

Campotico gaiçac oro menx çutien, bena barnia graciaç eta celuco consolacioneç betheric cien.

4. Mundiaren exai ciren, bena Jinccuaren ecinago adichkide.

Bere buriac eçdeus beçala uduritcen ceitcen, eta mundu hounec mesperetchatcen çutian: bena Jincouaren aitcinian precious eta maithagarri ciren.

Eguiaçco umilitatian egoiten, obediencia simplebatetan bicitcen, eta caritatiaç, eta pacentciaç laguntuiric ciren: hartacoç berthutian egun oreç aitcina jouaiten ciren, Jincouaganic gracia handi ric jardiesten cielaric.

Religiouser orori exemplutaco eman içan dira, eta haboro corajatu behar gutie bicitce eçpiritualian borogu eguiteco, ecieç ephelen hanitchtarçunac goure lachukeriatan egon eracitececo.

5. O çougnen handi cen religiousen ororen Jincouaren cerbutchatceco suya, hen içate saintiaren haxarrian!

O çoumbat debocione cien oracionian! çoumbat imbeia, çougnec hobeki berthutiaren bessarcatceco! ala hen eguitatia beitcen ounxa compostatu! çoumbat eracouxi cien oroc aphalmentu eta obedientcia bere guehienen manu pian!

Eitci deitçkien herechac jakile dira orano, hourac cirela guiçon eguiaçki saintu, eta complitu cirenac, çougnec, bere burien countre guerla corajouski eguiten cielaric, mundia hougn petan eçarri beitcien.

Orai aldiç handitaco igaraiten-da, bere chediaren countre deus eguiten eçtiana, eta pacentciareki haitatu dian hegna sustengatcen ahal diana.

6. Ah goure themporaco hotçtarçuna eta lachukeria! hagn sarri hurrunt guitian lehen gunian debocione suç bethetic; eta goure egnhetciac eta lachutarçunac bicitceç debeïa eraci guitçan.

Jincouac balexa, deboten hanitch exemplu ikhous oundouan, goure berthutian aitcinatceco desira lo elagouen ardura.

# XIX. CAPITULIA.

*Fraide edo religious hounbatec eguin behar dutian obretçaç.*

1. FRaide edo religious hounbaten bicitciac behar-du, berthute orotçaç ederturic içan, amourecatic bere barnetic içan dadin, campotic guiçoner uduritcen çayen beçala.

Eta arraçoureki hanitcheç behar-du barnetic içan berthutousago, ecieç campotic uduri beita: ceren Jincouac goure barnia ikhousten beitu: eta behar beïtugu, noun nahi beita guiren, haren loxa ecinago umilbat ukhen, eta Ainguru elibat beçagn chahu haren aitcinian ebili.

Egun bakhoitçcal arraberritu behar dugu goure dessegn houna, eta emendatu goure debocioniaren suya; egun lehenic hasten beikina beçala, salbamentuçco bidian sartcen.

Erran behar deyogu ajuta naçaçu ene

Jinco Jauna, cihaurc eman deitaçun dessegn hounian, eta çoure cerbutchu saintian: emadaçu gracia, egun beharden beçagn ounxa has ahal nadin: ceren, orai drano nic eguin dudanac, eçpeitu deus balia.

2. Hounkiaren eguiteco bicitarçun handibat ukhen behar-du, (goure berthutian aitcina jouaitiaren, eta boronthate hounaren araur) bide hartan aitcinatu nahí denac.

Dessegn hounic, eta handiric hartcen dianac, hux ardura eguiten badu: cer içanen-da bekanki eta arhinçki hartcen dutianetçaç.

Hanitch guisaç hargatic heltcen çaicu, goure dessegn hounaren uçtia; eta goure obra houn costumatietaric mendrenian hux eguitia, cerbait damu gabe nekeç heltcen da.

Justouen dessegn houna bermatcen-da, lehenago Jincouaren gracian, ecieç beren çuhurtaçunian: ceren cer nahibeita eguiteco har decen, Jincouatan beitie bethi bere confidantchà.

Erran comunbat da, guiçonac dessegna hartcen diala, eta Jincouac hareç placer diana eguiten, eta eçtela guiconaren bidia haren photerian.

3. Debocione usatia çoumbait orduç ihourc uçten badu, obra hounbat eguin deçan amourecatic, edo bere anaiaren abantalla dela causa, ehignera guero arçara hartcen ahal-du.

Bena arimaren debeiarçuneç, edo lachukeriaç ihourc ehignera eiçten balin badu debocione houra, borogaturendu, falta aski handibat dela, eta damu hantic ukhenen diala. Goure isseïac çoumbat nahi beita handi diren, hanitch gaiçatan orano falta tchipietara eroriren guira.

Behar dugu hargatic bethi çoumbait dessegn seguric hartu, eta principalki, berhaçtapogu handienac emaiten deiçkien bicioüen countre.

Behar dutugu chehe tchercatu, eta compostatu goure barnian, eta campouan igaraiten diren gaiçac: ceren conbeni beita goure profeitu eçpiritualaren, batçac eta bestiac chuchen içan ditian.

4. Ecin bacite mementocal çoure buriaren eçagutcian sar, sar cite amenx çoumbait aldiç, eta gutienetic egunian behin, erran nahi beita goiçan edo arraxen.

Goiçan har itça u çoure dessegn hounac, arraxen ikher eçaçu çoure contcentcia,

ceentcia, noulaco içan diren egun hartan, coure hitçac, obrac eta phensamentiac : ceren heltubada hanitchetan çoure Jincoua eta proximo laguna hetan ofensatu beitutukeçu.

Armac har itçaçu guiçon corajous batec beçala debriaren gaichtokerien countre, eta ehignerago bridaturen dutuçu araguiaren enjoguidurac oro.

Etçaudiala secula deus eguin gabe, bena edo iracour eçaçu, edo içkiriba, edo othoi miliç, edo eçpirituç, edo cerbait, comunaren houn denic eguiçu.

Haregatic khorpitçaren triballiec eçagutcereki eguin behar die, eta oroc eçtutie bardinçki hourac hartu behar.

5. Comun eçtiren gaicec, eçtie campouan eracouxi behar : eci segurago - da, guihauri so daudian gaicen segretki eguitia.

Gogoua emaçu hargatic, herebeçti etciren camunaren gaicetan, eta cihaurenetan agudo : bena çoure eguin bidiari so daudian gaiça manhatiac ossoki eta leyalki eguin dutukeçunian, thempora haboro baratcen baçaiçu, sar cite cihaur beithan, çoure debocioniac galthatcen dian beçala.

Eçtitake oro gaiça batetan triballa : bena bata baten, bestia besten abantaillousago-da.

Themporaren ounxa jitiaren araur; debocionen khambiatciac ere placer eguiten deicu; ceren gaçço haboro edireiten beitugu batêtan besta egunec, eta bestêtan aitegunec.

Batcên beharrà dugu tentatu guirenian, eta bestêna bakian, eta phaussian guirenian.

Batcêtan goure phensamentiaren etchekitia dateke goure gogoco, triste guirenian, bestêtan aldiç Jincouaren alagrantciaç goçatcen guiratekianian.

6. Besta handien jitiari, arraberritu behar dira debocione hounac, eta saintien sokhorria su habororeki galdhatu.

Bestatic bestala hartu behar dutugu goure dessegn hounac, ordian mundu hountaric jaiki, eta eternitateco bestan sarthu behar beicunu beçala.

Hartacoç themporа saintu hetan behar dugu arrancurareki adelatu, debotkiago maneyatu, eta goure eguin bidia oro hersikiago complitu; berhala goure triballien soldata Jincouaganic ukhen behar beicunu beçala.

7. Eta luçatcen badu gouri haren emaitia, sinhex deçagun eçkirela aski ounxa adelatu, eta eçtugula merechitçen orano gloria hagn handi, themporа

segnalatian, gu beithan aguerturen-den houra: guitian arren isseia hilcciala hobeki adelatcera.

*Dohaxu-da cerbutcharia* ( dio Lucas Ebangelistac ) *cougn bere burçaguiac jin datekianian iraçarriric edirenen beitu, segurtatcen çutiet bere hountarçun ororen gagnetic eçar eraciren diala.*

## XX. CAPITULIA.

### *Ichiltarçunaren eta ihour gabe icatiaren amourioueç.*

1. TCherca eçaçu çoure bicitciaren chehe ikhertçeco thempora propibat, eta Jincouac eguin deitçun hountarçunetçaç orhit cite ardura.

Eitç itçaçu berrikeriac, iracour eçaçu gaiça bihotçaren dolumeneç, eguitecoç beno, hobeki bethatceco houn direnac.

Coure buria soltatcen ba luçu elhesta soberakinetaric, horrat hounat aurerhetan jouaitetaric, eta mundian berri lastercatcen direnen entçutetic, edirenen-duçu thempora aski propiric, eçpiritucco othoitcetan egoiteco.

Saintien handienac, guiçonen compagnetaric, ahal citianian, hurruntcen ciren, eta haitatcen cien, Jincouaren segretki cerbutchatcia.

2. Nourbaitec erran ukhen-du, guiçonen artian içan niçan ordu oroç, gutiago guiçon etcherat utçuli içan niç. Hori-da ardura borogatcen dugun gaiçabat, nouicere elhesta lucetan laket beikira.

Ehiago da erras ichilic egoitia, ecieç elhetan huxic eç eguitia.

Ehiago-da etchen gorderic egoitia, ecieç campouan bere buriaren behar den beçala beguiratcia.

Nour ere arren bicitce eçpiritualaren jardiestera isseiatcen beita, harec Jesuseki behar-du guiconen biltçarrunetaric hurruntu.

Ihour eçta segurarçareki aguertcen gorderic gogo hounec egoiten dakiana baicic.

Ihour eçta segurançaraki mintçatcen, placereki ichilic egoiten dena baicic.

Ihour eçta segurançareki besteren guehienja rten, besten pian gogotic egoiten dakiana baicic.

Ihourc eçtu seguranççareki manuric emaiten, besteri ounxa obedient içaten ikhassi dianac baicic.

3. Ihour eçta seguranççaraki alaguerat-çen, contcentcia hounbaten jakilegoüa bere beithan diana baicic.

Saintien ſegurantça hargatic, bethi Jincouaren loxaç betheric ican-da.

Eta çoumbatere gracia eta berthute handicç arguitu beitciren, etcien gutiago arrancura, eta umilitate bere beithan.

Gaichtouen ſegurança aldiç, urgullutic, eta bere burietan dien ſinheſtetic jalkiten-da, eta açkenian beren inganiotan utçultcen-da.

Eçteçaçula ſecula mundu hounten har ſegurantça oſſobat, çoumbatere fraide hounbaten,edo ermitha debot baten uduria beituçu.

4. Ardura guiçonec hobenic ouſte çutienac, galdu içateco dangeric handienian içan-dira, confidantcha handieguia bere burietan cielacoç.

Hartacoç hanitchen hobiago-da eçtitian oſſoki tentacioneric gabe içan, eta hen atacarçunac ſendi ditcen; beldurreç urgulliala eror ditian edo ere ſobera nabaſſiki campotico conſolacionetarat okher ditian.

O behinere alagrantcia igaraiten denbat tcherca elirouana, behinere mundu houneç caſuric eguin gabe legouena; ala beiloro harec bere contcentcia hounic beguira!

O nourc ere khen belitçake arrancu-

ra banouac oro, eta salbamentuco eta celuco gaicetan baicic gogoua eçarten elianac, Jincouatan bere esparantcha oro phaussatcen lialaric; ala beiliro harec bake eta phaussu handibat goça!

5. Ihourc eçtu merechitcen celuco consolacionia, ikhasten eçpadu bihotçtoiki, cer den barnetico dolumena.

Nahi baduçu bihotciala drano sar eraci çoure dolumena, sar cite cihaur beithan, eta aparta itçaçu munduco heroxac, escriptura-saintac diouan becala; *cien ohetan iratçarriric etcheki eçacie bihotceco dolumena.* Çoure chochan barnen edirenen duçu, campouan hanitchetan gal cinirouana.

Chocha ardura han egoiteç eçti guerãthatcen-da, gaiçki aldiç beguiratcen denian, debeïa eracitcen gutu; hounialat utçultcen hasten cirenian, ardura han egoiten bacira, eta houra ounxa beguiratcen baduçu, gueroualat maithagarri çaikeçu, eta edirenen duçu han consolacione ecinago maithagarri denbat.

6. Arima debotac profeitatcen-du, ichilic eta phaussian dagouelaric, eta ikhasten dutu escriptura saintaren segretiac.

Han edireiten dutu nigarren tourroussac, cougntçaç gai oroç bere buria cha-

hatcen eta garbitcen ahal beitu: amourecatic bere creaçaliaren hambatenaç adichkidiago guertha ahal dadin, çoumbatenaç munduco herox orataric hurrunago egoiten beita.

Nour ere othian bere eçagunetaric, eta adichkidetaric hurruntcen beita, hareganat Jincoua bere aingurieki hullanturen-da.

Hobe-da gorderic egoitia, eta bere arimaç arrancura ukheitia, ecieç hareç casuric eguin gabe miracullu eguitia.

Gaiça laidablebat-da bekhanki camporat jalkitia, bere buriaren eç eracoustia, eta beste guiçonen ikhoussi nahiric eç ukheitia.

7. Ceren ikhoussi nahi duçu, ecin justoki ukheiten ahal duçun gaiça? mundia igaraiten-da, eta haren desirecuntiac.

Araguiaren imbeyec passeia eracitcen gutie, bena orenbat igaren denian, cer hantic ekharten duçu, contcentciaren pheçutarçunbat, eta bihotçaren barreiarçunbat baicic.

Jalkite alaguera batec, utçultce tristebat arduran erakharten-du, eta arrax arguibatec biharumen goiç ulhunbat.

Guisa berian araguiaren alagrantciac oro eçtiki sartcen dira; bena açkenian

ussukiten die eta hil eracitcèn.

Cer ikhous diroçu bestetan, heben ecin ikhous diroçunic? haur duçula celia eta lurra, eta elementac oro, eci hetaric gaiçac oro eguin içan dutuçu.

8. Cer bestetan ikhous ahal diroçu ekhiaren pian luçaç iraiten ahal dianic?

Ouste duçu heltubada assieciaturen cirela, bena hortara ecin heltcen ahal cira.

Gaiçac oro çoure aitcinian ikhous cintçakian ordian, cer liçate bista banobat baicic.

Goiti itçaçu coure beguiac Jincouaganat, eta othoi eçaçu pharkha ditçaçun çoure bekhatiac, eta çoure lachukeriac.

Eitç itçaçu gaiça banouac gente banouer, eta çoure gogoua etcheki eçaçu Jincouac eman deitçun manier.

Cerra eçaçu cihaurtan gagna çoure bihotçeco bortha, eta dei eçaçu cihaurganat Jesus çutçaç maithatia.

Egon cite hareki çoure chochan, ceren eç peituçu bestetan hagn bake handibat edirenen.

Jalki içan eçpacina, eta eçpaçunian deusere berrietaric ikhassi, hobekiago egon cinantekian bake hounbatetan: benaberrien ikhasten placer hartcen hassiç gueroç, hantic behar diçu çoure bihot-

çac tharburarçun çoumbait soferitu.

---

# XXI. CAPITULIA.

*Bihotceco dolumenaç.*

1. NAhi bacira debocionian aitcina jouan, Jincouaren loxà bihotcian ukhen eçaçu, eta eç çoure burian sobera libertate eman: bena brida itçaçu çoure centciac oro, eta etcitiala enjogui içan erhokeriaçco alagrancietara.

Costuma cite, bihotceco dolumenaren maite ukheitera, eta edirenen duçu debocionia.

Bihotceco dolumenac aguer eracitcen dicuçu hanitch hountarçun, lachukeriac berhala gal eracitcen beiteiçcu.

Estonagarri-da, noula guiçona secula mundu hountan ossoki alagueratcen ahalden, ounxa eçagutcen badu bere desterriaren lekhia, eta çoumbat dangereç unguraturic dagouen haren arima.

2. Goure bihotceco arhintarçunac, eta phetchen lachukeriaç ounhestiac, eçteiçcu uçten senditcera arimaren doloriac: hartacoç ardura banoki erri eguiten dugu, nigar justoki eguin behar guniukian themporan.

Eçta, eç libertate eguiaçcoric, eç alagrantcia hounic, contentcia chachu Jincouaren loxà danian baicic.

Dohaxu-da, burreiarçunaren erakharliac apartatcen, eta bere bihotçà dolumen ſaintu bateç biribilcatcen ahal diana.

Dohaxu-da bere contcentcia theyutcen, edo pheçutcen dien gaiçac oro, bereganic hurruntçen dutiana.

Corajouski guerla eguin eçaçu, coſtuma houn bateç gaichtobat garhaituren duçu.

3. Balin badakiçu guiçonen eiçten, hec çu eitciren çutie nahi duçunaren eguitera.

Beſteren eguitecouetçaç eçteçaçula har eçagutceric, eta gente handienetçaç phuru eçtuçula arrancuraric.

Cihaurtan gagnen etchekaçu bethi beguia, eta beſte perſona maite dutuçunac oro beno lehen, orhit eraci eçaçu çoure buria bere eguinbidiaç.

Etcitiala triſte, guiçonen ſuſtenguiaren ukhen gabeç: bena haſperen eguin eçaçu çeren etciren gobernatcen, Jincouaren cerbutchari batec, eta fraide debot batec behar lukian beçagn beſte arguireki, eta hountarçuncki.

Arduran hobiago, eta ſegurago da, guiçonac eçtian mundu hountan conſolacione hanitch, principalki araguiari ſo daudianetaric.

Guihaurc dugu faltà, eçpadutugu celucouac ukheiten, edo bekhanki borogatcen badutugu: ceren campitico baſouac eçpeitutugu oſſoki eiçten, ecetare bihotceco dolumena tchercatcen

4. Eçagut eçaçu eçtuçula merechitcen celuco conſolacionia; bena bai lehenago thurburarçun hanitch.

Nouicere guiçona bihotceco dolumenian oſſoki ſarthu beita, ordian mundu haur oro greugarri, eta kharax çayo.

Guiçon phereſtu batec dolumenian ſartceco, eta nigar eguiteco aski beharrune edireitendu.

Eci ala deçan bere buria ikher, ala bere proximoua ikhous, badaki heben ihour ecin biciteen dela thurburarçun çoumbait gabe, eta çoumbatenaç herſikiago bere buria ikhertcen beitu, hambatenaç dolumena handiago duke.

Goure bihotceco dolumenaren, eta haſperen juſtouen beharruniac dira, goure bekhatiac eta bicitouac, cougntçaç guiſabateç unguraturic beicaude, noun bekhanki phenſamentian celuco

gaiçac etchekiten ahal beitugu.

5. Orhit bacinte ardurago hiltciaç ecieç biciaren lucetarçunaç, duda gabe su habororeki hounialat utçul cinteke. Bihotcian ere erabil bacintça ifernuco, edo purgatorioco jin behar dien phenac; ouste dit gogo houneç triba hala, eta doloria sustenga cintirouala, eta garatçtarçunen batenere loxaric etçunukiala.

Bena ceren gaiça hoyec bihotcialat eçpeitira igaraiten, eta orano n aite beitutugu eçtitarçunac: harracoç hotç eta ollokı herabeçti egoiten guira.

6. Hanitchetan eçpiritiaren flakeciac, khorpitç miserable haur plagni eracitçen-du hagn arhinçki.

Othoi eçaçu arren umilki Jincoua; eman diçaçun bihotceco dolumenaren eçpiritia, eta erraçu profetareki. *Haç maçaçu, Jauna, negarren oguiaç, eta nigarrac bere doyan edan eraciçadatçu.*

---

## XXII. CAPITULIA.

### *Guiçonaren miserien eçaguteiaç.*

1. NOun nahibeita ciren, nourat nahibeta jouan citian, miseriaç betheric

betheric cira, Jincoua ganat eçpacira utçultcen.

Ceren nahaſten cira, eguitecouas coure gogara jouaiten eçpadira? nourda gaiça oro berac nahi dutian beçala dutiana? eç çu, eç ni, ecetare lurren gagnen guiçonic batere.

Eçta mundu hountan guiçonic, phena, edo thurburarçun gabe denic, liçan ordian erregue, edo aita ſaintu.

Cougn da hobekien-dena? duda gabe Jincouagatic cerbait ſoferi ahal dirouana.

2. Hanitch flacuc dioye, ſoycie çougnen bicitce houna kharreiatcen dian guiçon harec; çougnen aberax, çougnen handi, çougnen photerous eta gora den.

Bena goiti eçaçu çoure gogoua celuco hountarçunetarat, eta ikhouſſiren duçu, houn themporal hoyec eçtirela deuſere, ecin iraiten diela, eta placer beno haboro phena emaiten diela; ceren ecin ſecula arrancura, eta loxa gabe goçatu içaten beitira.

Eçta guiçonaren dohaxutarçuna, houn themporalen mucurri gaintica ukeitia, bena aski du bere doyaç.

Eguiaçco miſeriabat-da, lurren gagnen bicitcia.

Coumbatenaç guiçona bicitce eçpiritualari estecatiago nahi beita ; hambatenaç mundu hountaco bicitcia kharaxago guerthaturen çayo ; ceren hobeki sendituren beitutu, eta clarkiago ikoussiren bere bihotç gastatiaren phetchac.

Eci jatia, edatia, bellatcia, lotcia, phausatcia, triballatcia, eta gagneraço naturaren beharrunen pian içatia, eguiaçki miseriabat-da, eta tristeciabat persona debot-baten, çougn gogotic solt nahi beiliçate içan bekhatu orotaric.

3. Eta eguiaçki, mundu hountan, khorpitçaren beharruniac pheçu handibat dira, guiçon saintuki bici nahi denarentaco.

Hartacoç profetac Jincoua othoitcendu, placer dian hetaric soltatu, erraiten deyolaric. *Libra naçaçu Jauna ene beharrunetaric.*

Bena desditchatu dira, bere miseria eçagutcen eçtienac, eta desditchatiago orano, bicitce miserable, eta gastatu haur maite dienac.

Eci hagn beste çoumbaitec houra bessarcatcen die, ( çoumbatere nekeç bicitceco behar dutien gaiçac tribeilatceç, edo amouina galthatceç uheiten beitucic, ) noun heben bethi bici ahal balite,

eçpeilukeye Jincouaren erresomaç acholic batere.

4. O arima infidel, eta centçu gabiac; çougn lurreco gaicetan hagn barna beitaude, noun eçpeitie goçoric hartcen, araguiaren gogaraco diren gaicetan baicic.

Bena miserabliac orano bere açkentcian senditurен die garraçki, çouguen char eta eçdeus-den, hec maite ukhen dien gaiça.

Saintiec, eta Jesu-Khristen adichkide dabotec oroc aldiç, eçtie gogouaric eman araguiari placer eguiten cien gaicer, ecetare mundu hountan fama handi ciener, bena hen intencionia, eta esparantchà oro, benoç beno benoçago eternitateco hountarçunetarat hedatcen-cen.

Hen desira oro goiti igaiten cen, gaiça ecin ikhous, eta bethi iragn behar dienetarat: beldurreç mundu hountaco gaicen amouriouac pe hountarat thira litçan.

5. Eçtuçula nahi berthutian aitcinatceco esparantcha galdu, ene anaye maitia, orano baduçu thempora, eta thenoria houn duçu.

Ceren nahi duçu biharumeniala igorri çoure dessegn houna. Jaiki cite, eta instantian has cite; eta erraçu, orai duçu

cerbaiten eguiteco, orai duçu guerla eguiteco themporà, orai duçu hounialat utçulteeco oren houna.

Nouicere phenetan, eta thurburarçunetan beitcira, ordian duçu, cerbaiten merechitceco themporà.

Behar duçu sutic, eta houretic igaren arrafrescoua ukhen beno lehen.

Cihauri bortcha eguiten eçpaduçu, eçtuçu biciouá garhaituren.

Khorpitç erorcor haur kharreiatcen duguno, eçtiteke içan bekhaturic gabe, ecetare bici debeiarçun,eta dolore, gabe.

Gogo houneç har guiniro, miseria orotaric phaussia: bena bekhatiaç galduç gueroç innocencia, lurrian ecin ukheiten dugu eguiaçco dolhaxutarçuna.

Hartacoç pacentcia ukhen behar dugu, eta eguruki Jincouaren mesericordià, inikitate haur igaren dadin artio, eta *biciac hiltcia irex deçan artio.*

6. Ala beita guiçonen flakecia handi, eta bethi biciouetarat erortoki!

Egun cofessatcen dutuçu çoure bekhatiac, eta bihar arçara eguiten dutuçu bekhatu berac.

Orai hartcen duçu gogoua emaiteco dessegn houna, eta oren baten burian ari cira, dessegnic batere hartu eçpeitçunu beçala.

Arraçoureki arren guihaur umiliatcen ahal guira ; secula banitateric hartu gabe, hagn erorcor, eta lerracor guirenen gagnen.

Lachukeriac ere gal eraciteen ahal deicu, graciaren moyaneç, nekeç tribailu handireki, jardiexi gunian gaiça.

7. Cer içanen-da gutçaç açkencian, haxarretic gora hagn ephel guirenian.

Ala beikira desditchatu, houla phaussialat nah baguira arrimatu, bakia eta segurantça beicunu beçala! çoumbatere, goure bicitce orotan, saintutarçunaren herecharic batere eçpeita agueri.

Ounxa beharrá gunuke, orano berriç eracoux liçaguien bicitce houna, comentietan sarthu berrier beçala : jakiteco baliçatianeç, goure hounialat khambia eracitceco cerbait esperanchá, eta gouri berthatian çoumbait profeitu handiagoren eraguiteco.

## XXIII. CAPITULIA.

### *Hiltciaren ardura gagouan ukheitiaç.*

1. THempora llaburretan barnen çourekiiancouac eguin dikeçu ; so eguin eçaçu, eïa noula ciren cihaur

beithan: egun guiçona agueri-da, eta bihar eç, eta beguien aitcinetic jalkiç gueroç, gogotic ere berhala jalkiten-da.

Ala beita guiconaren bihotça lamphux, eta gogor: oraico gaicer baicic eçteçan gogouaric eman, eta jin behar direnac eçtitçan hobeki ikhous!

Egun hil behar beitçunu beçala, go-bernatu behar çunuke, çoure obra, eta phensamentu orotan.

Etçunuke hilteiaren loxa handiric çoure contcentciá chahu baçunu.

Hilteiari beno, bekhatier iheffi eguitia hobe lukeçu.

Egun preft eçpacira, noula cirate bihar, biharco eguna eçtuçu fegur, eta cer dakiçu, eïa çouretaco datekianeç.

2. Cer profeitu-da, luçaç bicitcia, hounialat aphur utçultcen baguira?

Elas! bicitce lucebatec eçtutu bethi goure faltac hertcen; bena bai arduran emendatcen.

Jincouac balexa, egun bakhoitç bateç, ounxa bici içan guinen mundu hountan!

Hanitchec hounialat utçuliç gueroçco ourthiac khountatcen dutie; bena hobetu direla, hargatic eçta hambat eçagun.

Çoumbat n hi beita ikharagarri den hilteia, heltubada damugarriago dukeçu, luçaç bicitcia.

Dohaxu-da, bere hilteiaren orena bethiere beguien aitcinian etchekiten diana, eta egun oroç ounxa hiltcera adelatcen dena.

Ihour ikhoussi baduçu behinere hiltcen, orhit cite, bide beraurtaric behar dukeçula igaren çuc ere.

3. Goiçan ouste ukhen eçaçu, etcirela arraxiala helturen.

Eta arraxa jin datekianian, eçtuçula ouste, bihiarumen goiciala helturen cirela.

Içan cite arren bethiere prest, eta bici cite guisabateç, noun hiltciac etcitçan ouste gabian atçaman.

Hanitch subitoki, eta improbistki hiltcen dira, eci Jincouaren semiac, gutienic ihourc ouste dianian, jin behar-du.

Açken oren houra jin datekianian, beste sendimenturic ukheiten hassiren cira, çoure bicitce igarenaç, eta dolore handibat ukhenen duçu, çoure eçacholatarçun, eta lachukeria oroçaç.

4. Ala beita dohaxu, eta abisatu, orai bicitcera isseiatcen dena, hiltceco orenian ediren nahi liçatian beçala!

Eci mundiaren ossoki mesperetchatciac, berthutetan aitcina jouaiteco desirçunte suç bethiac, gaicen chede hou-

nian eçarteco amouriouac, penitenciaren tribailliac, obendienciala berhala prest içatiac, bere buriaç casuric eç eguitiac, eta Jesu-Khristen amourecatic cer nahi beita gaitceen soferitciac, emanen deye hiltce hounbaten eguiteco confidantcha handibat.

Ossagarritan cireno, hanitch obra houn eguiten ahal duçu; bena eritu ciratekianian, etcikit cer eguinen ahal duçun.

Aphur eritarçunetaric hobetcen dira, orobat bidage hanitchetan dabiltçanac, bekhanki saintutcen dira.

5. Eçteçaçula confidantcharic har çoure adichkidetan, eta ascaci hullanetan, ecetare gueroualat igor çoure salbamentia: ceren çuc ouste duçun beno lehen ahatceren beitcira guiçoner.

Hobe-da orai, ordia houn deno, bilkhura eguitia, eta celialat çoumbait obra hounen aitcina igortia, ecieç besteren sokhorrian esparantcha ukheitia.

Eçpalinbaduçu orai çoure buriaren arrancuraric, nourc ukhenen-du guero çouretaco.

Orai dira memento ecinago preciatiac, orai dira salbamentuco egunac, orai-da thempora gouretaco houn dena,

Bena elas do'u erag iingarri-da! eçtcçaçun hobeki emplega themporа, çougntan bicitce eternala merechi ahal beitciniro!

Jinen duçu ordia, çougntan egunbat, edo orenbat desira beitciniro, hounialat utcultceco, eta etcikit ukhenen duçuneç.

6. Eïa bada ene maitia, ikhous eçaçu, çougnen danger handitic, eta çougnen loxá ikharagarritic libra diroçun, çoure buria, orai loxan, eta hiltciaren beldurrian biciteen cirelaric.

Isseia cite orai guisabateç biciteera, noun hiltceco orenian loxa beno habo-ro alagrantcia ukhen ahal deçaçun.

Ikhas eçaçu orai mundiari hiltcen, ordian has citian Jesu Kristeki biciteen.

Ikhas eçaçu orai gaicen ororen mesperetchatceen, ordian Jesu Kristeganat threbucu gabe jouan ahal citian.

Orai penitenciaç gaçtiga eçaçu çoure khorpitça ordian confidantcha segurbat ukhen ahal deçaçun.

7. Ah erhoua; ceren phensatcen duçu luçaç biciren cirela, egun seguric batere eçtuçunen gagnen.

Ala beitira hanitch, bicitce lucian inganatu içan direnac, eta ouste gaberic

arimac khorpitcetaric jalki çaitcenac!

Coumbatetan entçun duçu erraiten, halacoua arma colpu bateç hil içan dela, houlaçoua itho cela, batac lekhu gorabatetaric eroriric buria hauxe ciala, bestiari jaten celaric haxa jalki ceyola, eta bestiac jokhatcen celaric bere açken haxa thiratu ciala.

Batçac suyaç, bestiac armetçaç, bestiac uçurriaç, bestiac ouhougnkeriaç mundu hountaric bestialat jouan içan dira, eta hala ororen açkentcia hiltcia da, eta guiçonen bicia, itçalbat beçala, behala igaraiten-da.

8. Nour çutçaç orhituren-da, çu hil ciratekianian, eta nourc Jincoua othoituren-du çouregatic.

Eguiçu eguiçu orai, ene maitia, eguiten ahal duçuna oro: ceren eçpeitakiçu nouiç hilen ciren, ecetare cer hil oundouan jarraikiren çaiçun.

Thempora duçuno bil itçaçu aberastarçun ecin hiltcen direnac.

Salbamentiaren baicic eçteçaçula phenmenturic uken, ecetare arrancuraric, Jincoaren gaicetçaç baicic.

Eguitçu orai adichkidiac, saintiac ouhouratcen, eta hen obrac imitatcen dutuçularic; amourecatic bicitce hountaric

jalki ciratekianian, hec egoite eternaitian batçarre hounbat eguin diçacien.

9. Bidejanbat, eta arrotçbat beçala lurren gagnen çoure buria etch kiteçaçu, eta munduco eguitecouetan acholic ukhen behar eçtianbat beçala.

Begbira eçaçu çoure bihotça, arrancurgric gabe, Jincouaganat goiituric; ceren eçpeituçu heben egoite bethi iraiten dianbat.

Harat çoure othoitciac, eta egun oroz eguiten ducuçun hasperenac eta nigarrac igor itçaçu; amourecatic çoure atimac, hil oundouan, Jincouaganat dohaxuki garaitia merechi deçan-hala biç.

---

## XXIV. CAPITULIA.

*Açken jujamentiaç eta bekhatoren phenetçaç.*

1. SO eguiçu, gaiça orotan, çoure açkenciari, eta cer guisaç, egonen ciren juge garratç haren aitcinian, çougnentaco eçpeita deus estaliric, çougnn presenteç, eçpeita apaisatcen, eta çougnec eçpeitu, gachotcen direneç, casuric eguiten; bena justo dena jujaturen beitu.

O bekhatore e ho, eta ecinago misérable içana! cer ihardexiren duc, Jinco hire bekhatiac oro dakitçanari; ikhara agouenen gagnen guiçon khechu-den baten aitcinian?

Ceren eçtuc aitcinetic ilhousten, eç-tela ihour açken judicioçco egunian besteren, eç gachotciaç, eç sustengatceiaç baliaturen, bena bat bedera aski carga handia datekiala beraurentaco.

Orai hire tribaillia balious duc, hire nigarra Jincouac hountaco harturen dic, hire hasperenari behaturen duc, eta hire doloriac arima sendoturen, eta garbituren deic.

2. Eguia ki pacient den guiçon batec, heben Purgatorio handi, eta baliousbat igaraiten-du: nouicere, laidouen ounhestiareki, haboro dolore beitu, besteren gaichtokeriaç, ecieç bere laido hartciaç, çougnec beraui gaiçki eguilen, Jincoua gogotic othoitceen beitu, eta bihotcetic faltac pharcatceen, çougnec pharcamentu esketceco, beranke iric eçpeitu eguiten, çougn ekharriago beita, bester dolu eguitera, ecieç bere buriaren khecha eracitcera, çougn bere buriari bortcha eguiten dialaric, issesiatceen beita, eçpiritiaren nahicunte-

tara

tara, araguiaren ossoki erakha-tera.

Hobe-da orai, bekhatien chahatcia, eta biciouen trencatcia, ecieç guero chahatceco eiçtia.

Eguiaçki goure buriac inganatcen dutugu, araguiaren dugun amourio gaichtouaç.

3. Cer besteric su harec irexiren-du, çoure bekhatiac baicic.

Çoumbatenaç hobeki orai, çoure buriari maniac eguiten beitutuçu, araguiaren nahicunter jarraikiten cirelaric; hambatenaç luçaçago phenetan içanen cira, eta erre içateco suguei habororen bilteen aricira.

Certan ere guiçonac bekhatu eguin beituke, hartan berian garratçkiago gaçtigatu içanen-da. Han herabeçtiac suçco akhullu elibateç akhullatu içanen dira, eta gormantac gosse eta egarri handibateç eskerniatu.

Han luxurious ac, eta placeren maithaçaliac phike hourtuç, eta sofre urrintçuç flambatu içanen dira, eta hor errabiatu elibatec beçala, doloriaren handiç, tchampa eguinen die imbidiousec.

4. Bicioric eçtate batere, bere phena souertja eçtukianic.

Han urgulluxiac ahalkeç hourturen

dira, eta abariciousac praubecia ecinago miserable batec tincaturic etchekiren dutu.

Han oren bakhoitç baten phená mingarrago date, ecieç heben ehun ourtheren penitencia ecinago garratça.

Han damnatiec eçtie ukhenen, eç phaussuric, eç consolacioneric batere: heben amenx uxarte çoumbait ihoi..c çumbait orduç ukheiten-du, eta adichkiden consolacionetçaç goçatcen-da.

Orai arrancura, eta dolumen çoure bekhatietçaç ukhen eçaçu; amourecatic, açken judicioçco egunian, celialat jouan behar dieneki, seguranrçan içan citian.

Eci, ordian iustouac corage handi bateki aguerturen dira, dolore, eta phena soferi eraci deyenen countre.

Orai umilki besteren jujamentien pian dagouena, ordian aguerturen-da besten jujatceco.

Ordian praubiac, eta umilac confidantchá handibat baduke, eta urguiluxia cantou orótaric ikharaturen-da.

5. Ordian agueri içanen-da, Jesu Kristen amourecatic erho, eta mesperetchatu içan dena, cela, eguiaçco mundu hountáco çuhurra.

Ordian thurburarçun pacenc areki

ſoferitiac placer eguinen du, eta *inikitatiac eçtu ahoua idekiren.*

Ordian gente debotac alagueraturen dira, eta gaichtouac triſteturen.

Ordian alagueraturenago-da ihour, araguiaren penitenciaç heciç, ecieç bethi bochi houneç ha i ukhen balin balu.

Ordian beçtimenta charrac eder dirateke, eta ederrac ulhun.

Ordian laidaturenago-duçu chocha tchipi charbat, ecieç gaçtelu urrheſtatubat.

Ordian pacentcia fermobatec haboro placer eguinen-du, ecieç munduco photere oroc.

Ordian goraturenago-da obediencia ſimplebat, ecieç mundu hountaco finaciac oro.

6. Ordian alagueraturenago-du contcentcia chahu, eta hounbatec, ecieç fiſloſofiaren jakitc barnac.

Ordian haboro pheçaturen-du aberaxtarçunen meſperetchiac, ecieç mundu hountaco genten ororen treſaurac.

Ordian haboro conſolacione dukeçu, Jincouaren ounxa othoituç, ecieç coure khorpitçaren bochi houneç haciç.

Ordian haboro placer dukeçu, ichilic egoneç, ecieç elhe hanitch erraneç.

Ordian haboro balia dikeçie obrá saintiec, ecieç hitç ederki erranec.

Ordian bicitce hersia, eta penitencia garratça maithagarriago dukeçu, ecieç lurreco placerac oro.

Ikhas eçaçu orai min tchipien soferitcen, ordian handiagouetaric libratu içan ahal citian.

Heben lehenic boroga eçaçu, cer soferi diroçun guero. Ecin badiroçu hagn min tchipiric sustenga, noula soferituren ahal dutuçu thormentu eternalac.

Hagn soferitce tchipiac orai erreus eracitcen baçutu, cer eguinen die ordian ifernuco phenec?

Ecin eguiaçki bi alagrantcia ukheiten ahal duçu, mundu hountan placer hartcia, eta guero Jesu Kristeki erregue içatia.

7. Egun hountara drano bethi ouhouretan, eta placeretan bici içan balin bacina; cer profeitu hetaric idoki ciniro, instant hountan hiltcia hel balekiçu.

Oro dira arren banitate, Jincouaren maite ukheitia, eta haren cerbutchatcia salbu.

Eci, çougnec ere Jincoua bere bihotç oroç maite beitu, harec eçtu loxaric eç phenen, eç açken jujamentiaren, eç

iferniaren : ceren amourio complitiac Jincouaganat ſegurantçareki hullanc eracitcen beicutu.

Bena eçta miragarri hiltciaren, eta Jincouaren juiamentiaren loxá badu, bekhatian orano laket denac.

Houn duçu hargatic, amouriouac ecin orano gaiçkitic hurrunt eracitcen baçutu, amenx, ifernuco loxác bara eraci citçan.

Bena Jincouaren loxáç caſuric eguiten eçtiana, eçta thempora luçaç hounian egonen ahal; bena debriaren laçouetara llaburski eroriren-da.

---

## XXV. CAPITULIA.

### *Goure bicitze ororen gaiçkitic bounialat utçultciaç.*

1. JIncouaren cerbutchian, gouaitan beitcina beçala, eta arrancurareki, bici cite, eta fraide bacira, orhit citce, ceitera jin ciren, eta ceren mundia kitatu duçun.

Etçuniana hori eguin, Jincouareki bicitceco, eta guiçon eçpiritualbat guertha cintian amourecatic.

Ukhen eçaçu arren çoure profeitiarentaco su handibat, ceren thempora llaburretan barnen, çoure triballien phakia ukenen beituçu; eta eçtukeçu haboro çoure ungurunetan, eç loxaric, eç doloreric.

Aphurbat orai triballaturen cira, eta edirenen duçu phaussu handibat, edo hobeki erraitera, alagrantcia bethi iragnen dianbat.

Leyalki, eta sureki, çoure eguinbidiac eguiten badutuçu, eçtuçu dudaric, Jincoua leyal, eta aberax içanen dela, çouri hayen phakiaren emaiteco.

Behar duçu esparantcha hounbat ukhen, helturen cirela celuco gloriala, bena eçtuçu behar segurantçaric hartu; beldurreç herabeçti, edo urgulluxu guertha citian.

2. Guiçonbat behin loxaren, eta esparantçaren artian, erreuski duda bateç, ceri egon leitian ecin hairatuç, ardura çagouelaric eskerniaturic, tristeciaç acabiric, aldibateç eliçabatetan, althare baten aitcinian belhauricaturic, oracionetan jarri içan cencioualaric bere beithan phensamentuç: o nic orai baneki, ene açkentciala drano, hounian iragn behar dudala; eta berhala Jincoua;

ren ihardestia bere bihotcian entçutendu houlache: eta hori baceneki cer eguin nahi çunuke? eguiçu orai ordian eguin nahi çunukiana, eta segurantça ossobatetan içanen cira.

Eta berhala consolaturic, eta açcarturic Jincouaren boronthate saintiaren pian jarri içan cen, eta haren duda, horrat hounat çarabilana, baratu içan cen.

Etcian nahi ukhen curiouski tcherkatu, guero jin behar ceyonaren jakitia; bena haboro arrancura ukhen cian jakiteco, cer cen Jincouaren boronthate houna, eta hari placer eguiten ceyona, bere obra houn ororen hasteco eta acabatceco.

3. Jincouatan ukheçu esparantchá, eta eguiçu hounki, dico profetac, *çaude lurren gagnen, eta haci içanen cira haren aberastarçuneçaç.*

Gaiç batec hanitch gente bere profeitutic, eta khambiamentu debot batetaric, hurrunt eracitcen dutu, çougn beita nekeç baicic ecin eguiten denaren loxá, eta bere buriaren garhaitceco hartu behar den phená.

Eta eguiaçki, çougnere corajouskiago isseiatcen beitira, greu çaitçen, eta

hec nahi beçala eçtiren gaicen, garrhaitcera; hec bestec oroc beno haboro profeitu berthutetic idokitcen die.

Eci çoumbatenaç guiçonac bere buria garhaitcenago, eta eçpirituç hil eracitcenago beitu: hambatenaç hobeki Jincouaren bidian jouaiten da, eta gracia handiago baten ukheitia merechitcendu.

4. Bena oroc eçtie bardin indar, bi gaiça horien eguiteco.

Haregatic orogatic, zelo eguiaçco bateç hounkiric denac, nahibada dian passione haboro, hobeki berthutian profeitaturen du, ecieç obra hounetarat hotç denac, nahi bada dian içate ounxa chedatubat.

Bi gaiça berheciki houn dira, hounia a[illegible]ul erecitceco; bere buriaren indarreki soltatcia, enjoguidura gaichtouac okher eraci nahi lukian gaiçatic, eta çougnere hountarçunen ihourc haboro mengoua beitu, hari su handireki jarraikitia.

Cer ere bestetan hanitchetan itchoussi beitçatçu, hetaric hurruntcera, eta cihauren corajouski baguiratcera, issçia cite.

5. Lekhu orotan çoure profeitia edi-

een eçaçu, guisabateç noun, exemplu houn çoumbait ikhousten, edo entçuten duçunian, her jarraikiteco suç betha citian.

Cerbait gaichtoric ikhousten baduçu, gogoua emaçu hagnbeste eguin eçteçaçun, edo çoumbait orduç eguin balin baduçu; lehen beno lehen hartaric chahatcera isseia cite.

Besteren falter çuc gogoua emaiten duçun beçala, bestec ere çourer bere aldian gogoua emaiten dicie.

Ala beita eçti, eta maithagarri, fraide debot, eta suç bethen, bere chedia ounxa beguiratcen dienen ikhoustia!

Ala beita triste eta greugarri, bide gaichtouan douatçanen ikhoustia, çougnec eçpeitutie beguiratcen, hen içatiari so daudian chediac!

Ala beita damugarri, bere içatiari so daudian gaicen lachukeriaç uçtia, eta arrancuraric ihourc uken behar elukianetarat, bere gogouaren eçartia!

6. Orhit cite, hartu duçun dessegu hounaç eta beguien aitcinian ukhen eçaçu Jesu crucificatu içan denaren imagina.

Ounxa ahalkeç bethatcen ahal cira, ikhoussiric Jesu Kristen bicitcia, cerea

eçtuçun orano haboro isseïu eguin, haren guisa bicitceco, çoumbatere thempora luçaç, Jincouaren bidian içan beitcira.

Religious gogoua, eta debocionehandireki salbaçaliaren bicitce, eta passione ecinago saintian bere eçpiritia etchekiten dianac, han asseciareki edirenen dutu gaiça houn, eta behar dutiacac oro, eta eçtu behar, Jesuseç campo, deus hobiagoric tcherkhatu.

O Jesus crucificatu içan dena, goure bihotciala jin baledi; ala beikintçake bertan ikhas, gaiça jakin behar dutugunac oro!

7. Religious debot batec manu emaiten çaitçonac oro ounxa hartcen, eta eguiten dutu.

Religious hotç eta eçacholatu batec thurburarçuna thurburarçunen gagnen du, eta cantou orotaric harsiduraç unguraturic dago; ceren eçpeitu barnetico consolacionia, eta eçpeitçayo sori campoticouaren tcherkhatcia.

Religious bere chedetic-campo bici dena, hanitch fa tatara eror ahal daite.

Lachukeriala, eta aisala ekharri dena, bethi hersiduretan içanen-da; ceren batcec, edo bestec desplacer eguinen beiteye.

8. Noula eguiten die hagn beste beste religiousec, çougn aski hersiki bici beitira bere comemuco chediaten pian. Bekhanki jaikiten beitira, ihour ikhoussi gabe bicitcen, praubeki haçten, oihal lodiç beçtitcen, hamtch triballatcen, aphur minçatceen, luçaç beillatcen, goicic jaikiten, oracioniac emendatceen, ardura iracourten, eta gaiça orotan chuchenki bere chedia beguiratceen beitie.

So eguin eçaçu * capouchi, cordolies, eta beste comentu louertetaco fraider, eta serorer, noula gai oroç jaikiten diren, Jincouaren laidoriouen khantatceco.

Hartacoç itchoussi lukeçu, çu herabeçti içan cintian, hagn obra saintu batetan; hagnbeste religious Jincouaren laïdoriouen khantatceen hasten direnian.

9. O beste gaiçaric eguiteco eçpagunu, goure Jincouaren aho eta bihotç oroç laidatceia baicic!

O mengouaric eçpaçunu, eç jateco,

* Beste religious souerte elibaten plaçan capouchi eta cordelies eçarri içan-da, ceren goure herrico populu chehiac hoyec hobeki eçaguteen beitutu-eciç originalian icentatu direnac.

eç edateco, eç loric eguiteco: bena ahal ceneçan bethi Jincoua laida, eta debocioneçco gaicetan baicic etcintian egon: ordian hanitcheç dohaxiago cinante, eçieç orai khorpitçari, cer nahi beita behar dela causa, manien eguiten çaudiano.

Jincouac balexa, halaco beharrje eliçan, eta arimac behar lutian errekeitiac gogouan ukhen guintçan, çougn elas aski bekhanki goçatcen beitutugu!

10. Guiçona creaturari bateri ere consolacioneric eç galtatceco phuntiala heltu denian; ordian lehenic Jincouaren ounxa goçatcen hasten-da, cer nahi beita guisaç eguitecouac eguin ditian.

Ordian eçtu, eç gaiça handiac alagueraturen, eç tchipiac tristeturen; bena bere confidantcha ossoua Jincouatan eçarten du, çougn beita haren oroua orotan: eta çougni eçpeita deus galtcen, eç hiltcen, bene gaiçac oro harentaco bicitcen dira, eta haren maniala berhala obedient dira.

11. Orhit cite bethi çoure açkentciaç, eta thempora galdia eçtela berriç utçultcen.

Eçtutuçu secula berthutiac jardiexiren, arrancura handiric ukheneç, eta ounxa gogoua emaneç baicic.

Lachatcen

Lachatcen haſten bacira, berhala gaiçki edirenen cira.

Debocioniari aldiç emaiten bacira, edirenen duçu baхe handibat, eta çoure phená arhinago ſendituren duçu, Jincouaren gracia, eta berthutiaren amourioua dela cauſa.

Guiçon debot, eta arraheinbat gaiça ororen eguitera preſt da.

Haboro phena-du, bicioüen, eta paſſionen countre indarcatciaç, ecieç khorpitçaren lanetçaç, icert eracitciaç.

Falta tchipier iheſſi eguiten eçtiana, handietara emeki emeki eroriren-da.

Arraxen bethiere alaguera içanen cira, baliouski eguna emplegatu baduçu.

Cihauren eguitatetan gagnen gogoua handibat emaiten duçularic, bici cite, çoure buria coraja, eta abiſa eçaçu, eta cer nahibeita den beſtetçaç, etcitiala cihaurentaco eçacholatu içan.

Çoumbatenaç bortcha haboro çoure buriari eguinen beituçu, hambatenaç bicitce hounian profeitaturenago duçu. Hala biç.

*Lehen libriaren acabantça.*



# JESU KRISTEN IMITACIONIAREN BIGUERREN LIBRIA.

Aholcu bere beithan guiçona ſar eracitcen diana.

## LEHEN CAPITULIA.

### *Eçpirituçco biciteiaç.*

1. *Clhauriec beithan dutie Jincouaren erreſoma*, dio Jaunac, utçul cite çoure bihotç oroç Jincouaganat, eta eitç eçaçu mundu miſerable haur, eta çoure arimac edirenen diçu phauſſia.

Ikhas eçaçu, campotico gaicen meſperetchatcen, eta barneticouer çoure gogouaren emaiten, eta ikhouſſiren duçu, Jincouaren erreſoma çu beithara jinen dela.

Eci Jincouaren erreſoma-da, *Eſpiritu ſaintian goçatcen dugun bakia, eta ala-*

*granteia*, çougn gaichtouer emaiten eç-peita.

Jesus jinen duçu çu beithara, bere consolacionia eracousten deiçularic, çoure barnian harec merechi dian egonguia adelatcen badeyoçu.

Harec maite dian gloria, eta edertarçuna oro barneticoua-da, eta han dut;, bere placerac hartcen.

Ardura bisitatcen-du, bere beithan gogoua etchekiten dian guiçona, hareki elhestatcen-da eçtiki, houra consolacioneç bethatcen-du, bake handibateç goça eracitcen-du. eta balacatcen adichkidegoua ossoki estonagarri den bateki.

2. Eia badaarima fidela, espous saintu hari adela eçaçu çoure bihotça, çu beithara jiteco, eta çutan egoiteco ukhen deçan hountarçuna.

Eci houlache dio, *noure ere ni maite beinai ene hitçac beguiraturen dutu, eta haregana, jinen guira, eta houra beithan goure egoitia eguinen dugu.*

Idecaçu arren Jesusi çoure bihotceco bortha, eta bester orori cerra eçaçu.

Jesus dukeçunian, aberax cirate, eta houra bera aski dukeçu. Houra dukeçu çouri gaiça behar dutuçunen ororen emailia, çoure eguitecouen fidelki egui-

lia, guisabateç noun beharric eçpeitukeçu guiçonetan esparantcharic hartçiaren.

Eci guiçonac berthan khambiatcen dira, eta berhala hux eguiten die, bena Jesu Kristec thempora orotan iraitendu, eta goure khantian dago fermoki urrhentciala drano.

3. Eçta behar confidantcha handiric eçarri guiçon erortoki eta heriouari ecin eçcapiric eguiten ahal dienetan, çoumbat nahibeita cerbutchu eguile diren, eta maite dutugun, ecetare tristecia handiric hartu, çoumbait orduç cerbait goure countre eguiten, edo erraiten badie.

Egun çoure althe direnac, bihar çoure countre içaten ahal dutuçu, eta egun çoure countre direnac bihar çoure althe: aicia beçala ardura khambiatcen dutuçu.

Eçarçu çoure confidantçhá oro Jincouatan, eta houra biç çoure loxá eta amouriouá oro. Harec çour gatic ihardexiren diçu, eta çoure hobe diren beçala gaiçac eguinen citiçu.

Eçtuçu heben bethiereco egoitebat; noun nahi beita ciren, arrotç eta bidejant cira, eta eçtuçu behinere phausuric ukhenen, eçpacira barna bano bar-

nago Jesu Kristeki juntatcen.

4. Ceren heben horrat hounat soç çaude, haur eçtenen gagnen çoure phaussuçco lekhia ? celian içan behar diçu çoure egonguyac, eta lurreco gaicer orori so eguin behar duçu igaraiteç beçala.

Badouatçu gaiçac oro, eta çu hekilan. Gogoüa emaçu hekilan esteca etcitian, beldurreç har eta gal citcen.

Biç Jincouatan çoure phensamentia, eta bihoua thaïc gabe Jesu Kristeganat çoure othoitcia.

Eçpalin badiroçu celüco gaiça goretan çoure eçpiritia etcheki, phaussa cite Jesu Kristen passionian, eta egon cite gogo houneç haren çauri sacratietan.

Eci debotki hersatcen bacira Jesusen çaurietara, eta hen herecha preciousetara, çoure thurburarçunian senditurea duçu indar handibat, eta eçtuçu achola handiric ukhenen guiçonen mesperetchietçaç, eta mardalleriaçco elhiac chignera igourtciren dutuçu.

5. Jesu Krist ere mundian içan-da guiçonetçaç mesperetchatu : eta bere behar orduric handienian eçagunec, eta adichkidec eitci cien, laidoç betheric cen themporan.

Jesu Kristeç soferitu nahi ukhen diçu,

eta mesperetchatu içan, eta çu benturatçen cireïa nourbaiteç plag nitcera ?

Jesu Kristec exaiac, eta gaiçki mintçaçaliac ukhen citiçu ; eta çuc oro nahi dutucia adichkide eta hounki eguile ukhen ?

Gaitcic batere jiten eçpaçaiçu, noula jardiexiren duçu çoure pacentciaren khoroua ?

Deusere nahi eçtuçunic soferitcen eçpaduçu, noula içanen cira Jesu Kristen adichkide ?

Soferi eçaçu Jesuseki, eta Jesusen amourecatic, hareki erregue içan nahi bacira ?

6. Sarthu bacina behin ounxa Jesusen bihotcian, eta goçatu baçunu haren amourio suç bethetic aphurbat : ordian etçunuke acholic cihauren ounxa, edo gaiçki içatiaç : bena alaguera cinteke lehenago laido eman deitcienetçaç, ceren Jesusen amouriouac guiçonari bere buria mesperetcha eracitcen beteyo.

Jesusen, eta eguiaren maithaçale bere beithan dagouena, eta nahicunte gaichto orotaric solt dena, Jincouaganat threbucuric gabe utçultcen, eçpirituç bera beno gorago jouaiten, eta goçoçco phaussu batetan içaten ahal-da.

7. Nourc ére gaiçac diren beçala, eta eç dioyen, edo ouste dien beçala goçatcen beitutu, houra eguiaçki çuhur-da, eta Jincouaganic lehenago, ecieç guiço neganic etchekiten du bere jakitia.

Jincouaren bidian jouaiten, eta campotico gaiceç casu aphur eguiten dakianac, eçtu lekhuric tcherkhatcen eç themporaric egurukitcen debocioneçco obren eguiteco.

Guiçon debota bere beithan berhala sartcen-da, ceren eçpeita secula campotico gaicetarat ossoki barreïatcen.

Campo-lanac, edo thempora aphur baten empleguiac oguenic eçteyo eguiten; bena gaiçac jiten diren beçala hartcen dutu.

Bere barnia chuchen eta houniala ekharri dianac, eçtu acholic guiçonen gesto miragarri eta gaichtouetçaç.

Guiçona eçta thurburatcen, eç barreiatcen, besteren eguitecoüen eçagutcian sartcen den beçambat baicic.

8. Bihotça chuchen, eta ounxa chahaturic baçunu, gaiçac oro hounetara, eta profeitutara uççul lekiditçu.

Orano ossoki cihauri hil, eta lurreco gaicetaric soltatu etcirelacoç, hartacoç hanitch gaiçac desplacer eguiten deicie, eta

ardura thurburatcen çutie.

Creaturen amourio theyac beçagn beste, deusec ere eçtu guiconaren bihotça maculatcen, eta nahasten.

Campotico consolacioniac acaçatcen badutuçu, celuco gaiçac eçpirituç ikhoussiren ahal dutuçu, eta barnetico alagrantciaç ardura goçaturen cira.

## II. CAPITULIA.

*Jincoaren manu pian umilki jartiaç.*

1. E C teçaçula casuric eguin, nour çoure althe, edo countre den jakiteç; bena eguin eçaçu çoure eguin ahala oro, Jincoua çoureki den, çuc eguiten dutuçun gaiça orotan.

Ukhen eçaçu contcentcia hounbat, eta Jincouac ounxa beguiraturen çutu.

Eci ihourenere gaichtokeriac ecin gaiçkiric eguiten du, Jincouac ajutatu nahi dianari.

Ichilic egoiten, eta soferitcen balin badakiçu, ikhoussiren duçu, duda gabe, Jincouaren sokhorria.

Berac bacikicu çoure libratceco thenoria, eta manera, eta hartacoç çoure

buria haren eskietan eçarri behar duçu.

Jincouari-da eman ajutatcia, eta ahalke orotaric libratcia.

Arduran ecinago houn-da, gouri umilitatiaren hobeki beguira eracitceco, bestec jakin, eta salha ditcen goure faltac.

2. Nouicere guiçona bere faltegatic umiliatcen beita, ordian ehiki bestiac apaisatcen, eta haren countre khechu direnac gaiça aphurreç contentatcen dutu.

Jincouac umila sustengatcen, eta libratcen du, umila maithatcen, eta consolatcen-du, umilareki juntatcen-da, umilari graciac asseciareki emaiten dutu, eta mundu hountan aphal eraci oundouan, bere glorialat igaign eracitcen-du.

Umilari bere segretiac idekitcen deitço, eta bereganat eçtiki deitcen, eta khumitatcen-du.

Umila, ahalkiaren har oundouan, bake aski houn batetan egoiten-da, ceren eç mundian, bena bai Jincouatan bere confidantchá eçarten beitu.

Eçtuçula ouste debocinian aitcina çouaçala, bestiac oro beno aphurrago, çoure buria etchekiten eçpaduçu.

## III. CAPITULIA.

### *Guiçon pherestu bakia maite dianaç.*

1. CIhaur egon cite lehenic bakian, eta guero bestiac hartan eçariren ahal dutuçu.

Guiçon bakia maite dianbatec haboro hountarçun eguiten-du, ecieç jakitous handibatec.

Bere passioner enjogui-den guiçonac, houna ere gaiçkiala utçultcen-du, eta gaiçkia ehignera sinhesten.

Bakia maite dian guiçon pherestu batec, gaiçac oro houniala utçultcen dutu.

Bake hounian denac, eçtu oustekeria gaiehtoric ihourtçaç hartcen: bena hanitch halaco oustekeriac eskerniatcen die, phaussuric eta contentamenturic gabe dena, eta bera bake gabe-da, eta bestiac eçtutu nahi eitci phaussian.

Ardura, erran behar eçtian gaiça erraiten-du, eta gaiça conbeni litcetkeiona eguiteco utçten-du.

Bestec cer eguin behar lukïen ikhousten-du, eta berac eguin behar lutukian gaicer beguiac cerratçen dutu.

Cihaurentaco arren lehenic ukhen eçaçu ounxalaco imbeïa hori, eta guero çoure proximo laguniala ere heda ahal dirokeçu justoki.

2. Ounxa badakiçu çoure eguitaten estalecen, eta her uduripen houn emaiten, eta besteren estalguniac eçtutuçu nahi hartu.

Justouago lukeçu, cihaurc çoure buria falha ceneçan, eta çoure anaiaren estalguniac har cintçan.

Nahi baduçu bestec egar citcen, çuc ere hourac egar itçaçu.

Ikoussaçu, çougnen hurrun ciren orano eguiaçco caritatetic, eta umilitatetic, çougnec bere buriaren countre baicic eçpeitaki khechatcen.

Eçta gaiça handibat, gente houneki eta eçtieki, bakiaren ukheitia; eci naturalki hori mundu ororen gogara-da: eta bat bederac gogo hounec bakia eta amourioua etchekiten-du, bere sendimentuco diren gentekilan.

Bena gente gogorreki, eta gaichtoueki deusenere achol eçtieneki, eta goure contre direneki bakian bicitcia da gracia handibat, eta guiçon berthutous eta corajous-bati ounxa daucon eguitate laidablebat.

3. Badirade çoumbait gente bere beitchan bakia beguiratcen beitie, eta bestekilan ere bakeç bicitcen beitira.

Beste çoumbait aldiç, berec eçpeitie bakeric eta bestiac eçpeitutie bakian uçten, hourac besten greugarri dira; bena beretaco greugarriago-bethi.

Beste çoumbait ere badira, çougn bere beithan bakian beitaude, eta bestiac bakiala erakhartera isseiatcen beitira.

Eta haregatic, goure bakiac oroc behar-du, bicitce triste hountan, eçarri lehenago, umilki soferitcian, ecieç guc nahi eçtutugun gaicen eç senditcian.

Çougnec-ere beitaki hobeki soferitcen, harec ukhenen-du bake handiagobat. Houra da bere buriaren garhaiçale, mundiaren burçagui, Jesu Kristen adichkide, eta celuco primu.

---

## IV. CAPITULIA.

### *Bihotçaren chahutarçunaç eta intencioniaren simpletarçunaç.*

1. BIhegaleç guiçona lurreco gaicetaric goititcen-da, erran nahi beita chahutarçunaç, eta simpletarçunaç.

Simpletarçunac behar du içan intencionian, chahutarçunac bihotcian: simpletarçuna goiti doua Jincouaganat; chahatarcunac Jincoua bessarcatcen-du, eta goçatcen.

Bihotceco desircunte gaichtouetaric solt balin bacira, eguitate hounec batekere eçteiçu eçpiritia nahassiren.

Jincouaren placera, eta proximouaren abantalla baicic, eçpaduçu desiratcen, eta tcherкhatcen; goçaturen duçu bihotceco libertatia.

Bihotça chuchen balin baçunu, creaturac oro bicitciaren miraill, eta libru saintubaten, cerbutcha lekiditçu.

Eçta creatura hang tchipi, eta char denic, çougnec Jincouaren hountarçuna eçtian eracousten.

2. Bihotcetic pherestu, eta chachu bacina, gaiçac oro ikhous, eta ounxa enthelega cintçake, baragalluric gabe.

Bihotç chahia celiala igaitcn-da, eta iferniala jaisten.

Batbederac bere bihotceco sendimentien araur, campotico gaicen judicamentiac ere eguiten dutu.

Mundian balin bada a'agrantciaric, houra, duda gabe, bihotç chachia dian guiçonac goçatcen-du.

Eta ihounere bada thurburarçunic, eta phenaric, houra contcentcia gaichtouac hobeki ſenditcen-du.

Hala noula burdugna ſuyan eçarriac erdollá galtcen beitu, eta bera gorritcen beita: orobat, guiçon Jincouaganat oſſoki utçultcen dena, bere hotçkeriatic bilainçten-da, eta guiçon berri batetara khambiatcen.

3. Nouicere guiçona hoçten haſten beita; ordian lan tchipi batec loxatcendu, eta gogo houneç campotico conſolacionia hartcen-du.

Bena nouicere bere buriaren oſſoki garhaitcen, eta Jincouaren bidian guiçonki ebilten haſten beita: ordian gutiago khontu eguiten-du, lehen greu ceitçola ſenditcen çutian, gaicetçaç.

## V. CAPITULIA.

*Bere buriaren eçagutciaç.*

1. GOure burietan ſobera ſinheſte ecin har dirogu; ceren gracia, eta entheleguiá ardura menx beitutugu.

Argui aphur-da gu beithan, eta dena ere berhala galtcen dugu, goure lachukeriaç.

Arduran ere eçtugu gogouaric emaiten, çougnen handiden goure bihotceco uxutarçuna.

Hanitchetan gaiçki eguiten dugu, eta gaiçkiago goure faltá eſtali nahi gunuke.

Paſſioniac çoumbait orduç çotuca eraciten gutu, eta ouſte dugu zelobat dela.

Beſteren falta tchipietan cerbait erraiteco edireiten dugu; eta guihauren handiac ichilic eiçten dutugu igaraitera.

Aski bertan borogatcen, eta pheçatcen dugu, cer beſteganic ſoferitcen dugun: beſtec çoumbat goureganic ſoferitcen dien, eçtugu gogouaric emaiten.

Nourc ere bere eguitatiac chuchenki, eta juſtoki pheça beilitiro, ihourtçaç eliro judicamentu gaichtoric eguin.

2. Guiçon eguiaçki debot den batec, bere arimaren arrancurá beſte ororen gagnetic eçarten-du, eta nourc ere bere buriari ounxa gogoua emaiten beitu, houra ehiki beſtetçaç ichilic egoiten-da.

Etcira ſecula eguiaçki debot içanen, beſteren eguitecouetan gagnen, ichilic egoiten eçpacira, eta cihaurganat berheciki ſo eguiten eçpaduçu.

Jincouaganat eta cihaurganat çoure gogoua oſſoki eçarten balin baduçu, campouan ikhouſten dutuçun gaiceo

aphur hounkiren çutie.

Noun cira cihaur beithan etcirenian? eta cihauren buria eitciric, gaicac oro laſtercatu oundouan, cer profeitu idoki duçu?

Bakia, eta Jincouareki junto içatia ukhen nahi baduçu, behar dutuçu, beſte gaiçac oro meſperetchaturic, cihaurtan gagnen bethi beguiac etcheki.

3. Hartacoç profeitu handiric jardiexiren duçu, çoure buria arrancura themporalic batere gabe etchekiten baduçu.

Hanitch faltatara eroriren cira, gaiça themporaleç ſobera pheretchu eguiten baduçu.

Etçaiçula deus handiric, deus goraric, deus ederric, deus maithagarriric, Jincoua bera, edo Jincouari ſo daudian, gaicac baicic.

Eçdeus beçala etcheki eçaçu, creatura çoumbaite-ganic jiten çaiçun conſolacionia oro.

Arima Jincoua maite dian batec, haren eretcian, beſte gaiçac oro meſperetchatcen dutu.

Jinco eternala bera, lekhu orotan edireiten dena, eta oro bethatcen dutiana da, arimaren conſolacionia, eta bihotceco eguiaçco alagrantcia.

# VI. CAPITULIA.

*Contcentia hounbaten alagrantciaç.*

1. GUiçon pherestu baten gloriada, contcentcia hounbaten jakilegoua.

Ukheçu contcentcia hounbat, eta ukhenen duçu bethi alagrantcia.

Contcencia hounbatec hanitch gaiça soferi diro, eta gaitcen artian bethi alaguera-da.

Contcentcia gaichtoua, bethi loxaç eta arrancuraç betheric dago.

Deus eçpaduçu sendi ounxa eçtenic çoure bihotcian, çaude phaussu eçtibatetan.

Etcitiala çoure hounki-eguineç baicic alaguera.

Gaichtouec eçtie jagoiti eguiaçco alagrantciaric, eta bihotceco bakia eçtakie cer den; ceren *gaichtouec eçpeitie bakeric dio salbaçaliac.*

Eta erraiten balin badie: bakian guira, eçtira gutara jinen gaitçaç, eta nour beneuraturen-da, gouri damuric eguitera? eçtitçaçula sinhex: ceren Jincouaren colera bat-batetan jaikiren beita, eta hen eguitatiac eçdeusetara bi-

lhaturen beitira, eta hen phensamentiac ossoki galduren.

2. Phenetan glorificatcia, eçta greugarri maite dianarentaco; eci hola eguitia-da, Jesusen khurutchian glorificatcia.

Guiçonec alkharganic hartcen, edo alkharri emaiten dien gloria, llabur-da. Tristeciaç laguntturic-da bethi mundduco gloria.

Gente pherestien gloria beren contcentcietan-da, eta eç guiconen laidoriouetan. Justouen alagrantcia, Jincouaç eta Jincouatan da, eta hen contentamentia, eguiatic jiten-da.

Nourc ere eguiaçco gloria eternala desiratcen beitu, mundu hountacouaç eçtu acholic.

Eta clarki agueri-da celuco gloria eçtiala maite, nourc ere mundu hountacoua tcherkhatcen beitu, edo eçpeitu bihotcetic mesperetchatcen.

Laidoriouetçaç, eta mesperetchietçaç calurie eguiten eçtianac, bihotceco phaussu handibat baduke.

3. Contcentcia chahu diana, contens chignera eta bakeç içanen-da.

Etcira laidoriouegatic saintiago içanen, eç mesperetchiegatic charrago.

Cirena cira, eta Jincouaren aitcinian ciren beno handiago, ecin içaten cira.

Gogoua emaiten baduçu, cer ciren cihaur beithan, eçtuçu acholic ukhenen, guiçonec çurçaç erraiten dutien eleherçaç.

Guiçonac ikhousten-du beguithartia, Jincouac aldiç bihotça. Guiçonac ikhousten dutu eguitatiac, eta Jincouac pheçatcen intencioniac.

Arima umilbaten segnalia-da, ounxa bethi eguitia eta bere buriaç pheretchu aphur ukheitia.

Chahutarçun handibaten, eta bihotceco confidantcharen segnalia-da, creaturataric bateraric ere, consolacioneric eç nahi ukheitia.

4. Gaiça agueribat-da, campotic beretaco jakilegouaric tcherkhatcen eçtianac, bere buria Jincouari ossoki eman diala.

Eci, jondane phaulec dioüana, eçta bere buria goratcen diana pheretchatu, bena bai Jincouaç gora eçarri dena.

Guiçon eguiaçki debot den baten içatia-da, Jincouareki bere beithan ebiltia, eta campotico gaicen nahicunteric eç ukheitia.

## VII. CAPITULIA.

*Jesusen, gaiça ororen gagnetic, maitè ukheiteç.*

1. DOhaxu-da, cer den Jesusen maite ukheitia, enthelegatcen diana; eta Jesusegatic bere buriaren mespertchatcia.

Maitia maitiagatic utci behar-da, ceren Jesus, gaiça ororen gagnetic, maithatu içan nahi beita.

Creaturaren maithatcia inganious, eta khambious-da: bena Jesusen maithatcia fidel eta iraipous.

Creaturari estecatcen-dena, erorcorrareki eroriren-da; bena Jesus bessarcatcen diana, açcarturen-da bethierecoç.

Maitha eçaçu, eta adichkidetaco beguira, bestec oroc utciric ere, utciren etçutiana, ecetare çoure açkentcian, galtcera.

Egunbateç, nahi bacira eteç, oroganic khentu behar dukeçu.

2. Bician eta hilian çaude Jesusen khan-

tian, eta beſtec oroc hux eguinic ere; ecin huxic eguiten ahal deiçunaren ajutu fidelari gomenda cite.

Guiſa hountaco duçu, çoure maitiaren propitagia, noun eçpeitu nahi lagun arroteic bereki ukhen; bena bera, beſteric gabe, nahi duçu çoure bihotcaren burçagui içan, eta hartan jarri erreguebat bere tronouan jarten den beçala.

Baceneki, creatura orotaric çoure bihotçaren huſten, Jeſus çoureki, gogo houneç, egon liteçu.

Cer nahibeita confidantcha, Jeſus gabe, guiçonetan eçarri duçun, oro galduric beçala edirenen duçu.

Canabera aïce orotarat plegatcen den batetan, etcitiala eç fida, eç berma, *ceren araguia oro belharra beçala beita, eta haren gloria oro belharraren lilia beçala eroriren beita.*

3. Bertan troumpatu içanen cira, guiçonen campotico itchourari baicic, eçpaduçu ſoric eguiten.

Eci çoure conſolacionia, eta irabacia beſte guiçonetan tcherkhatcen balin baduçu; ardurago damu jardiexiren duçu.

Jeſus gaiça orotan tcherkhatcen balin baduçu, houra edirenen duçu ſegurki.

Cihauren buria, aldiç tcherkhatcen

balin baduçu, houra ere edirenen duçu, bena çoure galgarritaco.

Eci guiçonac Jesus tcherkhatcen eçpalin badu, bere buriari haboro damu eretchekiren-du, ecieç mundiac oroc, eta bere exayec eguin ahal beilitciroye.

---

## VIII. CAPITULIA.

### *Jesusekilaco adichkidegoua nabassiaç.*

1. JEsus goureki denian, oro ounxa douatçcu, eta deus etçaicu udurittcen nekeric; Jesus aldiç goureki eçtenian, oro greugarri çaitçcu.

Jesus bihotcian minçatcen etçaicunian, consolacioniac aphur balia dikeçu; bena hitç bakhoichbat Jesusec erraiten badu, consolacione handibat borogaturen dugu.

Maria Maidalena etcena berhala nigarreç, egon cen lekhutic jaiki, martac erran ceyonian, *heben duçu burçaguia, eta deitcen çutu.*

Ala beita oren dohaxia, Jesusec nigarretaric, eçpirituçco alagranteiala deitcen diana!

Ala beitcira idor, eta gogor, Jesus gabe! ala beitcira buru arhin, eta bano cerbait, Jesus gabe, desiratcen balin baduçu!

Eçteya hori çouretaco damu handiagoua, ecieç mundia oro gal baceneça?

2. Cer, Jesus gabe mundiac emaiten ahal deiçu?

Jesu gabe içatia-da, ifernu kharaxbat, Jesuteki içatia aldiç, pharadussu eçtibat.

Jesus çoureki bada, exayec batec ere eçteiçu oguenic eguinen ahal.

Jesus edireiten dianac, edireiten-du tresaur balious-bat, eta beste houn ororen gagnetic den hounbat.

Eta Jesus galtcen dianac, ecinago hanitch galtcendu, eta haboro, ecieç mundia oro gal baleça.

Ecinago praube-da, Jesus gabe bici dena, ecinago aldiç aberax, hareki ounxa dena.

3. Jakite handia-da, Jesuseki bicitcen jakitia; eta abilamentu handibat, haren ounxa beguiratcia.

Içan cite umil, eta bakeçco, eta Jesus içanen duçu çoureki.

Içan cite debot, eta phaussuçco, eta Jesus egonen duçu çoureki

Jesusi

Jesusi bertan ihessi eraguiten, eta ha-
ren gracia galtcen ahal duçu: nahi bacira campotico ga cetarat okhertu.

Eta hari ihessi eraguiten badeyoçu, eta hourá galtcen balin baduçu; nourganat hersaturen cira, eta ordian nour çoure adichkidetaco icherkhaturen duçu?

Adichkidebat gabe, ecin ounxa bicitcen ahal cira, eta Jesus, bestiac oro beno lehen adichkide eçpalin baduçu, ecinago triste, eta erreus içanen cira.

Eçdeuski arren gobernatcen cira, hareç bestetan fidatcen, edo alagueratcen bacira.

Lehenago haitatu behar liçate, mundiaren ororen countre ukheitia, ecieç Jesusen ofensatcia.

Biç arren Jesus, khario çaitçun ororen artian, cutçaç berheciki maithatu.

4. Bestiac oro, Jesusen amourecatic, maithatu içan bite: Jesus adiç berauren amourecatic.

Jesu Khristec berac berheciki maithatu içan behardu: ceren adichkide orotaric hobena, eta fidelena edireiten beita.

Jesusegatic, eta Jesusetan, maitha itçaçu çoure exayac, hala noula çoure adichkidiac, eta othoi eçaçu orogatic, amou-

xecatic oroc eçagut eta maitha decen.

Eçteçaçula jagoiti desira, bere heciki laidatu, edo maitatu içatia: ceren eçpeita hori eman, Jincouari baicic, çougnec eçpeitu bere paria.

Eçtuçula nahi, ihourc bere bihorça çutçaç ocupaturic ukhen deçan; ecetare çuc cihaurena houren amouriouaç; bena Iesus den çutan eta guiçon pherestu orotan.

5. Ukheçu bihotç chahu baten libertatia, creaturen estecamenturic batere gabe.

Behar duçu, bilaiciric içan, eta Jincouaganat bihotç chahubat ukhen: nahi bacira jincouarcki egon, eta nahi baduçu borogatu, çougnen eçti den.

Eta eguiaçki etcira phuntu hortara helturen, haren graciac eçpaçutu aitcinetic urgaiçten, eta bereganat thiratcen: amourecatic gaiça orotçaç bilaiciric, her adio erran oundouan, cihaur hareki beraureki junta citian.

Eci nouicere Iincouaren gracia guiçona beithara jiten beita, ordian gaiça ororen eguiteco indarrian jarten-da: eta nouicere gracia houra hurruntcen beitçayo; ordian praube, eta flacu bilhatcen-da, eta noula ere bait guisaç, gaçtigatu içateco eitcia-da.

Eçtu b har haregatic descorajatu, eç esperantchá galdu; bena jincouaren boronthatiari eçtiki egon, eta heltcen çaitçon gaitç c, Iesu Khristen amourecatic, igourtci; ceren negutic landa, udá jiten beita, gayaren oundouan, eguná urcultcen beita, eta iraçarriaren oundouan, cohardia.

---

# IX. CAPITULIA.

*Consolacione ororen gabeciaç.*

1. ECta gaitç, Jincouaren consolacionia dianaren, guiçonenaren mesperetchatcia.

Gaiça handia-da, eta ecinago handia, bambat guiçonen, noula Jincouaren consolacioneric gabe içatia: eta Jincouaren ouhouriagatic, bihotceco idortarçunaren gogo houneç soferitu nahi ukhetia: deusetan ere bere buriaren eç tcherkhatia, ecetare bere propitage houner soric eguitia.

Miracullu deya, graciaren jitiareki debot, eta alaguera bacira? oren houra ororen desiragarri liçate.

Jincouaren graciac egarten diana, aski eçtiki çamalcatcen-da.

Eta miracullu deya, photere oro dianaç egari, eta guida ecinago handiaç guidatu denac, eçteçan bere carga sendi?

2. Gogo houneç hartcen dugu consolatione çoumbait, eta nekeç guiçona beraurteç bilaiçten da.

Jondane Laurenti martirac, bere aphecçareki, mundia garhaitu cian: ceren, mundian mairhagarri uduri ciren gaiçac oro mesperetchatu beitçutian: eta phena gabe soferitu beitcian, sixta aita Saintiaganic, çougn ecin haboro maite beitcian, Jesu Kristen amourecatic, berheci içatia.

Creaçaliaren arren amouriouaç, guiçona ganatco amourioua garhaitu ukhen ciçun; eta guiçonen consolacioniaren lekian, haitatu ukhen ciçun Jincouaren boronthete Saintia.

Ikas eçaçu çuc ere, Jincouaren amourecatic, çoumbait adichkide maite, eta behar çunukianaren eiçten.

Eta etcitiala triste, nouicere adichkidebatec eirçten beitçutu, dakiçunen gagnen, oroc açkenian algarganic berheci içan behar dugula.

3. Ounxa, eta luçaç guiçonac behardu bere buriari guerla eguin, haren osso-

ki garhaitcen, eta bere desircunten ororen Jincouaganat eramaiten, ikhassi beno lehen.

Nouicere guiçona bere burian bermatcen beita, ehiguera campotico consolacionetara erorten-da.

Bena eguiaçco Jesusen maithaçalia, eta bihotçtoiki berthuter jarraikilia, halaco consolacionetara eçta erorten, eta holaco goçoçco eçtitarçunic eçtu tcherkhatcen: bena nahiago du hartu indarca handiric, eta Jesu Kristen amouracatic, soferitu triballu gogorric.

4. Nouicere arren Jincouac eçpiritucco consolacionebat emanen beiteiçu, goça eçaçu esker handireki: bena eçagut eçaçu Jincouaren hountarçunbat dela, çuc merechi eçtuçunbat.

Etcitiala handi, eç sobera alaguera, eç cihaurtan banoki fida: bena ukhen duçun hountarçunaç umiliago cite, abissatiago ere, eta loxorrago içan cite, çoure eguitate orotan; oren hourá igarenen, eta tentacionia jarraikiren denen gagnen.

Consolacionia galdu dukeçunian, eçteçaçula berhala esperantchá gal: bena eguruki eçaçu umilitatereki, eta pacentciareki, celuco bisitá. Jincouac dianen ga-

gnen photeria, çouri consolacione hana diagobaten arçara emaitecoua.

Jincouaren bidia borogatu dienentaco, hori eçta gaiça berribat, eç usatu eçtenbat: ceren graciareki, eta houra gabe içatia, aldica saintu handietan, eta profeta nouçpaitcouetan, ediren içan beita.

5. Hartacoç erregue profetac graciareki cenian, cioyan, *erran-dut ene affecian, eniç secula çotucaturen.*

Bena gracia jouan ceyonian, borogaturic cer cen hourá gabe, berriç dio: *Vtçuli duçu çoure beguithartia eneganic, eta thurburatu içan nuçu.*

Haregatic orogatic, eçtu esperantchá galtcen: bena lehiatukiago Jincoua othoitcen-du, dioüalaric, *Jauna ene oihiac çoureganat goititure citit, eta ene oracioniac Jincouari eskenturen.*

Açkenian, bere oracioniaren frutia eramaiten-du, eta aithortcen entçuna içan dela, dioualaric, *Jaunac entçun nai, eta nitçaç ukhen-du pietate; Jauna guerthatu-da ene ajutaçalia.*

Bena certan? *Klambiatu deitaçu*, dio, *ene plagnia alagrantciala, eta boçkarioç unguratu naiçu.*

Hola saintu handiac içan balin badira,

eçtugu behar esparantchá galdu, çoumbat nahibeita flacu, eta praube guiren, aldicatcen baguira behin berotarçunian, eta guero hotçtarçuniac, espiritu saintia, bere boronthate hounaren araur, jiten eta jouaiten denen gagnen : hartacoç Iob saintiac dio, *arguitcian bisitatcen duçu* guiçona, *eta berhala ere bai borogatcen.*

6. Certan arren esparantcharic har ahal dirot, edo nourtan fidatu behar-dut, jincouaren misericordia handian, eta celuco graciaren esparantchan baicic ? Eci ukhenic ere eneki guiçon saintu, edo fraide debot, edo adichkide fidelic ; nian ordian pietateçco libru, edo eçkiribu ederric, edo himno eta cantica maithagarriric: aphur profeitu horietaric orotaric idoki niro, aphur goça nintçaçke, graciaç bilaiciric, eta nihauren praubecian eitciric balin banintç.

Ordian sendogarriric hobena liçate pacentcia, eta jincouaren boronthate saintian nihauren eçdeustia.

7. Secula eçtut ihour ediren, çoumbat nahibeita religious, eta debot-cen, bere graciaren gabeciaç çoumbait aldiç ukhen eçtutianic, edo debocioniaren aphurtcia senditu eçtianic.

Eçta sainturic batere, çoumbat nahibeita arguitu, edo gora altchatu içanden, lehen, edo guero tentacione ukhen eçtianic.

Eci çoumbait thurburarçunen jincouagatic soferituç baicic, eçta ihour haren eçpirituçco eçagutce gorala heltcen ahal.

Consolacione guerotic jinen denaren segnalia denen gagnen, aitcinetic jiten den tentacionia.

Hartacoç celuco consolacionia ren promesa eman içan-da tentacioniac borogatu dutianer. *Bitoria eramanen dianari*, dio escripturac, *çuhagn*, *bicia daducanetic*, *emanen-dut jatera*.

8. Gagneran, celuco consolacione hourá emaiten-da, amourecatic guiçona aççarrago içan dadin gaitcen sustengatc co.

Tentacionia orano jiten-da, beldurreç bat bedera bere hounki eguineç hant-eta urgulluxu dadin.

Debria eçtago lo, eta araguia eçta orano hil: hori dela causa, thaic gabe, guerla eguitera adela cite: ceren escugn eta echker behinere phaussatcen eçtiren exayac beitutuçu.

## X. CAPITULIA.

### *Jincouaren grasiari çorden eçagutciaç.*

1. CEren tcherkhatcen duçu phaussia, triballatceco sorthu cirenen gagnen :

Adela cite pacentciaren lehenago, ecieç consolacioniaren ukheïtera, eta boçtarioua beno nahiago duçula, khurutchia harreiatu.

Baliçatia mundian daudianetaric ihour, consolacionia, eta eçpirituçco alagrantcia, gogo houneç, har elirouanic, bethiere ukhen ahal baleça.

Eci eçpirituçco consolacioniac, munduco, eta araguiaren placer ororen gagnetic-dira.

Munduco placerac segurki, edo bano dira, edo ahalkeiçun, eçpirituçcouac aldiç, oneſt, eta maithagarri, berthutetaric sorthuric, eta Jincouaç eçpiritu chahier ichouriric.

Bena celuco consolacione horietçaç, eçtaite ihour nahi lukian beçambat goça; ceren tentacione gabe içatiac, eçpeitu luçaç iraiten.

2. Gagnetico bisitari oguen handibac eguiten-du, gogouaren libertate falsiac, eta bere bu iatan confidantcha handiren ukheitiac.

Jincouac ounxa eguiten-du, consolacion aren g acia en emaitiaç; bena guiçonac gaiçki, ororen Jincouari, esker handireki, utçuli gabeç.

Eta ha tacoç graciaren hountarçunac eçtira goureganat jiten; ceren emailiari eçpeitugu eçagutceric eracousten, eta uthurburialat eçpeitutugu oro utçul eracitcen.

Eci gracia bethi çor-da, eskerrac behar-den beçala emailiari, eta urgulluxiari idoki içanen çayo, umiliari comunçki emaiten dena.

3. Eçtut nahi, bihotceco dolumena khentcen dian, consola ionia, eçetare urgulliala eramaiten dian eçpirituçco ikhoustia.

Eci gora dena oro, eçta saintu, eç eçti dena oro houn, eta desirac oro eçtira ch hu, eç khario direnac oro, Jincouari maithagarri.

Gogo houneç harteen dut * gracia,

* Gracia-da celuco dohainbat, çougntçaç espiritu saintiac goure entheleguiari arguibat eretchekiten beitu, edo su saintu goure

umilago, eta loxorrago ediren nadin amourecatic; eta nihauren buriaren eiçtera adela nadin hobeki.

Jincouaren gracia, eta haren gabecia, cer den ikhassi diana, eçta benturaturen, hountarçunic batere bere buriari emaitera: bena aithorturen-du lehenago, praube eta bilaici dela.

Jincouari Jincouaren dena emaçu, eta cihauri çoure dena: erran nahi beita Jincouari esker emaçu, gracia eman deiçunaç, eta eçagut eçaçu, faltá çouria dela, eta harec merechi dian phená çuc çor duçula.

4. Jar cite bethi lekhuric aphalenian, eta emanen çaiçu gorena: eci gorenic eçtuçu, aphalena gabe.

Jincouaren aitcinian ſainturic handienac, bere beithan tchipienic dira; eta çoumbatenaç umilago beitira, hambatenaç glorian handiago dirateke.

Eguiáç eta celuco gloriáç betheric direnec, banaloriaren eçtie acholic batere.

Jincouatan bermaturic, eta açcarturic daudianac, urgulluxu ihoulere ecin içaten ahal dira.

boronthatian phitçten dianbat, gouri hounkiaren eraguiteco, çougn houra gabe eçpeikiniro eguin.

Eta jincouari hountarçun ukhen dutienac oro emaiten dutienec, eçtie alkharganic gloriaric tcherkhatcen: bena jincouaganic-den gloria nahi-die, eta desiratcen ere badie, jincoua hetan, eta beste saintu orotan, gaiça ororen gagnetic laidatu içan ledin, eta hartara douatça bethi.

5. Hountarçunic arren tchpienaç ukheçu eçagutce, eta merechituren duçu handiagoric ukheitia.

Tchipiena, handiena beçala har eçaçu: eta charren uduri çaikeçuna, dohaign preciatubat beçala.

Emailiaren handitarçunari so eguiten balin bada; harec eman gaicetaric batere eçta tchipi, edo char udurituren. Eei jinco ecinago handiac emaiten dian gaiça, ecin tchipi içaten ahal-da.

Phenac eta açote colpiac eman litçagun ordian, eskerreki hartu behar guntuke: ceren gouri heltcera eiçten dutian, gaiçac oro, goure salbamentiagatic, eguiten beitutu.

Nourc ere jincouaren gracia beguiratu nahi beitu, ukhenaç behar-du eçagutcia kharreiatu, eta idokiaç eç khechatu.

Othoi beça utçul dakion, eta içan umil, eta abisatu gal eçteçan.

XI.

# XI. CAPITULIA.

## *Jesusen khurutchiaren maithaçaleâ aphurtarçunaç.*

1. JEsusec orai badu, bere erresomaren maithaçale hanitch : bena bere kurtchiaren kharreiçale aphur.

Badu consolacioniaren desiraçale hanitch : bena thurburarçunaren aphur.

2 Hanitch mahagneco, aphur barourarentaco, lagun edireiten-du.

Hanitch nahi dira, hareki alaguera-tu ; eta aphurrec haregatic cerbait sofe-ritu.

Jesusi hanitch jarrakiten-dira oguiaren haustiala drano : eta aphur passioneco calitciaren edatiala drano.

Hanitchec haren miraculliac ouhouratcen dutie ; eta aphur dira, haren khurutchiaren laidouari jarraikiten direnac.

Hanitchec Jesus maite die, gaitcic helt-cen etçayeno.

Hanitchec houra laidatcen, eta benedicatcen die, çoumbait consolacione hareganic ukheiten dieno.

Bena Jesus gordatcen baçaye, edo aphurbat, eiçten balin badutu ; edo

mourmouceyatcen, edo descorajatcendira.

2. Bèna Jesus Jesusegatic, eta eç bere çoumbait consolacionegatic, maite dienec, thurburarcunian, eta bihotç hersiduran hagn ounxa noula consolacioneric handienian, hourá benedicatcen die.

Eta nahi eleyen ordian eman consolacioneric, haregatic orogatic, houra bethi laida liroye, eta hari bethi eskerrac eman.

3. Ala beitu indar handia Iesusen amouriouac, nahassiric eçtenian guihauren abantalla, edo amourio çoumbaiteç! Consolacioniac bethi tcherkhatcen dutienac, eçtireya lanic, phacu gabe, eguin eliroyenac uduri?

Nourc ere gogoua bethi bere edo abantallan, edo irabacian etchekiten beitie; eçteya clarki eçagun, eç Iesusen, bena bere burien maithaçale direla?

Noun edirenen-da, jincoua dohagn cerbutchatu nahi dianbat.

4. Arraroki edireiten-da nourbait, guisabateç debocioniari emanic, noun orotçaç bilaici-den.

Eci nourc edirenen-du, eguiaçki eçpirituç praube denbat, eta creatura

orotaric picarraitu denbat? *Hurran, eta mundiaren baçterrian-da, harec beçagn beste balio diana.*

Phuntu hortara heltceco, guiçonac, emanic ere lutian hounaç oro, orano eliçate deus.

Eta eguinic ere penitentcia handibat, orano aphur liçate.

Eta jardiexiric ere jakitiac oro, orano hurrun liçate.

Eta ukhenic ere berthutiac oro, eta debocione ecinago suç bethebat, orano hanitch menx luke: erran nahibeita gaiçabat, çougnen ecinago behar handibat beitu.

Cer da houra? gaicer orori adio erranic, bere buria eitç deçan, eta ossoki berautçaç bilaic dadin, eta deusere, berauren amourecatic, eçteçan etcheki.

Eta eguin oundouan, eguin behar çutiala eçagutcen çutian gaicac oro; ouste ukhen deçan, deusere eçtiala eguin.

5. Eçtecan casu handiric eguin, ceren balio handitaco igaraiten ahal-den: bena eguian erran deçan cerbutchari eçdeusbat dela: eguiác berac dioyan beçala: *manhatu içan çaitcien gaiçac oro eguin dutukecienian; erracie cerbutchari*

*eçdens elibat guira.*

Ordian eguiaçki, eçpirituç praube, eta bilaici içaten, eta profetareki erraiten ahal du, *nihaurtu niç eta praubetu.*

Eta haregatic bere buriaren, eta gaiçen ororen eiçten, eta lekhuric aphalenian jarten dakiana beno, eçta ihour aberaxagoric, ihour photerous-agoric eç haboro libertate dianic.

## XII. CAPITULIA.

*Khurutche saintiaren erregue bidiaç.*

1. ELhesta haur hanitchi gogor, eta gaitç uduritcen çaye: *eitçaçu çoure buria, goitiçaçu çoure khurutchia, eta jarraiki eite Jesusi.*

Bena hanitcheç gaichtouago dateke acken hitç hounen entcutia: *aparta citeye maradicatiac eneganic su eternalialat.*

Eci nour ere orai gogo houneç behatcen, eta khurutchiaren hitçari jarraikiten beitira, hec eçtie ordian loxaric ukhenen, entçun decen eternalki damnatu direla.

Khurutche hounen ſegnalia date celian, Jeſus Jauna jujatcera jiten datekianian.

Ordian khurutchiaren cerbutchariac,

çougnec bere bicitcia Jesu Krist crucificatu içan denaren araur kharreiatu ukhen beitie, jugiari hullanturen-dira, confidantchá handibateki.

2. Ceren arren loxa cira khurutchiaren, goititcera çougntçaç ihour celialat jouaiten beita?

Khurutchian-da salbamentia khurutchian bicitcia, khurutchian exayetaric beguiratu içatia; khurutchian-da, celuco eçtitarçunaren ichouria khurutchian entheleguiaren indarra, khurutchian eçpirituçco alagrantcia: khurutchian-da berthuten ekhoitçpena, eta saintutarçunaren complitu ossoki içatia.

Eçta arimaren salbamenturic, eç bicitce eternalaren esperantcharic, khurutchian baicic.

Goitiçaçu arren çoure khurutchia, eta jarraiki cite Jesusi, eta jouanen cira bicitce eternalialat.

Jesus aitcinetic jouan çaiçu, kharreiatcen cialaric bere khurutchia, eta çouregatic khurutchian hil içan duçu; amouregatic çuc ere, çoure khurutchia kharreia, eta khurutchian hiltcia desira deçaçun.

Cereneta hareki hiltcen bacira, hareki ere biçiren beitçira. Eta phenetan la-

guntcen baduçu, glorian ere pharte ukhenen beituçu.

3. Khurutchiaren maite ukheitian, eta hartan hiltcian, dago arren goure abantalla oro: eta eçta beste bideric bicitcialat jouaiteco, eta bihotceco bakiaren ukheiteco, khurutche saintiaren, eta egun oroç eçpirituç hiltciaren bidia baicic.

Nourat nahibeita çouaça, eta tcherkha itçaçu nahi dutuçun gaiçac oro, eta eçtuçu edirenen khurutche saintiaren bidia beno goragoric alde gagnian, ec seguragoric alde pian.

Chuchent, eta arrantja itçaçu gaiçac oro, cihauren nahiaren, eta ikhoustiaren araur: eta edirenen - duçu, behar dukeçula bethiere gogotic, edo bortchaç cerbait soferitu, eta hala khurutchia bethi edirenen duçu.

Eci edo khorpitcian dolore senditurен duçu, edo badukeçu eçpirituçco thurburarçun çoumbait soferitceco.

4. Aldibatian Jincouac eitciren çutu, bestian çoure proximouac khecha eracireu çutu, eta haboroç haboro cihauri arduran greu içanen cira.

Eta eçtuçu erremedioric, eç consolacioneric çu libraturen, edo arhinturen

ahal çutienic : bena behar duçu soferitu, Jincouac placer dian artio.

Eci Jincouac nahi diçu, phenac, consolacioneric gabe, soferitcen ikhas deçaçun, amourecatic haren escu pian ossoki jar citian, eta phenec umilago içaten eracoux diçacien.

Ihourc ere hagn bihotcetic eçtu Jesu Kristen passionia senditcen, noula haren phenac uduriric soferitcera heltu çayonac.

Khurutchia arren bethi haiduru dauçu, eta lekhu orotan egurukiten çutu.

Nourat nahi beta laster eguin deçaçun, eçtiroçu hari ihessiric eguin, ceren çougn nahibeita lekhutarat jouan citian, cihaurc çoure buria kharreiatcen beituçu, eta han bethi edirenen beituçu.

Utçul cite goiti, utçul cite behera, jouan cite camporat, jin cite barnialat, eta lekhu horietan orotan edirenen duçu khurutchia : hartacoç pacentciá behar duçu bethi çoureki nahi baduçu bihotceco bakia ukhen, eta khoroüa eternala merechitu.

5. Gogo houneç khurutchia ekharten balin baduçu, harec ere çu egariren çutu, eta guidaturen açkentce desiratu

hartara, nour soferitciac acabiren beitira, çoumbatere heben bethi iragnen beitie.

Gogoç - garaiti ekharten baduçu; cihauren carga emendatcen baicic eçtuçu, eta ororen burian egari behar duçu.

Khurutchebat apartatcen baduçu, besstebat duda gabe edirenen duçu, eta heltu bada pheciagoric.

6. Ouste ducia eçcapiren cirela, guiçonec batec ere ihessiric ecin eguin dian, gaiçari? içan deya sainturic mundian, khurutche, edo thurburarçun gaberic?

Jesu Krist goure salbaçaliac, bici cen themporan, orenbat etciçun igaren soferitu gabe: *behar ciçun* (cioçu berac) *Jesu Kristec soferitu, eta hiletaric phiçtu, eta hala celuco glorian sarthu.*

Eta çuc, noula beste bideric tcherkhatcen duçu, erregue bide haur baicic, çougn beita khurutche saintiaren bidia?

7. Jesu Kristen bicitcia oro, khurutche, eta martirio içan duçu, eta çuc çourian, phaussia, eta alagrantcia tcherkhatcen dutuçu.

Troumpatcen cira troumpatcen, phe-

nen soferitciaç campo, besteric deus tcherkhatcen baduçu; ceren bicitce hilcor haur oro miseriaç betheric beita, eta khurutcheç unguraturic.

Eta hambatenaç ihourc, bestec beno haboro berthutian profeitatu-du: çoumbatenaç khurutche garratçagoric ardura ediren ukhen beitu; ceren amourioua emenda eracitcen beiteyo bere desterriaren phena.

8. Haregatic orogatic, guisa hortan hanitch maneriaç doloreç hounki içan dena, eçta çoumbait consolacioneren arhinmentcha gabe: ceren eçagutcen beitu, bere khurutchiaren soferitciac, abantalla handibat emaiten deyola.

Eci gogo houneç haren pian jarten denari, phenen pheçutarçuna oro, celuco consolacioniaren confidantchala khambiatcen çayo.

Eta çoumbatenaç doloreç araguia flacatcenago beita: hambatenaç eçpiritia barneco graciaç açcartcenago-da.

Eta çoumbait orduç, hagn beste indar hartcen-du, thurburarçunen, eta gaitcen amouriotic, nahi lukialacoç cerbait uduripen Jesu Kristen khurutchiareki ukhen; noun dolore, eta thurburarçun gabe, eçpeiliçate nahi içan,

ouste dianen gagnen, hambatenaç jincouari maithagarriago içanen dela; çoumbatenaç haboro eta garratçagoric haren amourecatic soferituren ahal beitu.

Eçta hori guiçonaren berthutia, bena bai Jesu Kristen gracia, çougnec hangn beste eguin beitiro, aragui flacu hountan; noun eçpiritiari has, eta maitha eracitcen beiteyo, naturalki bethi hugu eta hastio dian gaiça.

9. Eçta guiçonaren indarrari eman; khurutchiaren ekhartia, khurutchiaren maithatcia, khorpitçaren gaçtigatcia, eta esclabagiaren pian eçartia: ouhourer ihessi eguitia, laidouen gogo houneç soferitcia, bere buriaren mesperetchatcia, eta bestetçaç mesperetchatu içan dadin nahi ukheitia; eguiteco gaiçki eguinen, alterarçunic gabe, bere damieki hartcia, eta mundu hountaco hounetan emendioric eç desiratcia.

Cihauri baicic soric eguiten eçpaduçu, eçaguturen duçu deus holacoric eçtiroçula.

Bena Jincouatan eçarten baduçu çoure confidantchá, celutic faixiren çaiçu indarra, eta mundia araguiareki çoure manupian jarriren dutuçu.

Eçtuçu exayen ere, eç debriaren lo-

xaric ukhenen : fediaç armaturic, eta Jeſu Kriſten khurutchiaç ceignhaturic bacira.

10. Adela cite arren, Jeſu Kriſten cerbutchari houn, eta leyalbat beçala, çoure ſalbaçaliaren khurutchiaren bihotçtoiki kharreiatcera, çougn çoureganat cian amouriouac khurutchian itça eraci beitu.

Adela cite orano ſoferitcera, bicitce miſeriaçco hountan, heltcen diren gaitçac, eta nahi baguiac oro : ceren hala beitcirateke, noun nahibeita ciren, eta hala edirenen beituçu, çougn nahibeita lekhutan gorda citian.

Hala baicic eçtaite ihour içan : eta gaitcen ſoferitciari, eta doloriari ihesſi eguiteco erremedioua duçu, cibauren buriaren pacentciareki ſuſtengatcia.

Edan eçaçu, goço handiareki, ſalbaçaliaren calitcia, haren adichkide içan nahi bacira, eta hareki pharteric ukheitera deſiratcen baduçu.

Eitç itcatçu conſolacioniac jincouaren eskietan, berauri hobekienic udurituren çayon beçala eguin deçan.

Bena çu adela cite, thurburarçunen ſoferitcera, eta ſinhex eçaçu, hourac direla çoure conſolacioneric handienac :

ceren mundu hountaco soferitcec oròe eçpeitic merechitcen ahal guero jinen den gloria; cihaurec oro soferi ahal cintçakian ordian.

11. Thurburarçunaren eçti, eta, Jesu Kristen amoureçatic, goço hounetaco edireiteco phuntiala heltu ciratekianian; ordian ouste ukhen eçaçu, ounxa douaçula: ceren lurren gagnen pharadussubat ediren beitukeçu.

Soferitcia greugarri çaiçuno, eta hari shessi eguitia tcherkhatcen duçuno, gaiçki içanen cira; eta çoureganic apartatu nahi çunukian thurburarçuna jarraikiren çaiçu lekhu orotarat.

12. Adelatcen bacira behar den beçala soferitcera, eta hiltcera: berhala hobeki edirenen cira, eta bakia ukhenen duçu.

Altchatu içan cinen ordian, jondane phaulereki hirourguerren celiala drano, etcinante hargatic segur, nahi etçunian gaiçaric etçunukiala soferitceco. *Eracouxiren deyot* (dio Jesusec) *çoumbat ene icenagatic behar dian soferitu.*

Soferitcia baicic arren etçaiçu baratcen: Jesusen maite ukheitia, eta hare i thaic gabe cerbutchatcia placent baçaitçu.

13. Jincouac belexa, Jesusen icenaren ouhouretan, cerbaiten soferitcia merechi çunian! ala beilekidiçu bara gloria handibat; çougnen handi liçate saintien ororen beçtarioua, eta çougnen abantallous, proximouari honialaco eman cinirouan exemplia!

Eci oroc pacenciá gomendatcen-die, çoumbatere aphurrec baicic, eçpeitie nahi soferitu.

Cerbaitgni Jesu Kristen amourecatic behar çunuke gogo houneç soferitu: hagnbeste gentec gaitçagoric mundiarentaco soferitcen dienen gagnen.

14. Segur içan cite, egun oroç hiltcen-den bicitcebat behar duçula kharreiatu. Eta çoumbatenaç haboro bätbedera bere burian hiltcen beita; hambatenaç hobeki jincouareki bicitçen hasten dela.

Eçtitçake ihourc celuco gaiçac en helega; gaitcen soferitcera, Jesu Kristen amourecatic, eçpadadi sembert.

Deusere eçta jincouari maithagarriagoric, ecetare çoure mundu hountan hobiagoric, ecieç gogo houneç, Jesu Kristen amourecatic soferitcia.

Eta haitia baçunu, behar çunuke lehenago, Jesu Kristen amourecatic, gait-

sen soferitçia desiratu, ecieç consolacione hanitcheç solajatu içatia: Jesu Kristen haboro uduri beitçunuke, eta hobeki saintien ororen araur bici beitcinteke.

Eci goure merechimentia, eta goure içatiaren profeitia, eçtago eçtitarçunen, eta consolacionen hanitchtarcunian; bena bai lehenago, gaitcen eta thurburarçun handienen soferitcian.

15. Eci cerbait hoberic, edo abantallousagoric guiçonaren salbamentiaren içan balin baliç, ecieç soferitcia, Jesu Kristec segurki hitceç, eta exempluç eracouxi çukian.

Eci hari jarraikiten diren dicipulier, eta beste jarraiki nahi çaitçoner orori clarki gomendatcen-du khurutchiaren ekhartia, dioyalaric; *nourbait ene oundouan jarraiki nahi bada, eitç beça bere buriaren arrancura, goits beça bere khurutchia, eta jarraiki bekit.*

Ororen iracour eta chehe ikher oundouan, haur biç hetaric idoki behar den açken arraçoua.

*Behar dugula hanitch thurburarçunetan igarenic Jincouaren erreseman sarthu.*

*Biguerren libriaren acabantça.*



# JESU KRISTEN IMITACIONIAREN

## HEREN LIBRIA.

Barnetico consolacioniaç Iracourçaliari.

*Noula libru haur içkiribatu içan beita, Jincouaren, eta arima fidelaren, edo burçaguiaren, eta cerbutchariaren artian igaraiten-den elhestabat beçala; ounxa gogoua eman behar-du iracourçaliac, nouiç burçaguia, nouiç cerbutcharia mintço diren; bestela eliro enthelega, eç hiteen centcia, eç libru hounen içkiribaçale debotaren dessegna. Hartacoç letera hounec, B, burçaguiaren elehesta segnalaturen-du, eta beste heunec, C, cerbutchariarena.*

---

## LEHEN CAPITULIA.

*Jesu Kristec arima fidelari barnetic etchekiten-dian elhesta.*

1. C. B*Ehaturen niç, Jincouac ene barhotcian erranen-dutian hitcer.*

Dohaxu-da arima, Jincoua bere bar-

nian mintçatcen entçuten diana, eta haren ahotic consolacioneçco hitçbat ukheiten-diana.

Dohaxu-dira, jincouaren hitçaren herox tchipia entçuten dien beharriac; eta mundu hountaco elhe gaichtouer, gogouaric emaiten eçtienac.

Dohaxu dira ossoki beharri, campouan herox eguten dian botçari beno lehen, eguia barnen eracousten dianari, behatcen direnac.

Dohaxu-dira beguiac, campoco gaicer cerraturic, eta barnecouer ounxa idekiric daudianac.

Dohaxu-dira, barneco gaiçac ounxa ikhousten dutienac, eta egun oroçco deboçioneç ounxa beno ounxago celuco segretien eçagutceco adelatcera isseiatcen direnac.

Dohaxu-dira, jincouareki themporaren igaraiteç, alagueratcen direnac; eta munduco baragallu orotaric, bere buriac bilaiçten dutienac.

Eçagut, eta goça itçaçu gaiça horic, ene arima, eta cerra itçaçu çoure centcien borthac, amourecatic entçun ahal deçaçun, cer Jinco Jaunac dioyan çoure bihotçian. Hoyec dutuçula çoure maitiac erraiten deitçun hitçac.

2. *B.* Ni nuçu çoure ſalbamentia, çoure bakia, eta çoure bicia.

Egon cite ene khantian, eta bakia edirenen duçu. Eitç itçaçu gaiça igaraiten direnac oro, eta tcherkha itçaçu eternitatecouac.

Cer-dira gaiça themporalac oro, inganagarri baicic; eta cer houn ukheiten duçu creaturetaric orotaric, creaçaliaç eitcia bacira?

Bilaiciric arren gaiça orotçaç, çoure creaçaliaren gomendian jar-cite, arima placent eta leyalbat beçala, amourecatic eguiaçco celuco içatia jardiex ahal deçaçun.

---

## II. CAPITULIA.

*Othoitcen-du Jincoua, bere bithotcian minçatcen entçun deçan.*

1. C. M*Intça-cite Jauna, ceren beha beitauçu çoure cerbutcharia. Çoure cerbutcharia nuçu ni, emadaçu enthelegnia, jakin ditçadan amourecatic çoure manu ſaintiac.*

Plega-eraci eçaçu ene bihotça çoure hitcetarat: biauri nitara çoure elheſtá,

çohart-ihitçbat beçala.

Nouçpait Israeliticouec Moisari erraiten-cien, *minıça çakiççu çu, eta behaturen gutuçu, eçtak gula mintça Jincoua, beldurreç hil guitian.*

Etçutut nic hala othoitcen, Jauna, eç hala, bena bai lehenago umilki, eta desir handireki suplicatcen, Samuel profetareki: *mintça cite, Jauna, ceren beha beitauçu çoure cerbitcharia.*

Eçtakidan eni mintça Moisa, edo beste çoumbait profetetaric: bena çu lehenago mintça çakitçat, Jinco Jauna, profeta ororen arguiçalia, eta inspirarçun her emailia; ceren cihaurc hourac gabe ecin hobeki jakintsutcen ahal beinaiçu; hec aldiç, çu gabe, eçpeitie profeituric batere idokiren.

2. Eguiala, hitcen heroxa eguiten ahal dicie: bena eç graciaren ematia.

Ederki mintço dutuçu: bena çu ichilic çaudiano, bihotça eçticie gortcen.

Leterac emaiten citicie, bena çuc centcia eraçousten. Mysteriouac aguertcen citicie, bena çuc segretien entheleguia idekitcen.

Maniac eçagut eracitcen citicie; bena çuc hen complitceco ajutia emaiten.

Bidia eraçousten dicie; bena çuc har-

tan ebilteco indarrac ukhen eracitcen.

Hec campotic baicic, eçticie deus eguiten; bena çuc bihotçac arguitcen, eta jakinſutcen dutuçu.

Hec campotic ihiçtatcen dicie; çuc aldiç frutu erakharteco berthutia emaiten duçu.

Hec hitceç oihu eta herox eguiten dicie, çuc aldiç entheleguiari entçutia emaiten.

3. Eçtakidan arren eni Moiſa mintça: bena çu bai, ene Jinco Jauna, eguia eternala; beldurreç hil, eta frutu gabe guertha nadin; barnetic gorthu içan gabe, campotic baicic eçpanu abiſuric.

Beldurreç orano, jujatu içan nadin çoure hitçaren entçuneç, complitu gabe, eçagutuç maithatu gabe, eta ſinhexiç, beguiratu gabe.

*Mintça çakitçat arren, ene Jinco Jauna, ceren beha beitauçu coure cerbutcharia; eci çuc dutuçu bicitce eternalaren hitç ac.*

Mintça çakitçat ene arimaren consolatceco, ene bicitce ororen khambia eracitceco, eta cihauri laidorio, gloria, eta bethi iragnen dian ouhouriaren emaiteco.

## III. CAPITULIA.

*Umilitatereki behar direla Jincouaren hitçac entçun, eta hanitchec eçtutiela aski phecatcen.*

1. *B.* BEha cite, ene semia, ene hitçer, hitç ecinago eçtiac beitira, eta mundu hountaco filosofo, eta çuhur.ororen jakitiaren gagnetic.

Ene hitçac bicitce, eta eçpiritu dira, eta eçtic behar guiçonen centciaç phe-çatu içan.

Eçtutuçu behar çoure placer banouala erakharri, bena ichilic entçun, eta beguiratu umilitate, eta bihotceco desir osobateki.

*C.* Dohaxu-da, Jauna, çuc jakintsutcen duçuna, eta çoure leguia eracousten deyoçuna, amourecatic çoure eçtitarçuna tchesta eraci diaçoçun bere tristecietan, eta lurren gagnen eskerniatia eçtadin içan.

2. *B.* Nic jakintsutu dutut, dio Jaunac, profetac, haxarretic gora, eta orai ere orano orori mintçatcen niç, thaic gabe: bena hanitch ene botçari gogor dira, eta gor.

Haboro dira mundu houni gogohobeç behatcen direnac, ecieç jincouari: chignerago jarraikiten dira bere araguiaren nahicuntiari, ecieç jincouaren placer hounari.

Mundu hounec eçtu gaiça tchipi, eta iraipous eçtirenic baicic hitcemaiten, eta haregatic lehia handireki houra cerbutchatu içaten-da: nic aldiç hitcemaiten deitciet gaiça ecinago handiac, eta eternalac, eta guiçonen bihotçac herabian ſarthuric daude.

Nour-da ene cerbutchian, eta obedientcian gaiça orotan hagnbeſte arrancurarcki dagouena; noula mundiaren, eta munduco handienenian beitago? *ahalkeç kourt cite Sion, dio itchaſſouac,* eta ceren ? arraçoua galthatcen baduçu, haur duçula, beha cite.

Badutuçu, bide lucian ounxa laichter eguiten dienac, eliçaco beneficio tchipibaten ukheiteco; eta hanitchec houngna bortchá behin lurretic goititcen dicie, bicitce eternalaren jardieſteco.

Badouatçu, irabaci charbaten oundouan, nountic houra ukhenen dien; louisbategatic, çoumbait orduç, ahalkeiçungarriki proceſcatcen dutuçu, gaiça eçdeusbategatic, eta promes tchi-

pi bategatic, gayaç eta egunaç egnhetá ciaren loxaric eçticie.

3. Bena elas! hountarçun ecin khambiatcen den batentaco, irabaci ecin preciotan eçarten-den batentaco, ouhoure ecin handiago den-batentaco, eta gloria ecin mugaric, eç urhentceric ukheiten ahal dian batentaco, eghne aphurbaten hartciac, ihour herabeçtitcen du.

Aha ke cite arren cerbutchari herabeçtia, eta plagnuxia, ceren hourac bere perdicioniala prestago diren, ecieç çu bicitce eternaliala.

Hourac haboro alagueratcen dutuçu banitatiagatic, ecieç çu eguiagatic.

Eguiaçki bere esparantchac çoumbait aldiç inganat cen citiçu: bena, eta promesac eçtiçu ihour inganatcen, ecetare nitan fida dena, huxic ciçten iouaitera.

Ene hitça etchekiren-dut, erran dudana complituren-dut, acken urhentciala drano, ene amourioan fidelki egonen denari.

Ni niç gente pheremier orori phacu emailia, eta deboten ororen açcarki borogaçalia.

4. Eçkiriba itçaçu çoure bihotcian ene hitçac, eta ardura hetan etcheki eçaçu çoure gogoua; eci hen mengoua handi-

bat ukhenen duçu, tentatu ciratekian themporan.

Bisitaren egunian eçaguturen duçu, iracourtian ecin enthelegatcen duçuna.

Bi guisaç costumatu-dit ene haitatien bisitatcera, erran nahi beita, tentacioniaç; eta consolacioniaç.

Eta bi lectione egun oroç iracourten diriet, bata, hen bicioüen countre, khechatcen niçalaric; bestia, berthuten emendatcera corajatcen dutudularic.

Nourc ere ene hitçac dakitçalaric mesperetchaten beitutu, harec ukhenendu açken egunian juge garratçbat.

5. C. O ene Jinco Jauna, çu cira ene hountarçuna oro! eta nour niç ni, çoureki bentura nadin mintçatcera. Ni nuçu, çoure cerbutchari tchipi ecinago praubebat, har mesperetchatubat, hanitcheç praubiago, eta mesperetchatiago, ecieç beitakit, eta bentura beineinte erraitera.

Orhit-cite hargatic, Jauna, eçdeus niçala, deus eçtudala, eta deus eçtirodala?

Eçtucu çu baicic hounic, justoric, eta sainturic, çuc dutuçu photeriac oro; çuc emaiten, eta bethatcen, dutuçu gaiçac oro, huxic eiçten eçtuçularic bekhatoria baicic.

Orhit-cite çoure pietate ul heitetçaç; eta betha eçaçu ene bihotça çoure graciaç ; eçtuçunen gagnen nahi, çoure obrac huxic bara ditian.

6. Noula nihauren buria soferitcen ahal-dut miseriaçco bicitce houtan çoure misericordiac, eta graciac açcartcen eçpanaye ?

Içteçaçula utçul çoure beguithartia eneganic, eçteçaçula luça çoure bisita; ecticadaçula idoki çoure consolacionia; beldurreç ene arima lur *hour gabeç secaçtubat* beçala guertha dadin.

Jauna, eracoux eçadaçu, çoure boronthatiaren eguiten; eracoux eçadaçu, çoure aitcinian umilki, eta behar den beçala bicitceen : ceren çu beitcira ene çuhurtarçuna, çuc eçagutcen beinaiçu, niçan beçalacoric, eta mundu haur eguin beno lehen, eta nihaur mundiala sorthu gabe, eçagutu beinunduçun.

## IV. CAPITULIA.

*Eguian, eta umilitatian, Jinconaren aitcinian bici behar dela.*

1. *B.* ENe semia, eguian ebil cite; ene aitcinian, eta teherkha naçaçu bethi, çoure bihotçaren simpletarçunian.

Atacarçun gaichtouetaric beguiratu içanen da, nour ere eguian, ene aitcinian ebilten beita, eta eguiac soltaturendu inganaçaletaric, eta gaichtouen mardalletaric.

Eguiac libratcen baçutu, eguiaçco libertatiaç goçaturen-cira, eta eçtuçu guiçonen elhe banouetçaç acholic ukhenen.

*C.* Hori eguia duçu Jauna, hel bekit, othoi, çuc dioçun beçala. Çoure eguiac jakintsu naçan, harec beguira naçan, eta urhentce hounbatetara drano, hartan iragn eraci diçadan.

Harec libra naçan-ber desircunte gaichto orotaric, eta gaiçkialat douen amouriotic, çoureki ebiliren nuçu, bihotçeco libertate handibateki.

2. *B.* Nic eracouxiren deitçut ( dio eguiac ) gaiça justouac, eta ene gogaraco direnac.

Orhit-cite, çoure bekhatietçaç, dolumen, eta bihotc-min handircki, eta eçtuçula secula ouste, cerbait cirela, çoure obra hounac direla causa.

Eguiaçki bekhatore cira, hanitch passioneren pian, eta herçaç unguraturic.

Cihaurtçaç eçdeusiala çouaça bethiere, bertan erorten, bertan goithu içaten, bertan nahasten, eta bertan lachu guerthatcen cira.

Eçtuçu glorifica eracitcen ahal çutian gaiçaric batere; bena bai, çoure buria hanitch mesperetcha eraci behar deiciênic: ceren hanitcheç flakiago beitcira, ecieç enthelega ahal beitiroçu.

3. Eçtakiçula arren eguiten duçun gaicetaric batere handi uduri.

Eçtuçula ouste, badela deus handiric, deus preciousic, deus miragarriric, deus fama handitacoric: badela deus goraric, deus laidatu, eta desiratu ihoure behar dianic, eternitateco gaiçac baicic.

Biç eguia eternala çoure gogoco, besten ororen gagnetic; eta çoure cihauren eçdeustarçun handiac bihotça hounki diaçaçula mingarki.

Eçteçaçula deusentacoere hagn beste loxá ukhen, deusere hagn guti ounhex, deuseriere hagn beste ihessi eguin, çougná çoure bekhatier: çougnec haboro dolore erakharri behar beiteicie, ecieç cernahibeita gaiçaren galciac.

Eçtira çoumbait ene aitcinian eguiaçco bidian jouaiten, bena berritcepen ikhassi nahiaç, eta superbiaç guidaturic, ene segretiac jakin nahi dutie, eta Jincouaren gaiça gorac enthelegatu, bere buriac, eta salbamentia guibelialat eiçten dutielaric.

Bere superbiac, eta ikhassi nahiac, hanitch tentacionetara, eta bekhatutara eror eracitcen dutu: ni hen ajutari eniçalacoç.

4. Jincouaren jujamentien loxá ukhen eçaçu, eta pothere oro dianaren colerac ikhara eraci citçan; ecinago gora denaren obrac eçtitçaçula ikher; bena cihauren inikitatiac chehe tcherkha itçaçu, çoumbat gaiçatan hux eguin duçun, eta çoumbat hountarçun eguiteco lachukeriaç eitci dutuçun.

Bere debocionia çoumbaitec librietan baicic eçtie eracousten, bestec imaginetan, bestec campotico segnale eta figura çoumbaitetan.

Ardura ahouan naye çoumbaitec; beña bihotcian aphurretan.

Badira beste çoumbait, entheleguia dielaric arguituric, eta bihotça garbituric, beitouatça bethi haxalboturic eternitateco gaicetarat, çougni neke beitçaye lurreco gaicetçaç mintçatcen entçutia, naturá bere beharretan phenareki cerbutchatcen beitie: eta hec die borogatcen, cer eguiaren eçpiritiac erraiten deyen.

Ceren, eracousten beiteye, lurreco gaicen mesperetchatcen, eta celucouen maithatcen: mundiaç casuric eç eguiten, eta egun eta gai oroç celiaren desiratcen.

---

## V. CAPITULIA.

*Jincoaren amourioaac eguiten dutian gaiça miragarrieç.*

1. C. Benedicatcen çutut celuco aitá, Jesu Krist ene Jaunaren aitá; ceren ene praubeciaç orhitceco hountarçuna ukhen duçun.

O misericordien aitá, eta consolacione orroren Jincoua, esker deiçut; ce-

ren consolacioneric batere merechitu gabe, çoure consolacioniaç çoumbait aldiç açcartcen beinaiçu.

Benedicatcen, eta glorificatcen, çutut bethi, çoure seme bakhoitçareki, eta Spiritu saintu consolaçaliareki, jinen diren thempora ororentaco.

Eia, Jinco-Jaun, ene maithaçale saintia, çu ene bihotciala jin ciratekianian, ene barnia oro boçtarioç betheren duçu.

Çu cira ene gloriá, eta ene bihotçaren boçtarioua çu cira ene esparantchá; çouregana hersatcen nuçu, ene thurburarçuneçco egunian.

2. Bena noula orano amourioan flacu, eta berthutian huxcor beiniç; hartacoç mengoua-dit, çuc açcar, eta consola naçaçun: ciauri arren ardura ene bisitatcera, eta eracoux itçadatçu çoure jakite saintiac.

Solta naçaçu ene passione gaichtouetaric, eta sendo eçaçu ene bihotça, desircunte gaiçkialat daramen orotaric, amourecatic barnetic sendoturic, eta ounxa garbituric, çoure maithatceco propi, soferitceco açcar, eta hounian iraiteco fermo içan ahal nadin.

3. B. Gaiça handia da amourioua;

hountarçun erras baliousa, çougnec bascic eçpeitu pheçu dena arhintcen, eta desbardin diren gaiçac bardin egarten.

Eci egarten-du pheçu dena, pheçutarçunic gabe, eta kharax diren gaiçac oro, eçti eta goçatsu ediren eracitcen dutu.

Jesusen amourio indarxiac obra handien eguitera boulcatcen-du, eta hoben diren gaicen complitcera erakharten.

Althe gagnian içan nahi da amourioua, eta eçtu nahi mundu hountaco gaiça aphalec batekere han bara eraci decen.

Solt içan nahi-da amourioua, eta mundu hountaco desircunte orotaric hurrun, beldurreç haren barnetico soüa ulhunt dadin: beldurreç orano çoumbait abantailla themporalec cerbait nahascura eman diacen, edo damu çoumbaitec plega eraci decen.

Amourioua beno deusere eçta eçtiagoric, deusere açcarragoric, deusere goragoric, deusere hedatiagoric, deusere maithagarriagoric, deusere bethiagoric, deusere hobiagoric, celian eç lurrian: ceren Jincouaganic sorthu beita amourioua, eta eçpeitate Jincouatan baicic phaussa, gaiça creatu içan diren ororen gagnetic.

4. Maite diana, bethi boçtariouan dabila lachterreç, hegaltaç; solt-da, eta deusekere eçtu baratcen.

Oro ororen emaiten-dutu; oro orotan edireiten dutu; ceren ecinago handiden bakhoitcian, gaiça ororen gagnetic phaussatcen beita, çougatitaric hountarçunac oro, ichouribat beçala, jiten beitira.

Eçtu gaiça emanari soric eguiten; bena emailiaganat, gaiça ororen gagnetic, utcultcen-da.

Amouriouac arduran eçtu baragallurie batere eçagutcen; bena haren herakia badoua bara ahal liroyen gaicen ororen gagnetic.

Amouriouac eçtu pheçutarçunic senditcen, triballiac etçaitço phenous; ahal dirouan beno haboro eguin nahi luke, eçtu, ecin eguinen gagnen, soltantcharic galthatcen: ceren ouste beitu, gaiçac oro ehi eta sori çaitçola.

Houn-da arren gaiça ororentaco, eta hanitch eraguiten-du; maite dianac huxic eguiten, edo coragia galtcen eçpadu.

5. Amourioua iratçarriric dago, eta lo dagouelaric ere eçta lotcen.

Triballatciac eçtu egnhetcen, tincat-

ciac eçtu hersatcen, loxeriac eçtu nahasten; bena goiti doua, su gar bicibat beçala, eta deusec ere baratu gabe, orotan gagnetic igaraiten-da.

Maite dianac badaki, cer erran nahi dian lengouage hounec.

Oihu handibat-da Jincouaren beharrientaco; arima suç bethebatec dioyanian: ene Jincoua ene amourioua, çu oro enetaco, eta ni oro çouretaco.

*6. C.* Larga naçaçu amouriouan, bihotçaren erditic gogatcen ikhas deçadan, çougnen eçti-den maithatcia, eta amouriouan hourtcia eta iguericatcia.

Amouriouac har naçala, haren bicitarçunac nihaur beno gorago boçtarioç jouan eracitcen nayalaric.

Khanta deçadan amourioçco canticoua, çouri celialat, ene maitia, jarraiki nadin, boçtarioçco amouriouac ene arima çoure laidoriouetan engocha eraci deçan.

Maitha citçadan nihaur beno haboro, eta nihaur eç çoure amourecatic baicic: bai aldiç, çu eguiaçki maite çutienac oro, çutan, amourioçco leguiac, çuganic bere arguia ukheiten dianac, manu emaiten dian beçala.

7. *B.* Amourioua laster-da, eguiati,

debot eçti, eta maithagarri: houra açcar-da, pacient, fidel, abiſatu, luçaç iraile, corajous, eta eç ſecula berauren tcherkhaçale.

Eci certan ere nourbaitec bere buria tcherkhalcen beitu, hartan berian amourioua galtcen-du.

Amourioua orotrat ſo eguile-da, aphal-da, eta chuchen: eçta lachu, eç arhin, eç gaiça banouer gogoua emaile; ſobre-da caſto, fermo, phauſſuçco, eta centçu orotan ounxa beguiratu.

Amourioua guehienen manu pian; eta obedientcian egoile da, berauri char, eta meſperetchagarri-da, Jincouari debot, eta esker emaile, hartan bethi eſparantchá eta confidantçhá eçarten dialaric; are gutienic Jincoua goçatcen dian themporan: ceren eçpeita amouriouan bicitceric dolore gabe.

8. Gaiça ororen ſoferitcera, eta bere maitiaren boronthatiaren eguitera preſt eçtenac, eçtu merechitcen maithaçaliaren icenaren ukheitia.

Maite dianac behar dutu, bere maitiaren amourecatic, gaiça gaitç, eta kharax direnac oro, gogo houneç, beſſarcatu, eta hareganic eçtu behar hurruntu, nahi eçtutian gaicen jitia gatic.

## VI. CAPITULIA.

*Eguiaçco maithaçaliaren borogatciaç.*

1. *B.* ENe ſemia etcirade orano maithaçale aççar, eta abiſatubat.

*C.* Noulaç Jauna.

*B.* Cereneta çuc nahi etçunukian gaiça tchipibatec, haſſi dutuçunac, eitç eracitcen beiteitçu, eta ſobera ſureki conſolacionia tcherkha eracitcen.

Maithaçale eççarbat fermo-dago tentacionetan, eta exayaren elhe inganiouſetan eçtu ſinheſteric eçarten: hala noula bere gogara douaççon gaicetan plaçer eguiten beyteyot; orobat deſplaceric eçteyot eguiten, nahi eçtian beçala jouaiten çaitçouenetan.

2. Maithaçale abiſatubatec eçtu hagn ſo eguiten maite dianaren emaitiari, noula emaliaren amouriouari.

Haboro pheretchatcen-du amourioua, ecieç profeitia, eta emaiten çaitçon gaiçac oro beno preciatiago çayo bere maitia.

Maithaçale noblebat eçta gaiça emanian: bena bai nitan, eman ororen ga-

gnetic phaussatcen.

Eçtukeçu oro galdu, nitçaç, edo ene saintierçaç nahi çunukian beçagn sendimentu hounic eç ukhenic ere çoumbait aldiç.

Bihotcian çoumbait orduç senditcen duçun goçoua, eta eçtitarçuna, presenteco graciaren obra duçu, eta aitcinetico celuco placeren tchestallubat, çougnran eçpeita behar sobera bermatu, ceren jouaiten, eta jiten beita.

Bena berthute, eta merechimentu handibaten segnalia-da, eçpiritiaren çotucu gaichto jiten direnen countre gue la eguitia, eta debriaren gaiçkiala eror eracitceco eguiten dutian isleyen mespertchatcia.

3. Etcitcela arren nahas, eta descoraja, çer nahibeita gaiçatan gaignen, jiten çaitçun uduripen araur gabec.

Beguira eçaçu fermotarçun açcarbat, eta jincouaganat intencione chuchenbat.

Eçtukeçu uduripenbat, çoure eçpiritia çoumbait aldiç bat-batetan celialat igaiten balin bada, eta guero berhala utçultcen ohico bihotçaren inochenkerietara.

Eci hourac erakharten dutuçun beno lehen, bortchaç soferitcen dutuçu; eta

desplacer eguiten deicieno, eta hen acaçatcera isseiatcen cireno, eçtukeçu çouretaco perdicionebat, bena bai merechimentubat.

4. Jakin eçaçu eci, exai çaharrac eguin ahala oro eguiten diala, çouri çoure hounialaco desircuntiaren gal eracitceco; eta debocione orotaric, erran nahi beita saintien ouhouratcetic, ene passione saintiaren gogotic eç uçtetic, bekhatien orhitmentcha hounetic, cihauren bihotçaren beguiratcetic, eta berthutian aitcina jouaiteco hartu duçun dessegn fermotic hurrunt eracitceco.

Saldoua phensamentu gaichto erakharten deiçu, debeya eraci, eta ici citçan amourecatic, eta çoure oracionetic, eta Jracourte saintutic aparta eraci citçan.

Desplacent cioçu cofessione umila, eta ahal baleça comuniatcetic ere bara eraci cintçake.

Eçteçaçula sinhex, ecetare hareç acholic ukhen, çoumbat nahibeita ardura hedatu deitçun inganioçco laçouac.

Nouicere gaiça gaichtouac eta theyac eçpiritiala erakharten beiteitçu, igor itçaçu beraurganat. Erran eçaçu.

Abiloua eçpiritu theya, ahalke adi miserablia, abiloua hi theyu iç, holaco gaiçac

çac ... behar rietara erakharten dutian...

Aparta adi eneganic inganaçale ecinago gaichtoua, eçtuc ukhenen nitan pharteric: bena Jesus dukec eneki, guerla eguile açcarbat beçala, eta hi baraturen iç ahalkeç betheric.

Nahiago nuc hil, eta phener ororen buria pherestatu, ecieç hiri behatu.

Ichil-adi, mutu-adi, enitçaic haboro behaturen, çoumbatere hanitch sturlunçu emaiten beteitac.

*Jincoua-da ene argnia, eta ene salbamentia, nouren loxa içanen niç?*

*Liçan ordian armadabat ene countre prestaturic, ene bihotçac eçtu loxaric ukhenen*: Jincoua-da ene ajutaçalia, eta ene salbaçelia.

Guerla eguiçu, soldado hounbatec beçala: eta çoure flakeciac çoumbait aldiç eror eracitcen baçutu, har eçaçu indar lehenecouac beno handiagoric: ene gracia handiago batetan fidatcen circlaric, eta ounxa beguira cite banaloriatic eta superbiatic.

Hori dela causa, hanitch gente eguiatic herratcen dira, eta uxumentu, casi ecin sendotcen-den batetara, çoumbait orduç erorten.

Superbious bere burietan sobera cofi-dantcha erhoki hartcen dienen erore haur, cerbutcha bekiçu bethiere gouaitan, eta umilitatian çoure bici eracitceco.

## VII. CAPITULIA.

*Umilitatiaren beguiraren pian graciaren estaltciaç.*

1. B. HObiago, eta segurago duçu çouretaco, ene semia estal deçaçun debocioniaren gracia, hartçaç etcitian handi, eç hanitch mintça, eç houra hanitch pheça; bena behar duçu lehenago çoure buria mesperetchatu, eta loxa içan, çuc merechitu gabe eman içan çaiçula.

Eçta behar sobera buruneriareki, debocione berhala gaiçkiala utçultcen ahal denari, estecatu.

Gracian cirenian orhit-cite, houra gabe çougnen praube, eta miserable costumatu duçun içatera.

Bicitce espiritualaren proficitia eçtiagoçu solamentç consolacioniaren graciaren ukeitian: bena orano haren idokitciaren umilki, pacientki, eta bere

buriaç khonturic batere eguin gabe ounheſtian ; guiſabateç noun, etcitian lacha oracioniaren eſtecamentutic, eta eçtitçatçun utç erras galtcera beſte obra eguitcera uſatu çuntianac.

1. Bena gogo houneç, çutan dena eguin deçaçun, hobekien ahal, edo ouſte dukeçun beçala, eta etcitian oſſoki lacha, idortarçun, edo erreuſtarçun eçpiritian ſenditcen duçuna dela cauſa.

2. Eci hanitch gente badira gaiçac bere gogara jouaiten etçaitcen beçagn ſarri, erreus, edo lachu guerthatcen beitira.

Guiçonaren bidia eçta bethi haren photerian bena jincouari-da eman, haren guidatcia, eta conſolatcia, placer dianian, placer dian beçambat eta placer dianari, uduri çayon beçambat, eta eç haboro.

Coumbait bere burier gogoua aphur emaile, debocione ſoberac gal eraci ukhen dutu ; ceren ahal ciroyen beno haboro eguin nahi ukhen beitie, içartu faltaç bere aphurtarçuna, eta nahiago içaneç, lehenago jarraiki bere bihotçaren ſuyari, ecieç arraçouaren jujamentiari.

Eta jincouari placent ceyon beno haboro banoki eguin nahi ukhen dielacoç,

hartacoç gracia galdu ukhen-dic.

Celiala drano goratu nahi içan direnac; praubetu içan dira, eta charretaco utci: amourecatic umiliaturic, eta praubeturic ikhas decen, eç bere hegaleçaç hegaltatcen, bena bai ene hegaletan esparantcha hartcen.

Jincouaren bidian orano berri, eta deus ikhassi gabe direnac, eçpalin badira çuhurren consellíaç gobernatcen, ehignera inganatu, eta galdu içaten ahal dira.

3. Nahiago balin badira bere sendimentiari jarraiki, ecieç beste cerbait dakienac sinhexi, hentaco açkentcia loxagarri içanen-da, bere sendimentu hartutic guibeltu nahi eçpadira.

Bekhanki bere buriac bester umilki gobernatcera eiçten dutie, beraurtçaç phacu direnec, eta çuhur direla ouste dienec.

Hobiago da çuhurtarçun aphurbat umilitatiareki, eta enthelegu tchipibateki, ecieç jakiten lece handiac banaloriareki.

Hobe duçu çouretaco gutiago duçun, ecieç hanitch, superbious eraci etcitçan.

Eçta aski çuhurki gobernatcen, bere buria ossoki alagranciari emaiten dian, ahaçten dialaric bere leheneco prau-

becia, eta Jincouaren loxa castoua, çougu beldur beita, gracia eman içan çayona gal deçan.

Eçtu orano berthutiaren goçoua cer den aski eçagutcen, gaitcen, edo cernahi beita ſterluncuren themporan, aſki eſparantcha gabe gobernatcen denac, eta behar lukian beçambat confidantchareki bere phenſamentiac, eta orhitmentchac eneganat hedatcen eçtutianac.

4. Nour ere bakian denian, ſeguregui içan nahi beita; houra atacarçunen themporan bihotç aphalegui, eta loxorregui ediren içanen-da.

Baceneki bethiere tchipi, eta umil cihaur beitan egoiten, eta çoure eçpiritiaren ounxa aphaltcen, eta gobernatcen; etcinteke hagu laster dangeriala, eta bekhatiala eror.

Conſellu hounbat çouretaco duçu, debocioniaren ſuya eçpiritian phiçtu çaikeçunian, phenſa deçaçun cihaur beithan, cer ciratekian argui haren jouan oundouan.

Hori heltu datekianian, gogouan etcheki eçaçu, arçara arguia utçultcen ahal dela: çougu themporа aphurbaten idoki ukhen beitut; amourecatic çu abiſatiago içan çintian, eta nihauren glo-

ria hobeki ediren neçan.

5. Abantallousago duçu arduran holache borogatu içatia, ecieç gaiçac bethi çoure gogara nahi beça'a baçuntu.

Eci merechimentien hountarçuna eçtago consolacione, edo celuco ikhouste habororen ukheitian: eç escripturan jakitous içatian, eç lekhu goragobatetan eçarri içatian; bena bai eguiaçco umilitatiaren foundamenian, celuco caritatiaç betheric içatian, Jincouaren ouhouriaren, nahaspillaric gabe, eta ossoki tcherkhatcian; bere buriaren eçdeusentaco etchekitian, eta haren eguiacki mesperetchatcian eta placerukheitian, ceren besteç, mesperetchatu eta umiliatu-den lehenago, ecieç ouhouratu.

## VIII. CAPITULIA.

### *Jincouaren aitcinian bere buriaren charretaco igaren eracitciaç.*

1. C. MIntçaturen niça ene Jaunari, haux eta errhaux baicic eniçanen gagnen? Deus haboro ene buria etchekiten badut; haur cirela çu, berhala ene countre, eta ene ini-

kitatiec eguiaçco jakilegouabat ekharten dic, eta haren countre enaite jouan.

Bena nihauren buria charretaco, eta eçdeusbatenataco hartcen badut, nihauren pheretchu propi orotaric bilaïçten balin baniç, eta niçan beçala erhauſten baniç, badikeçut çoure gracia ajutari, eta çoure arguia ene bihotciaлат hullanturen duçu: eta çoumbat nahibeita tchipi den nihauren dudan pheretchia, ene eçdeuſtarçunian ithoren, eta galduren duçu ſeculacoç.

Han eracouſten naiçu nihauri, cer niçan, cer içan niçan, eta cer phuntutara jin niçan: ceren eçdeus beiniç, eta eçpeinekian.

Nihauri eitcia baniç, haur niçala eçdeus, eta oro flakecia: ſo lehiatubat aldiç eguiten badeitaçu, berhala açcartcen, eta alagrantcia berribateç bethatcen nuçu.

Eta ounxa eſtonatcen nuçu, noula hagn thempora llaburretan ſolajatcen, eta hagn eçtiki beſſarcatcen naiçun, ni nihauren pheciac bethi behera boulcatcen nayana.

2. Hori çoure amouriouaren obrá duçu, çougn, nic deus eguin bague, eneganat lehenic jiten beita hagnbeſte

beharretan sokhorritcen nayalaric, phassu gaichtouenetaric ere beguiratcen, eta, eguiaren erraitera, ecin khounta ditakian gaitcetaric soltatcen nayalaric.

Nihauren buriaren gaiçki maite ukheneç, nihaur galdu içan nuçu; eta çoure cihauren tcherkhatceç eta chahuki maithatceç, çu ediren çutut, eta nihaur ere bai, eta çoureganaco amouriouac, nihauren eçdeustarçunian, barna beno barnago sar eraci niçu.

Ceren çuc enetaco, o ecinago eçti cirena, nic merechi beno haboro hountarçun beituçu, eta nic esparantcha ukheitera, edo çouri galthatcera bentura neintian beno hanitcheç haboro.

3. Benedicatu cirela, ene Jincoua; ceren, çoumbatere hountarçunic batere eçpeitut merechi; haregatic, çoure largo, eta houn içate muga gabiac thaye eçpeitu secula hartcen, eçagutceric kharreiatcen eçtianer ere, eta çoureganic hurruntu direner hounki eguiteco.

Utçul guitçaçu çoureganat, amouretsatic ukhen deçagun eçagutce, içan guitian umil, eta debot; ceren çu beitcira goure salbamentia, goure berthutia, eta goure açcartarçuna.

# IX. CAPITULIA.

*Gaicec oroc Jincouaganat, açken urrhencialat beçala jouan eraci behar diela.*

1. B. ENe semia, eguiaçki dohaxu içatia desiratcen baduçu, nis behar dit içan çoure açken muga.

Intencione hounec chahaturen diçu çoure bihotça, çougn beraurganat eta creaturetarat ardurago okherturic beitago.

Eci çoure buria cerbaitetan tcherkhatcen baduçu, berhala gaiçki edireiten, eta idortcen cira.

Oro arren eneganat lehenic, eta burutic erakhar itçaçu; ceren ni beiniç gaiçac oro eman deitçudana.

Phaussuç ikhous itçaçu oro bederacarca, hountarçun ecinago handitic jalkiac beçala; eta hartacoç oroc eneganat bere uthurburialat beçala erakharri behar dicie.

2. Eneganic; uthurru bicibatetaric beçala, tchipiac eta handiac, praubiac eta aberaxac, hour bicibat hartcen die; eta nour ere ene cerbutchian gogo hou-

neç, eta bolontarioki jarten beitira; hec gracia graciarentaco ukhenen die.

Nour ere aldiç, nitaric campo, glorificatu, edo houn propi çoumbaitetan alagueratu nahi beitateke, houra eguiaçco alagrantcian, eta bihotceco placer largouan, eçta içanen; bena hanitch guisaç nahascuretan, eta hersiduretan içanen-da.

Eçtuçu behar arren deusere hountarçunetic cihauri eretcheki, eta eçteçaçula berthutia çougn nahibeita guiçoni eman: bena oro Jincouari, çougnen sokhorria gabe deusere eçpeitu guiçonac.

Nic oro eman citit, nic cirena oro nahi çutut, eta garratçtarçun handibateki eskerrac galthatcen citit.

3. Haur-da eguia, çougntçaç gloriaren banitatia acaçatcen beita.

Eta behin celucó gracia, eta eguiaçco caritatia sartcen badira bihotç batetan, han eçtateke eç imbidiaric, eç bihotç hersiduraric, eta amourio propia eçta burçaguituren.

Eci Jincouaren caritatiac oro garhaitcen dutu, eta arimaren indarrac oro largatcen.

Ounxa çuhur bacira, nitan baicic eçcira alagueraturen, nitan baicic eçtuçu

esperantcharic ukhenen ; ceren *Jincoua bera baita eçpeita ihour hounic*, çougnec gaiça ororen gagnetic laidatu eta benedicatu içan behar beitu.

---

## X. CAPITULIA.

*Gaiça eçtibat dela, mundia mesperetchaturic, Jincouaren cerbutchian içatia.*

1. C. ORai arçara mintçaturen nitçaiçu, Jauna, eta enuçu ichilic egonen ; mintçaturen nuçu ene Jincouaren, ene Jaunaren, ene erregue celian denaren beharrietara.

*Ala beita handi, Jauna, çoure loxádienen, beguiratcen duçun eçtitarçunaren hanitchtarçuna* bena cer cira çu maite çutianentaco ? cer bihotç ossoç cerbutchatcen çutianen ?

Ihoulere ecin erraiten ahal den beçalaco duçu çoure eçpirituç ikhoustiaren eçtitarçuna, çougn maite çutianer largoki emaiten beituçu.

Orotan gainti eracouxi deitaçu çoure caritatiaren eçtitarçuna, eçdeus nintçalaric, eguin ukhen naiçunian, eta çoure ganic hurrun herraturic nanbilanian,

cihaurganat erakharri naiçunian, cerbutcha cintçadan amourecatic; eta çoure maite ukheitiaç manu eman deitaçunian.

2. O amouriouaren uthurri ecin agort daitiana, cer erranen-dut çutçaç?

Noula ahaçtera uçten ahal çutut, nitçaç orhitceco hountarçuna ukhen duçunen gagnen nihaurc orano ene arima theyu eta gal oundouan.

Pietate ukhen duçu çoure cerbutchariaç, ihountikere esparancha ukheiten ahal cian beno haboro; eta çoure gracia, eta adichkidegoua eracouxi deitçoçu harec ihoulere merechi cian beno hobeki.

Cer gracia hounen ordari emanen deiçut? Eci eçtuçu orori eman içan, gaiçac oro eitciric mundu houni adio erraitia, eta comentietaco bicitciaren bessarcatcia.

Gaiça handibat deya, çu cerbutcha citçadan, beste creaturac oro çoure cerbutchatcera bortchatu direnen gagnen?

Etcitaçu uduri içan behar, çoure cerbutchatcia gaiça handibat dela; bena lehenago uduri citaçu gaiça handi, eta miragarribat dela, ukhen deçaçun hountarçuna, hagn praube eta merechi gabebat har deçaçun çoure cerbutcharitaco, eta junta deçaçun çoure maitekilan.

3. Nic dutudan gaiçac, eta çoure cerbutchatceco

butchatceco emaiten deitaçun mouldia, oro çouriac dutuçu.

Bena haregatic çoure aldian, çuc ni haboro cerbutc..atcen naiçu, ecieç nic çu.

Hoyec dutuçula celia eta lurra guiço-naren cerbutchuco creatu dutuçunac, prest beitaude, eta egun oroç eguiten beitie, çuc manu emaiten deyeçuna.

Bena hori gaiça aphurra duçu; ain-guriac ere orano guiçonaren cerbutchu-co bere hegnian eçarri dutuçu.

Horic oro beno haborouago dena du-çu aldiç, cihaurc duçun, guiçonaren cerbutchatceco, hountarçuna, eta hari hitç emaitia, cihauren buria emanen deyoçula.

4. Cer emanen deiçut, eguin deiçtat-çun hountarçun hoyen ororentaco. Ah cerbutcha ahal bacintçat ene menteco egun oroç!

Ah egun bakhoitchbateç ere cerbut-cha ahal bacintçat, çuc merechi duçun beçala.

Eguiaçki çuc merechi dutuçu cerbut-chiac oro, ouhouriac oro, eta laidorio eternalbat.

Eguiaçki çu ene Jauna cira, eta ni çoure cerbutchari praubia, ene indar

oroç çu cerbutchatu behar çuntukedana, eta çoure laidoriouetan secula debeyarçunic hartu behar enukiana.

Hala nahi dit, hala desiratcen dit; bena nic menx dutudanen ororen suplitceco ukheçu hountarçuna.

5. Ala beita ouhoure, eta gloria handia, çoure cerbutchatcia, eta çoure amourecatic, beste gaiça ororen mesperetchatcia!

Eci nour ere gogotic çoure ecinago faintu den cerbutchiaren pian jarten beitira, hec ukhenen dicie gracia handibat.

Nour ere çoure amourecatic, araguiaren placer orotaric hurruntu beitirateke; hec edirenen dicie espiritu saintiaren ecinago eçti den consolioua.

Nour ere çoure icenetan bide hersian jarten beitira eta munduco arrancuretçaç bilaici beitirateke, hec jardiexiren dicie eçpirituçco libertate handibat.

6. O Jincouaren cerbutchu eder, eta maithagarria, çougnec guiçona saintutcen, eta libertatian eçarten beitu.

O religiousen içatiáren mithilgoua sacratia, çougnec guiçona eçarten beitu aingurien pare, Jincouaren apaisaçale, debrien loxa eraciçale, eta arima fidel orori laidable.

O cerbutchu beſſarcatu, eta bethi deſiratu behar gunukiana, çougntçaç merechitcen beitu ihourc hountarçun ecinago handia, eta jardieſten alagrantcia bethi iragnen diana.

## XI. CAPITULIA.

*Behar dutiala ihourc bere bihoteeco deſirac ounxa ikhertu, eta chuchentu.*

1. *B.* O Rai-drano ounxa ikhaſſi eçtutuçun hanitch gaiça behar dutuçu, ene ſemia, orai ikhaſſi.

*C.* Çougn dira hourac, Jauna?

*B.* Çoure bihoteeco nahicuntia, oſſoki eni placent-den beçala, eçar deçaçun, etcitian içan çoure buriaren maithaçale, bena ene boronthatiaren eguitera ſu handireki iſſeya citian.

Ardura çoure nahicuntec gortcen, eta phouſſatcen çutie; bena gogoua emaçu, eïa ene ouhouriac, ala cihauren abantallac haboro boulcatcen çutian.

Ni niçala cauſa, bada, counſent içanen cira, noula nahibeita gaiçac jin eraci ditçadan: bena cerbait cihauren profeitutic eſtaliric balin-bada, harec

nahascuraç eta pheçutarçuneç bethatcen çutu.

2. Gogoua emaçu arren, sobera confidantchá har eçteçaçun, aitcinetic, ene gogoric jakin gabe, hartu çunian desircuntian; beldurreç guero dolu dakiçun, edo lehen placer eguiten ceiçun gaiçac, eta hobiago ousteç lehiatuki eguin nahi çunianac, guerotic desplacer eguin diçaçun.

Eci eçtiçu behar ihourc jarraiki bihotceco desir houn uduri diren orori, ecetare hargatic berhala acaçatu gaichto uduri direnac ere.

Houn-da çoumbait orduç estecamentu, eta desircunte hounen ere bridatcia, beldurreç, hen ussiegui jitiac, eçpiritia barreia eraci diçaçun, edo çoure, aski beguiratu içan gabiac, bestiac bekhatiala eror eraci ditçan, edo orano, besten çouri buhurtciac, cihaur nahas, eta eror eraci citçan.

3. Çoumbait orduç aldiç, behar-da bortchareki, eta corajereki araguiaren nahicunten countre buhurtu, eta eç gogouaric enian, cer nahi dian, edo cer eçtian nahi: bena eguin ahala oro eguin, amourecatic nahibada eta eç eçpiritiaren pian içan dadin.

Eta gaçtigatu, eta esclabagian egoitera bortchatu behar-du, gaiça orotara prest içan dadin artio, eta ikhas deçan artio aphurreç pairatcen, gaiça arrounten maithatcen, eta berauri placent etçayonaç-eç meurmouceyatcen.

---

## XII. CAPITULIA.

*Pacentciaren bere phunniala eçartiaç, eta araguiaren nahicunten countre borrocatciaç.*

I. C. ESkierki, ene Jinco Jauna, pacentciaren ounxa mengoua handia diçut: eci nic nahi eçtudanic hanitch gaiça, ene mentian heltcen cita daçu.

Eci cer nahibeita guisaç, bakiaren ukheitera isseya nadin; eçtiteçu ene bicitcia guerla, eta dolore gabe içan.

*B.* Hala duçu, ene semia, bena eçtit nahi tentacioneric gabe den, edo nahi eçtian gaiçaric borogatcen eçtian bakebat tcherkha deçaçun.

Bena ordian berian, ouste ukhen deçaçun, bakia ediren duçula; nouicere hanitch thurburarçun souerteç, eta hanitch

nahi eçtuçun gaiçaç borogatu beitciratçke.

2. Erraiten baduçu eçtiroçula hanitch soferi, noula ordian soferituren duçu purgatorioco suya?

Bi gaitcetaric tchipiagoua ihourc behar diçu bethi haitatu.

Amourecatic arren, eternitateco suplicio guero jinen direner, ihessi eguin ahal deçaçun; isseya cite, jincouaren amourecatic, oraico gaitcen pacentcia handibateki soferitcera.

Ouste ducia mundu houni estecaturic daudian guiçonec, deus edo aphur baicic eçtiela soferitceco? eteiniro bat ediren, tcherkha cintçan ordian mundu hountaco aisenac.

*C.* Bena amenx badicie placer hanitch, eta bere nahikeriac eguiten citicie, eta hartacoç aphur senditcen citicie bere thurburarçunac.

3. *B.* Nahi-dic, dutien gogouala jiten ahal çaitcen gaiçac oro: bena çoumbat themporaç ouste duçu iragnen diela?

Mundian assecian direnac, khia beçala, galduren dutuçu, eta placer igarenеç eçticie orhitmentcharic batere ukhenen.

Haboroç haboro lurrian direno ere,

eçtutuçu hetçaç goçatcen kharaxtarçun, eta loxa gabe.

Eci çougn gaiçatan ere berauriren placera edireiten beitie; hartaric berautaric ardura doloriaren phenac ukheiten citicie; eta hori justoki heltcen cieçu, amourecatic, behar eçten guisa bere placerac tcherkhatcen, eta her jarraikiten direnac, hetçaç ahalke, eta kharaxtarçun gabe eçtitian goça.

4. Ala beitira placer hourac, direnac oro, llabur falsu gaichto, eta ahalkeiçun.

Bena haregatic, hetaric jiten diren nahascurac, eta uxumentiac eçteitce uçten eçagutcera: bena abere mutu eliba beçala, badouatça arimaren perdicioniala, bicitce gastatu hounen placer tchipibat dela causa.

*Etçouaçala* arren, ene semia, *çoure araguiaren nahicunten oundouan, eta guibel-cite cihauren boronthatetic... Alaguera-cite Jincouatan, eta emanen deitçu çoure bihoçaren galtouac.*

5. Eci eguiacki alagueratu nahi bacira, eta consolio largoric eneganic ukhen: munduco gaiçac mespertchatcen, eta lurreco placerac oro cihaurganic hurruntcen dutuçularic, benedicatu içanen cira,

eta consolio largoric emanen çaiçu.

Eta çoumbatenaç hurrunturenago beitcira creatura ororen consolacionetic; hambatenaç nitan edirenen duçu eçtiagoric, eta açcarragoric.

Bena etcira berhala hetara helturen; çoumbait tristecia, eta çoure buriaren countre çoumbait borroca soferitu gabe.

Jarriren çaiçu aitcinian costuma çahar, çutan herrouac barna eguin dutukianbat; bena hobiagobateç goithuren duçu.

Mourmouceyaturen diçu araguiac, bena eçpiritiaren debocione suç bethiaç bridaturen duçu.

Nouçpaico sugue çaharrac therritaturen, eta khecha eraciren çutu; bena oracioniaç ihessi dereçaturen duçu: besthalte ounxa triballatciaç sarkhura handibat cerraturen deyoçu.

## XIII. CAPITULIA.

*Jesu Kristen exempliala, cerbutchari umilbatec ukhen behar dian obedientciaç.*

1\. *B.* ENe semia, nour ere obedienciatic jalkitera isseiatcen beita,

harec bere buria graciatic jalki eracitcen-diçu, eta nourc ere houn berhecibat ukhen nahi beitu, harec galtcen dutu comunac.

Bere guehienaren pian bolontarioki, eta gogo houneç, jarten eçtenac, eracousten du, eçtela orano osloki araguiaren burçaguitu, bena ardura osticatac emaiten deitçola, eta mourmouceyatcen çayola.

Ikhas eçaçu arren, çoure guehienaren pian bertaric jarten, çuc nahi duçuniala plega eraci nahi baduçu cihauren araguia.

Eci bertanago ihourc garhaitcen diçu campotico exaya, barnetico debocionia eskerniatu eçpada.

Eçtuçu exai greugarriagoric, eç gaichtouagoric çoure arimaren, ecieç cihaur beitcira eçpiritiarcki bakian etcireno.

Behar duçu, çoure buriaren eguiaçco mesperetchu ossobat hartu, araguia, eta odola beno açcarrago içan nahi badin bacira.

Sobera çoure buria, behar eçten beçala, maite duçulacoç orano, hartacoç ikharatcen cira besteren boronthatiaren ossoki eguitiaç.

2. Bena gaiça handia deya, çu erhauts, eta

eçdeus baicic etcirenen gagnen, jincouaren amourecatic, beste guiçonbaten escu pian jarten bacira? ni niçalaric photere oro diana, eta goren gorenic dena, gaiçac oro eçdeusetaric eguin dutudana, çoure amourecatic, guiçonaren pian umilki jarri niçanian?

Bestiac oro beno umilago, eta aphalago jarri nuçu, amourecatic, çuc çoure superbia, ene umilitatiaç, garhait ceneçan.

Ikhas eçaçu erhaux cirena obeditcen. Ikhas eçaçu umiliatcen, lur eta lohi cirena, eta besten ororen, hougn petan içaten.

Ikhas eçaçu, cihauren boronthatiaren eç eguiten, eta nouren nahibeita manu pian jarten.

3. Khecha cite, cihauren countre, eta eçteçaçula utç urgulliaren hancurotcha çutan bicitcera: bena hagn tchipi, eta ororen petico eracouxaçu çoure buria, noun oro çoure gagnetic ebil ahal ditian, eta kharriketaco lohia beçala, hougn petan erabil citcen. Cer dukeçu plagnitceco, o guiçon urgulluxia?

Cer duçu bekhatore theya, çouri mehatchu eguilen countre erraiteco duçuna, hagn bestetan Jincoua ofensatu, eta

ifernia merechitu duçuna?

Bena pharcatu deiçu ene beguiac, ceren çoure arima ene aitcinian precious içan beita; amourecatic eçagut ceneçan ene amourioua, eta ene hounki eguiner kharreya ceneçan bethi çoure eçagutcia.

Eta amourecatic beſten pian, eta umilitatian thaic gabe jar cintian, eta pacentciareki çouri eguinen ceitcien meſperetchiac ſoferi cintçan.

---

## XIV. CAPITULIA.

*Behar diela Jincouaren jujamentu estaliec luçaç pheçatu içan, guihauren obra houn ouſtec urgulluxu eraci eçkitcen amourecatic.*

I. C. ENtçun eracitcen deiçtadaçu, Jauna, çoure jujamentiac, irourciri heroxbat beçagu açcarki; ene eçurrac loxaç, eta ikharaç bethatcen dutuçu, eta ene arima icieri handibatetan diagoçu.

Baniagoçu eſpantaturic, eta ikhouſten dit, celiac ere eçtirela chahu, çoure aitcinian.

Ainguriet pharcatu eçpaduçu, hen

gaichtokeriaren ediren oundouan, cer içanen-da nitçaç.

Içarrac celutic erori dutuçu, eta nic, erhaux baicic eniçanen gagnen, cer esparantcha ukhenen-dut?

Obrac laidable çutiela uduri cienac, erori içan dutuçu lekhuric aphaleniala, eta ikhoussi citit ainguriren oguiaren jaliac, ourdentaco ciren maguitchen, jateç placer hartcen.

2. Eçtucu arren saintutarçunic batere Jauna, çuc çoure eskia cihaurganat thiratcen baduçu.

Eçtuçu cuhurtarçun profeitableric, çoure gobernia baratcen bada.

Eçtuçu açcartarçun houn denic, çuc sustengatu gabe, eiçten baduçu.

Eçtuçu chahutarçun seguric, çuc houra beguiratcen eçpaduçu.

Eçtuçu goure beguiratcia deusentaco ere houn, çoure beguira saintiac sekhorritcen eçpagutu.

Eci guihauri eiçten bagutuçu, erorten eta galtcen gutuçu, çutçaç aldiç bisitatiac baguira, jaikiten eta bicitcen gutuçu.

Eguia-duçu, khambiacor guirela, bena çuc fermotcen gutuçu, eta ephelten guirenian, çuc berotcen gutuçu.

3. Ala beitut nic nihaurtçaç fendimentu umilic, eta aphalic ukhen behar! ala beitut eçdeus oufte ukhen behar, dela cerbait hountarçunen uduripen dudena!

Ala beitut nic, aphal beno aphalago jarri behar, Jauna, çoure jujamentien lece handiaren pian, çougntan edireiten beitut, ni befteric deus eniçala, eç deus eta eçdeus baicic!

O pheçu thermagnu gabia! o itchaffo ecin igaraiten dena! çougntan nihaurtçaç deus befteric eç peitut edireiten, baicic ere offoki eçdeus niçala.

Noun date arren, ene gloriaren eftalgunia? noun ene berthutian hartu nian confidantchá?

Banaloria oro irexi içan duçu, çoure nitan gagneco jujamentien barnatarçunian.

4. Cer dira guiçonac oro, çoure aitcinian? *lurreçco phitcherrac bere eguiliaren countre glorificaturen direya?*

Guiçon, çougnen ere bihotça eguian Jincouaren manu pian beitago, noula elhe banouetçaç urgulluxuturen ahal-da?

Mundiac oroc ecin goratcen diçu, eguiac bere pian aphal eraci diana; eta bere efparantcha fermoki Jincouatan eçarri diana, eçtucu çotucaturen mun-

du ororen laidorioucgatic.

Eci laidaçale hourac berac eçdeus dutuçu, eta bere elhen heroxa beçala, galduren dutuçu, *Jincouaren egnia aldiç badiagoçu bethierecoç.*

# XV. CAPITULIA.

*Noula egon, eta mintçatu behar den; gaiça desiratcen ahal diren orotan.*

1. *B.* ENe semia houlache mintça cite, gaiça orotan; Jauna, çoure placera balin bada, eguin bedi hori hola.

Jauna, çoure ouhouria hala bada, eguin bedi hori çoure icenetan.

Jauna, ikhousten baduçu eni conheni dela, eta houn dela enetaco, ounhesten baducu, ordian emaduçu gracia, hartçaç çoure ouhouretan cerbutcha ahal nadin.

Bena eçagutcen baduçu, enetaco gaichto datekiala, eta arimaren salbamentiaren eçtatekiala houn: halaco desircuntiac idoki itçaçu eneganic.

Eci desircuntiac oro eçtutuçu espiritu saintiaganic, çoumbatere guiçonari

chuchen eta houn uduritcen beitçaitço.

Eçtuçu ehi eguiaren clarki eçagutcia, ala eçpiritu hounac, ala gaichtouac gaiça baten, edo beſtebaten deſiratcera boulcatcen çutian: ala orano cihauren eçpiritiac hartara erakharten çutian.

Hanitch gente açken urhentcian troumpatu içan dira, çougn haxarrian uduri beitcen, eçpiritu hounaç boulcatiac cirela.

2. Hartacoç cer ere eçpiritiala deſiragarritic jiten ahal beita, harec behar-du deſiratu, eta galthatu içan Jincouaren loxareki, eta bihotceco umilitatiareki: eta orotan gainti, cihaurec boronthateric ukhen gabe, eni oro eitci behar duçu erraiten duçularic.

Jauna, çuc badakiçu noula den hobekienic: haur, edo houra eguin bedi, çuc placer duçun beçala.

Emaçu placer duçuna, placer duçun beçambat, eta placer duçunian.

Eguiçu eneki, dakiçun beçala, eta cihauri placentenic, eta coure ouhouriaren hobekienic den beçala.

Eçar naçaçu placer duçun lekhian, eta nitçaç eguiçu, placer duçuna, libertate oſſobateki.

Coure esklietan nuçu, utçul naçaçu,

horrat hounat ungurian.

Haur nucula çoure cerbutcharia; orotara prest niçana, nihauren bicitceric çouretaco baicic, eçtudanen gagnen desiratcen; bena houra ounxa, eta çuc merechi duçun beçala, emplega deçadan cihaure urgaitç naçaçu.

3. C. O Jesus, ecinago houn eta eçti cirena, emadaçu çoure gracia, amourecatic eneki den, eneki triballa-dadin, eta eneki, açken urhentciala drano, iragn deçan.

Desira eraci, eta nahi ukhen eraci eçadaçu bethiere çouri maithagarrienic, eta placentenic çaiçun gaiça.

Çoure boronthatia enia-den, eta enia bethi çouriari jarraiki dadin, eta bake ecinago hounbatetan, hareki içan dadin.

Çuc nahi duçuna, dudan nahi, çuc eçnahituçuna, eçtudan nahi, eta eçtudan photereric nahi, edo eç nahi ukheiteco, çuc nahi, edo nahi eçtuçuna baicic.

4. Mundian diren gaicer orori hiltceco gracia galthatcen deiçut, eta guiçonen artian eç eçagutu, eta bai mesperetchatu içatia, çoure amourecatic maitha deçadan.

Phaussa nadin çutan gaiça desiratcen

dutudan ororen gagnetic, eta ene bihotça çutan bakian içan dadin.

Cu cira eguiaçco bihotceco bakia, eta phaussu bakhoitça: çutaric campo, oro neke, eta greugarri dutuçu. Loturen, eta phaussaturen nuçu bake hartan berian, erran nahi beita, çutan, çougn beitcira hountarçun eternala, eta ecinago handi dena, hala biç.

## XVI. CAPITULIA.

*Jincouatan beraurtan behar dela tcherkhatu eguiaçco consoliona.*

1. C. ECtit heben egurukiten, beña bai beste mundian, cer ere ene consolacionetaco desira, edo phensa ahal beitirot.

Nutian ordian nihaurc, munduco consolacioniac oro, eta placereç oroç goça ahal nendin ordian; gaiça sergubat duçu, enirouala iragn ahal luçaç.

2. Hortic agueri duçu, eçtiroçula, o ene arima, ediren consolacione, eta alagrantcia osobat, jincouatan baicic, çougnec praubiac consolatcen, eta umilac sokhorritcen beitutu.

Egurucaçu aphurbat, egurucaçu, o ene arima, jincouaren promesa, eta ukhenen duçu celian, hountarçun ororen bilkhura.

Oraico gaiçac sobera, behar eçten beçala, desiratcen badutuçu, celucouac, eta eternitatecouac galduren dutuçu.

Houn themporaletçaç cerbutcha cite, eta eternitatecouac desira itçaçu.

Eçtuçu houn themporalic, çu ossokl assecia ahal citçakeyenic, ceren eçpeitcira creatu içan hen goçatceco.

3. Houn creatu içan direnac oro çunlian ordian, etcinteke içan ahal dohaxu: bena çoure dohaxutarçuna oro diagoçu jincouatan, gaicen ororen creaçacian.

Eçtuçu dohaxuntarçun houra, mundu hounen maithaçale erhouec ouste, eta laidatcen dien beçala; bena Jesu Kristen cerbutchari fidelec egurukiten dien beçala, eta arima chahiec, çoumbait orduç, goçatcen dien beçala, çougnen phensamentiac oro, celietan beitande.

Guiçoneganic jiten den consolacionia oro, bano eta llabur-da.

Eguiac bihotcian boroga eracitcen deicun consolacionia-da, dohaxia, eta guiaççouea.

Guiçon debotac lekhu orotan bereki kharreiatcen-du Jesu Krist bere consolaçalia, eta erraiten deyo sokhorri naçaçu, ene Jesus Jauna, thempora, eta lekhu orotan.

Biç haur ene consolacionia; consolacionen ororen gabeciaren, gogo houneç, nahi ukheitia.

Eta çoure consolacionia faltatcen baçait, çoure boronthatia, eta ene borogatceco emaiten deitadaçun gaçtiguia, cerbutcha dakidan ene consolacioneric handienarentaco.

Eci çoure khechatcia, eçtuçu bethierecoç, ecetare çoure mehatchia eternitatecoç.

---

## XVII. CAPITULIA.

*Goure arrancurec oroc Jincoatan eçarri behar diela.*

1\. *B.* FNne semia, eitç naçaçu, çutan nahi dudanaren eguitera; nic bacikit cer den houn çouretaco.

Guiçon ciren beçala, çoure phensamentiac jiten çaitçu, eta çoure sendi-

mentiac hanitch guiçatan, guiçonen emourac consceillat-cen deitcien beçala dutuçu.

*C*. Jauna, çuc dioçuna eguia duçu, çuc enetaco duçun arrancura, handiago duçu, ecieç nic nihaurentaco ukhen ahal nirouana oro.

Eci nourc ere bere arrancura oro çutan eçpeitu eçarten, houra erorcor dukeçu.

Jauna, nitçaç eguiçu placer duçuna, ene boronthatia çoureganat chuchen, eta fermo egon dadin-ber.

Eci nitçaç eguinen duçuna oro, houn baicic ecin içaten ahal duçu.

2. Placer baduçu ulhumpian içan nadin, cirela benedicatu; eta placer baduçu arguian içan nadin, cirela berriç benedicatu; ene consolatceco hountarçuna balin baduçu, cirela benedicatu; eta nahi baduçu thurburarçunian içan nadin, cirela orobat bethiere benedicatu.

*B*. Ene semia, holache egon behar duçu, encki ebili nahi balin bacira.

Hagn lehiatu içan behar duçu soferitceco, noula alagueratceco.

Hagn gogo houneç behar duçu içan mengouatu, eta praube, noula ukhentsu eta aberax.

3. *C.* Jauna, nitan gagna erakharriren dutuçun phenac oro, çouregatic gogo houneç, soferituren citit.

Bardinçki hartu nahi citit, çoure escutic houná eta gaitçá, eçtiá eta kharaxá, alaguerá eta tristiá; eta çouri eskerrac eman, eni heltcen çaiçtan gaiça orotçaç.

Beguira naçaçu bekhatu orotaric, eta enuçu loxa içanen heriouaren, eç iferniaren.

Seculacoç egoitç, eta biciaren librutic khen enaçaçun ber; nitan gagna jinen diren thurburarçunec oroc, eçtitacie damuric eretchekiren.

---

## XVIII. CAPITULIA.

*Mundu hountaco miseriec, behar diela pacentcia eçtibateki, soferitu Jesus Kristen exemplíala.*

1. *B.* ENe semia, ni çoure salbamentiagatic celutic jaixi nuçu, çoure miserietçaç cargatu içan nuçu, eç bortchaç, bena amourioç, amourecatic pacentcia ukheiten ikhas ceneçan, eta mundu hountaco miseriac,

maugrenaye gabe, soferi cintçan.

Eci ene lehen sortcepenaren orenaç gueroç, khurutchian hil artio, eçtitaçu doloriaren soferitciac huxic eguin.

Gaiça themporaletaric menx handiric ukhen dit, hanitch plagnu nitçaç ardura entçun dit, ahalkiac, eta laidouac eçtiki soferitu citit, ene hounki-eguinen esker gaichotoua, ene miracullien blasfemiouac, eta ene eracouste hounen, acusantcha falsiac ukhen citit.

2. C. Jauna, çoure mentian pacient içan cirenen gagnen, orotan gainti, çoure aitaren maniaren complitcian; justo duçu, ni beçalaco bekhatore miserablebatec, çoure boronthatiaren araur pacientki bere buria soferi deçan: eta çuc placer duçun artio, bicitce gastatu hounen carga, bere salbamentiagatic kharreya deçan.

Eci çoumbatere oraico bicitciaren carga pheçu ihourc senditcen beitu, haregatic orogatic çoure graciaren photeriaç, merechimentu handitaco guerthatu duçu, eta flakien ere, çoure exemplia ri, eta çoure saintien hatcer jarraikiten direlaric, sustengagarriago, eta baliousago.

Hanitcheç ere consolagarriago duçu;

ecieç nouçpait beitcen legue çaharrian, nouicere celuco bortha cerraturic beitçagouen, eta celialaco bidia ere uthunago uduri beitcen, hagn gente aphurrec hanco erresomaren tcherkhatceco arrancura hartcen cienen gagnen.

Ordian justo cirenac ere, etcitakeçun-salba, çoure possionia beno lehen, eta etcitakeçun sar ahal celuco erresoman, çuc çoure heriotce saintia compli artio.

3. *C.* O çoumbat esker eçteiçut çouri eman behar, ceren ukhen duçun hountarçuna, eni, eta arima fidel orori, eracousteco hagn bide chuchenbat, eta hounbat, çoure eternitateco erresomalat jouaiteco.

Eci çoure bicitcia, goure bidia duçu, eta pacentcia saintiaren moyaneç, jouaiten gutuçu çoureganat, çougn beitcira goure khoroüa.

Aitcinetic exemplia eman, eta eracouxi eçpaceneicu, nourc luke çouri jarraikiteco arrancura?

Elas çoumbat lirateke, hurrun, eta guibelian bara litakianac, ikhous eçpalitce çoure exemplu ederrac.

Haregatic orogatic ephel guiaudetçu, hagn beste miraculluren eta pheredicu-

ren entçun oundouan; cer liçate, eç-
pagunu hagn argui handibat çouri jar-
raikiteco ?

---

## XIX. CAPITULIA.

*Goitçarrenen ounhestiaç, eta nour eguiaç-ki pacient-den borogatciaç.*

1. *B.* CEr-da çuc dioçuna, ene semia, acaba bite çoure plagniac, ene, eta beste saintien passionia ounxa ikhoussi oundouan.

Etcira orano bortchacatu, çoure odola ichour artio.

Gaiça aphurra duçu, çuc soferitcen duçuna, parrian eçarten balin baduçu, hagn beste soferitu dienekilan, çougn hagn aççarki tentatu, hagn mingarki hiratu, hagn beste guisaç borogatu, eta eskerniatu içan beitira.

Behar dutuçu arren, besten garratçagouac eçpiritiala erakharri, cihauren tchipigniac arhinçkiago soferi ditçaçun amourecatic.

Eta eçpaçaitçu uduri tchipigni direla, gogoua emaçu, çoure pacentcia gabiac hala uduri eraci eçtitçatçun.

Bena

Bena ala diren tchipi, ala diren handi, issteya çite ororen pacientki igourstera.

2. Coumbatenaç hobeki hen igourstera adelatcen beitcira; hambatenaç çuhurkiago gobernatcen cira, eta haboro merechitcen duçu, arhinçkiago ere phenac egariren dutuçu, costumatcen cir elaric hen corajouski hartcera.

Eçteçaçula erran: eçtitçakeçut hoyec holaco guiçonbateganic ounhex, eta holaco gaiçaric nic eçtit behar soferitu, eci damu handibat eguinditaçu, eta jagoiti phensamentiala jin etçaiçtan gaiçac muthurrian eman ditçtadatçu: bestebateganic aldiç, gogo hounec, soferituren citit, soferitceco direla uduri çaitçkedanac.

Arraçou gabe-da phensamentu hori, çougnec eçpeitu gogouaric emaiten pacentciaren berthutiari, eç nourganic phakia ukhenen dian: bai aldiç, bere beithan lehenago ikhousten, çougn diren goitçarren hartiac, eta eguiliac.

3. Soferitu nahi eçtianac berauri uduri çayon beçambat, eta placer dianaganic baicic, eçtu eguiaçco pacentcia.

Bena eguiaçki pacient denac, eçtu gogouaric emaiten, ala bere guehienac, ala bere bardinac, ala bera beno aphala-

gouac, ala guiçon saintubatec, ala gaiçkiala eman batec, soferi eraciteen deyon.

Bena bardinçki jincouaren escutic esker handireki hartcen-du, cerbait gaitç heltcen çayonian, çoumbat nahi beita handi-den, nourganic nahi beita, eta çoumbat nahi beita ardura, jin dakion, eta oro ouste-du irabaci handibat dela harentaco.

Cereneta deusere jincouaren eretcian, çoumbat nahi-beita tchipi den, haren amourecatic ihourc soferitu dianian, merechimentu gabe ecin içaten beita.

4. Içan cite arren çognhu gabe gudu-calaco prest, bitoria nahi baduçu eraman.

Debadio gabe ecin jardiesten duçu pacentciaren khoroüa.

Nahi eçpaduçu soferitu, etcira nahi içan khoroüatu.

Khoroüatu aldiç içatia desiratcen baduçu, guerla eguiçu bihotçtoiki, soferi eçaçu pacientki.

Eçta ihour triballu gabe phaussiala heltcen, ecetare guduca gabe bitoria ihoure jardiesten.

C. Naturalki ecin eguiten dela uduritcen çaitan gaiça, guertha bekit, Jauna, ehi, çoure graciaren moyanеç.

Badakiçu çuc, aphur ſoferitcen ahal dudala, eta gaitç tchipibaten jitiac, berhala coragia gal eracitcen deitadala.
Guertha bekit maithagarri, eta deſiragarri, çoure amourecatic, cer nahibeta thurburarçunen ſoferitcia, eci ſoferitcia, eta çouregatic eskerniatu içatia, ecinago balious duçu, ene arimarentaco.

---

## XX. CAPITULIA.

*Guihauren flacutarçunaren aithortciaç, eta mundu hountaco miſerietçaç.*

1\. C. AIthorturen-dit, nihauren countre, ene gaichtokeria: aithorturen deiçut, Jauna, ene flacutarçuna.
Hanitchetan gaiça tchipibat dukeçu, ni bihotç gabetcen, eta triſtetcen nayana.
Hartcen diçut boronthate, corajous içateco; bena tentacione tchipibat jinden beçagn ſarri, herſidura handibatetan edireiten nuçu.
Gaiça erras char denbat dukeçu, çoumbait orduç, tentacione gaitçbat erakharten deitadana.

Eta nouicere, senditcen eçtudan themporan, ouste beituket, segur niçala aphurbat; ordian edireiten diçut ene buria, aïce tchipi bateç hullangni goithuric çoumbait aldiç.

2. Ikhoussaçu arren, Jauna, ene aphaltarçuna, eta ene, buru oroç, eçaguteen duçun erorcor içatia.

Ukheçu pietate, eta idoki naçaçu lohitic, barna sar enadin, eta han eroriric, ihountiç ajuturic gabe, egon enadin.

Horrec diçtatçu ardura loxeriac emaiten, eta niçu çoure aitcinian ahalketcen; ceren niçan hagn erorcor, eta flaçu, ene passionen countre buhurtceco.

Çoumbatere eçpeitut ossoki emaiten baimentoua; halaric ere pheçu, eta greugarri ciraçu, hen hersiki jarraikitia, eta hanitch nuçu debeyatcen hola guducan bicitceç egun oroç.

Hantic ene flacutarçunaren eçagutciala jiten nuçu; ceren hanitcheç ehikiago sartcen beitira bethiere imagina, eta figura itchoussiac, ecieç jalkiten.

3. O Israelen ecinago photerous ciren Jincoua, arima fidelen houniala erakarlia, sobat eguiçu çoure cerbutchariaren phenari, eta doloriari, eta urgaitç eçaçu

eguinen dutian gaiça orotan.

Aççar naçaçu celuco indarraç, beldurreç guiçon çaharrac, erran nahi beitra, aragui miserable eçpiritiaren pian orano ounxa jarri eçtenac, gagnia har diçadan: çougnen countre guducatu behar beitugu, bicitce miseriaç bethe hountan guireno.

Elas noulaco-den bicitce haur! noun thurburarçun eta miseria baicic eçpeita: noun oro laçoç, eta exayeç betheric beitira!

Eci thurburarçun, edo tentacione baten jouaitiareki, bestebat jiten-da, eta sordei dena orano, lehen exaya ounxa goithu gabe, bestiac saldoç jiten çaiçcu egurukiten eçtutugularic.

4. Eta noula ihourc maithatcen ahaldu, bicitce hangbeste kharaxtarçun diana, hagn beste calamitateren, eta miseriaren pian dagouena?

Bicitce ere noula deitcen ahal-da; hagnbeste heriotce, eta gaitç erakarten diana?

Eta haregatic maithatia-da, eta hanitchec hartan placer hartcia tcherkhatcen die.

Ardura mundiaren countre ihourc erraiten-du, inganaçale, eta bano dela;

bena haregatic nekeç ihourc eiçten-du, ceren araguiaren nahicuntec sobera gagnia hartu beitie.

Gaiça batcec haren maithatcera, bestec haren mesperetchatcera erakhartendie.

Mundiaren maite ukheitera erakharten die araguiaren, eta beguien desirec, eta içate hounen superbiac : eta haren mesperetchatcera, eta hartçaç debeiarçun hartcera aldiç, phena eta miseria her justoki jarraikiten direnec.

5. Bena elas! placer gaichtouac, eçpiritu mundiari enjogui dena garhaitcendu, eta ouste-du, elhorri phunten artian badirela placerac : ceren eçpeitu, eç ikhoussi, eç goçatu jincouaren eçtitarçuna, eta berthutiaren barnetico edertarçuna.

Bena çougnec ere mundia ossoki mespertchatcen beitie, eta isseyatcen beitira, jincouaren leguiaren araur bicitcera, hec eçagutcen die celuco eçtitarçun, eguiaçki mundiari ihessi eguiler hitçenian içan dena, eta clarkiago ikhousten die, çougnen itchouski mundia herratcen den, eta çoumbat guisaç inganatu içaten.

## XXI. CAPITULIA.

*Jincouatan phauſſatu behar dugula; hountarçun, eta dohagn ororen gagnetic.*

1. C. JIncouatan bethi phauſſaturen cira, ene arima, gaiça orotan, eta hen ororen gagnetic, ceren houra beita ſaintien phauſſu eternala.

O Jeſus ecinago eçti, eta maithagarri cirena, ounhex eçaçu, çutan haboro phauſſa nadin, ecieç creatura orotan, haboro ecieç oſſagarrian, eta edertaçunian, haboro ecieç ouhoure, eta gloria orotan, haboro ecieç photere, eta cargu orotan, haboro ecieç jakite, eta eçpiritu çorrotçtarçun orotan, haboro eçieç aberaxtarçun, eta adrecia orotan, haboro ecieç alagrantcia, eta boçtario orotan, haboro ecieç fama houn, eta laidorio orotan, haboro ecieç eçtitarçun, eta conſolio orotan, haboro ecieç eſparantcha eta hitç-emaite orotan, haboro ecieç merechimentu, eta deſircunte orotan.

Cihaur nahiago çutudan, ecieç hountarçun, eta dohagn eman, edo ichour ahal ditçakeçudanac oro, edo eçpiri-

tiac har, edo sendi ahal litçakian ala-grantciac, eta boçtariouac oro.

Hitç bateç erraitera, enadin phaussa, eç Aingurietan, eç arcanguelietan, eç celuco armada orotan; ecetare gaiça ikhousten, edo ecin ikhousten ahal direnetan, eç çu, ene Jincoua, etciren gaiçatan batetan ere.

2. Ceren çu, ene Jinco-Jauna, gaiça ororen gagnetic ecinago houn, ecinago gora, ecinago photerexu beitcira, çuc cihaurtan badutuçu behar diren gaiçac oro ecinago bethe ecinago eçti, ecinago consolaçale cira.

Çu baicic eçtuçu, ecinago eder, eta maithagarri denic: çutan duçu, gaiça ororen gagnetic, ouhoure eta gloria ecinago handia: çutan edireiten dutuçu, içaten ahal diren beçagn ounxa, hountarçunac oro alkharreki, eta bethi içan dutuçu, eta içanen ere bai.

Eta hala cerere, cihaurtçaç campo, eman beitcinirot, edo çoumbat nahibeita argui eracoux, edo hitç eman ciniçadan, hourac oro elutukeçu aski, cihaur ikhoussi, edo ossoki goçatu gabe.

Ene bihotça ecin eguiaçki phaussatcen denen gagnen, eç ossoki asseciatcen, cihaurtan baiçiç, çoure gaiça

emanac, et creaturac oro beno gorago jouaiten delaric.

3. O Jesu-Krist ene espous ecinago maitia, maithaçale ecinago chahia, creatura ororen burçaguia, nourc emanen deitçat eguiaçco libertatiaren hegalac, çoureganat hegaltatceco, eta çutan phaussatceco.

O nouiç eman içanen çait, ene Jinco-Jauna, çougnen eçti ciren, ossoki ikhoustia, eta goçatcia.

Nouiç çoureki juntaturen niç, hagn ossoki, noun çoureganaco amourioua-ren handitarçunac nihaurganaco séndimentia gal eraci diçadan; amourecatic çu goça citçadan, centcier eman eçten beçala, eta oroc eçagutcen eçtien gussabateç.

Orai aldiç hasperen ardura eguitendit, eta ene desditchatu içatia, dolorereki kharreiatcen.

Ceren miseriaçco lekhu hountan hanitch gaitç jiten beitira; çougnec ardura errebelatcen, tristetcen, eta ulhuntcen benaye: ardura ene eçpiritia arrancuran, barreyarçunian, eta bereganat thiratcen dielaric, nahaspillan etchekiten beiteitade; eta hori dela causa, çoureganat ecin hullantcen nuçu, threbucu

gabe, ecetare goçatcen, bessarca maithagarri celuco ekhoiliarrer thaïc gabe emaiten dutuçunetçaç.

Ene hasperenac, eta ene lurren gagneco hagn beste guisataco eskerniouaç othoi hounki ciççala.

4. O Jesus, gloria eternalaren argui ederra, arima heben desterraturic dagouenaren consolioua, çu beithan diagoçu ene ahoüa, botcic gabe, eta ene ichilic egoitia mintçatcen çaïçu.

Nouiçartio berantcen-du ene Jincouac eneganat jitia.

Biaigu bere praubegnou houneganat, eta alaguera beça, heda beça bere eskia, eta solta miserable haur bere hersidura orotaric.

Ciauri, ciauri, ceren çu gabe eçpeita, eç egun, eç oren maithagarriric, ceren çu beitcira ene alagrantcia, eta çu gabe hux beita ene mahagna.

Miserable nuçu, eta presounteguibatetan beininç beçala burdugnaç cargaturic: çoure presentciaren arguiaç consola naçaçun artio, eta çoure beguitharte maithagarria eracousten deitaçularic, libertatia eman diçadaçun artio.

5. Bestec çoure plaçan tcherkha bitce placer dutien gaïçac oro: bena eni

deus beſtec eçtitaçu eguiten, eç eguinen placeric, çuc baicic, ene Jincoua, ene eſperantchá, eta ſalbamentu eternala.

Enuçu ichilic egonen, ecetare othoitcetic baraturen, çoure gracia utçul dakidan, eta çu bihotcian mintça çakiçtadan artio.

*B.* Haur nuçula ni, haur nuçula çoure khantian, deithu naiçulacoç çoure nigarrec, eta çoure arimaren deſirac, çoure umilitatiac eta bihotceco dolumenac utçul eraci, eta jin eraci nicie çouréganat.

6. C. Eta erran diçut: deithu çutut, Jauna, eta çutçaç goçatcia deſiratu diçut, nagouelaric preſt çoure amourecatic, beſte gaiça ororen hurrun apartatcera.

Eci çuc lehenic iratcarri naiçu, cihauren tcherkha eracitceco.

Cirela arren benedicatu, Jauna, ceren hountarçun haur, çoure cerbutchariaren ukhen duçun, çoure miſericordiaren, hanitchtarçunaren araur.

Cer-du haboro, çoure aitcinian, erraitecoric çoure cerbutchariac, baicikere han ounxa umilia dadin, bethi orhitcen delaric bere inikitatiaç eta eçdeuſtarçunaç.

Eci eçtuçu çu uduriric, celian, eta lurrian eguin dutuçun gaiça miragarri orotan.

Ecinago houn dutuçu çoure obrac, jujamentiac eguiati, eta gaiçac oro çoure probidenciaç dutuçu gobernatu.

Biç arren çouretaco laidorio eta gloria, o aitaren çuhurtarçuna; laida, eta benedica citcela ene ahouac, ene arimac, eta creatura oroc alkharreki.

---

## XXII. CAPITULIA.

*Jinconaren hanitch guisataco hounki eguinen orhitmentchaç.*

1. C. IDecaçu, Jauna, ene bihotça çoure leguian, eta eracoux içadaçu, çoure manietan ebilten.

Emadaçu çoure boronthatiaren eçagutcia, eta orhit eracitçadaçu, aphalmentu, eta eçagutçe handibateki, nouiç beste ororeki, nahasteca nouiç nihauri berheciki eguin deitçtadaçun hountarçunac, amourecatic guero behar diren eskerrac eman ditçaçudan.

Bena bacikit, eta aithortcen dit, eçtirodala, mendren mendrenaren ere, behar

thar den eskerric eman.

Hounki eguin deitçtaçunac oro beno tchipiago nuçu, eta ounxa ſo eguiten dudanian çoure handitarçunari, hartan berian ene eçpiritia galtcen duçu.

2. Ariman, eta khorpitcian dutugun gaiçac oro, campotic, edo barnetic, naturalki, edo celutic goçatcen dutugunac oro, çoure hounki eguinac dutuçu, eta hec eracouſten dicie, çu hounki eguile, ſaintu, eta houn circla, eta çoureganic dutugula hounac oro.

Eta çoumbatere batac haboro, beſtiac aphurrago ukhen beitu, hargatic oro çouriac dutuçu, eta çu gabe, ecin ihourc ukheiten ahal diçu mendren mendrena.

• Haborouago ukhen diana, eçtiteçu bere merechimentiaç glorifica, eç beſten gagnetic jar, ecetare gutiago dianari trufaric eguin: ceren bere buriari aphurrenic emaiten diana, eta eskerretan umilenic, eta debotenic dena beita, hobena eta handiena.

Eta bere buria beſtiac oro beno charrago, eta merechimentu gabiago etchekiten diana beita, propiena, hountarçun handiagoric jardieſteco.

3. Hargatic gutiago ukhen dianac eçtu

behar triſtetu, eç khechatu, eç haboro dianari imbidiaric ekharri; bena çoi. i lehenago io eguin, eta çoure hountarçuna ecinago haboro laidatu, ceren hagn largoki, hagn dohagn, eta hagn gogo hounec, ihouren berheçkeriaric gabe, çoure graciac emaiten dutuçun.

Oro çoureganic dutuçu, eta hartacoç orotan laidatu içan behar duçu.

Badakiçu cer conbeni-den, batbederari eman içan dakion: eta eçtuçu gouri eman, cerentaco batac aphurrago, beſtiac hoboronago ukhen dian jujatcia; bena bai çouri, çuc içarturic beitutuçu batbederaren merechimentiac.

4. Hartacoç, enc Jinco Jauna, hounki-eguin handibat beçala etchekiten dit çut, eç ukheitia gaiça, campotic, eta guiçonen ſendimentiaren araur, laidorio eta gloria eman eraciteen dienetaric; guiſabateç noun, batbedera:c here burriaren, eçagutu oundouan ...neitu ſolamentç behar pheçutu, triſtetu, eta deſcorajatu; bena bai lehenago conſolatu, eta alagueratu hanitch, ceren çuc, ene Jincoua, çoure adich ...kidetaco, et. michecanditaco hautatu beitutuçu praubiac, eta umilac, eta mundu hountçaz meiperetchatu dirtnac.

Jakile dutuçu çoure Apoſtoliac berac, çougn *mundu orotaco guehien eçarri, beitutuçu.*

Bici içan dutuçu mundian, plagnuric gabe, umil, eta ſimple cirelaric, malecciaric, eta finaciaric batere gabe, guiſa-bateç noun, *çoure icenetan goitçarren ſoferitciaç alagueratcen beitciren*, beſſarcatcen çutielaric goço handireki mundiac huguien çutian gaiçac.

5. Deuſec ere arren eçtiçu hagn alagueratu behar çu maite çutiana, eta çoure hounki eguinen eçagutçalia, noula çoure boronthatiaren hartan complitu içatiac, çoure eternitateco placer hounaren araur.

Hagn beſtetara drano horreç content, eta conſolatu içan behar-du, noun, hagn gogo houneç tchipienic içan nahi beita, noula beſtebatec handienic içatia deſira beiliro.

Hagn content eta bakeçco, lekhuric aphalenian, noula gorenian, eta hagn beſte plaçer hartu behar-du, aphur, eta meſperetchatu içatiaç, eta famaric eç ukheitiaç; noula beſtec beitie mundian ouhouratu, eta handitaco igaraitiaç.

Eci çoure boronthatiac, eta çoure ouhouriaren amouriouac beſten ororen gaç

gnetic içan behar dicie, eta haboro consolacione, eta placer eman behar dieçu, ecieç hountarçun jadanic ukhen, edo guero ukhen behar dutianec oroc.

## XXIII. CAPITULIA.

*Bake handibat erakharten dien laur gaiçaç.*

1. *B.* ENe semia, orai eracouxiren deiçut, bakiaren, eta eguiaçco libertatiaren, bidia.

*C.* Eguiçu, Jauna, erran duçun beçala, ceren horren entçutiac, placer eguinen beiteit.

*B.* Isseya cite, ene semia, besteren lehenago, ecieç cihauren boronthatiaren eguitera.

Haita eçaçu bethi aphurrago, ecieç haborouago ukheitia.

Tcherkha eçaçu bethi, lekhuric aphalena, eta besten pian içatia.

Desira, eta othoi eguiçu bethi, Jincouaren boronthatia çutan ossoki eguin içan dadin.

Hola datian guiçona sarthuren da bakian, eta phaussian.

2. *C.* Jauna, çoure elhesta llabur hounec badiçu bere beithan ounxatarçun hanitch.

Erraiteco tchipi duçu, entheleguç aldiç handi, eta ekhoitçpeneç aberax.

Eci leyalki beguira ahal balin baneça, nahaspillac elikeçu behar nitan, hagu ehiki sorthu.

Eci ene buria bake gabe, edo pheçuturic senditcen dudan ordu oroç, edireiten diçut, çuc eracouxi gaicetaric hurruntu niçala.

Bena çuc photeriac oro beitutuçu, eta arimaren, profeitia bethi maite beituçu, emenda eçaçu nitan çoure gracia; amourecatic çoure erranac compli, eta ene salbamentia eguin ahal deçadan.

3. *Etcitiala, ene Jinco Jauna, niganic hurrunt, ene Jincoua, sokhorri emaiteco sobat eguidaçu*, ene countre chutitu direnen gagnen hanitch phensamentu souerte, eta ene arima doloreç bethatcen dien loxeri handiac.

Noula hetaric igarenen-niç, minic hartu gabe? noula acaçaturen dutut?

*B.* Ni, dio Jaunac, çoure aitcinetic jouanen nuçu: nic aphalturen citit lurreco banitatousac: nic idekiren citit presounteguico borthac, eta segretien gai-

ça estaliac eracouxiren deitçut.

C. Eguicu, Jauna, erraiten duçun beçala; eta çoure aitcinetic, ene phensamentu gaichtouac oro ihessi jouan ditiala.

Ene esparantcha eta consolacione bakhoitça duçu, couri ene thurburarçun orotan hersatcia, çutan confidantcha hartcia, çoure bihotçaren erditic othoitcia, eta çoure consolacioniaren pacentciareki egurukitia.

4. Argui naçaçu, ene Jesus houna, barnetico arguiaren legnhuriaç, eta idoki itçaçu ene bihotçaren egongutic ulhuntarçunac oro.

Bara itçadaçu ene barreiarçunac, nahibada hanitch diren, eta eçdeusctara erakhar itçaçu eni bortcha eguin nahi deitaden tentacioniac.

Batalla cite aççarki enegatic, eta bortcha itçaçu abere guichtouac, erran nahi dit, desircunte placeretara enjogui direnac, amourecatic çoure photeriac bakia, eman diaçadan, eta çoure laidorioua largoki erantçun deçadan çoure khorte saintian, erran nahi beita contcentcia chahubatetan.

Emaçu çoure mania aicer, eta erauntsier, erraçu itchassouari, phaussa-adi,

eta aice beltçari, eçteçala aiceric eguin, eta içanen duçu phauſſu handibat.

5. Igorraçu çoure eguiaren arguia; amourecatic lurra argui deçan, ceren eçpeiniç lur hux, deuſen houn eçtenbat baicic, çuc argui neçaçun artio.

Jaix eraci eçaçu gagnetic çoure gracia, celuco ihitçaç bouſta eçaçu ene bihotça, ichour itçaçu debocioniaren hourac, lur gagnaren trempatceco, eta hari frutu ecin hoberic erakharteco.

Goiti eçaduçu eçpiritu, bekhatien pheciac, aphal eraci deitadan haur, eta ene deſira oro celuco gaicetan egon eraciçadaçu; amourecatic celuco içatiaren eçtitarçuna goçatuç gueroç, ahalke nadin lurreco gaicetçaç phenſamenturic ukheitiaç.

Altcha naçaçu, eta ſolta creatura ororen ecin iraignen dian conſolacionetic: ceren eçpeita gaiça creatu içan denic batere, ene arima oſſoki phauſſa eraci, eta conſola dirouanic.

Junta naçaçu çouri, amouriouaren ecin ſoltatcen den oropilouaç: çu ci haur aski cirenen gagnen, maite çutianaren, eta çu gabe, beſte gaicec oroc deuſere balio eçtienian.

## XXIV. CAPITULIA.

*Eçtela behar, sobera jakin-nahireki, besteren bicitcia tcherkhatu.*

1\. *B.* ETcitiala, ene semia, içan jakin behar hetaric, eçteçaçula ukhen arrancura behar gaberic.

Cer douaçu, halaco, edo houlaco gaiçan? çuc eçtuçu eni jarraikitia baicic.

Eci cer douaçu, ala houra houlaco, edo halaco-den, ala haur houla, edo hala goberna, eta mintça dadin?

Bestetçaç ihardesteco beharric eçtuçu, bena cihauren khontiac beharturen çaitçu eman; ceren arren hen akhodignetan sartcen cira?

Haur nuçula ni, ororen eçagutçalia, eta ekhiaren pian eguiten diren gaicen ororen ikhouslia: bacikit, cer guisaç batbedera-den, eta cer dian bihotcian, cer nahi dian, eta certara douen haren intencionia.

Oroc arren eni eitci behar dicie: çu aldiç beguira cite bake hounbatetan, eta eitçaçu, buria akhodignaç betheric dia-

na, hetan nahi beçambat egoitera.

Eguinen, edo erranen dutian gaicac oro, jinen citçoçu beraurtan gagna; ceren ni ecin inganatcen beinai.

2. Icen handibaten itçalaç, gente hanitchen adichkidegouaç, eta guiçonen maitetarçun berheciaç eçtuçula acholic. Eci gaiça horiec bihotceco barreyarçun, eta ulhuntarçun handiac erakharten citicie.

Placer har niroçu çouri ene hitcen erraiteç, eta gaiça estalien eracousteç, ounxa gouaita baceneça ene jitia, eta çoure bihotceco bortha ideki baciniçat.

Içan cite gogoua emaile, eta oracione erraile; eta gaiça orotan, çoure buria umilia eçaçu.

---

## XXV. CAPITULIA.

*Certan dagouen bihotceco bake ossoua; eta eguiaçeo arimaren profeitia.*

1. *B.* ENe semia, nic erran dit, *bakia eiçten deiciet, ene bakia emaiten deiciet: bena eç mundiac emaiten dian beçala.*

Oroc bakia desiratcen-die; bena oroc

eguiaçco bakiari so daudian gaicetçaç, eçtie arrancura hartcen.

Ene bakia dago, bihotcetic eçti, eta umble direneki, çoure bakia aldiç içanen duçu pacentcia handibatetan.

Eni behatcen, eta ene borçari jarraikiten bacira, bake handibateç goçaturen ahal cira.

*C.* Cer eguinen-dut arren?

*B.* Gaiça orotan gogoua emaçu. Cer eguiten, edo cer erraiten duçun, eta çoure intencionia oro eni nihauri placer eguitera erakharçu, eta nitçaç campo, eçteçaçula deus desira, eç tcherkha.

Eçteçaçula orano besteren erraneç, edo eguineç jujamentu temerariric eguin, eta çouri fidatu eçtsitçien eguitecouetan etcitiala sar; eta hala etcira hanitch, eç ardura nahassiren.

2. Bena thurburarçunic secula eç senditcia, eta bihotceco, edo khorpitceco erreustarçunic batere eç ukheitia, eçta mundu hountan ihourc ukheiten ahal dian gaiçabat, bena bai phaussu eternalian.

Eçtuçula arren ouste, eguiaçco bakia ediren duçula, phenaric batere senditcen eçtuçulacoç; eç oro ounxa douatçala ihour çoure countre eçtelacoç; ece,

tare ecin hobeki cirela, gaiçac oro çoure gogara heitcen direlacoç.

Eçteçaçula orano finhesteric har, cerbait handiric baduçula, edo berheciki maithatia cirela, debocione, eta eçtitarçun handibatetan cirelacoç; cereneta gaiça horiec eçpeitie eçagut eracitcen eguiaçco berthutiaren maithaçalia, eta hetan eçpeitago guiçonaren profeitia, eta hountarçuna.

3. *C.* Certan arren Jauna.

*B.* Coure buriaren bihotç ossoç Jincouaren boronthatiari eskentcian, eta çoure diren gaicen, badira tchipi, badira handi badira oraico, badira eternitateco, eç tcherkhatcian.

Guisabateç noun khambiamenturic batere gabe, hounac, eta gaitçac oro pheçu beraurtan pheçatcen dutuçularic, eni eskerren emaiten bethiere egon citian.

Hagn beste indar, eta pacentcia esparantchan baduçu, noun barnetico consolacioniaren gal oundouan, çoure bihotça handiagoric soferitcera adela deçaçun, eta cihauren buria hang chahu etchekiten eçpaduçu, noun ouste çunian hagn gaiça handiric etçunukiala behar soferitu.

Bena ni, nic eguiten dutudan gaiça orotan, justo, eta saintu beçala laidatcen banaiçu : ordian ebiliren cira, eguiaçco bakiaren bide chuchenian, eta esparantça segurbat badukeçu ikhoussiren duçala ene beguithartia alagrantcian.

Heltcen ahal balin bacira, çoure buriaren ossoki mesperetchaciala drano; jakin eçaçu eci ordian, çoure hebeco içatiac ukheiten ahal dian beçagn bake ossobateç, goçaturen cirela.

---

## XXVI. CAPITULIA.

*Eçpiritu libertatiaç goçatcen denaren goratarçunaç, çougn ihoure merechitcen beitu oracioniaç lehen, eciez iracourtciaç.*

I. C. JAuna, guiçon ossoki pherestuden baten lana duçu, eçpiritiaren bethi celuco gaicetan estecaturic etchekitia, eta hanitch arrancuraren artian, casi arrancurra gabe içatia : eç herabeçtiaren guisala ; bena eçpiritu libertatiaç goçatcen denaren berheçkeria bateç ; creaturari bateri ere, behar eçten

ten gogobateç, esteçatu içan gabe.

2. Suplicatcen çutut, ene Jinco ecinago saintu cirena, mundu hountaco arrancuretaric beguira naçaçun, hetan sobera sar enadin; khorpitçaren behar hanitchetaric, placerac abantalla har eçtiçadan; eta arimaren threbucu orotaric, tristeciec coragia gal eraci eçtiçaden.

Etcioçut beguira neçaçun, gaiça munduco banitatiac, passione handireki, tcherkhatcen dutianetaric; bena solta deçaçun çoure cerbutchariaren arima, hiltciaren maradiccioniaç, orori comun diren miserietaric, çougnec sorthatcen, eta guibeltcen beitie eçpiritiaren, nahi lukian ordu oroç, libertatian sar eracitcetic.

3. O ene Jincoua, eçtitarçun ecin erraiten cirena, kharax ediren eraciçadaçu araguiaren consolacionia oro, çougnec hurruntcen beinai eternitatecouen amouriotic, eta bereganat gaiçki thiraratcen, presenteco houn, placer eguiten dian, çoumbait dela causa.

Enaçan, o ene Jincoua, araguiac, eç odolac garhait; enaçan mundiac, eç haren gloria llaburrac ingana; enaçan debriac, eç haren finaciac eror eraci.

Emadaçu buhurtceco indarra, soferit-

ceco pacentcia, iraiteco fermotarçuna.

Emadaçu, mundu hountaco consolacionen ororen plaçan, çoure eçpiritu ecinago eçti denaren berecadura: eta araguiaren amouriouaren lekhian, jin eraci çadaçu çoure icen saintiaren amourioua.

4. Eçpiritu debocioniaren suyaç betheric den batentaco, pheçu handibat dutuçu, jatia, edatia, beçtitcia, eta gagneraco khorpitçaren sustengatceco behar diren gaiçac.

Emadaçu gracia, holaco beharrunetçaç ahulki eta doyaç cerbutchatceco ua, eta desircunte handieguietçaç eç eskerniatu içatecoua.

Eçtuçu ororen eiçtia legue ceren naturac behar beitu sustengatu içan; bena çoure legue saintiac eçtiçu ounhesten behar beno hoboro, eta habororuenic placer eguiten dienen tcherkhatcia; eci bestela araguia eçpiritiaren countre altcha liteçu.

Akhodigna hoyen artian, çoure escu saintiac, othoi, guida, eta argui naçala; deus soberaric nitan içan eçtadin.

## XXVII. CAPITULIA.

*Guihauren amourio propiac ecinago guibeltcen gutiala, hountarçun ororen gagnetic, denaganic.*

1. *B.* ENe ſemia, behar dutuçu oro eman, deuſere cihaurtaric beguiratu gabe; ororen ukheiteco.

Jakin eçaçu cihauren amourio propiac, haboro damu eguiten deiçula, ecieç beſte munduco gaiçac batec ere.

Amourio, eta enjoguidura duçunaren araur, haboro, edo aphurrago çougn nahibeita gaiçari eſtecatcen cira.

Çoure amourioua chahu balin bada, ſimple eta ounxa chedaturic; deuſenere eçtuçu eſtecamenturic ukhenen.

Eçteçaçula deſira, ſori eçten gaiçaren ukheitia; eçtuçula nahi ukhen, cihaur çognhutſutcen, edo barnetico libertatia gal eracitcen ahal deiçuna.

Gaiça eſtrangebat duçu noulaç bihotç oſſoç etciren eni egoiten, deſiratcen, edo ukhaiten ahal dutuçun gaiça ororeki.

2. Ceren triſtecia banobateç çoure oſſagarria mendretcen duçu, eta arrancura behar gabeç egnhetcen cira?

Egon cite fermoki ene placer hounari, eta eçtuçu damuric batere ſoferituren.

Haur edo houra tcherkhatcen baduçu, hor edo heben içan nahi bacira, çoure ounxa içatiaren, edo placer hounaren hobeki jardiesteco: etcira secula phaussian içanen, eç arrancura gabe; ceren gaiça orotan edireiten beita cerbait menx, eta lekhu orotan nourbait ihourc countre beitu.

3. Eçtiçu arren cernahibeita campotico gaiçaren akisitciac, edo doblatciac phaussia emaiten; bena bai lehenago, haren mesperetchatciac, eta bihotcetic çaignetara drano idokitciac.

Eta horrec enthelegatu behar-du, eç solamentç dihariaren, edo aberaxtarçunen akisitciaç; bena orano ouhouriaren tcherkhatciaç, eta laidorio banouaren desiratciaç, çougn mundiareki igaraiten beitira.

Lekhiac eçtiçu ihour açcartcen, menx denian eçpiritiaren debocionia; eta bake campotic tcherkhatu harec, eçtiçu hanitch iragnen, bihotcian foundamena phaussaturic eçpadu; erran nahi beita nitan bermatcen eçpacira; egonguç khambiatcen ahal cira, bena eç hobetcen.

Eci helturen, eta harturen duçun lehen ocasionian, edirenen duçu, ihessi-

eguin ceneyon gaiça cerbait haboro-reki.

4. C. Borthitç naçaçu, ene Jincoua, eſpiritu ſaintiaren graciaç.

Emadaçu barnetico debocioniaren ounxą aççartceco berthutia, eta ene bihotçaren cernahibeita gaiça char, edo precioufen deſircunte hanitch ſouertetacouetaric huſtecoua, eta arrancura bano, eta herſidura orotaric libratçecoua: her orori ſo eguitia, gaiça igaraiten diren elibati beçala, orhitcen niçalaric, nihaurc ere hekilan igaren behar dudala.

Ceren deus iraipouſic eçpeita ekhiaren pian, noun oro beitira banitate, eta eçpiritiaren eritarçun ala beita çuhur guiia hortan gaiçac ikhouſten dutiana.

5. Emadaçu, Jauna, celuco çuhurtcia, ikhas deçadan çoure, gaiça ororen gagnetic, tcherkhatcen, eta edireiten, çoure, gaiça ororen gagnetic, goçatcen, eta maithatcen, eta gagnelaticouen diren beçala ent elegatcen, çoure çuhurtarçunaren c ediaren araur.

Emadaçu gracia louſencaçaliari eçagutcereki iheſſi eguitecoua, eta ene countre douenaren pacentciareki ounheſtecoua.

Ceren haur beita çuhurtce handia,

hitcen aice orogatic ec çotucatcia, eta lausenkari gaichtouer beharriaren eç pherestatcia: eci guisa hortan acabirendu ihourc segurki bide hassia.

---

## XXVIII. CAPITULIA.

### *Mardalleren mihien countre.*

1. *B.* FNe senia, etcitiala khecha, nourbaitec çutçaç sendimentu gaichtoric balin badu; eta çuc gogo houneç entçuten eçtutuçun gaiçaric erraiten balin badu.

Çuc; cihaurtçaç sendimentu gaichtouagoric, ukhen behar duçu, eta sinhexi, ihourere eçtela çu beno flakiagoric.

Cihauren barnian passeyatcen bacira, eçtuçu casu handiric eguinen, hegaltaç igaraiten diren elhetçaç.

Jakite handibat duçu, batçarre gaichtouetan ichilic egoitia, eta bihotceç eneganat utcultcia, eta guiçonen judicamentiegatic, bere gountcetaric eç jalkitia.

2. Eçtagouela çoure bakia guiçonen

mihietan, eci ala ounxa, ala gaiçki mintça ditian, çu cirena cirateke nounda eguiaçco bakia, eta eguiaçco gloria? eçteya nitan?

Nourc ere eçpeitu deſiratcen guiçoner placer eguitia, eta her deſplacer eguitiaren eçpeitu loxaric, houra bake handibateç goçaturen-da.

Bihotçaren erreuſtarçunac, eta centcien barreiarçunac oro jiten dira amourio gaichtotic, eta loxa banotic.

## XXIX. CAPITULIA.

*Noula, thurburarçunaren jitiareki, Jincouac othoitu, eta benedicatu içan behar-dian.*

1. C. BIç, Jauna, çoure icena themppora orotan benedicatu; ceren nabi ukhen duçun, tentacione, eta thurburarçun haur nitara jin ledin.

Etciroçut hari ihesſiric eguin; bena bortchatu nuçu, çouri herſatcera, amourecatic ajuta neçaçun, eta hounetara utçul eraci diçadaçun.

Jauna, orai thurburarçunian nuçu, eta ene bihotça eçtiagoçu ounxa; ceren

hanitch eskerniatcen beinai presenteco passioniac.

Eta orai, o ene aita maitia, cer erranen dut? hersidurec oustegabian hartu nicie, salba naçaçu oraidanic.

Bena thenore hountara jin içan nuçu, amourecatic çu glorificatu içan cintian, eta ni çutçaç libratia içan nendin, ounxa umiliatu içan oundouan.

Jauna, ukheçu ene libratceco hountarçuna: eci cer eguin ahal dirot, miserable niçana: eta nouraco-niç, çu gabe?

Emadaçu, Jauna, aldi hountan ere pacentcia, urgaitç naçaçu, ene Jincoua, eta eçtit loxaric ukhenen, çoumbat nahibeita cargatu içan nadin.

2. Eta orai nic hoyen artian cer erranen-dut?

Jauna, çoure boronthatia compli bedi: eci nic thurburarçunac eta cargac merechitu citit.

Behar citit segurki soferitu, Jincouac balexa, pacentciareki liçan, iraçarri haur igaren, eta thempora hobebat jin artio.

Bena çoure escu photere oroç bethiac ahal ciroçu, tentacione haur ere eneganic idoki, eta haren bouilka hert, osso-

ki eror enadin; hala noula ardura eguin beiteitaçu, ene Jinco maitia, misericordiaç bethia.

Eta khambiamentu hori, enetaco gaitç den beçagn ehei dukeçu, çoure besso photerexiaren.

---

## XXX. CAPITULIA.

*Jinconaren sokhorriaren galthatciaç, eta gaciaren arçara ukheiteco confidantchaç.*

1. *B.* ENe semia, *ni nuçu Jauna, thurburarçunaren egunian, indar emailia.*

Ounxa etciratekianian, ciauri eneganat.

Deusekere eçtiçu celuco consolacionia hala threbucatcen, noula berantegui oracionialat utçultciac.

Eci ene othoitcen, ounxa gogoua emaiten duçularic, hassi beno lehen, tcherkhatcen duçu hanitch consolacione, eta campotico gaicetan, çoure placerac hartcen dutuçu.

Eta hori dela causa gaiçac oro profeitu aphurretaco dutuçu, gogoua eman

deçaçun artio, ni niçala, nitan esparantcha hartcen dienen, soltaçalia, eta eçtela nitaric campo, eç sokhorri açcarric, eç conseillu hounic, eç erremedio iraipousic.

Bena orai, hax har oundouan, iraçarriaren guerotic, ene misericordien arguian sendo cite, ceren hullan beiniç (dio Jaunac) amourecatic gaiçac oro, eç solamentç ossoki, bena orano burutila gaintica arraberri ditçadan.

2. *Badeya deus enetaco n: keric?* edo, ala ninçate uduri errailiari, eta eç eguiliari?

Noun-da çoure fedia? çaude fermoki, eta khambiamenturic gabe.

Içan cite pacient, eta corajous, eta bere thenorian jinen çaiçu consolacionia.

Eguruki neçaçu eguruki, jinen nuçu eta sendoturen çutut.

Tentacionia duçu, çu eskerniatcen çutiana, eta loxeri banobat, çu ici eracitcen çutiana.

Cer deus besteric irabaçten duçu, guero jin behar dien gaicetçaç arrançura ukheitetic, baicic ere tristecia tristecian gagnen: *bere maleciaç aski-du egunac.*

Gaiça bano, eta goço gabia da, guero jinen diren gaicetçaç nahascura, edo

alagrantcia hartcia; ceren eçpeitira hel-tu-bada ſecula jinen.

3. Guiçonari diagoçu holaco uduripe-netçaç inganatu içatia, eta eçpiritu tchi-pibaten ſegnalia da, exayaren gaiçkia-laco atacarçuner, bere buriaren hagn arhinçki jouaitera eiçtia.

Eci harec eçtiçu acholic, ala eguiaçco, ala gueçurreçco uduripenetçaç ingana guitçan, ala preſenteco gaicen amou-riouaç, ala guero jinen direnen loxe-riaç lurrialat egoitch guitçan.

Eçtadila arren çoure bihotça nahas, eceтare loxa.

Ukheçu nitan ſinheſte, eta ene miſeri-cordian confidantcha.

Nouicere ouſte beituçu eneganic hur-runtu cirela, arduran çoure hullanenic nukeçu.

Nouicere ouſte beituçu, oro caſi gal-du dela; ordian dukeçu irabaciric han-dienaren eguiteco phuntia.

Eçtukeçu oro galdu, gaiça çuc eç na-hi beçala jina gatic.

Eçtuçu behar, orai dutuçun ſendi-mentien araur, çoure jujamentia ekhar-ri, eç çoumbait phenari, nountic nahi-beita jin dadin, çoure eçpiritia eſteca-tu, eta houra hartu; hantic jalkiteco eſ-

perantchá ossoki galdu beiliç beçala.

4. Eçtuçula ouste ossoki eitcia cirela, thempora bochibaten, çoumbait thurburarçun igorri, edo desiratcen çunian gaiça idoki deiçudalacoç; eci hola ihour igaraiten duçu celietaco erresomalat.

Eta duda gabe haboro conbeni çaiçu, eta ene beste cerbutcharier, pheneç borogatiac içan citeyen, eçieç oro cien nahiala baçuntie.

Nic bacikitçut phensamentu estaliac, eçagutcen dit, hanitch conbeni dela çoure salbamentiaren, çoumbait orduç goço gabe eitcia içan citian, beldurreç gaicen ounxa jouaitiac gora eraci citçan, eta placerac ouste ukhen eraci diçaçun, etcirena bacilera.

Behin eman dudana idokiten ahal dit, eta arçara emaiten placer dukedanian.

5. Eman dukedanian enia dukeçu, idoki dukedenian eçtikeçut çouria hartu; ceren gaiça houn emanac, eta celuco dohaignac oro, eniac beitira.

Eiçten badeiçut jitera çoumbait phena, edo cer nahibeita gaiça countre denic, etcitiala khecha, eta eçteçaçula bihotça gal: nic berhala solajatcen ahal çutut, eta çoure phená alagrantciatara khambia eraçitcen.

Ha'aric

Halaric ere hola eguiten deiçudanian, justo nuçu, eta per etchu handitaco.

6. Ounxa çu hur bacira, eta eguian so eguiten baduçu, gaitcec etçutie behar jagoiti triste eraci, hagn coraje aphurreki; bena lehenago alaguera eraci, eta eskerren emaitera erakharri.

Hobeki erraitera, ouste behar çunuke, çoure alagrantcia bakhoitça dela, ceren doloreç hounkitcen çutudanian eçteiçudan pharcatcen.

Erran niçun ene dicipulu maiter: *ene aitac maite ukhen nayan beçala: nic ere cieo maite çutiet*: hargatic enitiçun hourac igorri munduco alagrantcietara; bena bai debadio handietara, eç ouhouretara, bena mesperetchietara, eç aurherkeriala, bena triballiala, eç phaussiala, bena pacentciareki batian hanitch hounkiren éguitera orhit cite, ene semia hitç hoyetçaç.

## XXXI. CAPITULIA.

*Creaturen ororen eiçtiaç, ereaçalia ediren ahal dadin amourecatic.*

1. C. JAuna, gracia handiagobaten beharra ounxa badit orano,

heltu behar badut, ihourc eç creaturac batec ere, ecin deſtorbatcen ahal nayan phuntiala.

Eci cerbaitec etchekiten nayano, eniteçu libertatereki çoureganat hegalta.

Erraiten cianac; *noure emanen deitçat hegalac, etchecourçouari beçala, çoureganat hegaltatceco, eta çutan phauſſatceco,* deſiratcen cian, libertatereki hegaltatçia.

Begui ſimplebat beno phauſſiagoric deus badeya? eta lurrian deus deſiratcen eçtiana beno libertate hobebateç gocatcen denic?

Behar diçu arren ihourc, creaturac oro beno gorago jouan, bere buria oſſoki eitci, eta, eçpiritia celialat goitituric etchekiten dialaric, ikhouſſi, çuc ororen creaçaliac creatureki deuſere udu-riric eçtuçula.

Eta eçpada ihour creatura orotaric ſoltatcen, eçtaite libertatereki celuco gaicer eſteca.

Hartacoç eçpirituç celialat ſo eguile aphur edireitenda, ceren aphurrec beitakie, bere burien oſſoki berheçten, creatura, eta gaiça galdu içan behar dien hoyetaric.

2. Hortara eçtaite ihour hel, gracia

handi, arima goiti, eta bera beno gorago jouan eraci diroyan baten moyaneç baicic.

Eta guiçona eçpirituç goititcen, creatura orotaric ſoltatcen, eta Jincouareki oſſoki juntatcen eçpalin bada, harec dutianac, eta dakitçanac oro balio aphurretaco-dira.

Hountarçun eternal muga gabiaç campo, cerbait handiric etchekiten diana, luçaç bere tchipitarçunian lurrareki joſſiric egonen-da.

Jincoua eçtiren gaiçac oro, eçdeus dira, eta eçdeuſentaco khountatu behar dic.

Desbardintarçun handibat-da, Jincouac arguitcen dian guiçon debotbaten çuhurtciaren, eta eliçaguiçon jakitous, eta eſtudiouala ekharri den baten, jakitaren artian.

Gagnetic Jincoauren ichouritic jiten den jakite haura, hanitcheç baliouſagoda, ecieç guiçonaren eçpiritiac phenareki jardieſten diana.

3. Hanitch badira, celuco gaicen eçpirituç ikhouſtia deſiratcen beilukie; bena hartara heltceco, behar diren gaicen eguitera, eçtira iſſeyatcen.

Haborouenic hantiç hurruntcen gu-

tian gaiçabat-da, goure gogouaren campotico gaicetan, eta goure centcietara erorten direnetan, eçartia, guihauren buriaren phena eracitce ossouaç acholic ukhen gabe.

Eçtakit cer erran nahi den, çougn eçpirituc boulcatcen gutian, cer den goure dessegna: uduri-da gente deboten igaraiten guirela, eta haregatic hagnbeste phena, eta arrancura hartcen dugu, gaiça char igaraiten baicic eçtiren elibateç; guihauren barneticouetçaç aldiç, nekeç eta bekhanki, guihaur beithan ossoki sarthuric, orhitcen guira.

4. Elas! guihaur beithan aphurbat sar oundouan, bagouatça camporat, goure obrac balantça degutbatetan pheçatu gabe.

Eçtiçugu gogouaric emaiten, noun daudian aphalturic goure desirac, eceтare nigarric eguiten, gaicen ororen theyuturic ikhousteç.

Eguiaçki aragui oroc theyutu ukhen cian bere bidia, hartacoç jarraikiten cen dilubio handiari.

Goure barnetico enjoguidura arren hanitch theyutu içan denen gagnen, theyu dirateke bada eta eç hantic jiten diren

eguitatiac, çougnec barnetico indarraren gabecia eracouſten beitie.

Bihotç chahutic jiten-da bicitce hounaren frutia.

5. Nourc cer, eta çoumbat eguin dian, ihourc galthatcendu: bena çougnen berthute handiac eraguin deyon jakiteco, eçtu hagnbeſte arrancura.

Chehe ihourc galthatcen-du, içan deneç corajous, aberax, eder, jakintſu, edo içkiribaçale, khantaçale, tribaillari houn: bena aphurrec dioye, çougnen eçpirituç praube den, çougnen pacient, eta eçti eta çougnen debot eta barniticoden.

Naturac guiçonaren campotico gaicer ſo eguitendu, graciá barneticouetarat utcultcen-da.

Houra ardura inganatcen-da; hounec Jincouatandu bere eſparantchá, inganatu eç içateco.

---

## XXXII. CAPITULIA.

*Bere buriaren eiçtiaç, eta deſireunte gaichto orotarie bilaiçtiaç.*

1. *B.* EC tirokeçu, ene ſemia, libertate erras houndenbat go-

ça, çoure buria ossoki eiçten eçpaduçu.

Burdugnac hougnetan beilutie beçala dutuçu, bere burieç phacu, eta hen maithaçale direnac, nahicunteç, eta berri ikhassi beharreç betheric daudianac, horrat hounat jouailiac, çougnec beretaco garratç eçtiren gaiçac tcherkhatcen beitutie, eta eç Jesu Kristenac, heltu
ren eçten gaiça ardura bere beithan ajargatcen, eta compostatcen dielaric.

Eci Jincouaganic jalkiten eçtiren gaiçac oro galdiac içanen dira.

Orhit-cite, hitç llabur ecinago complitu-den houneç; eitç itçaçu oro, eta edirenen dutuçu oro, derçça eçaçu imbeya, eta ukhenen duçu phaussia.

Eguia hori ardura eçpiritian erabil eçaçu, eta complitu dukeçunian, enthelegaturen dutuçu gaiçac oro.

2. *C.* Jauna, eçtuçu hori egunbaten lana, eç haurr tchipien tchostetabat; bena hitç llabur hortan diagoçu, fraideric hobenen içateric saintiena.

*B.* Ene semia, saintien bidia çougnden eçagut oundouan, eçtuçu behar hantic guibeltu, ecetare descorajatu; bena lehenago behar duçu therritatu içan, gaiçaric hobenen eguitera, edo gutienetic desiratu çoure hasperenetçaç, hegagat lullantcia.

Nahi nikeçu hala liçan çoureki, eta heltu cinen çoure buriaren eç maithaçale içateco phuntiala, eta ene, eta nic aitataco eman deiçudanaren boronthatiari chahuki egon cintian: ordian ecinago ene gogara cinanteke, eta çoure bicitcia bakian, eta boçtariouan igaren liteçu.

Baduçu orano hanitch gaiça eitçteco; çougn eç padeiçtatçu ossoki emaiten, eçpeituçu galthatcen duçuna jardiexiren.

Conseillatcen çutut, eros diçadaçun urrhe suç bethia, aberax citian amourecatic, erran nahi beita celuco çuhurtcia, lurreco gaiçac oro hougn petan eçarten dutiana.

Eitçaçu guibelialat lurreco çuhurtcia; guiçonen eta cihauren duçun balacu ororeki.

3. Erran deiçut, erosi behar çuntiala gaiçaric charrenac; preçiatu eta balious, guiçonen jujementian, direnen plaçan.

Eci uduri duçu, eguiaçco celuco çuhurtcia erras char, tchipi, eta casi ahatceric dela: harec eçtiçu goratarçuna, ez lurrian handi içatia tcherkhatcen: ala beitira hanitch, haren ahoç laidaçaliac, bena hareganic hurrun dago hen bicitcia, houra-da orotra ere, harri preciatu

hanitchi gorderic dagouena.

# XXXIII. CAPITULIA.

*Goure bihotçaren khambiacor içatiaç ; eta Jincouaren açken intencione uken behar dugunaç.*

1. *B.* ENe semia, eçte çaçula sinhex, orai çoure beithan duçun desircuntia, sarri bestebatetara khambiaturen çaiçu.

Bici cireno, nahi gaberic ere, erortoki içanen cira khambiamentiari ; guisabateç noun edirenen beitçutie, aldi batian alaguera, bestian triste, orai bakian, guero nahaspillan ; nouiç debot, nouiç debocioneric gabe, çoumbait orduç estudiouari emana, bestordian heraheçti, orai phæçu aurkhiche arhin.

Bena çuhurra, eta eçpirituç ounxa ikhassia gaiça khambiacor horien ororen gagnetic chuti dago, gogouaric eman gabe, cer bere beithan senditcen dian, eta çougn althetaric khambiamentiaren aicia jiten den ; bena haren eçpiritiaren intencione * ossoua dago nountic cer-

* Intenciona - da boronthatiaren dessegu

bait profeitu idokiren dian, harec desiratcen dian açken phuntiala heltceco.

Eci guisa hortan egonen ahal-da bethi ohicoua, deusetan okhertu gabe, bere intencioniaren soüa eneganat thaic gabe, hagnbeste souertetaco gaiça heltcen direnen artian, hedatcen dialaric.

2. Gagneran, çoumbatenaç, chahiago içanen beita intencioniaren beguia, hambatenaç fermokiago iraçarri hoyen artian ihour ebiliren-da.

Bena hanitch gaiçatan, intencione chahiaren beguia ulhuntcen-da: eci bertan ihourc so eguitendu, batcen çayon çoumbait gaiça, eder, eta maithagarri çayoni.

Eci arraroki edireiten-da bere tcheru propiaren beltçcuratic ossoki chahu denic.

Hola nouiçpait Judiouac jin içan ciren Marta, eta Mariagana, eç solamento

borthitç bat, çougnec boulcatcen beitu, bere deffegnatu dian phuntiala heltceco, mengoua dutian moyanetçaç cerbutchatcera: hala noula pharadussia irabaci nahi diana cerbutchatcen beita orocioniaren, amouinaren, sacramentien ajutiaç, moyan bere deffegnatu dian phuntiala heltceco; ecin igaraiten den cllbateç beçala.

Jesusen amourecatic, bena orano Lazaroren ikhoustiagatic.

Chahatu behar diçu arren intencioniaren beguiac, amourecatic simple, eta chuchen içan dadin, eta beste moyanac oro beno haratago eneganat hedatu.

---

## XXXIV. CAPITULIA.

*Maite dianaren goçoco dela Jincoua gaiça orotan, eta ororen gagnetic.*

1. C. HAur dela, ene Jincoua, eta ene oroüa, cer nahi dut haboro, eta cer dirot dohaxiagoric desira?

O hitç eçtia eta goçaxia! bena Jincoua, eta eç mundia, eta mundian direnac, maite dutianarentaco.

Ene Jincoua, ene oroua, enthelegatcen dianarentaco aski-da erranic; eta horren ardura arra erraitia houn, eta eder çayo maite dianari.

Eci çu hulian cirelaric, oro maithagarri dutuçu: bena çu hurrun cirelaric, oro greugarri.

Çuc bihotça phaussian eçarten duçu; çuc bakia, eta alagrantcia emaiten dutuçu.

Cuc sendimentu hounac, gaiça orotan gagnen, har eracitcen, dutuçu, eta cihaur orotan laida eracitcen: çu gabe deusec etciroçu luçaç placeric eguin; bena deus maithagarriric, eta goço hounetacoric içatecoç çoure graciaren presentciaç, eta çoure çuhurtciaren garçaç gacitu içan behar diçu.

2. Cer eçtu houn ederenen, çu bere goçoco çutianac?

Eta çu goçatcen etçutianaren, cer içanen ahal-da maithagarriric?

Munduco çuhurrac, eta araguiaren goçouari jarraikiten direnac, çoure çuhurtcian galtcen dutuçu ceren han hanitch banitate, heben aldiç hiltce baicic eçpeita edireiten.

Bena agueri duçu, eguiaçki çuhur direla, çouri jarraikiten direnac, munduco gaiçac mesperetchatcen, eta araguia, nahi eçtutian gaicetara erakhartcen dielaric: ceren banitatetic eguialat, eta araguitic eçpiritialat igaraiten beitira.

Hen goçoco duçu Jincoua, eta cer ere hountarçun creaturetan edireiten beitie, oro bere creaçaliaren laidoriouetarat igaren eracitcen diticie.

Bena ounxa, eta ounxa hurrun-da,

creaçaliaren goçoua, creaturárenetic, eternitatecoua, themporárenetic, argui creatu içan eçtenarena, argui phiçtu içan denarenetic.

3. O argui bethi iraiten duçuna argui phiçtiac oro be no gorago cirena, igorra çu celutic, ene bihotceco chokhouac oro ikhertcen ahal dutian ignhacia.

Chaha, alaguera, argui, eta phitç eçaçu ene eçpiritia, bere photereki, alagrantciaçco boçtariouetan çoureki eftecaturic egoiteco.

O nouiç jinen-da oren dohaxu, eta desiragarri houra; amourecatic çoure presentiaç assecia naçaçun, eta ciren enetaco oro orotan.

Houra jin dakidan artio, eçtuçu ene alagrantcia osso içanen.

Orano (eias) nitan bici duçu guiçon çaharra, eçtuçu ossoki crucificatu içan, eçtuçu erras hil.

Orano eçpiritiaren countre, bacitiçu desircunte açcarrac, barnetic guerla eguiten diçu, eta arimaren erresoma eçtiçu phaussuç eiçten.

4. Bena çu itchassouaren photeriaren burçagui beitcira, eta haren bouiltac ematcen beitutuçu, jaiki cite, ajuta neçaçu. Horrat

Horrat hounat itçaçu, guerla nahi dien gentiac, eta haux itçaçu, çoure indarraren photeriaç.

Aguer itçaçu, othoi, çoure miraculliac, eracouxaçu çoure bessouaren indarra; ceren eçpeitut beste esperantcharic, eç nourganat hersa, çoureganat baicic, ene Jinco Jauna.

---

## XXXV. CAPITULIA.

*Tentacioniaren countre eçtela seguranççaric, bicitce hountan.*

*1. B.* ENe semia, etcira secula segur içanen mundu hountan; bena bici cireno, celuco armen beharra ukhenen-duçu bethiere.

Exayen artian çaude, eta echker eta escugn atacatcen çutie.

Eçpacira arren pacentciaren armaç lekhu orotaric cerbutchatcen, etcira luçaç egonen, çauriric hartu gabe.

Besthalte; nitan çoure bihotça, ihourat baçtertu gabe, eçpaduçu eçarten, boronthate chahubateki gaiça ororen ene amourecatic soferitceco, eçtiroçu hen suyaren bicitarçuna sustenga, eceta-

re hel ahal celuco ckhoiliarren khorouala.

Behar, duçu arren corajouski, gaiça horien ororen artetic, igaren, eta indar açcarbateç çoure countre diren gaiçac garhaitu.

Eci garhaitçaliaren duçu manna: hera beçtiaren aldiç, eçtuçu baratcen hanitch miseria baicic.

2. Mundu hountan tcherkhatcen baduçu phaussia, noula ordian helturen cira phaussu eternaliala?

Eçtuçula orai nahi ukhen phaussu hanitch, bena bai pacentcia handibat.

Tcherkha eçaçu eguiaçco bakia, eç lurren gagnen, bena celian, eç guiçonetan, eç beste creaturetan, bena Jincouatan beraurtan.

Jincouaren amourecatic behar duçu gogo houneç gaiça orori sougna phasatu, erran nahi beita, triballier, eta dolorer, tentacioner, eskerniouer, erreustarçuner, beharruner, flakecier, goitçarrener, mardaller, aculantcher, umiliacioner, ahalker, gaçtiguier, eta mesperetchier.

Horic oro berthutiaren houn dira, horiec Jesu Kristen aperendiça certacoden borogatcen die; horiec celuco khorouaren pheçac alkhargana, juntatcen dutie.

Nic emanen dut phacu eternalbat, triballu llaburbatentaco, eta gloria muga gabebat ahalke bertan igaraiten den batentaco.

3. Ouste ducia, celuco consolacioniac bethi ukhenen dutuçula, çoure nahiaren arauouiala.

Etciticie hala ukhen ene saintiec bethiere, bena bai destorbiac handiric, eta hanitch guisataco tentacioniac, eta eskernio handiac.

Bena pacentciarcki bere buriac sustengatu citicien; Jincouatan haboro fidatu içan beitciren, eciec beraurietan, çakielaric mundu hountaco-soferitcec etciela aski photere, gloria eternalaren merechitceco.

Nahi çunukia çuc berhala ukhen, beste hanitchec bortcha hanitch nigarren oundouan, eta triballu handieç gueroç, ukhen ciena.

Egurucaçu Jinco Jauna, guiçonki maneya cite, corage har eçaçu, etcitiala mesfida, ecetare hebentic aparta; bena ere eçtuçula doluric çoure khorpitçari, eta arimari, bihouatç cer nahibeita thurburarçunetara eguhe gabe Jincouaren gloriagatic.

Nic ecinago guicenki ordaria emanen

dit; ni çoureki nukeçu, çoure thurbuzarçun orotan.

---

# XXXVI. CAPITULIA.

*Guiçonen judicamentu banouen countre.*

1. *B.* ENe ſemia, Jincouatan eçarçu ſermoki çoure bihotça, eta guiçonen jujamentiaren eçtuçula loxaric, çoure contcentciac minic eguiten eçteiçun themporan.

Houn duçu guiſahortan ſoferitcia, eta eçtuçu hori greugarri içanen, bihotç umil batentaco, eçetare Jincouatan haboro, ecieç bere beithan fidatcen denarentaco.

Hanitchec hanitch gaiça erraiten dicie, eta hartacoç ſinheſte aphur ihourc hetan eçarri behar diçu.

Beſthalte orori gogara eguitia, eçtuçu eguiten ahal den gaiçabat.

Coumbatere Joundane Phaule Jincouatan ororen gogara, eta oro ororen içatera iſſeyatu beitcen; haregatic orogatic eçdeuſentaco khountatcen ciçun guiçonetçaç jujatu içatia.

2. Aski, ahal cirouan, eta beraurtan

cen beçambat, eguin cian, beſten hounialat erakharteco, eta ſalba eracitceco; bena ecin guibeltu ahal ukhen cian, beſtetçaç çoumbait aldiç, eç jujatu, edo meſperetchatu içatia.

Hartacoç oro eitci çutian Jincouari, çougnentaco deus eçpeita eſtaliric, eta buhurtu içan cen pacentcia eta umilitatereki, gaiçki nintço, edo orano bere phenſamentu bano, eta huxcorretçaç, gaiçac oro nahi çutien beçala bantatcen çutienen countre.

Haregatic çoumbait orduç ihardexi ukhen ciçun, beldurreç flakier bere ichilic egoitiaç * eſcandal eman leçan.

3. Nour cira, guiçon hil behar diambatentaco loxa ukhen deçaçun? egun balin bada, bihar eçtukeçu agueri.

Jincouaren ukheçu loxa, eta eçtuçu ukhenen beldurric guiçonen icierientaço.

Cer photere-du çutan, elhe gaichto erraiten, edo goitçarran eguiten deiçunac, bere buriari haboro damu, ecieç

* Eſcandala heltcen da, eta dago, nouicere ihourc beſte baten eguiratetic ocaſione hartcen beitu gaitçkiaren eguiteco: edo berac bere eguitatiaç beſtebati emaiten beitu bekhatiala erorteco ocaſionia.

çouri eretchekiten diçu; eta nour nahibeita-den, Jincouaren jujamentiari ecin ihissiric eguiten ahal diçu.

Ukheçu çuc Jincoua beguien aitcinian, eta çoure kheremendetçaç eçteçaçula debadioric tcherkha.

Uduri baçaiçu presentian garhaitcen çutiela, eta merechi eçtuçun ahalkia soferitcen duçula, etcitiala hargatic khecha, ecetare pacentcia gabiaç çoure khoroüa hert.

Bena lehenago celialat goiti itçaçu beguiac ni beithara: nic badit photeria, çoure ahalke, eta goitçarren orotaric idokitecoua, eta batbederari bere obren araur phakiaren emaitecoua.

---

## XXXVII. CAPITULIA.

*Bere buriaren Jincouari ossoki eta purki emaitiaç, bihotceco libertatiaren jardietsiteco.*

1. *B.* ENe semia, eitçaçu çoure buria eta ni edirenen naiçu. Egon cite haitakeriaric, eta cihaurganatco berheçkeriaric gabe, eta bethi irabaciren duçu.

Eci çoure buria Jincouari, arçara eç hartcecotan, eman dukeçun beçagn ſarri, gracia handiagobat ukhenen duçu.

C. Jauna, çoumbatetan emanen deiçut ene buria, eta çougn gaiçatan eitciren-dut?

*B.* Bethiere, eta oren oroç: gaiça tchipietan hagn ounxa, noula handietan: deuſere eçtit berheçten, bena orotan bilaiciric ediren nahi çutut.

Beſtela noula citeke içan enataco, eta ni çouretaco; eçpaçaude barnetic, eta campotic, çoure boronthate propi orotaric bilaiciric.

Coumbatenaç bertanago hori eguinen beituçu, hambatenaç hobekiago içanen cira, eta çoumbatenaç oſſokiago eta eguiaçkiago, hambatenaç eni placer haboro, eta cihaure irabacia handiago eguinen duçu.

2. Coumbaitec bere buriac Jincouari emaiten dutie, bena cerbait beretaco berheçten dielaric; eci eçtira oſſoki Jincouatan fidatcen; hartacoç bere burien arrancurá handiric beguiratcen die.

Beſte çoumbaitec aldiç, berhala bere buriac oſſoki eskentcen dutie, bena guero tentacioniac hounki dutianian, ohiſo gaicetara utçultçen-dira, hartacoç

eçtie berthutian aitcinatceric eguiten.

Hec eçtie jardiexiren eguiaçco bihotceco libertatia, eçtare ene adichkidegoua maithagarriaren gracia; aitcinetic bere burien emaite ossoua, eta egun oroç hen oberendatcia eguiten eçpadie; ceren hori gabe eçpeititeke, eç orai, eç guero eneki junta, eç nitçaç goça.

3. Hagn bestetan erran, eta arçara erraiten deiçut, eitçaçu çoure buria, eta oberenda içadaçu eni, eta goçaturen cira barnetico bake handiaç.

Emaçu oro orogatic, deus eçteçaçula tcherkha, deus eçteçaçula galtha, çaude nitan chahuki, eta fermoki, eta ni ukhenen naiçu.

Bihotceco libertatia badukeçu, eta ulhumpiac etçutu harturen.

Hortan bira çoure isseyac, çoure othoitciac, çoure desirac; amourecatic, cihauren berheciki deus ukheitetic, bilaiç ahal citian, eta picarrai Jesus picarrai denari jarraiki citian, cihauren hil, eta harentaco bici citian eternitatebateç.

Ordian galduren, eta eçabaturen dutuçu udurupen banouac oro, nahascura injustouac oro, eta arrancura soberakinac oro.

Ordian orano jouanen-da loxa handie-

guia, eta amourio behar eçten beçalacoua ihilen.

---

## XXXVIII. CAPITULIA.

*Campotico gaicen gobernu hounaç, eta dangeretan Jincouari hersatciaç.*

1. *B.* ENe semia, çougn nahibeita lekhutan, edo eguitatetan ciren, noulaco nahibeita içan dadin çoure campotico lana, behar duçu arrancura handibat ukhen, barnetico libertatiaren beguiratceco, eta cihauren burçagui içateco; amourecatic gaiçac oro çoure pian diren, eta çu eç henian:

Ciren çoure eguitaten burçagui, eta gobenari, eç cerbutchari eta esclabo.

Bena lehenago eguiaçco Israelita herhecibat beçala, igaren cite Jincouaren haurren çorthialat, eta libertatialat.

Çougn presenteco gaicen gagnetic beitaude, eternitatecouac hobeki ikhous ditcen.

Çougnec begui echkerraç, igaraiten diren gaiça hoyer, so eguiten beitie, escungnaç aldiç celi couer.

Çougn gaiça themporalec eçpeitutie

bereganatcen, her esteca eraciteceo ; bena bai hec gaiça themporalac, herçaç emplegu houn baten eguiteco : Jincouac chutchentu ukhen dutian beçala, eta lauguile ecinago handiac, deus behar eçtenic bere creaturan eiçten eçtianac eçari dutian beçala.

2. Cer nahibeita gaiçaren heltciari orano egoiten eçpacira campotico itchourari, eta ikhoussi eta entçun dutuçun gaiçac eçpadutuçu, araguiari so dagouen beguibateç, ikhertcen : bena sartcen bacira berhala tabernaclian moyssareki, cer nahibeita akhodignatan gagnen, Jincouaren boronthatiaren jakiteco : entçunen duçu çoumbait orduç celuco ihardestia, eta hantic jalkiren cira, hanitch presenteco gaiça, eta guero jin behar dienetaric, ikhassiric.

Eci Moysa bethi tabernacliala hersatu içan cen, duda emaiten, edo galto eguiten ceyenen clarki eçarteco ; eta oracioniaren ajutiala laster eguin ukhen cian ; dangeretaric, eta guiçonen gaichtokerietaric libratu içateco.

Çuc ere orobat hersatu behar duçu, çoure bihotçaren chokhouala, jincouaren baimentouaren su handireki galthatceco.

Eci hartacoç iracourten dugu Josue eta Jsraelen haurrac Gabaoniteç ingaṅatiac içan cirela; ceren aitcinetic eçpeitcien jincouaren gogoua jakin, bena elhe eçtien sobera sinhexcor içaneç, hen debocione falsiac troumpcriala eror eraci çutian.

## XXXIX. CAPITULIA.

*Erreus ibour eçtadin içan eguitetouetan.*

1\. *B.* ENe semia, ene eskietan eitç eçaçu bethi çoure akhodigná, nic bere sasouan eçariren-dit behar den beçala.

Egurucaçu nic chuchent deçadan, eta hantico profeitia borogaturen duçu.

*C.* Jauna, aski gogo louneç gaiçac oro çouri eiçten deitçut, ceren ene phensamentiac profeitu aphur idoki beitiro.

Jincouac balexa, enendin esteca guero jin behar dien gaicer, eta çoure borontharte hounari, berankeriaric gabe, oberenda neçan ene buria.

2\. *B.* Ene semia, guiçonac desiratcen dian gaiça çoumbait, ardura bere gogouan

borthiçki erabilten diçu ; bena houra jardiexi dian beçagn sarri, beste sendimentullric hartcen hasten-duçu: ceren bihotceco desirac, gaiça beraurtan gagnen, eçpeitira iraipous ; bena lehenago batetic bestiala jouan eracitcen beitie.

Eçtuçu arren gaiça aphurra, gaiçaric tchipienetan ere, bere buriaren eiçtia.

3. Guiçonaren eguiaçco profeitia dago, bere buriaren ossoki eiçtian, eta hala jarten dena, libertate, eta segurantça handibatetan dateke.

Bena exai çaharra hountarçun ororen countre douena, tentacione emaitetic eçta baratcen: bena gai eta egun laço gaichtoric hedatcen ari-da, ousteç hetan gogouaric emaiten eçtiana atçamamen dian.

*Caudeçteye iratçarriric, eta othoitcetan,* dio Jaunac, *tentacionian sar eztei-teyen.*

---

## XL. CAPITULIA.

*Guiçonac beraurganic deus hounic eçtiala, eta eçtaitiala deusecere glorifica.*

1. C. J*Auna, cer da guiçona, cu hartçaç orhit içateco, edo cer da guiçonaren semia, çuc houra bisita deçaçun?*

Cer

Cer merechimentu ukhen du guiçonac, çuc çoure gracia hari eman ciniaçon?

Jauna, cer plagnu eguiten ahal-dut, çuc eiçten banaiçu? edo mourmouceyaric justoki eguiten ahal duta, nic galthatcen deiçudana emaiten eçpadeitaçu?

Gueçurric gabe, hagn eguia phensa, eta erran ciroçut: Jauna, enuçu deus, etciroçut deus, nikhaurganic eçtit deus hounic; bena orotan hux eguile nuçu, eta eçdeusetara nouaçu bethi.

Eta eçpanaiçu ajutatcen, eta barnetic açcartcen, erras epheltcen, eta lachatcen nuçu.

2. Çu aldiç, Jauna, bethi ohicoua cira, eta baçaude eternitate orotan, bethi houn, justo, eta saintu, ounxa justoki, eta saintuki gaiçac oro eguiten dutuçularic, eta behar den beçala eçarten, çuhurtce miragarribateki.

Bena ni damiala ekharriago niçalacoç. ecieç profcitiala; eniaukeçu bethi hegn batetan: ceren themphora beçagn khambiacor beiniç.

Halaric ere hobeki edireiten nuçu berhala, çuc placer duçunian, eta çoure escu ajutaçalia hedatcen deitaçunian: ceren çuc cihaurec, guiçonen sokhors

riric gabe, ajutatcen ahal beinaiçu, eta guisabateç aççartcen, noun ene beguithartia eçpeita haboro khambiaturen; ene bihotça aldiç, çoureganat utçuliren, eta çutan phaussaturen beita.

3. Hartacoç ounxa balin bancki guiçonen consolacione ororen eiçten, bada debocionaren jardiesteco, bada bortchatu niçan beçala çoure tcherkhatceco; ceren eçpeita guiçonic, ni consolatcen ahal nayanic: ordian arracoureki, çoure graciaren ukheiteco esparantchá har niroçu, eta consolacione berriaren dohagna dela causa, boçtarioç betha ninteçu.

4. Eskerrac çouri, Jauna, çougneganic jiten beitçaitçat ene gogara heltcen diren gaiçac oro.

Ni aldiç enuçu çoure aitcinian, banitate, eta eçdeuskeria baicic, guiçon khambiacor, eta flacubat baicic.

Nountic arren glorificatcen ahal niç, edo ceren desiratcen-dut famatu içatia? Eçdeusetaric niçalacoç eia? eta hori bera banitate ecinago handibat-da.

Eguiacki banaloria, uçurri gaichtobat; eta banitateric handiena-da; ceren eguiaçco gloria gal eracitcen beiteicu, eta celuco graciaç bilaiçten beicutu.

Eci nouicere guiçonac berauri placer eguiten beitu, ordian çouri desplacer eguiten diçu: nouicere guiçonen laidoriouen oundouan haxalboturic jouaiten beìta, ordian eguiaçco berthutiac galtcen citiçu.

5. Eguiaçco gloria, eta boçtario saintia-duçu, çutan, eta eç bere buriatan glorificatcia; çoure icen saintian, eta eç bere berthutian alagueratcia; eta creaturatan batetanere, çoure amourecatic baicic, placeric eç hartcia.

Biç çoure icena laidatu, eta eç enia; biç çoure obrá hanitch pheretchatu, eta eç enia; biç çoure icen saintiá benedicatu, eni aldiç eçtakidan guiçonen laidoriouetaric batere eman içan.

Çu cira ene gloria, çu ene bihotceco boçtarioüa.

Çutan glorificaturen, eta boçturen nuçu egunac dirayeno; nihaurtçaç dena beçambat aldiç, eç batere ene flakecietan baicic.

6. Tcherkha bece Judiouec alkharganico gloria; nic jincouaganic dena baicic, eçtit tcherkhaturen.

Eci guiçonen gloria oro, ouhoure themporala oro, mundu hountaco goratarçuna oro, çoure gloria eternalare-

ki pareiaturic, eçtuçu banitate, ata erhokeria baicic.

O ene Jincoua, eguia eternala, misericordia baçter gabia, Trinitate adorablia, çouri cihauri biç eman laidorio, ouhoure, berthute, eta gloria jinen diren muga gabeçco thempora orotan.

---

## LXI. CAPITULIA.

*Ouhoure themporal ororen mesperetchiaç.*

1. *B.* ENe semia, etcitiala triste, ouhourian, eta goratarçunian, besten ikhousteç, cihauren aldiç, mesperetchian, eta aphaltarçunian içateç.

Eneganat celialat goiti eçaçu çoure bihotça, eta lurren gagnen, guiçonec eguiten deitcien mesperetchiec etçutie tristeturen.

*C.* Jauna, uxumentian gutuçu, eta banitatiac berhala inganatcen guitiçu.

Ounxa ene buria ikhertcen badut, ikhousten-dit secula creaturac batec ere eçteitadala oguenic eguin, hartacoç eniteçu justoki çoure eretcian plagni.

2. Bena ceren ardura, eta mortalki ofensatu beitçutut, arraçoureki creatu-

rec oroc ene countre armac hartcen citicie.

Eni arren juſtoki diautaçu ahalkia, eta meſperetchia; çouri aldiç ouhouria, laidorioua, eta gloria.

Eta eçpalin baniç adelatcen gogo houneç nahi ukheitera creatura oroç meſperetchatia, eitcia, eta ecdeuſentaco oſſoki hartia içan nadin, etciroçut bihotceco bakia, eta fermotarçuna ukhen ahal, ecetare eçpiritiaren arguia jardiex, eç çoureki erras junto içan.

## XLII. CAPITULIA.

### *Guiçonetan eçtiala behar eçarri gouré bakiac.*

1. *B.* ENe ſemia, çoure bakia eçarten baduçu çoumbait biciçale lagunetan, alkharreki bicitcen, eta ſendimentu batetaco cireyelacoç, khambiacor, eta erreus içanen cira.

Bena herſatcen bazira bethi bici, eta iraiten dian eguiala, adichkide baten hurruntciac, 'edo hiltciac etçutu triſteturen.

Nitan behar diçu bermatu adichki-

diaren maithatciac, eta ene amourecatic maithatu behar duçu, nour ere houn uduritu beitçaiçu dela, eta mundu hountan ounxa khario beituçu.

Ni gabe adichkidegouá eçtuçu balious; eç iraipous; nic oropilatcen eçtudan amourioua eçtuçu eç eguiaçco eç chahu. Hola maite dutuçun guiçonen estecamentier guisabateç hil behar duçu, noun, çutan den beçambat, desiratceco beitçunuke, hen lagungouaric gabe içatia. Hambatenaçh boro Jincouaganat guiçona hullantcen-da; çoumbatenaç hurruntcenago beita lurreco consolacione orotaric.

Hambatenaç ere gorago Jincouaganat igaiten da; çoumbatenaç aphalago bere beithan jaisten beita, eta berauri charrago dela uduri beitçayo.

2. Bena çoumbait hountarçun bere buriari emaiten dianac, Jincouaren graciaren bere beithara jitiari baragallubat eçarten-du; ceren espiritu saintiaren graciac bethi bihotç umilbat tcherkhatcen beitu.

Baceneki çoure buriaren ossoki eçdeusten, eta creatara ororen amouriotic lachatcen, eta idokiten; ordian behar nikeçu ene graciaren tourrousta çouregana tigorri.

Creatureganat ſo eguiten duçunian, cihauren buriari idokiten duçu creaçaliaren ſoüa.

Ikhas eçaçu, creaçaliaren amourecatic çoure buriaren gaiça orotan garhaitcen; ordian Jincouaren eçagutciala helturen ahal cira.

Coumbat nahibeita tchipi den, gaiça ihourc behar eçten beçala maithatcen diana, eta ſo eguiten deyona; bihotça gaſtatcen deicu, eta hountarçun ecinago handitic guibeltcen gutu.

---

## XLIII. CAPITULIA.

### *Munduco jakite banouaren countre.*

1. *B.* ENe ſemia, guiçonen hitç edrrec, eta çorrotcec etcitçayela hounki; *eci Jincouaren erreſoma eçtiagoçu, elhe erraitian, bena bai berthutian.*

Gogoua emaçu ene hitcer, çougnec bihotçac ſuç, eta eçpiritiac arguiç bethatcen beitutie, dolumena erakharten, eta hanitch guiſataco conſolacionia emaiten beitie.

Eçteçaçula jagoiti hitçbat iracour,

jakinsiago, edo çuhurrago çoure buriaren uduri eraciteeco.

Isseya cite, çoure bicio uen hil eraciteera; ceren horrec haboro profeitu emanen beiteiçu, ecieç hanitch phuntu gaitç guiçonen eçpiritiac phenatcen dutianan eçagutciac.

2. Hanitch iracourtu, eta ikhassi dukeçunetic landa, behar duçu bethiere ohico haxarralia utçuli.

Ni nuçu guiçonari jakitiaren eracouslia, eta guiçonac eracoux lirouan beno, enthelegu hobiagobaten tchipier emailia.

Ni mintço nitçayona bertan çuhurturen-da, eta eçpirituç hanitch profeitaturen-du.

Ala beitira desditchatu, guiçoneganic hanitch gaiça eçtakienic jakin nahi dienac, achol handiric uken gabe, çougn-den ene cerbutchatceco bidia!

Jinen duçu thempora, çougntan aguerturen beita Jesu Krist burçaguien burcaguia, ainguruen Jauna, iracourtu dutien gaicen ororen entçuteco, erran nahi beita batbederaren concentciaren ikherteeco.

Ordian khandera-arguiç, Jerusalame ikhertia içanen-da, eta ulhumpian gor-

deric egon diren gaiçac aguerturen-dira, eta arraçonamentiac ichilturen.

3. Nic inſtantian goititcen dit eçpiritu aphalbat, eternitateco eguia habororen entheleguiala, ecieç hamar ourtheç eſcoletan eſtudiatu balu.

Nic eracouſten-dit, elhen heroxic gabe, ouſtekerien nahaſpillaric gabe, ouhouriaren goratarçunic gabe, arraçounamentiaren debadioric gabe.

Nic eracouſten-dit, lurreco gaicen meſperchatcia, preſentecouetan eç goçoric hartcia, eternitatecouen tcherkhatcia, eta goçatcia, ouhourer iheſſi eguitia, eſcandalen ſoferitcia, eſparantcha ororen nitan eçartia, nitaric campo deuſen eç deſiratcia, eta gaiça ororen gagnetic, ene, ſu handireki maite ukheitia.

4. Eci nourbaitec, ni bihotç oſſoç maite ukheneç, celuco gaiçac ikhaſſi dutu, eta miragarri diren gaiçac erraiten çutian.

Profeitu haboro idoki diçu gaicen ororen eiçteç, ecieç gaitç eta gora direnen eſtudiatceç.

Bena batcer erraiten dutut gaiça comunac, beſter berheciac: çoumbaiti eçtiki aguertcen-niç miracullietan, eta fi-

guretan; beste çoumbaiti aldiç, arguitarçun handibatetan, ene misteriouac eracousten dutut.

Librien lengouagia ororentaco orobatda; bena eçtutu oro bardin jakinsutcen; ceren ni beiniç eguiaren barnian eracouslia, bihotçaren ikherçalia, phensamentien enthelegaçalia, eguitaten aitcina eraciçalia, batbederari emaiten dudalaric, nihauri ounxa uduritcen çaitan beçala.

## XLIV. CAPITULIA.

*Campotico gaicen eçaguteian eçtiala behar ibourc sarthu.*

1. *B.* ENe semia, hanitch gaiçatan, deus eçpaceneki beçala, içan behar duçu, eta cihauren buria etcheki, lurren gagnen, hilic beitcina beçala, eta çougnentaco mundia oro crucificatia beita.

Beste hanitch gaiça ere, entçuten eçpeitçuntu beçala, eitci behar dutuçu igaraitera, eta gogouan lehenago etcheki, bakia beguira eracitcen ahal, deitcienac.

Hobiago duçu gai ça desplacer eguiten deicienetaric beguien utçultcia, eta batbederari bere sendimentiaren eiçtia, ecieç elhesta debadioç bether estecatcia.

Ounxa Jincouareki baçaude, eta haren jujamentiari so eguiten baduçu, chignerago ounhexiren duçu, goithu içatia.

2. *C.* O ene Jincoua, certara drano jin guiren! damu themporalbategatic, ihoure nigar eguiten diçu, irabaci tchipibategatic, triballatcen, eta lastercatcen, duçu; eta galtce eçpiritualbat ahaçtera eiçten diçu, berantian ere bortcha orhitmentchala jiten delaric.

Gogoua emaiten diçu, profeituric batere edo aphaur baicic emaiten eçtian gaiçari, eta ecinago behar diana, arrancuraric gabe, igaraitera eiçten diçu: ceren guiçonac eiçten beitu ossoki bere buria jouaitera campotico gaicetarat, eta berhala hantic jalkiten eçpada, badiagoçu gogo houneç hetan hedaturic.

# XLV. CAPITULIA.

*Eçtiela behar oroc sinhexi içan, eta çoungnen eriv-den, elhestetan hux eguitia.*

1. C. *EMadaçu, Jauna, ene phenetan çoure sokhorria: ceren guiçoneganico sabamentia bano b ita.*

Coumbatetan leyaltarçunic eçtut ediren, ukhenen niala ouste nian lekhian.

Coumbatetan aldiç, ediren-dut guitienic ouste nian lekhian.

Bano-da arren guiçonetan eçarten-den esparantçá justouen aldiç salbamentia çutan diagoçu, ene Jinco Jauna.

Cirela benedicatu, ene Jinco Jauna, gouri heltcen çaiçcun gaiça orotan.

Flacu, eta khambiacor gutuçu, berhala duçu goure inganatu içatia, eta khambiatcia.

2. Coungn-da guiçona hangbeste abisamenturcki, eta gogouarcki bere buria beguiratcen ahal diana, noun eçtakion hel çoumbait orduç, çoumbait inganiotara, edo dudatara erortia.

Bena çutan fidatcen-dena, Jauna, eta bihotç chahubateç, tcherkhatcen çutiana,

na, eçtuçu hagn ehignera erorten.

Eta erorten balin bada ere çoumbait thurburarçunetara, cer nahibeita guisaç pheneç unguratia içan dadin; çuc berhala idokiren, eta consolaturen duçu: ceren eçpeituçu eitciren, çutan açken urrhentciala drano bere esparantchá eçarri diana.

Arraro-da adichkide leyala, adichkidiari bere phenetan batetan ere faltatcen etçayona.

Cu cira, Jauna, çu cihaur ecinago, gaiça orotan, leyal cirena, eta çutçaç campo, eçtuçu ihourere hala denic.

3. Ala beitcen çuhur arima saintu cioyanac, ene eçpiritia foundaturic, eta borthiçturic diagoçu Jesu-Kristetan.

Hala banintç ni, guiçonen loxac enindiroçu hagn enignera erreus, ecetare elhe çorrotcec hounki.

Nourc dirotça gaiçac oro aitcinetic ikhous, edo guero jinen diren gaitçac aparta? aitcinetic ikhoussiec ere arduran min eguiten badie; cer diroye ouste gabe jiten direnec mingarki çaurt baicic.

Bena ceren eçtut nihauren arrancura haboro ukhen, miserable niçana? ceren orano bestiac hagn ehignera sinhexi dutut?

Bena guiçonac guira, eta eç deusere besteric, guiçon flakiac baicic, çoumbatere hanitchee ouste, eta erraiten beitie ainguriac guirela.

Nour sinhexiren-dut, Jauna, nour çu baicic? çu cira eguia inganatcen eçtiana, eta ecin inganatu içaten ahal dena.

Haboroç haboro *guiçonac oro dutuçu gueçurti*, flacu, khambiacor, erorcor, orotan-gainti bere elhestetan; guisabateç noun, nekeç ihourc sinhexi behar beitu, are eguiaren itchoura diala uduri dian gaiça.

4. Ala beicutuçu aitcinetico ikhouste handibateki abisatu, guiçoner gogoua eman behar guniala, erran deicuçunian, *guiçonaren exayac çirela bere micheandiac*, eta etcela behar sinhexi, haur duciela hebentche, edo houra duciela hantche Jesus Jauna, errailia.

Ene khostuç hori ikhassi dit, eta Jincouac dexala, eni gogoua haboro har eracitceco-den, eta eç erohokeriala eiçteco.

Abisatu içan cite, (dio nourbaitec) abisatu içan cite, beguireçaçu cihaur beithan, nic erraiten deiçudana. Eta ni ichilic naguoen themporan segret ouste dudalaric; beraur eçtiaukeçu ichilic se-

gretu galthatu deitadanian ; bena bere buria, eta ni ſalhatu oundouan, berhala jouan duçu.

Holaco guiçon elheſtari, eta gogouaric emaiten eçtienetaric beguira naçaçu, Jauna, hen eskietara eror enadin, eta halacoric deus ſecula eguin eçteçadan.

Eçarçu, ene ahouan hitç eguiati, eta fermo dena, eta hurrunt eçaçu enéganic mihi inganaçalia.

Eniroçu ſobera gogoua eman ahal; nihaurc ounhexi nahi eçtudan gaiçari.

5. Ala beita houn, eta bakeçco, beſtetçaç ichilic egoitia, eta gaiça ororen bardinçki eç ſinheſtia, eta behin entçun ukhenaç, haboro eç nekeç baicic minçatcia, aphurri bere buriaren eçagut eracitcia ; berauren bihotçaren bethi ikhouſle içatia.

Eta eç hitç ororen erranari khambiatcia, bena deſiratcia, barnetico eta campotico gaiçac oro, çoure borontatiaren placer hounaren araur, eguin içan ditian.

Ala beita ſegur, celuco graciaren ounxa beguiratceco, guiçonen aitciniala aguertciari iheſſi eguitia ! eta campotic pheretchu handi eman eraciren deikiela uduri den gaicen, eç deſiratcia: bena

bicitceç khambia eraciric, debocionia-ren iuya emaiten ahal deikienen, arran-cura ossobateki tcherkhatcia!

Ala beita hanitchentaco gaichto içan, hen berthutià eçagutu, eta laidatu içan den, behar beno lehen!

Ala beita hanitch profeitable içan, segretki graciaren beguiratcia, bicitce huxcor hountan, çougn dena oro, tentacione, eta guerla baicic eçpeita.

---

## XLVI. CAPITULIA.

*Jincouatan ihoure ukhen behar dian confidantchaç, goure countre erraiten diren elhen ounhexteco.*

1. *B.* ENe semia egon cite fermoki, eta nitan esparantcha ukhen eçaçu. Eci cer dira elhiac, elhe baicic? badouatçu airian, bena harriac etciticie chehecatcen.

Oguendant bacira, phensamentian ukhen eçaçu, nahi cirela gogo houneç khambiatu hounialat: contcenciac eçpadeiçu oguenic eçagut eracitcen, nahi duçula hori Jincouagatic gogotic sofecitu.

Aski gaiça aphurra duçu, çoumbait orduç elhiac ounhex ditçaçun, eçtiroçunen gagnen açote colpu handiric orano soferi.

Eta ceren hagn gaiça tchipiac bihotcialat igaraiten çaitçu, orano araguiari enjogui cirelacoç baicic, eta guiçoner, behar beno haboro gogoua emaiten duçulacoç baicic.

Eci mesperetchatu içatiaren loxa cirelacoç, çoure faltegatic hitceçco gaçtiguric eçtuçu nahi, eta estalgunen itçal hotça tcherkhatcen duçu.

2. Bena hobeki cihauri so eguin eçaçu, eta eçaguturen duçu, mundia, eta guiçoner placer eguiteco amourio banoua, orano çutan bici direla.

Eci nouicere aphaltu, eta çoure faltegatic ahalketu içatiari, ihessi eguiten beituçu: gaiça segurbat duçu, etcirela eguiaçki umble, eç eguiaçki mundiari hil, eç mundia çouri crucificatu.

Bena beha cite ene hitçari, eta eçtuçu acholic ukhenen, guiçonen ehun mila hitcentaco.

Erran litian ordian çoure countre, ecinago malecia handibateki, sor ahal litekian gaiçac oro, cer damu eguin liteirocie, erras igaraitera eitç bacint-

ça, eta laſtobat beno haboro etcheki eçpacintça ? bilho bakhoiçhbat idoki ahal litcirocieya ?

3. Bena debocionia bihotcian, eta Jincoua bere beguien aitcinian eçtiana gaiçki eguina eracouſten dian hitç batec ehignera ofenſatcen-du.

Nitan aldiç fidatcen-dena, eta bere jujamentiari egoitera deſiratcen eçtiana, guiçonen loxaric batere gabe içanen-da.

Eci ni niç jugia, eta ſegretien ororen eçagutçalia; nic badakit, gaiçá noula igaren den; nic goitçarrenen eguilia, eta ſofericalia eçaguteen dutut.

Ene jakitiareki hitç houra erran içan duçu, ene lichenciareki hori heltu duçu, amourecatic hanitchen bihotcetaric phenſamentiac aguer litian.

Nic oguen duna, eta ognen gabia jujaturen dutut, bena aitcinetic nahi uken dutut borogatu bata eta beſtia, jujamentu eſtalibateç.

4. Guiçonen jakilegouac ardura inganatcen-du, ene jujamentia eguiacco-da, egonen-da, eta eçta khambiatu içanen.

Eſtaliric dago comunçki, eta aphurri baicic, eçta aguertcen gaiça batbederarentaco: bena ſecula eçta inganat-

cen, eç eçtaite ingana; çoumbatere, centçu gaben beguietan, eçpeita chuchen uduri.

Eni arren herſatu behar-da, jujamentu orotan, eta eç berauren ouſtekerian bermatu.

Eci *juſtoua eçta nahaſſiren, cer nahibeita Jincouganic hel dakion*, nahibada cerbait haren countre erran içanden, hartan eçtenic, eçtu achol handiric ukhenen.

Guiſa berian eçtu boçtario handiric harturen banoki, nourbaitec arraçoureki falta gabe dela eracouſten balin badie.

Eci bere beithan ikhouſten diçu, ni niçala bihotç chokhouen ikherçalia, eta eçtudala jujatcen campotico itchouraren araur.

Eci hanitchetan guiçonen jujamentian laidable edireiten den gaiça; eçtate hala, ene beguietan, bena bai itchouſſi eta okher.

5. *C.* Jinco Jauna, juge juſtoua, açcarra, eta pacentciaç bethia, guiçonen, flakecia, eta gaichtotarçuna eçagutcen dutuçuna, içan cite ene indarra, eta confidantcha oro; eci eçtiçut ene contcentcia bera aski.

Çuc badakiçu, nic eçtakidana, eta

hartacoç mehatchu orotan behar nikeçun umiliatu, eta hourac eçtiki soferitu.

Pharca itçadaçu falta eguin dutudanac, hala gobernatu eniçan ordu oroç, eta emadaçu arçara haboro soferitceco graciá.

Eci hobe duçu enetaco, çoure misericordia hux eçtaitiana, pharcamentiaren jardiesteco ecieç ene justo içateco oustekeria, contcentcia gorderic dagoucnaren segurantçatan eçarteco.

Coumbatere deus eçpeitut ene buriari sendi, hala egatic etciroçut chahu idoki, ceren çoure misericordia gabe, *guiçonic batere eçpeita çoure aitcinian justo edirenen denic.*

---

## XLVII. CAPITULIA.

*Gaiça greugarriec oroc bici:ce eternalagatic soferttu behar diela.*

1. *B.* ENe semia, ene amourecatic hartu dutuçun triballiec etcitcela descoraia, eta cantou orotaric jiten çaitcun thurburarçunec, etcitcela bihotç aphal içan eraci, bena ene hitç emaitiac behar çutu gaiça helteen diren orotan aççartu, eta consolatu.

Nic badit nountic çu phaca, içariac oro beno handiago-den guisabateç.

Etcira luçaç heben triballaturen, eç bethi doloreç cargatu içanen.

Egurucaçu aphurbat, eta ikhoussiren duçu ſarri, çoure gaitcen urhentcia. Thenorebat jinen duçu çougntan triballiac, eta nahaſpillac oro baraturen beitira.

Themporareki igaraiten diren gaiçac oro, tchipi, eta llabur dutuçu.

2. Eguiten duçuna, eguiçu ounxa, triballa cite ene mignatcian eta ni nukeçu çoure phakia.

Içkiriba, iracour, khanta eçaçu, eguiçu haſperen, egon cite ichilic, çaude oracionetan; ſoferi itçaçu bihoçtoiki, çoure nahiaren countre jiten diren gaiçac; bicitce eternalac merechi citiçu horic oro, eta handiagoric.

Jincouac dak an egunbateç jinen duçu bakia; eta ordian eçtukeçu themporа hartaco gaïc eç egunic; bena bai argui bethi iragnen dianbat; caritate muga gabebat, bake ſermobat, eta phauſſu ſegurbat.

Ordian eçtuçu erranen, *hilteeçto khorpitç hountaric noure libraturen nai?* eta eçtuçu marracaric eguinen, dioçularic, elas miſerable niçana, ala beita ene hebeco egoitia luçatu! Ceren herioua bethierecoç acaçatu icanen beita; han ba-

dukeçu dohaxutarçun deusetanere escaçe keriaric eçtukianbat, erreustarçunic gabe, hanco içale dohaxien compagna eçti, eder, eta maithagarrian.

3. O ikhoussi baçuntu celian diren saintien bethierecο khoroüac, çougnen gloria handiaren boçtariouan daudian orai ere; çoumbatere nouçpaït mundu houni uduritecen beitceyon mesperetchiaren peco cirela, eta casi bicitcia etciela merechi: duda gabe lurriala drano aphal cinteke, eta nahiago cinanteke ororen pian lehenago içan, ecieç bakhoitçbaten guehien.

Eta etcintçake bicitce hountaco egun hounac desira, bena lehenago alaguera cinteke, Jincouagatic doloretan içatiaç, eta irabaci ecinago handibat ouste çunuke liçatiala, guiçonen artian eçdeusentaco igaraitia.

4. O goça bacintça gaiça hoyec, eta çoure bihotcian barna beno barnago sar balite; noula atrebi cinteke, aldi bakhoitçbateç ere, plagnuric eguitera!

Bicitce eternalarentaco eçtireya behar gaiça phenousac oro soferitu?

Eçtuçu gaiça tchipia, Jincouaren erresomaren ga tcia, edo irabaçtia.

Goitiçaçu arren celialat çoure begui-

thartia. Haur nuçula ni, eta ene sainctiac oro eneki, çougnec mundu hountan debadio handiric ukhen beitie, orai alagrantcian, orai consolacionian, orai segurantçan, orai phaussian, beitira, eta içanen ere bai urhenceric gabe eneki ene aitaren erresoman.

## XLVIII. CAPITULIA.

*Eternitateco egunaç, eta bicitce hountaco hersiduretçaç.*

I. C. O Celuco ciotatiaren egoite ecinago dohaxia! O eternitateco egun ecinago arguia! gayec batec ere ulhuntcen eçtiana, bena eguia ecinago handiac arguitcen diana; egun bethi maithagarri, bethi segur dena, eta khambioric batere countrialat ukheiten eçtiana!

O Jincouac balexa, egun houra jin liçan, eta mundu hountaco gaiça themporalac oro acabi liren!

Eguia duçu, legnhuru bethi iragnen dianbateç dardeyaturic saintier arguitcen diala; bena eç lurren gagnen bidejant direner, hurrunetic, eta ulhumpeç be-

theric den guisabateç baicic.

2. Bacikicie celuco ekhoiliarrec, çougnen alagranteiaç betheric den houra: hasperen eguiten dicie Evaren haurr desterratiec, haur kharaxtarcuneç, eta debeyarçuneç betheric delacoç.

Oraico themporaco egunac tchipi eta gaitç, doloreç eta miseriaç betheric dira. Heben guiçona hanitch bekhatuç theyuturic diagoçu, hanitch passioneren laçoueç harturic, hanitch larderiaç tincaturic, hanitch arrancuraç betheric, hanitch berritcepeneç barreyaturic, hanitch banitateç nahassiric, hanitch huxeç unguraturic, hanitch triballuç flacaturic; tentacionec pheçutcen dicie, placerec indar gabetcen, eta praubeciac eskerniatcen.

3. O nouiç date gaitç hoyen acabantça? nouiç bicioucn esclabage miserabletic libratu içanen niç? nouiç çu cihaurtçaç baicic eniç orhituren, Jauna; nouiç çutan asseciare i alagueraturen niç?

Nouiç niçate threbucuric batere gabe, eguiaçco libertatian, eçpiritiaren eç khorpitçaren pheçutarçunic ukhen gabe?

Nouiç dateke bake houra, bake nahaspillaric batere gabe segur datekiana, bake

bake barnetic eta campotic, bake althe orotaric fermo içanen dena?

O ene Jesus houna! nouiç niçateke çoure ikhousten? nouiç so eguiteç goçaturen-dut, çoure erresomaco gloria? nouiç ukhenen çutut oro orotan.

O nouiç nieateke çoureki, eternitate oroç gueroç, çoure maiter adelatu duçun erresoman?

Eitcia nuçu, praube, eta desterratu niçana, exayaren lurrian, noun egun oroç beitira guerla, eta desfortuna handiac.

4. Consola eçaçu ene desterria, eçti eçaçu ene doloria; ceren çoureganat beitouatça ene desircunte ororen hasperenac.

Eci mundiac consolacionetaco emaiten deitçtan gaiçac oro, cargabat dutuçu enetaco.

Disiratcen-dit, çoure presentciaç hullan beno hullanago goçatcia, bena ecin atçamaiten diçut.

Nahi nuçu celuco gaicer estecatu, bena mundu hountaco gaicec, eta passione hil eraci gabec, bereganat aphal eracitcen nicie.

Eçpirituç gaicac oro beno gorago içan nahi nuçu, bena araguiac bort-

chatcen niçu, nihauren nahiaren countre, hen pian içatera.

Guisa hortan, desditchatu niçana, nihauren buriaren countre guerla eguiten diçut, eta nihauri greu guerthatu niçu; eçpiritiac gagnen, araguiac pian içatia tcherkhatcen dian themporan.

5. O cer eçtut ene barnian soferitcen, eçpirituç celuco gaicetan nagouenian, eta ene othoitcetan, araguiaren phensamentu saldobat jiten çaitanian! ene Jincoua, etcitiala niganic hurrunt, eta çoure coleran, etcitiala çoure cerbutchariaganic guibelt.

Jalki eraciçaçu çoure ignhacia, eta hen gal eracitececo, igorratçu çoure armac; eta exayaren itchousmentiac oro, eçdeusetara jinen dutuçu.

Ene centçiac çoureganat bil eracitçaçu, ahatç erocitçadaçu munduco gaiçac oro; emadaçu bicioucn uduripen gaichtouen apartatceco, eta mesperetchatceco gracia.

Sokhorri naçaçu eguia eternala, amourecatic banitatec batec ere enaçan hounki.

Hel cite celuco eçtitarçuna, eta bihouatç ihessi, çoure aitcinetic, theyarçunac oro.

Pharca eçadaçu orano, eta heiçu nitçaç misericordia, ene othoitcetan çutçaç campo, besteric cerbait gogouan dudan ordu oroç.

Eci eguiareki aithortcen dit, barreiarçun handibateki hetan usatu niçala içatera.

Eci hanitch aldiç, khorpitceç chuti, edo jarriric nagouen lekhian enuçu; bena bai lehenago phensamentiec eramaiten nayenian.

Ene phensamentia den lekhian nuçu, ata ardura ene phensamentia maite dudan gaiçan diagoçu.

Naturalki edo costumaç placer eguiten deitan gaiçá, berhala ene gogouala jiten duçu.

6. Harracoç çuc, eguia bera beitcira, aguerriç erran uçhenduçu: *Noun ere beita çoure tresaura, han duçu çoure bihotça.*

Celia maite badut, gogo houneç celuco gaicetan ene phensamentia etchekiten-dit.

Mundia maite badut, munduco dohaxutarçunetçaç alagueratcen nuçu, eta haren desfortunetçaç tristetcen.

Araguia maite badut, araguiari so daudianac citit burian.

Eçpiritia maite badut, placer hartcen dit gaiça eçpiritualen gogouan etchekiteç.

Eci maite dutudan gaiça orotçaç gogo houneç mintçatcen nuçu, eta her behatcen; eta halaco gaicen imaginac nihaureki etcherat eramaiten citit.

Bena dohaxu duçu, Jauna, çoure amourecatic creaturac oro bere bihotcetic idokitcen dutian guiçona, bere buriari bortcha eguiten diana, araguiaren desircuntiac eçpiritiaren deboncioniaç crucificatcen dutiana; amourecatic contcentciaren ounxa chahat oundouan, oberenda diçaçun oracione chahubat; eta munduco gaicen ororen barnetic, eta campotic acaça oundouan, merechi deçan ainguriren sembladan içatia.

---

## XLIX. CAPITULIA.

*Bicitce eternalaren desiratciaç, eta harat jouaitera issejatcen diren-r, çougnen hountarçun handiac daudian haiduru.*

1\. *B.* ENe semia, borogatcen duçunian gloria eternalaren desircuntia celutic ichourtcen çaiçula,

eta khorpitcetic jalkitia çoure atimac desiratcen diala, amourecatic ene arguitarçuna khambiamentiaren itçalic gabe ikhous ahal deçan, çabal eçaçu çoure bihotça, eta inspirarçun saintu houra bessarca, boronthate ossobateki.

Esker ecinago handiac eman itçaçu celuco hountarçunari, çougnec hagn magnouski tratatcen beitçutu, hagn eçtiki bisitatcen, hagnbeste sureki corajatcen, eta hagnbeste photerereki goititcen ere bai; beldurreç cihauren phеciac lurreco gaicetarat eror eraci citçan.

Eci eçtuçu hori çoure phensamentuç, edo isseyuç ukheiten, bena bai celuco graciaren, eta Jincouaren soüaren hountarçunetic; amourecatic berthutian umilitate handibateki aitcina citian, eta adela guero jinen diren atacarçunen garhaitcera, eta isseya citian bihotç ossoç eni estecatu içatera, eta boronthate suç bethe bateki ene cerbutchatcera.

2. Ene semia, suya ardura phiçturic diagoçu; bena garra kheric gabe eçtuçu goiti joüaiten.

Otobat çoumbaiten desircuntiac celuco gaicetaraco suç betheric diaudeçu; eta hanegatic eçtutuçu araguiaren tentacioneric gabe.

Hartacoç eçticie erras chahuki, eta purki Jincoyaren ouhouriagatic eguiten, hagn beste desircunterçki galthatcen deyen gaiçá.

Holaco duçu arduran çoure desira, çougn enthelega eraci beituçu, hersi jarraikiten çaiçula.

Eci guihauren abantallaç thonatu den gaiça, eçta eç chahu eç ossoki complitu.

3. Galtheçaçu, eç cihauri placent, eta abantallous çaiçuna, bena eni placer, eta ouhoure eguiten deitadana: ceren ounxa phensatcen baduçu, behar beituçu ene maniaren chuchentarçuna, çoure desiraren, eta çuc desira ahal ciniroanaren gagnetic eçarri, eta hari jarraiki.

Eçagutcen-dit çoure desira, eta entçun citit ardura eguin dutuçun hasperenac.

Nahi cinanteke jadanic içan, Jincoaren haurren gloriaren libertatian: jadanic etche eternal, eta celuco herri boçtarioç betheric den harec placer eguiten deiçu, bena eçtuçu orano jin oren houra; baduçu orano beste themporabat, erran nahi beita, guerlaçco themporá, triballuçco, eta borogatu içateco themporá.

Desiratcen duçu hountarçun ecinago

handiaç bethe içatia, bena eçtiroçu orai houra jardiex.

Ni nuçu: eguruki naçaçu (dio Jaunac) Jincouaren erresoma jin artio.

4. Behar duçu orano lurrian borogatu içan, eta hanitch gaiçatan boulcatu.

Emanen çaiçu çoumbait orduç consolacionia, bena eç behinere assecia jossoüa.

Aççar cité arren, eta içan cite indartsu, naturac nahi eçtucian gaicen, bada ounxa eguiteco, bada soferitceco.

Guiçon berriaç beçticu behar duçu, eta beste guiçon batetara khambiatu.

Ardura eguin behar duçu nahi eçtuçuna, eta nahi duçuna orobat eitci.

Bester placer eguiten dian gaiçac, badiçu oputç hounbat, eta çoure gogara denac, eçtiçu aitcinago proficiturie emanen.

Besten errana entçun içanen duçu, çouria eçdeusentaco hartu içanen duçu; bestec galtharia ukhenen dicie, çuc aldiç çoure galtoua eçtuçu jardiexiren.

5. Bestiac handi dutukeçu genten ahouetan, çutçaç aldiç eçticie hitcic erranen.

Bester gaiça bata, edo bestia fidatu

ren dicie, çu aldiç deusentaco etçutie houn edirenen.

Hori dela causa naturá çoumbait orduç tristeturen duçu, eta eçtukeçu aphur ichilic soferitcen baduçu.

Gaiça horietan, eta beste holaco hanitchetan, arduran borogatu içatenda Jincouaren cerbutchari leyala, cer guisaç bere buria eçdeusten, eta gaiça orotan heçten ahal dukian.

Nekeç duçu holaco cerbait, çougntan hagnbeste mengoua eçtuçun, cihauren buriari hiltcia, noula ikhousten, eta soferitcen duçunian, çoure boronthatiaren countre datekian gaiça çoumbait, orotan gainti aldiç, manu ukhenen duçunian gaiça desarau, eta eçtirela houn çouri uduri çaikeçunen eguitia.

Eta noula eçpeitcira benturatcen besteren escupian çaudiano, photerehandiagobati buhurtcera, hartacoç gaitç uduri çaiçu dela, besteren khegnuric mendreniala plegatcia, eta hartan ebiltia, eta çoure sendimentu propiaren ciçtia.

*6.* Bena ounxa ikhoussaçu, ene semia, triballu horien frutia, hen bertan acabatcia, eta phacu ecinago handia; eta hantic eçtuçu ukhenen khecheriariç,

bai aldiç pacentciaren consolio ecinago açcarbat.

Eci orai gogotic boronthate tchipi ciçten duçun hounen ordari; eelian bethi ukhenen duçu çoure boronthatiaren complitcia.

Eci han edirenen dutuçu nahi dutuçun gaiçac, edo desira ahal cintçakianac oro.

Han badukeçu, hountarçun ororen ukheiteco photeria, hen galtceco loxaric gabe.

Han çoure boronthatiac, eniareki bethi ju naturic, eçtiçu deus besterenic, eç berauren berhecitic desiraturen.

Han ihour etçaiçu buhurturen, ihour eçtuçu cutçaç plagr ituren, ihourc etçutu destorbaturen, deus etçaiçu nahi eçtuçunic jinen: bena gaiça desiratiac oro batetan, çoure gogouaren araur dutukeçu, eta çoure bihotceco desireuntiac oro asseciaturen eta gainticaturen citicie.

Han goitçarran soferitien ordari, emanen de çut g'oria, tristecien ordari, laidorioç estaliren çutut, eta lekhuric aphalena hartu dukeçulacoç, ukhenen duçu, ene errelomaco egonguia bethierecoç.

Han aguerturen duçu obedientçiaren

frutia, alagueraturen duçu penitentciaren triballia, eta besteren pian içate umila khorouatu içanen duçu.

7. Aphal cite arren orai umilki besten ororen escu petara, eta eçtuçula acholic jakiteç, nourc hori erran, edo manhatu dian.

Bena ukhen eçaçu arrancura handibat, ala çoure guehienac, ala çu beno gaçtiagouac, ala cihauren bardinac galthatu, edo eçagut eraci deiçun gaiçaren houniala hartceco, eta isseya cite eguiaçco boronthate bateç haren compliccera.

Batac tcherkhaturen diçu haur, bestiac houra, haur glorificaturen duçu hountan, bestia hartan, eta biç laidatu mila milioutan; çu aldiç etcitiala alaguera, eç hartan, eç hountan, bena bai çoure cihauren mesperetchatu içatian, eta ene nihauren placer hounian, eta ouhourian.

Haur behar duçu desiratu, Jincoua den çutan glorificatu, bada bician, bada hilian.

## L. ÇAPITULIA.

*Cer guisaç guiçon'eskerniatiac Jincouaren eskietan jarri behar dian.*

1. C. ENe Jinco Jauna, aita saintia, cirela orai eta bethiere benedicatu; ceren çuc nahi beçala oro eguin içan beitira, eta çuc eguinen dutuçunac, houn beitira.

Alaguera bedi çutan çoure cerbutcharia, eç beraurtan, ecetare beste çoumebaitetan; ceren çu cihaur beitcira eguiaçco alagrantcia, çu ene esparantchá, eta khoroüá, çu Jauna ene boçtarioüá eta ouhouriá.

Cer-du çoure cerbutchariac çoureganic ukhen diana baiçic, eta houra ere merechitu gabe.

Çuc eman eta eguin dutuçunac oro, çouriac dutuçu.

*Praube niçu, eta ene gaçteçarouaç gueroç bethi phenetan:* tristetcen duçu çoumbait orduç ene arima, nigar eguitiala drano; çoumbait aldiç ere bere beithan nahasten, passione bertan atacaturen dienen direla causa.

2. Bakiaren boçtarioua desiratcen-

dit, çoure haurren bakia gathatcendit, çougn consolacioniaren arguiaç haçten beituruçu.

Emaiten baduçu bakia, ichourten baduçu alagrantcia saintia, çoure cerbutchariaren arima boçtarioçco khantatceç betheric içanen duçu, eta debota ere bai çoure laidoriouan.

Bena har ganic hurruntcen bacira, ardura costumatu duçun beçala, eçtuçu ebiliren ahal, çoure manien bidian bena lehenago haren belhagnac plegatcen dutuçu bere bourrhararen çaflatceco; ceren eçten atço eta herenegun beçala, nouicere çoure arguiac bere legnhuriac hedatcen beitçutian haren burun gagna, eta çoure hegalen itçalaren pian, tentacione atacatcen cienetaric beguiratia beitcen.

3. Aita justo, saintu, eta bethi laidatu içan behar duçuna, çoure cerbutchariaren borogatu içateco orena jin duçu.

Aita maithatu içan behar duçuna, justo duçu çoure cerbutchariac cerbait çouregatic soferi deçan oren hountan.

Aita bethi ouhouratu içan behar duçuna, çuc, eternitate oroç gueroç, ijnen cela çanakian orena jin duçu, çougntan çoure cerbutchariac, thempora

aphurbatec

aphurbateç aphalmentu ukhen behar beitu campotic, barnetic çu beithan bethi bicitcen delaric.

Biç aphurbat meſperetchatu, eta umiliatu, eçdeus bedi guiçonen aitcinian, ſoferitcec, eta eritarçunec chehecabece: amourecatic çoureki arçara phitç dadin, argui berribaten arthorian, eta celuco gaicetan, arguiç bethia içan dadin.

O aita ſaintia, çuc hala eraguin duçu, çuc hala nahi ukhen duçu, eta çuc manhatu ukhen duçuna eguin içan duçu.

4. Çoure adichkidiari eguiten duçun graciabat duçu, mundu houtan çoureganatco amouriouagatic ſoferitcia, eta thurburarçunian içatia, çoumbatetan nahibeita, eta nourtçaç nahibeita, hori eguin ledin nahi ukhen beituçu.

Deus lurren gaignen eguiten deya arraçou gabe, eta noun eçten çoure conſelliaç eta providentciaç phauſſatia?

*Houn duçu enetaco, Jauna, ceren umiliatu naiçun, amourecatic ikhas ditçadan çoure gracian içateco bidiac*: eta aparta ditçadan bihotheco goratarçunac, eta nihaureç dutudan ſinheſte hounac.

Profeitable duçu enetaco, ceren ahalkeç eſtaliric beguithartia ukhen dudan,

amourecatic guiçonac beno lehen, çu tcherkha citçadan ene consolacionetaco.

Hortaric ere ikhassi dit, çoure jujamentu ecin eçagutcen denaç ikhara jarten; ceren justoua gaichtoueki nahastecatcen beituçu doloretan, bena eç houn arau, eta justoki baicic.

5. Eskerrac emaiten deitçut, ceren ene gaiçki eguinac gaçtigu gabe eçtuçun eitci; bena açote colpu garratceç chehecatu naiçun, doloriac emaiten, eta hersidurac igorten ceneiçtalaric campotic eta barnetic.

Eçtuçu ni consola nirouanic celiaren pian diren gaicetaric batere, çu baicic, ene Jinco Jauna, arimen celuco medecia; çuc çaurtcen gutuçu eta sendotcen çuc *ifer niaren khantiala eramaiten gutuçu, eta hantic idokitcen ere bai. Biç çoure gaçtiguia nitan gagnen, eta çoure çaharouac berac jakintsuturen niçu.*

6. Haur nuçala ni, çoure eskien artian, aita maithatia, çoure açote colpien gaçtiguiaren pian aphaltcen nuçu. Çafleçaçu ene biççarra, eta ene lephoua, amourecatic ene okherreria plega eraci deçaçun, çoure boronthatiaren eguitera.

Eguin naçaçu çoure discipulu debot,

eta umilbat, ounxa eguitera coſtumatu duçun beçala, amourecatic çoure begui khegnuric mendrenian, obedi citçadan.

Nihauren buria, eta nic dutudanac oro gomendatcen deitçut gaçtigatu içateco, hobe duçu heben gaçtigatu içatia, eçiec beſte mundian.

Çuc oro bederacarca badakitçu, eta guiçonaren contcentcian deus eſtaliric eçtuçu çouretaco.

Heltu behar dien gaiçac, eguin içan ciren beno lehen eçagutu çuntian, eta eçtuçu beharric nourbaitec abiſa citçan, edo eracoux ditç açun lurren gagnen igaraiten diren gaiçac.

Çuc badakiçu, cer den houn ene profeitiarentaco, eta çougnen abantallousden gaitç ukheitia. bicioueu erdollaren garbitceco.

Eguiçu nitçaç, cihaure placer duçuna, eta eçteçaçula belçouriric eguin, ene bicitce bekhatuç eſtaliari, çougn ihoure çuc beno hobeki, eta clarkiago eçpeitu eçagutcen.

7. Jauna, emadaçu gracia, jakin behar dudanaren jakiteco, maithatu behar dudanaren maithatceco, çouri placentenic çaiçunaren laidatceco, çouri pretiatu uduri çaiçunaren gogouan etchekitc-

co, eta çoure beguien aitcinian itchoussi denaren deslaidatceco.

Enaçaçula eitç, ene beguiec campouan ikhousten dienaren araur, ene jujamentiaren emaitera, eç ene sendimentiaren erraitera guiçon deus eçtakienen entçutiaren araur: bena berheç eraciçadaçu gaiça espiritualac ikhousten ahal direnetaric; eta tcherkha eraciçadaçu bethi, gaiça ororen gagnetic, çoure placer hounaren boronthatia.

8. Guiçonen centciac ardura inganatcen dira, bere jujamentien emaitian, orobat mundu hounen maithaçaliac inganatcen dira, ikhousten ahal diren gaicen baicic eç maite ukheiteç.

Noulaç da guiçona hobe, beste guiçon batec, bestiac beno handiago ouste dialacoç.

Inganaçalebatec inganaçalebat, banobatec banobat, uxubatec uxubat, flacubatec flacubat inganatcen du, goratcen dian themporan, eta eguiaren erraitera, ahalkeç lehenago bethatcen du, banoki laidatcen dianian.

Eci san-frances umilac dioyanbeçala, Jincouaren beguien aitcinian handi den beçagn beste duçu batbedera, eta eç haboro.

## LI. CAPITULIA.

*Obra aphaler ihourc estecatu behar diala gorenetara ecin heltcen denian.*

1. *B.* ETçauteke bethi, ene semia, berthuten desir suç bethian, eta are celuco gaicen eçpirituç ikhoustiaren graduric gorenian; bena behar duçu çoumbait aldiç, bekhatu originalaren khoçu gaichtoua dela causa, lekhu aphalagouetarat jaixi, eta cihaurc nahi gaberic, eta debeiatcen cirelaric, egari bicitce gastatu hounen phecia.

Khorpitç hilcor haur kharreiatcen duçuno, borogaturen duçu, debeyarçuna eta bihotceco pheçutarçuna.

Behar duçu arren ardura, khorpitç houneki cireno, hasperen eguin, araguiaren pheçutarçuna dela causa; ceren eçpeitcitake thaic gabe esteca, Jincouaren eçpirituç ikhoustiari, edoguita hortaco obrer.

2. Ordian houn dukeçu çouretaco; hersa citian obra aphaler, eta campoticouer, eta alaguerache citian eguitate hounetan: eguruki deçaçun, confidant-

cha fermobateki, ene jitia, eta celuco bisita pacentciareki soferi deçaçun çoure desterria, eta eçpiritiaren idortarçuna: nic arçara bisita, eta erreustarçun orotaric libra citçadan artio.

Eci ahatç eraciren deiçut çoure phena, eta barneco phaussiaç goça eraciren çutut.

Hedaturen citit çoure aitcinian escripturaren edertarçunac; amourecatic, bihotça largaturic, has citian lastercan ene manien bidian.

Eta erranen duçu; *mundu hountaco soferitcec eçtie merechitcen gutan aguerturen den beste munduco gloria.*

## LII. CAPITULIA.

*Guiçonac ouste uhen behar diala lehenago merechi dutiala açote colpiac, ecieç ]consolacioniac.*

1. C. JAuna, eçit merechi çoure consolacionia, eç bisita eçpiritualа: eta hartacoç justoki tratatcen naiçu, prauberic eta eskierniaturic eiçten naiçunian.

Eci, itchassobat nigar eguin ahal ne-

çan ordian, enikeçu orano merechitcen çoure consolacionia.

Harracoç deus besteric eçtit merechitcen, baicic ere açotatu, eta gaçtigatu içatia; ceren ardura, eta mortalki ofensatu beitçutut, eta gaiça hanitchetan, hux handiric eguin beitut.

Eguiaçco arren arraçoua ounxa eçaguturic, eçtit merechi consolacioneric mendren mendrena.

Bena çuc, Jinco eçti, eta misericordious cirena, çoure obrac gal ditian nahi eçtuçuna, misericordiaren ountcien eretcian, çoure hountarçunaren aberastarçunen eracousteco; badaçu caritatia çoure cerbutc hariaren, harec ihountic merechi dian beno haboro consolatcecoua, guiçonec oroc eguin liroyen beno hobeki.

Eci çoure consolacioniac eçtutuçu, guiconen elhestac beçala.

2. Cer eguin dut, Jauna, çuc eni eman ciniçadan celuco çoumbait consolacione ?

Nic nihaur beithan eçaguteen dit, deus hounic eçtudala eguin; bena biciouetara bethi ekharri, eta hounialat utçultceco herabeçti içan niçala.

Hori eguia duçu, eta etciroçut ukha.

Bestela erran baneça, çu jar cinteke ene countre, eta elukeçu ihour ni sustenga nindirouanic.

Cer merechitu-dut ene bekhatientaço, ifernia, eta su eternala baicic?

Eguian aithortcen-dit, trufac, eta mesperetchiac merechi dutudala, eta eçtautala ounxa, çoure deboten artian icentatu içatia: eta çoumbatere hori nekeç entçuten beitut; haregatic orogatic salhaturen citit ene bekhatiac, nihauren countre, eguiaren sustengutan, amourecatic çoure misericordiaren ehignerago jardiestia, merechi deçadan.

3. Oguendant niçanian, eta ahalkeç betheric nagouenian, cer erranen dut?

Eçtit, hitç hounen erraiteco baiçic, mihiric, bekhatu eguin dit, Jauna, bekhatu eguin dit, heiçu nitçaç pietate, pharca eçadaçu.

Eitç *naçaçu aphurbat, ene doloriaren nigarreç hustera, lur ulhun, eta heriouaren belçeuraç estaliric dagouenialat jouan beno lehen.*

Deus galthatcen ducia, gar habororeki, bekhatore miserable oguendant bateganic, ecieç bihotceco dolumenian içan dadin, eta bere faltegatic umilia dadin.

Eguiaçco dolumenian, eta bihotçaren umiliatcian, sortcen duçu pharcamentiaren esparantçá, phaussatcen duçu contcentia nahassia, arraberitcen duçu gracia galdia, beguiratcen duçu guiçona, guero jin behar dian coleratic, eta Jincoua, eta arima penitenta batcen dutuçu alkharreki, bessarca saintu batetan.

4. Bekhatien dolumen umila, sacrificio maithagarribat duçu çouretaco, Jauna, çougnec urrin hanitcheç hobiagobat egoichten beitu, çoure aitcinian, ecieç intchentsu erratcen denac.

Hori duçu orano unkhentu preciatu, çoure hougn sacratietara ichour ledin nahi ukhen çuniana: ceren eçpeituçu seculan belçouriric eguin bihotç dolumeneç eta umilitateç betheric dagouenari.

Han duçu goure exayaren colerari ihessi eguiteco lekhia; han theyarçun bestetaric bildu dutugunac oro garbitcen, eta hounialat khambiatcen dutuçu.

## LIII. CAPITULIA.

*Jincouaren gracia eçtela laket, lurreco gaicetan goço hartcen dienekilan.*

1\. *B.* ENe semia, ene gracia preciatu duçu, ecin ounhesten diçu, campotico gaicekilan, eta lurreco consolacionekilan, nahastecatu içatia.

Apartatu arren behar dutuçu, graciaren baragalliac oro, haren ukheitia desiratcen baduçu.

Besteganic berheç cite, maite ukhen eçaçu ihourere gabe içatia, eçteçaçula tcherkha ihoureki elhestatcia; bena bai lehenago Jincouaren debotki othoitcia, amourecatic contcentciá chahuric eta eçpiritiá dolumenareki etcheki ditçatçun.

Eçteçaçula mundu oroç pheretchuric batere eguin: Jincouaren cerbutchatcia campotico gaiça ororen gagnetic, eçar eçaçu.

Eci eçtirokeçu eçpiritia eneki etcheki, eta thempora beraurtan gaiça igaraiten diren hoyetan placer har.

Hurruntu behar duçu eçagunetaric;

eta maite dutuçuneganic, eta çoure eçpiritia guibeltu consolacione themporal orotaric.

Hartacoç jondane phetiri apostoliac othoitcen citiçu, Jesu-Kristen cerbutchari leyalac, bere buriac bidejant, eta arrotç elibat beçala etcheki ditcen mundu hountan.

2. Ala beituke confidantcha handia, hilteraco phuntian, mundu hountaco gaiçaren baten ere estecamenturic eçtukianac!

Bena eçpiritu orano eri denbatec, ecin bere beithan enthelegatcen-du, cer den, hala bihotçaren gaiça orotaric lachaturic ukheitia; eta guiçon araguiareki estecaturic dagouenac, eçtaki cer den guiçon debotaren libertatia.

Haregatic orogatic, nahi bada eguiaçki debot içan, behar du hagn ounxa hullaner, noula hurruner adio erran, eta ihouriere eç haboro gogoua eman, ecicç bere buriari.

Cihauren buria erras garhaitcen baduçu, bestetan ehignerago burutan jouanen cira.

Bere buriaren garhaitcia-da, bitoria ossoua.

Eci nourc ere bere buria aphalturic

etchekiten beitu, guisabateç noun, araguia arraçouaren, eta arraçoua ene obediencian egon dadin gaiça orotan, houra da eguiacki bere buriaren garhaitçale, eta mundiaren burçagui.

3. Goratarçun hortara igaitia desiratçeen balin baduçu; hassi behar duçu bihotçtoiki, eta çagniala drano aichcora phicoua eman, amourecatic idoki, eta deseguin deçaçun, cihaurganatco, eta munduco houn berheci ororentaco duçun, enjoguidura gaichto estaliric dagouena.

Herrotic garhaitu behar diren gaiçac oro daude casi, bicio hortan, erran nahi beita, bere buriaren sobera behar eçten beçala maithatcian: gaitç hori garhaituç eta plegatuç gueroç, ihourc ukhenen-du berhala bake, eta phaussu handibat.

Bena noula gente aphur .isseyatcen beitira, bere buriari ossoki hiltcera, eta bere beitharic eçpeitira erras jalkiten: hartacoç egoiten dira bere beithan nahassiric, eta eçtitake eçpirituç berac beno gorago jouan.

Eneki aldiç, threbucu gabe, ebiltia desiratcen dianac, behar dutu bere bihotceco nahicunte gaichto, eta okherrac

oro

oro hil eraci, eta creaturari bateri ere, eç paſſionereki eſtecatu amourio berheci bateç.

## LIV. CAPITULIA.

*Graciaren, eta naturaren bòulea ecin alkharreki compoſtatcen ahal direnetçaç.*

1. *B.* ENe ſemia, ounxa gogoua eman eçaçu naturaren eta graciaren boulker: ceren eçabaki alkharren countre boulcatcen beitie; eta nekeç berheci içaten beitira, guiçon debotaç, eta barnetic arguitu denaç baicic.

Eguiala oroc gaiça houna deſiratcen-die, eta ouſte dic cerbait hounic badela hen erranetan, edo eguinetan: hartacoç hounaren itchouraren pian hanitch inganatu içaten dira.

Naturá finacious-da, bereganat hanitch gente thiratcen dutu, laçouetan hartcen, eta inganatcen, eta berauri bethi açkenic ſo eguiten-du.

Gracia aldiç ſimpleki ebilten-da, uduripen gaichto orotaric guibeltcen-da, inganioric eçtu nahi, eta gaiçac oro eguiten dutu chahuki jincouagatic, çougn-

tan açkenki phaussatcen beita.

2. Natura eçta nahi bortchaç baicic hil, eç hersatu eç goithu içan, eç bere oleç besten pian plegatu, eç jarri.

Graciá aidiç bere buriari bortcha eguitera isseyatcen da, araguiaren nahicunter buhurtcen da, pian içatia tcherkhatcen du, goithu içatia desiratcen du, eçta nahi bere libertatiaç cerbutchatu, gaçtiguiaren pian içatia maite du, ihouren guehiengouaric eçtu galthatcen; bena bai Jincouaren pian bethi bicitcia, egoitia, eta içatia, eta Jincouaren amourecatic prest da, creatura ororen pian umilki jartera.

Naturá bere abantallagatic trhiballatcen da, eta cer irabaci beste bateganic jin ahal dakidion, gogoua emaiten du.

Graciac aldiç hobeki so eguiten du, eç cer abantalla, edo houn berauri jin dakidion, bena hanitchentaco profeitable datekianari.

Naturac gogo houneç ouhouria, eta coladac hartcen dutu.

Graciac aldiç ouhouria, eta gloria oro Jincouari leyalki emaiten dutu.

3. Naturá ahalkiaren, eta mesperetchiaren loxa da.

Graciá aldiç alagueratcen da, Jesu-

Kriſten icenetan goitçarrenen ounheſtiaç.

Naturac aurerkheria, eta khorpitçaren phauſſia maite dutu.

Graciá aldiç deus eguin gabe eçtauke, eta triballia gogo houneç beſſarcatcen-du.

Naturac gaiça berrien, eta ederren ukheitia tcherkhatcen du, haſtio dutu charrac eta lodiac.

Graciari aldiç gaiça ſimple, eta umilec placer eguiten die, eçtutu lodiac meſperetchatcen, ecetare chaharkiç beztitciari belçouriric eguiten.

Naturac gaiça themporaler ſo eguiten-du, lurreco irabacieç alagueratcenda, eta damiaç triſtetcen, bitç arhinçki erran bateç khechatcen-da.

Graciac aldiç, eternitateco gaicetan, gogoua e chekiten-du, themporaler eſtecatu gabe dagoucla ric, gaicen galciac eçtu nahaſten, ecetare elhe gaichtouec khecha eracitcen: ceren celian, deus galtcen eçten lekhian, eçarri beitu bere treſaura eta boçtarioua.

4. Naturá nahious-da, eta hartcen gogo hobeç-du, ecieç emaiten, bere gaiça propiac maite dutu.

Graciá aldiç debot, eta comun-da,

berheçkerier ihessi eguiten du, aphurreç pairatcen da, *emaitia hobiago dela* ousíte du, *ecieç hartcia.*

Naturá creaturetarat, bere aragui propialat, banitatetarat, eta elhestetarat erortoki-da.

Graciac aldiç Jincouaganat, eta berthutetarat thiratcen du, creaturac eiçten dutu, mundiari ihessi eguiten-du, araguiaren nahicuntiac hugu dutu, eçpiritiaren barreiarçunac baratcen dutu guiçonen artian aguertcera ahalke-da.

Naturac gogo houne, eampotico çoumbait consolacione hartcendu, çougntan goçotaco placerbat ediritcen beitu.

Graciac aldiç, Jincouatan beraurtan consolatu içatia tcherkhatcen du, eta gaiça ikhous ahal ditakian ororen gagnetic, hountarçun ecinago handi denian, bere placera edereiten-du.

5. Naturac oro eguiten dutu bere irabaci, edo abantalla propiagatic, deus eçtu eguiten dohagnic, bere hounki eguinen phacu, esparantcha du, ukhenen diala, berac eguina beçalacobat; edo hobebat, edo laidoriobat, edo urgaiçtebat; eta borthiçki nahi du bere gaiça eguinac, edo emanac, hanitch pheretchatiaç içan ditian.

Graciac aldiç, deusere themporalic eçtu tcherkhatcen, eç beste phacuric Jincoua bera baicic ordaritaco, eta gaiça themporal behar direnetaric batere eçtu desiratcen, hountarçun eternalen jardiex eracitceco cerbutchatcen ahal çaitçonac baicic.

6. Naturac placer hartceen-du, adichkide eta ascaci hanitch ukheitiaç, etche hounetic; eta arraça handitic jalkitiaç glorificatceen-da, puchanter gogara eguiten-du, aberaxac lausencatceen dutu, eta bera uduri direnen utçuliac laidatceen dutu.

Graciac aldiç, exayac ere maite dutu, eçta adichkiden hanitchtarçunaç handitceen, eçtu etchiaç, eç sortcepenaç casuric eguiten, han berian edireiten ſeç pada bethure handiagobat.

Praubia lehenago, ecieç aberaxa urgaiçten du, oguen gabia dolugarriago çayo, ecieç puchanta, eguiariareki laketago-da, ecieç ingana çaliareki.

Gente pherestiac corajatceen dutu, bethi obra hobiagoric eguitera imbeya ukhen decen, eta Jincouaren semiari, berthuten moyaneç, uduri içan ditian.

Naturá menxaç eta phenaç p'agnitcen-da berhala, Graciac fermoki ga-

becia soferitcen - du.

7. Naturac beraurganat gaiçac oro utçul eraciteen dutu, beraurgatic indarcatcen-da, eta bestetan cerbait arrerraiteco edireiten-du.

Graciac aldiç, Jincouaganat oro utçultcen dutu, çougneganic lehen uthurburutic beçala jalkiten beita; deus hounic berauri eçtu ounhesten, eç berauttçaç urgulluxuki phacu içaten, debadioric eçtu eraikiten; bere sendimentia bestena beno hobe eçtu etçhekiten; bena bere sendimentu, eta enthelegu orotan cuhurtce eternalaren, eta Jinco oro ikhousten eta eçaguteen dutianaren pian, jarten-da.

Naturac segretien jakitia, eta berrien entçutia lehiatuki desiratcen-du, campouan aguertu nahida, eta hanitch gaiça centcieç borogatu; bourré eçagutu içan ledin nahi luke, eta eguin hanitch gaiça, laida eta pheretcha eraci liroyenetaric.

Graciac aldiç, eçtu acholic berrien, eta gaiça eçtakitçanen ikhastiaren; ceren hori oro bekhatu original caharraren gaichtotarçunetic sorthu beita; deus berriric, eç iraipousic eçtenen gagnen mundu hountan,

Guiſabateç noun eracouſten beitu, centcien beguiratcen, banaloriari eta banitatiari iheſſi eguiten, laidatu behar dien, eta juſtoki miragarri diren gaicen umilki gordatcen, eta gaiça orotaric, eta jakite orotan eçpirituçco abantallaren idokiten, eta Jincouaren laidoriouaren, eta ouhouriaren tcherkatcen.

Eçtiçu nahi, eç bera, eç beriac bantatiac içan ditian; bena nahi likeçu Jincoua bere gaiça emanetan benedicatu içan dadin, çougnec oro largoki emaiten beitutu, amourio purbateç.

8. Gracia haur-da celuco arguibat, Jincouaren dohagn berhecibat, haitatu içan direnen ſegnale propibat, eta ſalbamentu eternalaren gagebat, çougnec guiçona lurreco gaicetaric, celucouen maithatciala gora eracitcen beitu, eta araguiari enjogui içatetic, debocionialat utçul eracitcen.

Çoumbatenaç arren natura uruchki eta goithu içatera hobeki erakharten beita; hambatenaç gracia handiagobaten ichouria jiten-da, eta barnetico guiçona, bisita berriric egun oroç ukheiteç, Jincouaren imaginaren arauz, arraberritcen-da.

## LV. CAPITULIA.

*Naturaren gastatu içatiaç, eta Jincoaren graciaren eguitate açtarraç.*

1. C. ENe Jinco Jauna, çoure uduriala, eta imaginala eguin naiçuna; emadaçu gracia, hagn handi, eta salbatu içateco, hagn mengoua dudala, eracouxi deitaçun haur; amourecatic, ene natura ecinago gaichto bekhatietarà, eta perdicioniala thiratcen nayan haur, garhait deçadan.

Eci borogatcen diçut ene araguian bekhatiaren legue, ene eçpiritiaren leguiaren countre jouaiten denbat, eta esclabobat beçala, hanitch gaiçatan beraurren desiren complitcera eramaiten nayanbat, eta etcirotçut irach haren passioniac, çoure gracia ecinago saintiac, ene bihotciala su handireki ichouri içan denac, urgaiçten eçpanai.

2. Çoure graciaren, eta gracia handiaren mengoua badiçugu, natura, gaçteçarouaç gueroç bethi gaiçkiala ehkarri den hounen, goitceco.

Eci Adam lehen guiçonac error eraci-

ric; eta bekahatiaç gaſtatu içan oundouan, macula horren phena hedatu duçu guiçon orotarat, guiſabateç noun natura houra bera, çougn çutçaç ounxa, eta chuchen eguin içan beitcen, biciouaren orai, eta natura gaſtatu içan den flakeciaren, hartcen beita, cereneta haren boulcac beraur eiçten bada, gaiçkiala, eta lurreco gaicetara thiratcen beitu.

Eci indar aphur baratu çayona, ſu tchinkha haux pian gorderic daguoena beçala duçu.

Hori-da arraçou naturala bera, ulhuntarçun handibateç unguratia, hounkiaren, eta gaiçkiaren, eguiaren, eta gueçurraren orano eçaguteen dakiana; çoumbatere eçpeitirotça compli houn çaitçon gaiçac oro, eta eçpeita orai goçatcen eguiaren argui oſſouaç, eç bere bihotceco chuchentarçunaç.

3. Hortic jiten duçu, ene Jincoua, ene barnetico phenſamentieç, çoure leguian goço hartcia, dakidalacoç çoure mania houn, juſto eta ſaintu dela, çougnec eracouſten beitu orano, cer den gaiçkia, eta bekhatiari iheſſi eguin behar dela.

Bena araguiac bekhatiaren leguiala plega eracitcen niçu, haren deſirer lehen,

ecieç arraçouari maniac eguiten dutudanian.

Hantic duçu nitan *hounaren nahia, noula eguin dirodan aldiç, eçtit ediretten.*

Hantic jiten dutuçu, hanitch hountarçunen eguiteco, ardura hartçen dutudan dessegnac; bena gracia menx badut, ene flakeciaren ajutatceco, den mendren indarcac, eta buhurtciac eitç eracitcen diçtadaçu, eta faltala erorten nuçu.

Hantic helteen duçu orano, complitu içatiaren bidia eçagutcen dudalaric, eta aski clarki ikhousten, cer guisaç gobernatu behar dudan : nihauren gachtotarçunaren pheciaç cargaturic, eçpeitut ene buria goiti eracitcen gaiçaric hoben direnen eguitera.

4. Ala beitut, Jauna, ecinago çoure graciaren mengoua handia, bai gaiça hounaren hasteco, bai hartan aitcina jousiteco, baietare haren acabatceco.

Eci houra gabe deus etciroçut eguin, çutan aldiç oro bacirotçkeçut, graciac aççartcen nayalaric.

O eguiaçki celuco ciren gracia, çougn gabe deus eçpeitira goure merechimentiac, eta goure naturaren propitagec deus eçpeitie içan behar pheretchatu.

Deus jakitec, deus aberaſtarçunec, deus edertarçunac, edo aççartarçunac, deus eçpiritiac, edo ounxa mintçatciac eçticie balia çoure eretcian, Jauna, çoure gracia gabe.

Eci naturaren propitagiac, hounen eta gachtouen comun dutuçu: haitatien aldiç dohagn berhecia duçu gracia, edo amourioua, çougntçaç ederturic, eta ſegnalaturic direnian, merechitcen beitie bicitce eternala.

Hagn beſtetara douaçu gracia hounen gorotarçuna, noun guero jinen diren gaicen jakitia, miracullien eguitia, eta çoumbat nahibeita handi-den Jincouaren eçpirituç ikhouſtia, deus eçpeitira houra gabe pheretchatu içaten.

Haboroç haboro ſedia, eſparantça, eta beſte berthutiac etçaitçu maithagarri, caritatia eta gracia gabe.

5. O gracia ecinago dohaxiá, eçpirituç praube, berthuteç aberax eraciçalia, eta hanitch houneç aberax denaren bihotceç umil içan eraciçalia.

Ciauri jaix cite nitara, betha naçaçu goicetic gora çoure conſolacioniaç; beldurreç eghhiaren handitarçunac, eta eçpiritiaren idortarçunac ene arima engocha eraci deçan.

Othoitcen çutut, Jauna, çoure aitcinian gracia ediren deçadan; eci çoure graciaç aski dit, naturac desiratcen dutian gaicetaric, eç jardiexiric ere batere.

Jçanic ere tentatu, eta thurburarçun hanitcheç eskerniatu, eçtit loxaric ukhenen, çoure gracia eneki den ber.

Houra duçu, ene aççartarçuna, houra eni conseillu eta sokhorri emailia.

Exayac oro beno photerousago duçu, eta çuhurrac oro beno çuhurrago.

6. Houra duçu, eguiaren burçaguissa, jakite hounaren eracouslia, bihotçaren arguia, hersiduraren consolacionia, tristeciaren acaçaçalia, loxaren idokiçalia, debocioniaren haçlia, nigarren erakharlia.

Cer niç houra gabe, çour idorbat baicic, eta çagn, egoichteco baicic houn eçtenbat.

Çoure graciac arren, Jauna, bethi aitcinetic eta oundotic lagunt naçala, eta obra hounen eguiteco thaic gabe erphai etcheki naçala, hori galthatcen deiçut, Jesu-Krist çoure semiaç hala biç.

## LVI. CAPITULIA.

*Guihauren buriac eitci behar dutugula; eta Jesu-Krist, khurutchiaren kharreiatcian, imitatu.*

1. *B.* ENe semia, çoumbatere cihaurganic jalkiren ahal beitcira, hagnbeste eneganat igarenen ahal cira.

Hala noula campouan, eçdeus desiratciac, barneco bakia emaiten beitu; orobat barnetic bere buriaren eiçtiac, Jincouareki juntatecn-du.

Nahi dit, çoure buriaren complituki ene boronthatiala eiçten ikhas deçaçun, plagnuric eguin, eta arrerraitecoric ukhen gabe.

*Jarraiki çakitçat, ni nuçu bidia, eguia, bicia.*

Bideric gabe eçtuçu ihour jouaiten, eguiaric gabe eçtiçu ihourc eçagutcen, biciric gabe eçtuçu ihour bicitcen. Ni nuçu çu jarraiki behar citçayon bidia, sinhexi behar duçun eguia, eta esperantcha ukhen behar duçun bicitcia.

Ni nuçu, gachtotcen ecin den bidia

erraiten ecin den eguia, eta mugaric e-
tian bicitcia.

Ni nuçu, bide ecinago chuchena
eguia guchiena, bicitce eguiaçcoua, b
citce dohaxia, bicitce creatu içan eçten

Egoiten bacira ene bidian, eçagutu
ren duçu eguia, eta eguiac librature
çutu, eta bicitce eternala jardiexire
duçu.

2. *Nahi bacira bicitcian sarthu, b
guira itçaçu ene maniac.*

Nahi baduçu eguia eçagutu, sinhe
naçaçu.

*Nahi bacira hounian complitu içan
ſal itçaçu oro.*

Nahi bacira ene dicipulu içan, *eitçaç
couре buria.*

Nahi baduçu bicitce eternala goçatu
mesperetcha eçaçu oraico bicitcia.

Nahi bacira celian gora içan, apha
cite mundian.

Nahi bacira eneki erregue içan, khar
reya eçaçu eneki khurutchia.

Eci khurutchiaren cerbutchariec bai
cic, eçticie edireiten salbamentiaren,
eta eguiacco arguiaren bidia.

3. C. Jesus Jauna, ceren çoure bidia
hersi den, eta mundiaç mesperetchatu,
emadaçu gracia, haren berauren mes-

peretchiareki, çoure imitatcecoua.

*Eci eçtuçu cerbutcharia, bere Jaunæ heno guehiago, eçetare dicipulia, bere burçaguiaren gagnetico.*

Phena bedi çoure cerbutcharia, çoure bicitciaren imitatceç; ceren hartan beitago ene salbamentia, eta eguiaçco saintutarçuna.

Hartaric campo, iracourten, edo entçuten dutudan gaiçac batec ere, eçitacie eç placer, eç contentamentu ossobat emaiten.

4. *B.* Ene semia, ceren horic beitakitçu, oro iracourtu beitutuçu: dohaxu içanen cira, eguiten ere balin badutuçu.

*Noure ere ene manias beitakitça, eta hourac beguiratcen beitutu, houra-da, ni maite nayana, eta nic houra maite ukhenen-dut, eta ene buria hari eracouxiren deyot*, eta eneki jar eraciren-dut ene aitaren erresoman.

5. *C.* Biç hala eguin, Jesus Jauna, noula çuc erran, eta hitceman beituçu, eta Jincouac daxala gracia hori merechi deçadan.

Hartu diçut, hartu çoure escutic khurutchia, egariren diçut, bai egariren diçut hil artio, çuc nitan eçarri duçun beçala.

Eguiaçki fraide hounbaren bicitcia khurutchebat duçu, bena bai pharadussialat guidaçalia ere.

Behin hassiç gueroç, guibelialat utçultcia eçta sori, eçetare hassi içan denaren eiçtia.

6. Eïa bada, ene anaye maitiac, gouatçan alkharreki, Jesus goureki datcke.

Jesusen amourecatic hartu dugu khurutche haur, Jesusen amourecatic iragan deçagun, khurutchian açkentciala drano.

Goure ajutaçale dateke, goure guida, eta aitcinetico içan dena.

Haur dela goure erreguia, goure aitcinetic ebilten dena, çougnec gouregatic guerla eguinen beitu.

Jarraiki gakitçon bihoçtoiki, herratciaren ihourc eçtiala loxaric; prest gaudian corajouski guerlan hiltcera, eta eçteçagun thonaric eretcheki goure gloriari, khurutchiari ihessi eguineç.

## LVII. CAPITULIA.

*Guiçona eçtadin içan sobera descorajatu çoumbait faltatara erorteu denian.*

1. *B.* ENe semia, eguitecouac gaiçki donatçanian, pacentciac, eta umilitatiac haboro placer eguiten ditacie, ecieç, nahi beçala doua çanian, consolacione, eta debocione hanitchac.

Çoure countre erran datekian gaiça tchipibatec, ceren tristetcen çutu?

Handiago içan baliç ere, etçunukian içan behar a teratu.

Eitçaçu arren igaraitera, eçtuçu hori gaiça berribat, eç çouri heltu çaiçun lehena, eç içanen ere açkena, luçaç bicitcen bacira.

Aski bihoçtoi-cira, deus nahi eçtuçunic helteen etçaiçuno.

Consellu hounic ere emaiten duçu, eta badakiçu çoure elheç besten corajatcen: bena ouste gabeçco thurburarçunbat çoure borthala jin den beçagn satri, consellia eta indarra mensten ça tçu.

Gogoua emaçu, ardura gaiça tchipieta i borogatcen duçun, çoure flake-

cia handiari : orotrat ere horic eta bestę holacoric cerbait helteen denian, oro çoure, salbamentutaco guerthatcen direla.

2. Jar cite bihotceç hobekienic dakiçun beçala, eta halaric ere hounki baçutu, etcitçala haregatic descoraja, ecetare luçaç arrancuraç betheric etchek ki. Eçpadiroçu boçtarioreki, mendrenetic pacentciareki soferi eçaçu.

Nahi bada çoure gogara eçten cerbait entçun, eta cihaur beithan khechakeria çoumbait sendi deçaçun; ſiçan cite çoure buriaren burçagui, eta eçteçaçula eitç çoure ahotic tchipiac escandalisa litirouan, hitcic jalkitera.

Bertan, çutan sorthu den khechadura, ematuren duçu; eta graciaren jitiareki barnetico doloria eçtitatçunetara khambiaturen duçu.

Orano bici nuçu, (cioçu Jaunac) prest çoure ajutatcera, eta çouri costumatu dudan beno consolacione handiagoric emaitera, nitan fidatcen bacira, eta ni debotki icentatcen banaiçu.

3. Ukheçu coraje, eta indar, adela cite soferitce handiago batetara.

Eçtuçu oro galdu, nahi bada ardura çoure buria eskerniaturic, eta garratçki

tentaturic ediren deçaçun.

Guiçon cira, eta eç Jinco, aragui cira, eta eç Ainguru.

Noula bethi egon ahal cinteke berthutiaren hegu berian, Ainguria celian, eta lehen guiçona lurreco pharadussian egon eçtirenen gagnen?

Nic doloretan direnac eraikiten citit, sendotcen dutudalaric, eta ene jincotarçunaren eçagutciala goiti eraciteen, bere flakeciá eçagutcen dienac.

4. C. Biç, Jauna, çoure hitça benedicatu eçtia beno enetaco eçtiago dena.

Cer eguin niro ene thurburarçun, eta hersidura hagu handi direnetan, çuc, çoure elhe saintietçaç, aççar eçpanentçaçu?

Salbamentiaren lekhu seguriala hel nadin ber, cer achola dut, nic soferitu dudan gaicen hanitchtarçunaç eta handitarçunaç?

Emadaçu aç kentce hounbat; emadaçu mundu hountaric jalkite dohaxubat.

Orhit cite nitçaç, ene Jincoua, eta jouan eraci naçaçu bidechea chuchenaç çoure erresoumalat hala biç.

## LVIII. CAPITULIA.

*Gouretaco goregui diren gaiceiçaz ; eta eçtiela behar Jincouaren jujamentu estaliec sobera chehe teherkhatu.*

1. *B.* ENe semia, beguira cite, gaiça goretçaç, eta Jincouaren jujamentu estalietçaç debadiotan sartcetic ; cerentaco haur eitcia, houra hartia den, hagn gracia handibatentaco; eta ceren orano haur tristeciaç hagn aphalturic dagouen, houra aldiç boçtarioç, hagn ounxa goraturic.

Horic guiçonaren jakitia beno gorago diren gaiça elibat dutuçu : eta eçtuçu eç arraçouric batere, eç debadioric, Jincouaren jujamentia ikhertçen ahal dianic.

Nouicere arren exayac phensamentu horic emaiten beiteitçu, edo orano guiçon oro jakin beharrec galtatcen deitcienian ; ihardex eceçu profetareki *justo cira Jauna, eta chuchen duçu çoure jujamentia.*

Houlache ere bai, *Jaunaren jujamentiac eguiac dira, bere beithan justotarçuna daduke.*

Ene jujamentien ihourc loxá içan behar-du, eta eç hourac ikhertu; ceren guiçonen enthelguia, ecin hetara heltcen ahal beita.

2. Eçtuçula orano arrancuraric, eç debadioric saintien merechimentietçaç; eïa bata bestia beno saintiago deneç, edo handiago celietaco erresoman.

Holaco gaicec ardura sor eracitcen citicie debadio eta alterarçun banouac; urgullia, eta banaloria ere haçten citicie: nountic jiten beitira jeloskeriac; eta alkharren ounhexi nahi gabiac, batac saintu bata, bestiac bestia, urgullureki isseyatcen direlaric, besten gagnetic eçartera.

Bena holaco gaicen jakin eta ikhertu nahiac, eçtu abantallaric baterc erakharten, eta bai aldiç saintier haboro desplacer eguiten; ceren eçpeiniç ni debadiouaren Jincoua, bena bai bakiarena; çougn bake, eguiaçco umilitatian, beitago lehenago, ecieç bere buriaren goititcian.

3. Çoumbait amourioçco zelobateç ekharriago dira batcetrat, edo bestetrat su handireki; bena hori guiçonetic lehen, eciec Jincouaganic jiten-da.

Ni niç, saintien ororen eguilia, nic

ukhen eraci dieçut graciá, nic eman dieçut gloria.

Nic eçagutcen citit batbederaren merechimentiac, nic aitcinetic eman ditceçut ene eçtitarçunaren beneditcioniac.

Nic themporac oro beno lehen jakin dit, çougn ciren ene maitiac, nic hourac mundutic haitatu citit, hec ni beno lehen.

Nic diethu citit, ene graciaç, enegaňat jin eraci ene misericordiaç, nic guidatu citit, hanitch guisataco tentacionetçaç.

Nic ichouri dieçut consolacione ederric, nic eman direçut urrhenciala drano iraiteco graciá, nic khorouatu dit hen pacientciá.

4. Nic eçagutcen citit lehena, eta azkena, nic bessarcatcen citit oro, amourio ecin precioric emaiten çayonbateç.

Nic, ene saintietan oratan, laidatu içan behar dit, nic, gaiça ororen gagnetic, benedicatu içan behar dit, eta ouhouratu hetaric batbederatan, salbatu içateco haitatu, eta hagn gloria handian, eçarri dutudanen gagnen, hen aitcinetico merechimenturic batere gabe.

Nourc ere arren ene saintu tchipienetaric bat mesperetchatcen beitu, harec

eçtu handia ouhouratcen ; *ceren tchipia eta handia nis eguinic beitira.*

Eta nourc ere ene ſaintictaric çoumbaiti, cerbait idokitcen beitu, eni nihauri idokitcen-du, eta gagneratico celuco erreſoman direner orori.

Oro caritatiaren oropilouaç bat dira : ſendimentubat die, gaiça bera nahi die, eta gaiça bakhoitç batetan, alkhar maite die.

5. Ni orono, (hanitcheç gorago den gaiçabat beita) bere buriac, eta merechimentiac beno maitiago naye.

Eci berac beno gorago altchatu içanic, eta beraurien amouriotic elkhiric, oſſo oſſoua ene maite ukheitiala igaraiten dira, eta nitan goçamen complitu batcki phauſſatcen.

Deuſec ere eçtiroketça, eç guibelt, eç aphal, eguia eternalaç betheric, ſutan jarten direlaeoç, caritate ecin hiltcen denaren ſuyaç gorthuric.

Daudian arren guiçon araguiari enjogui direnac, ſaintien içatiaç, hitcic erran gabe, çougnec beraurien placerac baicic eçpeitakie maithatcen.

Hec hertcen edo emendatcen citicie hen laidoriouac, beren enjoguiduraren araur, eta eç eguia eternalari placent çayon beçala.

6. Hanitchentaco jakin gabia-da caussa, eta orotan gainti, argui, aphur ukhen dienentaco, çougnec arraroki beitakie, nourbaiten maithatcen, eçpirituçco amiſtantcha oſſoki houn den bateç.

Beren deſir, eta amiſtantcha naturalac orano, batcen, edo beſten maithatcera, açcarki erakharten dutu, eta cer ere ſendimentu beitie ſurreco gaicetçaç; hala ouſtekeria dukeye datekiala celucouetçaç ere.

Bena bada hurruntarçun ecin pareiatcen den bat, jakin gabec ukheiten dutien phenſamentien, eta Jincouaren arguiaç arguituric direnec, chehe ſo eguineç ukheiten dutienen artian.

7. Gogoua emaçu arren, ene ſemia, çoure jakitia beno gorago diren gaicetçaç mintça etcitian, hen ikhaſſi beharreç; bena lehenago çoure arrancura, eta eçpiritia etcheki eçaçu; celuco erreſoman, nahibada tchipien tchipienic, çoure buria ediren ahal deçaçun amourecatic.

Eta nourbaitec baleki, çougn beſtebat beno ſaintiago liçan, edo handiagoren celuco erreſoman igaraiten-den: cer profeitu luke jakitc hortaric, eçagutce

horrec,

horrec, ene aitcinian, haboro umilia, eta ene laidorio handiagouetarat jouan eraci eçpaleça.

Haboro placer Jincouari eguiten-du bere bekhartien handitarçunac, bere berthuten tchipitarçunac, eta bere, saintien pherestutarçunetic, ecinago hurrun içatiaç gogoua betheric etchekiten dianac, ecieç hen handitarçunaç, edo tchipitarçunaç debadiotan sartcen denac.

Hobiago-da, oracione deboteç, eta nigar eguiteç saintien othoitcia, eta hen goureganatco lagungouaren eçpiritu umilbateç galthatcia, ecieç tcherkhu bano bateç hen segretien ikhertcia.

8. Hourac ounxa eta ecinago ounxa content dira, guiçonec balekie content içaten, eta bere elhe aurherren apaisatcen.

Eçtutuçu glorificatcen, bere merechimentu propietçaç; eci bacikicie, eçtiela bereganic hountarçunic batere: bena eneganic diela diena oro: ceren nic ene caritate muga gabiaç eman beiteitcet oro.

Hagn ene Jincotarçunaren amourio handibateç, eta alagrantcia mucurribateç betheric diauderçu, noun bere glorian, deus menxic eçpeitic, ecetare ukheiten

ahal bere dohaxutarçunian.

Saintiac oro çoumbatenaç gorago beitira glorian, hambatenaç umilago dira bere beithan, nullanago enetaco, eta nitçaç maithatiago.

Hartacoç escriptura saintan baduçu içkiribaturic: *Egochten çutiela bere khorouac Jincouaren aitcinian, eta bere biguithartetan gagna luharraştu içan eircla, achouriaren aitcinian, adoratcen ciclaric, jinen diren themporа orotan bici datekiana.*

9. Hanitchec galthatcen die, nour-den handienic Jincouaren erresoman, jakin gabe, eia tchipienen herrenkian ere içatia merechi dukeyeneç.

Gaiça handia-da, tchipienic ere celian içatia noun oro handi beitira: ceren oro Jincouaren seme deithuren, eta içanen beitira.

*Tchipiena milaren içanen-da, bekhatoria aldiç, ehun ourtheç biciric ere, bethirecoç hilen-da.*

Eci ene dicipuliec galthatcen ceitaden themporan, nour çatekian handienic celuco erresoman: houlache ihardexi ukhen neyen.

*Eçpaciradeye eneganat utçulitcen, eta chipitcenhaurrac beçala, etciradeye celu-*

*co erresoman sarthuren. Nour ere arren umiliaturen beita haurr haur beçala, houra dateke handienie celuco erresoman.*

10. Desditchatu dira, haurreki bere oleç umiliatcera degnatcen eçtirenac; ceren celuco erresomaco bortha aphalac, eçpeitutu eitciren sartcera.

Desditchatu dira orano *aberax heben bere consolacioniac dutienac*: ceren praubiac Jincouaren erresoman sartcen diren themporan, hourac campotic marracaç egonen beitira.

Alaguera citeye umilac, boçtarioç betha citeye praubiac: ceren Jincouaren erresoma cientaco beita, eguian hargatic ebilten ciradeyelaric.

---

## LIX. CAPITULIA.

*Jincouatan beraurtan goure esperantchá eta confidantchà oro eçarri behar dugula.*

1. C. CEr-da Jauna ene, bicitce hountan, dudan confidanchá edo çougn-da ene, celiaren pian agueri diren gaicetaric, consolacioneric handiena?

Etcireya çu, ene Jinco Jauna, muga gabeçco misericordia daducaçuna?
Noun ounxa içan niç, çu gabe? Edo nouiç gaiçki içan ahal niç, çu eneki çuntudano?
Nahiago nuçu praube içan, çoure amourecatic, ecieç aberax çu gabe?
Haitatcen-dit lehenago lurrian çoureki bedejant içatia, ecieç çu gabe celiaç gocatcia. Noun ere beitcira, han duçu celia, eta noun ere eçpeitcira, han herioua eta ifernia.
Ene desira çutan diagoçu, eta hori dela causa çoure oundouan igorri behar citit, ene hasperenac, ene oihiac, eta ene othoitciac.
Ihourtan hitç bateç eniteçu ossoki fida, ene behar ordietan, phuntianago sokhorritu içateco, ecieç çutan cihaurtan, ene Jincoua.
Çu cira ene esparantchá, çu ene confidantchá, çu ene consolacaliá, eta gaiça orotan enetaco leyalenic cirena.
2. Oroc nourc beria tcherkhatcen die: çuc ene salbamentia, eta ene profeitia baicic eçtuçu nahi, eta oro hounialat utçultcen deiçtadatçu.
Çoumbatere hanitch guisataco tentacionetara, eta gaitcetara eiçten beinaiçu

ouaitera, hori oro ene profeitutaco guiten duçu; ceren hanitch guisaç cosumatu beituçu maite dutuçunen borogotcia.

Eta hala borogatcen naiçunian, eçtuçu gutiago behar maithatu, eta laidatu içan, ecieç celuco consolacioneç bethatcen banunduçu.

3. Çutan arren, ene Jinco Jauna, ene esparanchá oro eçarten diçut, çouri hersatcen nuçu: çoureganat igorten citit ene doloriac, eta phenac oro: ceren çutaric campo, ikhousten dutudan gaiçac oro, flacu, eta khambiacor edireiten beitutut.

Eci adichkide hanitchec eçticie profeituric emanen, eç ajutari açcarrec sokhorriric, eç consellaçale çuhurrec ihardeste hounic, eç jakinsien librіec consolacioneric, eç çoumbait gaiça preciatuc soltatceric, eç lekhu apart, eta beguien eger direnec segurantçaric: çuc cihaure urgaiçten, sokhorritcen, açcartcen, consolatcen, escolatcen, eta beguiratcen eçpagutuçu.

4. Eci bakiaren, eta dohaxutorçunaren jardiex eracitceco, houn direla udurіa dien gaiçac oro, eçdeus dutuçu, çu gabe, eta eçticie eguiaçco ounxa içateric batere emaiten.

Cu cira arren hountarçunen ororen açken muga, bicitciaren goratarçuna, eta jakite ororen çola gabe den barnatarçuna: eta çutan, gaiça ororen gagnetic, esparantcha ukheitia duçu, çoure cerbutcharien consolacione ecinago indarxia.

Couri diaudetçu ene beguiac, çutan fidatcen nuçu, ene Jincoua, misericordia ororen aitá.

Saintu eta benedica eçaçu ene arima, celuco benedictioniaç, amourecatic çoure egongu saintubat, eta çoure gloria eternalaren jargubat, guertha dadin, eta çoure handitarçunaren templouan deus eçtadin ediren, çoure majestariaren beguiac ofentsa ditçakianic.

So eguidaçu, çoure hountarçunen handiatarçunaren, eta çoure misericordien hanitchrarçunaren araur, eta çoure cerbutchari praubiaren, hurrun herriouaren itçalaren herrian desterraturic dagouenaren, oracionia entçun eçaçu.

Estal, eta beguira eçaçu çoure cerbutchari tchipiaren arima, bicitce gastatu hounen hagnbeste perillen artian; eta çoure graciaren laguntciareki, guida eçaçu bakeçco bidiaç arguitarçun eternalaren goçameniala. Hala biç.

Heren Libriaren açabantça.



# JESU KRISTEN IMITACIONIAREN LAURGUERREN LIBRIA.

Althareco Sacramentu Saintiaç.

*Comunione ſaintialaco aholeu debotbat.*

JESUSEN BOTÇA.

*Ciauſte eneganat triballiaren, eta cargaren pian ciradeyenac oro: eta nic errekeitaturen çutiet, dio Jaunac.*

*Nic emanen dudan oguia mundiaren bicigarri, ene araguia-da.*

*Har eçacie, eta jan eçacie, haur-da ene khorpitça çougn ciegatic libratu içanen beita, eguicie haur ene oharicepenetan.*

*Noure ere ene araguia jaten beitu, eta ene odola edaten, ni hartan nago, eta houra nitan.*

*Nic erran deitciedan hitçac, eçpiritu, eta bicitce dira.*

## I. CAPITULIA.

*Coumbat aphalmentureki, Jeſu-Kriſtee errecebitu içan behar dian.*

DICIPULIAREN BOTÇA.

1. HOYEC dutuçu çoure hitçac, Jeſus eguia eternala, çoumba-

tere eçpeitira eç thempora batetan erran, eç lekhu batetan içkiribatu içan.

Ceren diren arren çouriac, eta eguiac ere bai, oro ounhexi behar citit boçtarioreki, eta fede ossobateki.

Çouriac dutuçu, eta çuc erran dutuçu, bena eniac ere dutuçu, ceren ene salbamentiagatic, eçagut eraçi beitutuçu.

Gogo houneç, çoure ahotic ounhesten citit, amourecatic barna beno barnago ene bihotcian sar ditian.

Hagn debocione handitaeo hitcec, eçtitarçuneç, eta amourioç betheric daudianec, corajatcen nicie; bena loxatcen ere bai nihauren bekhatiec; eta ene contcentcia theyac hagn misterio handien errecebitcetic guibeltcen niçu.

Çoure hitcen eçtitarçunac airatcen niçu, ene bicioueu hanitchtarçunac aldiç, pheçutcen.

2. Manu emaiten deitaçu, çouregarnat confidantchareki hullant nadin, çutan pharteric ukhen nahi badut: eta errecebi deçadan hiltcetic beguiraturen nayan haçcur‍ia, bicitce, eta gloria eternalaren jardiestia desiratcen balin badut.

*Ciauste*, dioçu, *eneganat triballiaren, eta cargaren pian ciradeyenac oro, eta nic errek:itaturen çutiet*.

O hitç, bekhatoriac entçuten ahal dian eçtiena, eta maithagarriena, ceren çuc, ene Jinco Jauna, mengouatia, eta praubia khumitatcen beitutuçu çoure khorpitç ecinago saintu denaren errecebitcera.

Bena nour niç ni, Jauna, atrebitceco çoureganat hullantcera.

Celiec oroc ecin edeiten çutie, eta dioçu, *ciauste eneganat oro.*

3. Cer erran nahi-du hountarçun ecinago eçti, eta khumitu hagnbeste amourioç betheric dagouen hounec.

Noula benturaturen niç jitera; atrebi eraci nindiroyan hounkiric batere nihaur beithan eçtudianian sendi?

Noula nic, hagnbestetan çoure beguitharte ecinago eçti dena ofensatu eta, sar eraciren çutut ene etchian?

Ainguriac, eta arcangeliac ikhara diaudeçu; saintiac, eta justouac sarderiaç betheric dutuçu, eta çuc dioçu, *ciauste eneganat oro.*

Cihaurec, Jauna, hori erran eçpaceneça, nourc sinhex liro eguia dela?

Eta cihaurec manu hori eman eçpaceneça, nour atrebi leite hullantcera?

4. Noe guiçon justo harec, bere arkharen eguitian, ehun ourtheren tribal-

lia eçarri ciçun, bera çoumbait bestereki salba ledin amourecatic; eta ni noula oren bateç adelaturen ahal niç, mundiaren eguiliaren behar-den umilitatiareki errecebitceco.

Moisa çoure cerbutchari handiac, eta adichkide berheciac eguin ciçun, çour ecin gastatcen cen batetaric arkhabat, çougn urrhestatu beitcian, urrhe ecinago chahubateç, bi leguiaren taulen hartan goititceco: eta ni, creatura khignocia, benturaturen niça, leguiaren eguiliaren, eta biciaren emailiaren, hagn ehignera errebitcera?

Salomon Israeliticouen erregueric çuhurrenac çaçpi ourthe eçarri ciçun çoure icen saintiaren laidoriotan, templo eder beno ederragobaten eraguiteco.

Haren sagracioniaren bestá çortei eguneç etcheki ciçun, mila bakeçco ostla oberendatu ukhen citiçun: eta aliantçaçco arkhá troumpetoxeç, eta surluriotan, adelatu ceyon lekhian, solenitate handireki eçarri ukhen ciçun.

Eta nic, desditchatu niçana, guiçon orotaric praubena, noula sar eraciren çutut ene etchian; bortcha oren erdibaten debotki emplegatcen dakidana?

Jincouac balexa aldi bakhoitçbateç ere

oren erdiaren araoua behar den beçala emplegatcen jakin nian!

5. O ene Jincoua, çoumbat gaiçaren eguiteco arrancura hec ukhen cien, çouri placer eguin lecen amourecatic. Elas ala beita gaiça aphurra, nic eguiten dudana! ala beitut thempora aphur eçarten, errecibitcera adelatcen niçanian!

Bekhanki nuçu, nihaur beithan osfoki sarthuric, eta hanitcheç bekhankiago, barreiarçun orotaric chahaturic.

Eta eguiaçki çoure Jincotarçunaren presentcia sendogarrian, elikecie behar phensamentu gaiçkiala douatçanetaric batec ere jin eçpiritiala, eç creaturac batec ere gogouan etcheki, ceren ostaratu behar beitut, eç aingurubat, bena ainguriem Jauna.

6. Baduçu halaric ere hurruntarçun eçinago handibat, aliançaçco, bere barnen çutianeki, arkharen, eta çoure khorpitç, bere berthute ecin erraiten direneki, ecinago chahu denaren artian: eta legue çaharreco sacrificio, guero jin behar cienac eracousten çutienen; eta çoure khorpitçaren eguiaçco ostia, sacrificio çaharrac oro bethatcen, eta complitcen dutianaren artian.

7. Ceren arren su habororeki eniç adelatcen, çoure misterio saintien errecebitcera; nouçpaiçco patriarca, profeta, erregue ere, eta prince hec bere populu ororeki hagnbeste debocione, Jincouaren cerbutchu saintiaren, eracouxi cienen gagnen?

8. Davit erregue ecinago debota bere indar oroç, Jincouaren arkharren aitcinian, dantçatu içan cen, orhitcen celaric Jincouac bestorduc haren aiter eguin çutian hountarçuneç; khantatceco hanitch instrument souerte, eta psalmiac eguin çutian, eta manu eman khantatiac içan litian, boçtario, eta alagrantciareki; berac ere ardura khantatu cian harpa deitcen-cen instrumentbatetan, Espiritu saintiaren graciaç arguituric: eracouxi cian Israeleco populiari, bihotç ossoç Jincouaren laidatcen, eta ahobateç, eta botç bateç egun oroç haren benedicatcen, eta eçagut eracitcen.

Ordian hagnbeste debocione, eta Jincouaren laidoriouen hagnbeste ohartcepen balin bacen, legue çaharreco arkharen aitcinian; çoumbat orai, nic eta populu khiristiac oroc ukhen behar dugu aphalmentu, eta debocione, sacramentu saintiaren aitcinian, eta Jesu-

Kristen

Kristen khorpitç adorabliaren errecebitcian.

9. Badouatç hanitch lasterreç, saintien erlekiac diren lekhu orotara, hen bisitatceco, eta estonatcen dira hen eguitaten entçuteç; chehe so eguiten die hen eliça eder, eta handier; hen eçur sacratu cetaç eta urrheç unguraturic daudianer, pot eguiten-die.

Eta haur cirela çu, ene Jincoua, saintien saintia, guiçonen creaçalia, ainguricn Jauna, heben altharian nihauren khantian çaudiana.

Arduran guiçonec holaco lekhien bisitatcian eçtie, berritcepenen, eta orano ikhoussi eçtutien gaicen eçagutu nahia baicic: hartacoç bere bicioucetaric khambiamentu aphur ekharten die, orotan gainti, eguiaçco dolumenbat gabe, arhinçki holaco lastercac hartcen dutien themporan.

Heben aldiç, althareco sacramentu saintian cirena oro cira, Jesu-Krist ene Jincoua, guiçon eguin cirena; noun salbamentu eternalaren frutu aberaxbat ihourc altchatcen beitu, çu debotki, eta behar den beçala, errecebitcen çutian ordu oroç.

Eçkitiçu obra horren eguitera athin-

tarçun, jakin behar, edo centcien placerer enjogui içate çoumbaitec eramaiten: bena bai fede açcarbatec, esparantça debotbatec, eta caritate eguiaçcobatec.

10. O mundiaren creaçale Jinco ecin ikhousten ahal cirena, ala beiteicuçu batçarre miragarria eguiten: ala beitutuçu eçtiki eta magnouski çoure haitatiac erabilten, sacramentu hountan, çoure khorpitç propia errecebitceco eskentceen deyeçunian.

Hori eguiaçki goure entheleguia oro beno gorago duçu, horrec deboten bihotçac berheciki bereganat thiratcen citiçu, eta hen suya phiçten.

Eci çoure eguiaçco fidelec bere mentia oro bicitce hounaren bessarcatceco isseyetan eçarten dienec, ardura jardiesten dicie, sacramentu ecinago handi hountariç, debocioniaren gracia handibat, eta berthutiaren amourioua.

11. O saçramentu hounen gracia miragarri gorderic dagouena, Jesu-Kristen fidelec baicic eçagutcen eçtiena, infidelec aldiç, eta bekhatiaren esclabouec ecin bere beithan borogatcen diena!

Sacramentu hounec gracia espiritualla emaiten, berthute galdia ariman arra-

berritcen, eta edertarçun bekhatiaç itchouſtia, utcul eracitcen diçu.

Hagnbeſtetara douaçu çoumbait aldiç gracia hounen handitarçuna, noun debocione eman içan denaren bethetarçunetic; eç ſolamentç eçpiritiac: bena orano khorpitç flakiac borogatcen beitutu indar handiago eman içan çaitçonac.

12. Bena dolorous eta pietate eraguingarri-da ceren guiren hagn ephel, eta lachu; ceren hagn ſu aphurreki hullantcen guiren, Jeſu-Kriſten errecebitcera, çougntan beitago ſalbatu içan behar dienen eſparantchá oro, eta merechimentia.

Eci houra bera-da gu arrerosſi, eta ſaintutcen gutiana: houra-da, mundu hountaco içalen conſolacionia, eta beſteco ſaintien goçamen eternala.

Erras dolore eraguingarri-da arren, ceren hanitchec hagn gogoua aphur emaiten dien, miſterio hountarçuneç bethe houni, çougnec celia alagueratcen beitu, eta mundia, dena den beçala, beguiratcen.

Elas guiçonaren bihotceco uxumentu, eta gogortarçuna! haboro gogoua eçteçan eman dohagn, hagn ecin erran daitian houni; eta egun oroçco hareç cer-

batchatciaç, eç gogouaric emaitiala drano eror dadin.

13. Eci, ecinago saintu den Sacramentu haur, eçpaledi lekhubatetan baicic celebra, eta apheç bateç baicic mundu orotan consecratu içan eçpaledi; çoumbat bihotceco sureki ouste duçu lekhu hartara, eta apheç haregana guiçonac jouan litekiala, misterio hoyen celebracioniá ikhous lecen amourecatic?

Orai aldiç hanitch apheç eguin içan dira, eta hanitch lekhutan oberendatcendie Jesu-Krist, amourecatic graciá, eta Jincouaren guiçoneganatco amouriouá hambatenaç handiago aguer ledin, çoumbatenaç mundian hedatiago, eta barreiatiago beita comunione sacratia.

Eskerrac çouri Jesus houna artçaign eternala, ceren duçun hountarçuna, gouri praube, eta desterratu elibat baicic eçkirelaric, çoure khorpitç eta odol preciatien haçcurriaren emaitecoua: eta çoure misteriouen errecebitcera khumiatcecoua, cihauren aho propiaren hitceç, dioçularic: *ciauste enegat tribailliaren, eta cargaren pian eiradeyenac oro eta nic errekeitaturen çutiet.*

## II. CAPITULIA.

### *Jincouac guiçonari, Sacramentu hountan, hountarçun, eta caritate handibat eracousten diala.*

Dicipuliaren botça.

1. COure hountarçun, eta misericordia handian fidatcen niçalaric, Jauna, hullantcen nuçu eritic, sendoçaliaganat, gosseric, eta egarriric, bicitciaren uthurburialat, mengouaturic, celuco erreguiaganat, cerbutcharibat beçala, burçaguiaganat, creatura beçala, creaçaliaganat, eta eskerniatubat beçala, consolaçale hounaganat. Bena nountic dut, hountarçun handi haur, çu eneganat jin citian, nour niç ni, cihauren eni emaiteco?

Noula benturatcen-da bekhatoria, çoure aitcinian aguertcera? Eta çuc, noulaç duçu hountarçuna, bekhatoriaganat jitecoua?

Eçagutcen duçu çoure cerbutcharia, eta badakiçu deus hounic bere beithan eçtiala, çuc hari adichkidegoua horren emaiteco.

Aithorteen diçut arren ene eçdeustarçuna, eçagutcen-dit çoure hountarçuna, laidatcen çoure misericordia, eta eskerrac emaiten çoure caritate ecinago handiari.

Cihauren amourecatic, hori eguiten duçu, eta eç ene merechiegatic, çoure hountarçuna hobeki eçagut eraci diçadaçun, caritate hedatiagobat ni beithan empheltatia içan dadin amourecatic, eta umilitatia hobeki ago gomendatia.

Ceren arren hori çouri placent çaiçun, eta hala eguin içan ledin manhatu beituçu, placent citaçu eni ere çoure hountarçuna; ounxa nahi nikeçu, ene inikitatiac eliaçon baragalluric eçar.

2. O ene Jesus ecinago ieçti, eta houn cirena, çoumbat aphalmentu, esker, eta thaïc gabeçco laidorio çor çaiçu, çoure khorpitç sacratiaren errecebitciarentaco, çougnen hunditarçuna enthelega eraci diroyan guiçonic eçpeita edireiten batere.

Bena cer phensamentu ukhenen-dut, comunione saintu hountan, ene Jincouari hullantcian, çougn behar beçala eçpeitirot adora, eta hargatic haren debotki errecebitcia desiratcen beitut.

Phensamentu hobiagaric, eç sendo-

garriagoric ukhen ahal niroua, ecieç çoure aitcinian, ene buriaren ossoki umiliatcia, çoure hountarçun muga gabia, gora beno gorago nihauren gagnetic, eçarten dudalaric ?

3. Laidatcen, eta bethierecoç goratcen çutut, ene Jincoua. Mesperetchatcen-dit ene buria, eta çoure eseu pian eçarten, bere eçdeustarçunaren barnatarçunian.

Haur cirela çu, saintien, saintia, ni aldiç, bekhatien theyarçuna bera.

Haur cirela çu, eneganat aphaltcen cirena, ni aldiç, solamentç çouri so eguiteco, aski eniçana.

Haur cirela çu, eneganat jiten cirena, çu eneki içan nahi cira, çuc çoure banketiala khumitatcen naiçu.

Çuc eman nahi deitaçu celuco haççurria, eta *ainguruen oguia* jatera, çougn cihaur bera baicic eçpeita, *ogui bicia, celutic jaixi cirena, eta mundiari bicia emaiten duçuna.*

4. Horra nountic jiten-den amourioua, edo maite ukheitia, cer hountarçunac argui eguiten dian! ala beituçu horiegatic esker, eta laidorio handiric hartce!

O çougnen ssendogarri, eta profeitable içan-den çoure dessegna, sacramen-

tu haur arima jaki içan ledin, manu eman çunianian! ala beita eçti, eta maithagarri, çu cihaur haçcurrutaco emanic, daducan banketa!

Ala beita miragarri, Jauna, çoure laneguina! ala beita photerous, çoure indarra! ala beita ecin erran beçalaco, çoure eguia!

Eci mintçatu cira, eta gaiçac oro eguin içan dutuçu: eta çuc manhatia complitu içan duçu.

5. Gaiça miragarria, ſinheſte merechi diana eta guiçonaren entheleguia beno gorago dena; çu oſſoric çaudiala, ene Jinco Jauna, eguiaçco Jinco eta guiçon cirena, oguiaren, eta ardouaren uduri tchipibaten pian; eta chehecatu gabe, çu errecebitcen çutianac, jaten çutiala.

O gaiça ororen Jauna, ihouren mengouaric eçtuçuna; gutan çoure ſacramentiaren moyaneç egon nahi içan cira: beguira itçaçu ene bihotça, eta khorpitça theyarçunic gabe; amourecatic çoure miſteriouac celebra ahal ditçadan ardura, contcentia chahu, eta alaguerabateki, eta errecebi citçadan, ene ſalbamentu eternalarentaco, cihauren, orotan gainti, ouhouretan, eta bethiereco

oharcepen batentaco, manhatu, eta eçarri dutuçun beçala.

6. Alaguera cite ene arima, eta Jincouari eskerrac eman itçaçu, hagn present eder, eta consolacione berheci, nigarreçco lekhu hountan, eitci deitçunegatic.

Eci çoumbatetan ere misterio hori celebratcen, eta Jesu-Kristen khorpitça errecebitcen beituçu; hagnbestetan çoure arrerostiaren obra eguiten duçu, eta Jesu-Kristen merechimentien ororen phartelant guerthatcen cira.

Eguiacki Jesu-Kristen caritatia eçta secula hertcen, ecetare haren arrerostiaren handitarçuna secula husten.

Hartacoç, eçpiritiaren arraberritce frescbateki, hartara adelatu behar duçu bethi, eta salbamentiaren misterio handia, gogouan beleraçki etcheki.

Hagn handi, berri, eta maithagarri uduritu behar çaiçu, meça erraiten, edo entçuten duçuna; noula egun hartan berian; Jesu Krist lehenic Maria Birginaren sabeliala jaixiric, guiçon eguin içan beiliç, edo khurutchian itçaturic, guiçonen salbamentiagatic soferitcen, eta hiltcen beiliç.

# III. CAPITULIA.

## *Houn dela ardura Comuniatcia.*

### Dicipuliaren botça.

1. HAur nuçala ni Jauna, çoureganat jiten, amourecatic praubiarentaco, çoure eçtitarçunian, ene Jincoua, adelatu duçun presentaç goça nadin, baietare ounxa ediren.

Nic desira ditçakedan, eta desiratu behar dutudan gaiçac oro, çutan diauderçu: çu cira ene salbamentia eta arrerosia; ene esparantchá, eta indarrá, ene ohouriá, eta gloriá.

*Alaguera eçaçu* arren egun *çoure cerbutchariaren arima*, *çoureganat*, ene Jesus Jauna, *goititu dudanen gagnen.*

Desiratcen-dit orai, çoure debotki eta aphalmentureki errecebitcia, nahi çutut ene etchian sar eraci, amourecatic Zakeareki, çutçaç benedicatu içatia, merechi deçadan, eta Abrahamen haurren artian eçarri içatia.

Ene arimac çoure khorpitça desiratcen diçu, ene bihotçac, çoureki juntatu içatia, tcherkhatcen diçu.

2. Ciauri çu cihaur eneganat, eta aski-dit eci çutçaç campo eçtuçu consolacioneric batere, deus balia dianic.

Çu gabe eniteçu içan, ecetare bici çoure bisita gabe.

Hartacoç behar dit ardura, çoureganat hersatu, eta çoure khorpitça, salbamentiaren erremediobat beçala errecebitu; beldurreç bidian engocha nendin, celuco haçcurriaç gabe banendi.

Eci cihaure Jesus misericodiaç bethia, populier pheredicatcian, eta guisa orotaco eritarçunen sendotcian, nouçpait erran çunian, *eçtutut eitci nahi baroun ic ſouaitera, beldurreç bidian engocha ditian.*

Eguiçu eneki ere orai guisa hortan, arima fidelen consolacioneraco, çoure buria sacramentu hountan eitci duçunen gagnen.

Eci çu cira arimaren errekeitu eçtia, eta nourc ere çu behar den beçala jaten beitçutu, houra çoure gloria eternalaren phartelant, eta primu içanen duçu.

Eguiaçki, hagn ardura erorten, eta bekhatu eguiten, hagn bertan hoçten, eta indarrac galtcen dutudanen gagnen, mengoua handibat diçut, arraberri, chahatu, eta gort nadin oracione ussintçaç,

cofessionetçaç, eta çoure khorpitç sacratiaren errecebitciaç; beldurreç luçaçegui, houra gabe, egon banendi, ene dessegn houn hartu dudana, galtcera eitç deçadan.

3. Eci guiçonaren centciac, gaçteçarotic gora, gaiçkiala ekharriac dutuçu, eta Jincouaren sokhorria jiten eçpalin bada, bertan guiçona gaichtouagouetarat erorten duçu.

Gaiçkitic arren comunione saintiac guibel eracitcen diçu, eta hounkian aççartcen.

Eci orai hagn ardura eçacholatu, eta ephel baniç, comuniatcen. edo meça erraiten dudanian, cer liçate, erremedioua har, eta hagn sustengu handibat tcherkha eçpaneça.

Eta çoumbatere eçpeiniç egun oroç chahu, eç meça erraiteco, ounxa adelaturic; halaric ere eguin ahala eguinendit, misterio dibinouen thempora propieç errecebitceco, eta hagn gracia handian phartelant içateco.

Eci haur duçu arima fidelbaten consolacione bakhoitç principala, khorpitç hilcorrian çoureganic hurrunturic daguen, Jincouaç ardura orhitcen delaric, bere maitiaren eçpiritu debotbateki errecebitcia.

4. O

4. O çoure goureganatco amourioua-ren hountarçun miragarria, ceren çu cirelaric, Jinco Jauna, eçpiritu ororen creaçalia, eta phitçalia, arima praubegnou batetara jiteco beituçu hountarçuna, eta haren gossiaren, çoure Jincotarçun eta guiçontarçun orotçaç, guicenki contentatcecoua!

O eçpiritu, eta arima dohaxia, bere Jinco Jaunaren debotki errecebitcia merechitcen diana, eta haren errecebitcian eçpirituçco alagrantciaç bethe içatia.

O çougnen Jaun handia dian errecebitcen, çougnen arrotç maitia dian ‸sar eracitcen, çougnen lagun maithagarria dian hartcen, çougnen adichkide leyala dian ounheſten, çougnen eſpous eder eta noblia dian beſſarcatcen; beſte maite ororen artetic, eta gaiça deſiragarri diren ororen gagnetic, maithatu içan behar diana!

5. Celia eta lurra, eta hen edertarçunac oro beudeç ichilic, çoure aitcinian, ó ene maite ecinago eçti cirena, hec dutien laidorio, eta edertarçunac oro, çoure eiçu goriaren hountarcunetic jiten direnen gagnen, eta eçtitakianian hel çoure icenaren edertarçuniala, çougnen çuhurtarcunaren khonturic eçpeita.

# IV. CAPITULIA.

*Debotki comuniatcen dienec, hanitch hountarçun jardiesten diela.*

Dicipuliaren botça.

1. O Ene Jinco Jauna, çoure eçtitarçunaren benediccioniac aitcinetic hel eraçitçatçu çoure cerbutchariagana, amourecatic debotki, eta behar den beçala, çoure sacramentu handialat hullant ahal nadin.

Goiti eçaçu çoureganat ene bihotça, eta lohasna pheçu hountaric iratçar neçaçu.

Bisita naçaçu çoure gracia sendogarrian; eçpirituç goça deçadan çoure eçtitarçuna, çougn sacramentu hountan, bere uthurburian beçala, erras gorderic beitago.

Argui itçaçu orano ene beguiac, hagn mistetio handiaren ikhousteco, eta indarreç betha naçaçu, haren fede dudaric batere eçtakian bateki, sinhesteco.

Eci obra hori çouria duçu, eta eç guiçonaren eguin ahalbat, eguitate sacratu

hori çouria duçu, eta eç guiçonaren edi:eitcebat.

Eci eçtiteçu ihour ediren bere beithan aski denic, misterio horien eçagutceco, eta enthelegatceco, çougn, ainguriеn ere eçpiritiaren çorrotçtarçuna beno, gorago beitira.

Cer dirot arren nic bekhatore eçdeusa, lur eta erhaux baicic eniçana, tcherkha, eta enthelega hagn segretu gora eta sacratutic?

2. Jauna bihotçaren simpletarçunian, fede houn eta fermobatetan, çuc manu eman deitaçulacoç çoureganat esparantchareki, eta aphalmentureki hullantcen nuçu, eta eguiaçki sinhesten diçut, çu Jinco, eta guiçon cirena, heben sacramentu hountan present cirela.

Nahi duçu arren, çu errecebi citçadan, eta çoureki caritatian junto içan nadin.

Hartacoç çoure hountarçuna othoitcendit, eta gracia berhecibaten jardiestia galthatcen deiçut; amourecatic çutan hourt, eta amourioυan gaintica nadin, eta çutçaç campo, beste consolacioneren baten ere ukheiteç phenatan jar enadin.

Eci sacramentu ecinago gora, eta handi den haur duçu arimaren, eta khorpitçaren salbamentia, eçpirituçco eritar-

çun ororen erremedioua: çougntan ene biciouac sendotcen beitira, possioniac bridatcen, tentacioniac garhaitu içaten, edo hertcen beitira: çougntan gracia handiagobat emaiten, berthute hassia emendatcen, fedia borthiçten, esparantchá açcartcen, eta caritatia suç bethatcen, eta largatcen beita.

3. Eci hanitch hountarçun eman, eta orano ardura emaiten duçu sacramentu hountan, çoure maite debotki comuniatcen diener, ene Jincoua, ene arimaren salbaçalia, guiçonaren flakeciaren sendoçalia, barnetico consolacionia, ichouribat beçala, emaiten deyeçunen gagnen, thurburarçun hanitch guisatacouen countre; eta beren aphaltarçunaren çolatic, goiti eracitcen duruçu, çoure lagun gouaren ukheiteco, esparançala: gracia berribateç orano barnetic alagueratcen, eta arguitcen dutuçu; guisabateç, noun aitcinetic erreus, eta comunionia beno lehen bere buriac, bihotceco amourioric gabe, senditu çutienac; guero, celuco janhari, eta edateco haren har oundouan, edireiten beitutie hounialat khambiatu içan direla.

Hartacoç guisa hortan, çoure haitatiac bere indarren araur tratatcen dutu-

çu, amourecatic eguiaçki eçaguit decen, eta clarki boroga; çoumbat flacutarçun dien bere beitharic, eta cer hountarçun, eta gracia çoureganic jardieſten dien.

Cereneta bere beitaric ḥotç, gogor, eta debocione gabe beitira; çoureki batian aldiç, gori, alaguera, eta debot içatia merechitcen beitie.

Eci nour eçtitarçunaren uthurburialat aphalmentureki hullantcen delaric, hantic eçtitarçun aphurbat hartu gabe jalkiten da?

Edo nourc, ſu hounbaten khantian dagouenian, hantic eçtu berotarçun aphurbat hartcen?

. Eta çu cira uthurri bethi betheric, eta gaintitcen dena; ſu thaic gabe gar eguiten diana, fecula, hiltcen eçtena.

4. Eta eçpalin bada ſori enetaco, uthurriaren erditic hour hartcia, ecetare aſſe artio edatia; halaric ere eçariren-dit ene ahoua, celuco ichouriaren canetan, amourecatic tchortola tchipibat berere, hantic har deçadan, ene egarriaren apaiſatceco; eta erras enadin ſeca.

Eta ene arima eç içanic ere oſſoki celuco gaicetan, ecetare hagn ſuç betheric, noula kherubimbat, edo ſerafimbat, orotrat ere iſſeyaturen nuçu, debocio-

niari egoitera, eta ene bihotçaren adelatcera; amourecate celuco suyaren gar tchipibat berere ukhen ahal deçadan, sacramentu, biciaren emaile hounen, errecebitce umiletic.

Çuc aldiç, ô ene Jesus houna, salbaçale ecinago saintia, çoure eçtiratçunaç, eta gracia preciatiaç, supli itçaçu, nic menx dutudanac oro: duçunen gagnen hountarçuna; ororoten çoureganat deitcecoua, dioçularic: *uausteye eneganat triballiaren, eta cargaren pian ciradeyenac oro, eta nic errekeitaturen çutiet.*

5. Eguia duçu, ene beguithartiaren icerdian triballatcen niçala, bihotceco doloriaç eskerniaturic nagouela, bekhatuç cargaturic niçala, tentacionec erreusten nayela, hanitch passione gaichtoc nahassiric, eta uruchkiric nadukela; eta eçtela ihour ni urgaiçten, soltatcen, eta salbatcen ahal nayanic, çu baicic ene salbaçale Jinco Jauna; hori dela causa çoure eskietera nihaur, eta ene hounac oro eçarten citiçut, amourecatic beguira neçaçun, eta guida bicitce eternaliala.

Har neçaçu çoure icen saintiaren ohouretan, adelatu duçunen gagnen çoure khorpitça ene janharitaco, eta çoure odola ene edantçataço.

Ukheçu hountarçuna, ene salbaçale Jinco Jauna, misterio hounen ardura errecebitciareki batian, ene debocioniaren suya emenda dakidan.

---

## V. CAPITULIA.

*Althareco sacramentiaren handitarçunaç, eta apheçgouaren goratarçunaç.*

### Maichatiarem botça.

1. CUnian ordian aingurien chahutarçuna, eta Joundane Jouhane batistaren saintutarçuna, etcinanteke halere aski chahu, sacramentu hounen errecebitceco, eta eskien artian erabilteco.

Eci eçtuçu guiçonen merechimentier eman, guiçonac consecra, eta maneya deçan Jesu-Kristen sacramentia; eta haçcurrutaco har deçan, ainguriem oguia.

Misterio miracullousa, eta aphecen goratarçun handia: ainguriec ukhen eçtien photeria her eman içan çayenen gagnen.

Eci apheç, eliçan behar den beçala ordegnatu içan direnec baicic, eçtie

meçaren erraiteco, eta Jesu-Kristen khorpitçaren consecratceco photeria.

Apheça-da Jincouaren ministria; Jincouaren hitçaç cerbutchatcen-dena, Jincouaren maniaren, eta chede eçarri dianaren berthuteç: Jincoua aldiç handa, eguile principala, obraçale ecin ikhousten dena, çougnen pian beitaude, nahi dutian gaiçac oro, eta çougnec, manhatcen dutianac oro, obedient beitutu.

2. Sacramentu ecinago handi den hountan arren, behar duçu haboro sinheste eçarri; Jinco photere oro dianian, ecieç çoure centçu propian, edo beste segnale ikhousten ahal den çoumbaitetan.

Hartacoç larderia, eta aphalmentu handireki, obra saintu hountara hullantu behar-da.

*Ounxa gogoua emaçu, eta ikhous eçaçu, cer gaicaren carguia eman içan çaiçun, apheçiupiaren esktuen çutan gagnen phaussatciaç.*

Apheç eguin içan cira, eta meça erraiteco consecratu; gogoua emaçu orai, leyalki, eta debotki bere themporan, Jincouari sacrificioua oberenda deçaçun, eta cihauren buria, deus hartan erraite-

coric eçten beçala, eracoux deçaçun.

Ordegnu horren harteiaç eçtuçu çoure carga athintu, bena bai lehenago, bicitce hounbaten kharreiatciaç, çoure buria hersikiago tincatu, eta saintutarçun handiago baten ukheiteco, estecamentian sarri cira.

Aph çac behar du, berthute orotçaç ederturic içan, eta bester bicitce hounaren exemplia eman.

Haren bicitciac eçtu behar, gente comunenac beçalaco içan, bena celuco aingurienac, edo lurrian complitienic direnenac beçalaco.

3. Apheç arrabeçtitiac Jesu-Kristen plaça etchekiten du, amourecatic Jincoua debotki, eta umilki othoi deçan beregatic, eta populu orogatic.

Badu aitcinetic, eta guibeletic Jesusen khurutchiaren segnalia, haren passione saintiaç thaic gabe orhit dadin amourecatic, eliça caparen aitcinian khurutchia ekharten du, Jesu-Kristen hatcer ounxa so eguin deçan, eta hari debotki jarraikitera isseya dadin amourecatic.

Guibelian badu khurutchia, amourecatic cernahibeita gaitç bestegánic jin dakion, eçtiki oro Jincouagatic igourtç ditçan.

Aitcinian ekharten-du khurutchia, bere bekhatiegatic nigar eguin deçan amourecatic, guibelian aldiç, pietateç bestec eguin dutienac ere nigarsta ditçan, eta jakin deçan, Jincouaren, eta bekhatoriaren artian, ararteco eçarri içan dela.

Eçtiçu behar oracione erraitetic, eç sacrificio saintiaren oberendatcetic ekhuratu, her gracia, eta misericordia jardiex d'acen merechi artio.

Apheçac meça erraiten dianian, Jincoua ouhouratcen-du, ainguriac alagueratcen, eliça debocioniala erakharten, biciac ajutatcen, hiler phaussia ukhen eracitcen-du, eta bera, hountarçun orotan, phartelant guerthatcen-da.

## VI. CAPITULIA.

*Galtobat, eia cer eguin behar den, comunionia beno lehen.*

Dicipuliaren botça.

1. JAuna, çoure handitarçunaren, eta nihauren eçdeustarçunaren eçagutcian sartcen niçanian, loxaç ikha-

ra, eta ahalkeç hourturic jarten nuçu.

Eci çoureganat hullantcen eçpaniç, biciaren emailiari ihessi eguiten-dit; behar eçten beçala aldiç, benturatcen baniç hullantcera, bekhatiala erorten nuçu.

Cer eguinen-dut arren, ene Jincoua, ene sokhorriçalia, eta eni behar ordietan consellu emailia.

2. Eracoux eçadaçu bide chuchena; ikhas eraciçadaçu, çoumbait debocione llabur comunione saintiari ounxa daucoçnic.

Eci profeitable duçu jakitia, noula behar dudan ene bihotça debotki, eta aphalmentureki adelatu, çoure sacramentiaren houn den beçala errecebitceço, edo orano sacramentu hagn handi, eta miracullous denaren celebratceco.

---

## VII. CAPITULIA.

*Contcentcia propiaren ikherttiaç, eta bicitceç khambiatcian sermo içatiaç.*

Maithatiaren botça.

1. JIncouaren apheçac behar-du sacramentu hounen celebratceco, maneyatceco, eta errecebitceco, hullan-

tu, gaiça ororen gagnetic bihotceco umilitate ecinago handibateki, suplicaçalebaten aphalmentiareki, fede ossobateki, eta intencione Jincouaren ouhouria baicic tcherkhatcen eçtian debotbateki.

Chehe ikher eçaçu çoure contcentcia, chaha eta garbi eçaçu, çoure eguin ahalaç, eguiaçco contricionebateç, eta cofessione umilbateç; guisabateç noun, deus pheçuric eçtuçun, edo dakiçunic bihotceco harra phiçten deiçula, edo libertatereki hullantcera eitç etcinçakianic.

Ukhen eçaçu çoure bekhatu orotçaç generalian dolumen handibat, eta berheciki bihotça doloreç, eta haspereneç betha eçaçu, egun oroçco huxegatic.

Eta thempora hartaco propi bada, bihotçaren segretian çoure passionen miseriac oro Jincouari cofessa itçaçu.

2. Eguiçu hasperen, eta ukheçu dolorè, ceren orano araguiari, eta mundiari hagn enjogui, passioner hagn aphur hil ciren, eta nahicunten guillica gaichtouetçaç hagn betheric çaudian.

Ceren hagn aphur beguiratcen dutuçun campotico centciac, hagn ardura çaudian imaginacione banoç nahassiric.

Hagn

Hagn açcarki erortoki ciren campotico gaicetarat, hagn arrancura gabe barneticouentaco.

Hagn arhin erri eguiteco, eta placer gaichtouen hartceco, hagn gogor nigar eguiteco, eta dolumen ukheiteco.

Hagn agudo lachukerien, eta araguiaren placeren, hagn herabeçti garratçtarçunaren, eta debocione ſuç bethiaren.

Hagn ekharri berrien entçuteco, eta gaiça ederren ikhouſteco, hagn guibelcarga gaiça aphal, eta meſpertchouſen beſſarcatceco.

Hagn imbidious houn hanitç ukheiteco, hagn tcheken emaiteco, hagn etcheki beguiratceco.

Hagn aphur gogoua emaile mintçatcian, hagn guti çoure buriaren burçagui ichilic egoitian.

Hagn chede gabe, çoure bicitceco manerietan, hagn thai gabe, eguiten dutuçun gaicetan.

Hagn enjogui jatecouari, hagn gor Jincouaren hitçaren entçutiari.

Hagn lehiatu phauſſiaren hartceco, hagn berantiar lanari lotceco.

Hagn iratçarri elhe-cahar erraiten çaitçuner behatceco, hagn loti beilla ſaintien eguiteco.

Hagn laster urrhenciala heltceco, hagn barreiatu gogouaren behar den beçala etchekiteco.

Hagn lachu oficio saintiaren erraitian, hagn ephel meçaren celebratcian, hagn idor comuniatcian.

Hagn bertan gogoua emaitetic jalkiric, hagn arroroki cihaur beithan ossoki sarthuric.

Hagn llabur coleratceco, hagn ekharri besteri desplacer eguiteco.

Hagn erortoki judicatceco, hagn garratç besteren falten goititceco.

Hagn alaguera eguitecouac ounxa douatçanian, hagn bihotç-aphal gaiçki douatçan themporan.

Hagn ardura dessegn houn harçale, hagn bekhanki hen eguile.

3. Cofessatu, eta nigarstatu dutukecunian, dolore, eta hagn flacu içaneç, desplacer handibateki falta horic, eta beste çuntukianac, har eçaçu dessegn fermobat, bethi çoure biciciaren hounialat khambiatceco, eta hounetic hobiagoua'at igaren eracitceco.

Guero nitan boronthate ossobateki, egoiten cirelaric, ene icenaren ouhouretan, oberenda eçaçu, çoure bihotçaren altharian, çoure buria, sacrificio

bethi iraiten dianbat beçala: erran nahi beita çoure arima, eta khorpitça, leyalki ene eskietan eçarten dutuçularic.

Amourecatic guisa hortan merechi deçaçun, Jincouari sacrificiouaren eskentceco, behar den beçala hullantcia, eta ene khorpitçaren sacramentiaren profeitableki errecebitcia.

4. Eci eçtuçu eç oberenda hobiagoric, eç penitencia handiagoric, bekhatien hourt eracitceco, ecieç meçan, eta comunionian, chahuki eta osoki bere buriaren, Jesu-Kristen khorpitçaren oberendareki, Jincouari eskentcia.

Guiçonac bere ahala eguiten badu, eta eguiaçco dolumenbat balin badu: eneganat hullanturen den ordu oroç, pharcamentiaren, eta graciaren jardiesteco: *Juratcen-dut, dio Jaunac, eçtudala nahi bekhatoriaren hiltcia; bena bai lehenago haren honialat utcultcia, eta biciteia; haren bekhatien orhitmentcharic eçtudanen gagnen habororic uk benen*, bena oro pharcatu içanen çaitço.

# VIII. CAPITULIA.

*Jesuset khurutchen gagnen egui dian oberendaç eta bere buriaren Jincoaren eskietan eçartiaç.*

## Maithatiaren botça.

1. HAla noula nic, nihauren oleç, ene buria Jine oaitari, çoure bekhatiegatic, oberendatu beitut, khurutchian bessouac çabalturic, eta khorpitça picarrai nialaric, guisabateç noun, nitan eçpeitcen deus baratcen, Jincoaren apaisatceco sacrificioualat igaraiten etcenic.

Guisa berian behar duçu çuc ere, egun oroç meçan, çoure buria eni eskentu bolontarioki, oberenda chahu, eta saintubat beçala, emplegatcen dutucularic çoure indarrac oro, bihotcian ukheiten ahal duçun amourioric handienareki.

Cer çoureganic galthatcen dut, Iehia habororcki, baicic ere isseya citian, çoure buriaren eni ossoki, berheçkeriaric gabe, emaitera?

Cihauren buriaç campo, emaiten dutuçun gaicen eçtit acholic batere; ceren eçpeitut çoure gaiça emana tcherkhatcen, bena bai cihaur.

2. Hala noula beste gaiçac oro ukhenic ere, ni eçpanunduçu, eçpeitçuneke aski: orobat, cer nahibeita gaiça eman diaçadaçun, placeric ecin eguiten ditadaçu, cihauren buria oberendatcen eçpadeitadaçu.

Oberenda içadaçu çoure buria, eta emaçu cirena oro Jincouagatic, eta ordian ounhexgarri içanen citaçu çoure oberenda.

Haur nuçula ni, çouregatic ossoki ene buria oberendatu dudana ene aitari; eman dudana orano ene khorpitça, eta odola çoure haççurrutaco, amourecatic ossoric çoure nintçan, eta çu ene bara cintian.

Bena cihaur beithan baçaude, eta eçpaduçu çoure oleç, nic nahi dudan beçala, çoure buria oberendatcen: eçtukeçu çoure oberenda complitu, ecetare goure alkharreki juntatcia osso.

Behar diçu arren, cihauren çoure oleç o Jincouaren eskietara eguinen duçun oberendac, lehen içan, ecieç çoure beste obrec oroc, nahi baduçu jar-

diexi libertatiá eta graciá.

Eci hartacoç dutuçu hagn aphur, arguitu, eta barnetico libertatiaç, goçatcen direnac; ceren eçpeitakie bere burien ossoki eiçten.

Ene errana khambiamentu gabe da: *nourc ere eçpeitutu gaiçac oro eiçten, eçtaite içan ene dicipulu* çuc arren ene dicipulu içateco imbeyaric balin baduçu, oberenda eçadaçu çoure buria, çoure desircunte ororeki.

---

## IX. CAPITULIA.

### *Behar dutugula goure buriac, eta gue dutugun gaiçac oro Jincouari eskentu, eta orogatic houra othoitu.*

Dicipuliaren botça.

1. CElian eta lurrian diren gaiçac oro, çouriac dutuçu, Jauna. Desiratcen dit ene buriaren çouri, nihauren oleçco oberendabaten beçala, eskentcia; eta çouretaco bethierecoç egoitia.

Jauna, ene bihotçaren simpletarçunian eskenteen deiçut egun ene buria,

çoure bethierecο cerbutcharibaten, çoure obedienciaη, eta thaic gabeçco laidorioυetan içateco.

Harc naçaçu, çoure khorpitç preciatiaren oberenda saintu houneki; çougn egun eskentcen beiteiçut, ainguru, ecin ikhous ditakian beçala, daudianen aitcinian; amourecatic ene, eta çoure populu ororen salbamentutaco içan dadin.

2. Jauna, eçarten deitçut, oberendabat beçala, çoure bakeçco altharen gagnen, nic, çoure, eta çoure ainguru saintien aitcinian, bekhatu eguiten hassi nintçan lehen egunaç gueroç, oren hountara drano, eguin ahal nuntukian bekhatiac oro; amourecatic çoure caritatiaren su saintiaç ulhaint, eta hourt eraci, eta ene bekhatien belççurac oro gal eraci ditçaçun, ene contcentcia chahat, eta bekhatu eguiteç galdu dudan gracia berric eman diçadaçun; oro ossoki pharcatcen deiçtatçularic, eta nihaur, bakiaren bessarca saintian, caritatouski hartcen naiçularic.

3. Cer eguin dirot deus besteric ene bekhatiegatic, baicic ere hourac umilki cofessa; eta nigarsta, eta thaic gabe çu othoi pharca ditçadaçun?

Othoitcen çutut, ene Jincoua, çoure aitcinian jatten niçanian, beha cakiçtadan, pharcatcera ekharri dena beçala.

Desplacer ecin handiagobat ene bekhatiec oroc eguiten ditacie enuçu haboro nabi hetara erori: bena dolu dit, eta bici niçano ukhenen ere bai: prest nuçu penitencia eguitera, eta ene eguin ahalaç, hen phacutan, behar diren obren complitcera.

Pharca itçadatçu, ene Jinco houna, pharca ene bekhatiac, çoure icen saintiaren amourecatic: salba eçaçu ene arima, çougn çoure odol preciatiaç arrerosi beituçu.

Haur nuçula ni çoure misericordiari nagouena, çoure escu saintietan eçartendit ene buria.

Eguiçu nitçaç, eç ene maleciaren, eta inikitatiaren bena bai çoure hountarçunaren araur.

4. Eskentcen deitçut ene hounkieguinac oro, çoumbatere ecinago aphur, eta escaç beitira; amourecatic hount, eta saintu ditçaçun, çaitçun placent eta mathagarri; eta hounetic hobialat igaren eraci ditçaçun; ni aldiç, erdiguiçon herabeçti, eta eçdeus char niçana, guida neçaçun açkentce dohaxu, eta laidabliala.

5. Eskentcen deitçut orano arima deboten desirçunte saintiac oro, ene ascaci adichkide, anaye, arreba, khario çaitçtadanen ororen, eta eni, edo besté çoumbaiti çoure amourecatic, hounki eguin dienen beharuniac, eta mengouac.

Hala noula nic orocione, eta meça erran niecen bere, edo berenegatic desiratu, eta galthatu deiçtadenac; nahibada lurrian diren orano biciric, nahibada mundu hountaric jadanic soltaturic diren.

Amourecatic oroc sendi decen, çoureganic jiten çayela, çoure graciaren sokhorria, consolacioniaren ajutia, dangeretaric beguiratu içatia, phenetaric soltatcia, eta gaitç orotaric libratu içan oundouan, esker handiric alagranteiareki eman diçacien.

6. Eskentcen deitçut haboroç haborotan ene orocioniac, eta bakeçco * ostiac, berheciki eni cerbaitetan oguen

* Ostia da guiçonec sacrificiouan jincouari eskentcen dien gaiça: hala noula goure althareco sacrificio adorablian Iesu-Krist bera beita bere buriaren aita eternalari oberendaçalia, eta aphecec hareki batian burçaguigoua oro dianari oberenda eguiten diena.

eguin, edo tristecia eman deitayenegatic, edo mesperetchu, edo damu, edo phena çoumbait eguin leitayenegatic.

Hitceç ere, eta obraç, nakialaric, edo jakin gabe, çoumbait aldiç tristetu, nahaspillatu, pheçutu, eta escandalisatu nutukian orogatic: amourecatic gouri orori bardinçki pharca ditçaguçun goure bekhatiac, eta alkharri eguin guntukian goitçarrenac.

Idokitçaçu, Jauna, goure bihotcetaric messidantcha, belçouri eguite, colera, eta debadio guntukianac oro; eta caritatia çaurtcen, eta goure anayetaraco amourioua hert eracitcen ahal deiçkien gaiçac oro.

Heiçu, Jauna, heiçu pietate, çoure misericordia galthatcen deitçunetçaç, emaçu çoure graciá, haren mengoua dianer; eta içan eraci guitçaçu, çoure graciaç goçatcia merechi dirogun beçala, eta hartçaç profeita deçagun beçala, bicitce eternalialat jouaiteco hala biç.

## X. CAPITULIA.

*Eçtiala ihoure arhinçki citci behar comunione saintia.*

Maithatiaren botça.

1. ARdura herſatu beharduçu graciaren, eta Jincouaren miſericordiaren uthurburiala, hountarçunaren, eta chahutarçun ororen uthurriala, çoure paſſione, eta bicio orotarie ſendo ahal citian amourecatic, eta debriaren tentacione, eta inganio ororen countre, açcarrago eta gogouatiago içatia, merechi deçaçun.

Noula exayac beitaki, comunione saintian dagouela goure abantallaric handiena, eta erremedioric hobena, bere indarrac oro, eguin ahal, eta aldi ukheiten dian oroç, emplegatcen dutu, fidelen eta deboten hantic guibelt eracitceco.

2. Eci nouicere comunione saintiala adelatcera çoumbait iſſcyatcen beitira, ordian ſatanen atacarçunic handienac ukheiten dutie.

Eçpiritu gaichtoua bera ( job saintiaren librian içkiribatu içan den beçala ) Jincouaren haurren artiala jiten da, amourecatic, bere gaichtokeria usatiaç, hourac nahas ditçan, edo loxaç, eta dudaç betha; hen debocioniaren hert eracitceco, edo atacatcen dutialaric, fediaren gal eracitceco: ousteç comunionia eitç eracinen deyen, edo epheltarçuneki hareganat hullant eraciren dutian.

Bena eçtu behar ihourc acholic ukhen batere, haren finacia eta uduripen, çoumbat nahibeita ahalkeiçun, eta loxa eraguingarri direnetçaç, bena ourthouki behar çaitço beraurtan gagna berriç itchousmentu hourac oro.

Mesperetchatu, eta trufatu behar-du miserable harc, eta, harec atacatia gatic, edo khechatarçun erakharten dutienegatic, eçta behar comunione saintia eitci.

3. Ardura orano, debocione ukheiteco arrancura soberac, eta cofessioniaren eguiteco erreustarçunbatec, eçpiritia nahasten-du.

Goberna cite, çuhurren consselliaren araur, eta eitç itçaçu erreustarçuná, eta hux eguin deçaçun loxa, ceren Jincouaren graciá eçpeitic eiçten, jitera, eta

eçpiritiaren

eçpiritiaren debocionia gal eracitcen beitie.

Comunione ſacratia eçteçaçula eitç, çoumbait thurburarçun, edo greutarçun tchipigatic; bena çouaça lehen beno lehen cofeſſatcera, eta beſter gogo houneç pharca itçaçu ofentſu eguin deitcienac oro.

Cihaurc aldiç, nourbait ofenſatu baduçu, pharcamentu umilki galtha eçoçu, eta Jincouac cihauri gogotic pharcaturen deiçu.

4. Cer profeitu-da cofeſſioniaren hurrun igortia, eta comunione ſaintiaren gueroualat eiçtia.

Chahat cite bertan beno bertanago, egoit çeçaçu bertaric phoçoüa, lehia cite erremediouaren hartcera, eta hobeki edirenen cira, ecieç luçaç gueroualaturic.

Egun gaiçabat dela cauſa eiçten baduçu, behar heltubada beſtebat handi goric jinen çaiçu: eta guiſa hortan comunionetic luçaç deſtorbatu içan ahal cinteke, eta gutiago preſt guertha cinteke.

Bilaintç cite, ahal beçagn fitetç, pheçutarçun, eta herabe hortaric: ceren eçpiritiaren luçaç erreus ukheitiac, thempora luceren thurburarçunian igaraitiac,

eta sacramentu hountaric hurruntciac, egun oroçco threbukiac direla causa, eçpeitu abantallaric batere jardiex eraçitcen.

Damu handibat duçu lehenago, comunioniaren bethi gueroualat luçatcia; eci gogortarçun gachtobat haboroucan erakharten diçu.

Elas! çoumbait sachu, eta chede gabe bici direnec, cofessionia gogotic luçatcen die, eta comunione saint aren gueroualat igortia hartacoç desiratcen, amoureeatic bortchatu eçtiren, bere burien hobeki beguiratcera.

5. Ala beitie caritate aphur, eta debocione flakia, hagn chignera comunione saintia eiçten dienec!

Ala beita dohaxu, eta Jincouaren erretceco maithagarri, guisabateç bicitcen, eta bere contcentcia hagnbeste c ahutarçuneki beguiratcen diana, noun egun oroç prest beilçate comuniatceco, eta bere bihotcetic dessegn houn houra beiluke, sori balitceyo, eta bere buria segnala eraci gabe, hala eguin ahal baleça.

Nourbait çoumbait aldiç, umilitateç comuniatcetic bara cen bada, edo beste arraçou houn çoumbait dela causa, laidable da umilitate haren ukheneç,

Bena hotçtarçuna sarthu baçayo, behar-du bere buria corajatu, eta eguin ahala oro eguin; eta Jincouac ajutaturendu haren boronthate hounaren araur, çougui berheciki so eguiten beitu.

6. Nouicere aldiç arraçou hounbatec bara eracitcen beitu, baduke hargatic bethi boronthate ehahia, eta comuniatceco intencione debota; eta hala, eçta içanen sacramentiaren frutia gabe.

Eci çougn nahibeita debot, egun eta oren oroç, hullant ahal daiteke profeitabieki, eta manu gabe Jesu-Kristen eçpirituçco comunionala.

Haregatic orogatic behar-du, egun haitatu çoumbaiteç, eta thempora segnalatieç, bere salbaçaliaren khorpitça sacramentian errecebitu, aphalmentu bihotcetic jalkiten denbateki, eta bere consolacionia beno lehen, Jincouaren laidorioua eta ouhouria tcherkhatu

Eci Jesu-Kristen incarnacioniaren misterioua, eta passione saintia phensamentian debotki etchekiten, eta haren amouriouaç suç bethatcen-den ordu oroç, eçpirituç comuniatcen-du, eta haçcurru ecin ikhousten denbateç açcartcen-da.

7. Nour ere bestaren jitiari, edo cos-

tumac hartara erakharten dialacoç baicic, eçpeita adelatcen, houra ardurago eçtate behar den beçala prest.

Dohaxu da meça erraiten, edo comuniatcen dian ordu oroç, bere buria Jincouari eskentcen diana.

Etcitiala meça erraitian lucegui, eç lehiatiegui içan, bena çoureki bicitcen diren eguitate hounari jarraiki cite.

Eçtuçu behar bester desplaceric eguin, eç debeiarçunic eman; bena bai besten bidia etcheki, çoure aitcineticouen eguitate hounaren araur: eta besteren profeitia lehenago tcherkhatu, ecieç çoure debocionia, eta bihotceco desircuntia.

## XI. CAPITULIA.

*Ecinago Jesu-Kristen khorpitçaren, eta escriptura saintaren behar handebat diala arima fidelac.*

Dicipuliaren botça.

1. O Ecinago eçti ciren Jesus-Jauna: ala beita handi çoure banketian, çoureki jaten dian arima debotaren eçtitarçuna; noun beste janhariric eçpeitçayo emaiten, çu cihaur baicic, çougn beitcira hartçaç maithatia, eta haren bi-

hotceco desircunte ororen gagnetic, desiragarri citçaitçona.

Eguiaçki gaiça eçtibat lukeçu enetaco, çoure aitcinian, barnetico amouriobateç, nigar eguitia, eta maidalena debotareki, çoure hougnen nigarreç bousτatcia.

Bena noun-da debocione houra? Noun-da nigar saintu hen tourroustaç eguitia?

Eguia duçu, ene bihotçac oroc, çoure eta çoure ainguru saintien aitcinian, suç betheric içan, eta placereç nigar eguin behar lukiala.

Eci sacramentu hountan, eguiaçki present çutut, çoumbatere besteren uduriaren pian gorderic beitçaude.

2. Elirocie ene beguiec, eguia duçu, sustenga ahal, cihauren arguitarçun propian, çoure ikhoustia: mundia oro ere eliteçu den beçala egon, çoure gloriaçcó majestatiaren legnhuru dardeiatcen direneran.

Ene flakecia dela causa arren, eta haren egarteco, Sacramentiaren pian çoure buria gordatcen duçu.

Badit, eta adoratcen dit eguiaçki, cellan ainguriec adoratcen diena; bena nic, eç orano fediaren ulhunpian baicic; hec

aldiç estalgunerie gabe bere beithan den beçala.

Eguiaçco sediac argui emaiten deitadanaç, eta hartan ebiltiaç pairatu behardit; eternitateco arguitarçunaren eguna jin, eta figuren itçalac igaren ditian artio.

Bena ossoki complitu dena jin datekianian, eçtate sacramentien beharric; cereneta celuco glorian dohaxu direnec, sacramentien erremediouaren mengouaric eçpeitukeye.

Eci bethi iragnen dian alagrantcian Jincouaren aitcinian daude, haren gloria beguitharteç beguitharte ikhousten dielaric, eta arguitarçunetic Jincotarçunaren leciaren argutarçunialat khambiatu içan oundouan, placer handireki goçatcen dira Jincouaren Verbo guiçon eguin içan denaç, haxarrian içan, eta eternitate orotan dagouen beçala.

3. Gaiça miragarri horietçaç orhitcen niçanian, çougn nahibeita eçpirituçco consolacionec ere eçtitacie debeyarçun greugarribat baicic emaiten, cereneta ene Jincoua bere glorian clarki ikhous deçadan artio, deus eçpeitutut pheretchatcen mundu hountan ikhousten, edo entçuten dutudan gaiçac oro.

Baçutut cihaur jakiletaco, ene Jincoua eçtela gaiçaric ni consolatcen ahal nayanic, eç creaturaric ene bihotça phaussa eraci dirouanic, çu baicic, ene Jincoua, ceren çoure eternitate orotan ikhoustia desiratcen beitut.

Bena eçtiteçu hori içan, bicitce heriouaren haiduru dagouen hountan niçano.

Hartacoç pacentcia handibati gomendatu behar dit, eta ene buria çoure escu pian desircunte orotan eçarri.

Eci çoure saintiec, Jauna, çougn çoureki celuco erresoman alagrantcia handitan beitaude, fede, eta esparantça handibateki, bici cireno, çoure gloriaren jitia egurukiten cicien. Sinhesten dit, hec sinhexi ciena, badit, hec ukhen cien esparantchá; hourac heltu diren lekhiala, çoure graciareki batian, helturen niçala confidantcha fermobatetan nuçu.

Saintien exemplietçaç açcarturic, fedian anhartio ebiliren nuçu.

Ukhenen citit libru saintiac ere ene con olagarri, eta ene bicitciaren mirallguei, eta horic oro beno haboro dena, çoure khorpitç ecinago saintia dukeçu ene erremedio bakhoitça, eta ni-hersaturen nitçayona.

4. Mundu hountan niçano, bi gaiçaren ecinago mengoua handibat dudala borogatcen-dit, hourac gabe, miseriaçco içate haur eniroçu sustenga ahal.

Khorpitç hounen presounteguian nagoueno, bi gaiçaren, erran nahibeita, haçcurriaren, eta arguiaren mengouá badudala aithortcen-dit.

Eman deitaçu hori dela causa, flacu nintçalacoç, çoure khorpitç sacratia, ene eçpiritiaren, eta khorpitçaren errekeitutaco: eta çoure hitç saintia, lampadabaten a guiaç beçala, ene urrhaxen guidatceco.

Bi gaiça horic gabe, ounxa eniteçu bici: eci Jincouaren hitça duçu, ene arimaren arguia, çoure sacramentia aldiç, bicia emaiten dian oguia.

Erraiten ahal diçugu orano, bi gaiça horic direla, bi mahagn, eliça saintaren bedera althetan eçaritic daudianac.

Bata duçu, althare sacratiaren mahagna, ogui saintia, erran nahibeta, Jesu Kristen khorpitç preciatia daducana.

Bestia duçu, Jincouaren leguiarena, dotrina saintia daducana, fede chuchena eracousten deicuna, eta, saintien saintia estaltcen dian arrideoüaren althe

barniala drano, guidatcen gutiana.

Eskerrac emaiten deitçugu, Jesus Jauna, arguitarçun eternalaren arguia, dotrina sacratiaren mahagnagatic, çougu eman beiteicuçu, çoure cerbutchari profeta, apostolu, eta beste dotoren medioç.

5. Eskerrac deitçugu, ô guiçonen creacale eta arreroste maitia, ceren, çoure caritatiaren mundu orori eracousteco, aihari handibat adelatu beiteicuçu, çougntan, eç figuraçco achouria, bena bai çoure khorpitç, eta odol eçinago saintiac, janharitaco eman beiteiçcutçu: alagrantciaç bethatcen dutuçalaric arima fidelac oro, banket sacratu hareç, eta orditcen ere bai, calitciaco ardou sendogarriaç çougntan edireiten beitira pharadussuco placerac oro, eta çougntan ainguru saintiec goureki jaten beitie, bena guc beno eçtitarçun goçaxiago bateki.

6. Ala beita aphecen eguin bidia handi, eta ouhouragarri, çougni eman içan beita, bere hitç sacratietçaç, majestatecco Jincouaren consecratcia, haren bere eçpagnetçaç benedicatcia, eskietan etchekitia, aho propiaç errecebitcia, eta bester emaitia.

Ala beitie apheçbaten eskiec chahu içan behar, haren ahouac garbi, haren khorpitçac saintu, haren bihotçac theyarçun gabe; chahutarçunaren Jincoua houra beithan hagnbestetan sartceu denen gagnen!

Hagn ardura Jesu-Kristen sacramentia errecebitcen diai apheçbaten ahotic, saintu, laidable, eta profeitable eçten hitcec batec ere, eçtu jalki behar.

Aphecer berheciki so daude legue saintian içkiribaturic daudian hitç hoyec, içan citeye saintu, *ni ere Jinco Jauna saintu nitcanen gagnen.*

7. Haren begui Jesu-Kristen khorpitçari so eguitera costumatu dienec, simple, eta casto içan behar die.

Haren escu, celuco eta lurreco creacaliaren maneyatcera costumatu direnec, chahu eta celialar goitituric.

8. Ajuta guitçan, Jinco photere oro duçuna, çoure graciac; apheçgouaren eguin bidiaç cargaturic guirenac, çoure behar den beçalaco cerbutchari içan ahal guitian, debocione, eta chahutarçun ossobatcki, eta contcentcia houtcbateki.

Eta çoumbatere, eçpeikitcke behar gunukian chahutarçunarcki bici ahal;

orotrat ere emaguçu goure bekhatu eguinen behar dun beçala nigarstatceco gracia; eta aitcinaraco themporan umilitateçco eçpiritian, eta boronthate hounbaten fermotarçunian, çoure su habororeki cerbutchatceco ua.

---

## XII. CAPITULIA.

*Jesu-Kristen errecebitceco behar diala ahoure arrancura handibatteki adelatu.*

### Maithatiaren botça.

1. NI niç chahutarçunaren maithaçalia, eta saintutarçun oro ren emailia.

Nic bihotç chahubat tcherkhatcen dut, eta han-da ene phaussaguya.

Adela eçadaçu, sala handi ounxa pharatubat, eta çu beithan janen diçut ene dicipulieki baçcoco achouria.

Coureganat jin nadin, eta çutan egon nadin nahi baduçu, idoki eçaçu altchaturaci çaharra, eta chahat eçaçu çoure bihotçaren egonguia.

Jaiki eracitçaçu munduco eguitecouaç eta biciouen nahaspillac oro; jar cite,

hala noula eliça-tchori hegatç batetan gagnen bera dagouenbat, eta çoure falsetçaç orhit cite, çoure arimaren hasperen kharaxetan.

Eci maite dien oroc adelatcen die lekhurie hobena, eta ederrena bere maitiari; ceren hartan eçagun beita, bere maitia errecebitcen dianaren bihotça.

2. Jakin eçaçu, etcintekiala hargatic osſoki adela ahal, çoure eguitatiaren merechimentiaç, igarenic ere ourthe osſobat adelu hortan, besteric deusere eçpiritian ukhen gabe.

Bena ene hountarçunac berac, eta graciac eiçten çutu ene mahagnialat hullantcera, hala noula praubebat khumitatia baliç, aberaxbaten baraçcariala, deus besteric eçpeiluke haren hounkier ordari emaiteco, bere buriaren aphaltcia, eta eskerren emaitia baicic.

Eguiçu çutan dena, eta eguiçu arrancurareki, errecebi eçaçu, eç costumaç, ecetare bortchaç bena larderiareki, eta debocionereki, çoure Jinco maitiaren khorpitça, çouregana jiteco hountarçuna dianen gagnen.

Ni nuçu çoure deiçalia, ni nuçu hori eguin deçaçun çouri manu emailia: nic suplituren dit çuc menx duçuna, ciauri eta errecebi neçaçu.

3. Nouicere debocioniaren gracia emaiten beiteiçut, çoure Jincouari eskerrac ematçu, eç ceren çuc houra merechi duçun, bena ceren çutçaç pietate ukhen dudan.

Eçpalin baduçu debocione houra lehenago idor cirela borogatcen baduçu, herla cite oracioniari, egu çu hasperen, eta borthá truca eçaçu, eta etcitiala bara, gracia sendogarri haren bochinca, edo tchortolabaten ukheitia merechi deçaçun artio.

Ene mengouá çuc badaçu, nic aldiç eç çouriá.

Etcira çu ene saintutcera jiten, ni aldiç bai çoure saintutcera eta hobetcera.

Çu jiten cira, eneki junta, eta eneganic saintu citian amourecatic; gracia berribat ukhen deçaçun, eta suç betha citian, berri berritan bicitceç khambiatceco.

Eçteçaçula eçacholareki har gracia haur; bena arrancura handireki adela eçaçu çoure bihotça, ete çoure maitia han sar eraci eçaçu.

4. Gagneran behar duçu, eç solamentç comunionia beno lehen, debocioniala adelatu; bena orano arrancurareki, hartan çoure buriari iragn eraci, sacramentiaren errecebi oundouan: eta eçtiçu

ihoure gutiago arrancura ukhen behar, guerotic haren beguiratceco, ecieç aitcinetic, debotki adelatceco. Eci guerotinco beguira houna, ecinago adelu profeitablebat duçu, gracia handiago baten jardiesteco.

Eci sobera lehiareki, campotico consolacionetarat berhala jouaiten denac, bere buria guertha eraciten du hanitcheç gutiago propi obra hartaco.

E he hanitç erraitetic beguira cite, çaude cihauren chokouan ihourere gabe, eta goça cite Jincouaç eci cihaureki duçu, mundu oroc ecin idokitcen deiçuna.

Ni nuçu, çoure buria ossoki eman behar deyoçuna: guisabateç noun, heben haratco themporan, eç çutan bena nitan bici citian arrancuraric batere gabe.

## XIII. CAPITULIA.

*Arima debotbatec behardiala hibotç ossoç tcherkhatu, sacramentu hountan Jesu-Kristeki juntatu içatia.*

Dicipuliaren botça.

1\. NOurganic ukhenen dut, Jauna, çoure cihauren ediren eraciteco abantalla, amourecatic çouri ene

bihotça ossoki ideki deçadan, eta çurçaç goça nadin, ene arimac desiratcen dian beçala, eta eniçan haboro i ourtçaç mesperetchatia, eçetare creaturaç bateç ere ene clotutic çotucatia, eç ikhoussia: bena çu cihaur mintça çakitçadan, eta ni çouri, maite dianbat maite dianari mintçatcen den beçala, eta adichkidebat bere adichkidiareki apairian elhestatcen den beçala?

Nic galthatcen, eta desiratcen dudana duçu, niçana oro çoureki juntatu içatia, eta ene bihotçaren, gaiça creatu içan diren ororaric, soltatcia; eta comunione saintiaren, eta ardura meça erraitiaren moyaneç, celuco, eta eternitateco gaicen goçatcen hobeki ikhastia.

Ah ene Jinco Jauna, nouiç, nihauren buria ossoki ahatceric, içanen niç niçana oro çoureki juntaturic, eta bat eguinic.

Çu nitan, eta ni çutan; houn har eçaçu, holache biec bat eguiten dugularic, algarreki egon guitian.

2. Çu cira eguiaçki nitçaç maithatia, milaren artian haitatia, çougntan ene arimac bere mente orotaco egonguya eçarri beitu.

Eguiaçki çu cira ene bake emailia; çutan diagoçu bake ecinago handia, eta

eguiaçco phauſſia, çutçaç campo, eçtuçu phena, dolore, eta miſeria ecin khounta ditakianac baicic.

Cu cira eguiaçki Jinco eſtalia, gaichtoueki conſelluric hartcen eçtuçuna, eta umileki eta ſimpleki elheſtatcen cirena.

Ala beita eçti, Jauna, çoura eçpiritia, duçunen gagnen hountarçuna, çoure haurrer çoure eçtitarçunaren eracouſteco, hen, celutic jaiſten den ogui ecinago eçtibateç, erreke tatcecoua!

Eçtuçu nationeric, çoumbat nahibeita handi den, bere Jincouac hagn hullantcen çaitçonic, noula çu, goure Jincoua, çoure arima fidel orotarat hullantcen betcira, çougni, egun oroçco conſoliotaco, eta hen bihotcen celialat eraikiteco, cihaur janharitaco eta goçamenetaco emaiten beitcira.

3. Eci badeya nacioneric hagn famatu denic, noula beita populu khiriſtia?

Edo badeya celiaren pian creatura hagn maithaturic, noula beita arima debotbat, çougntan ſartcen beita Jincoua, bere aragui glorioufaç, houra haç deçan amourecatic.

O gracia ecin erraiten dena! ô hountarçun miragarria! ô amourio muga gabia, guiçonaren berheciki emplegatu içan dena!

'Bena cer emanen-dut ordari Jincouari, gracia hounentaco; cer, caritate hagn baliousarentaco?

Deus eniro placer haboro eguin liroyonic eman ahal, ecieç ene bihotçaren ene Jincouari ossoki emaitia eta hareki, eçur chilouetara drano, juntatu içatia.

Nouicere ene arima Jincouareki ossoki jountatu beitateke; ordian ene bihotçaren barneticouac oro alagrantciaç, eta boçtarioç betheric dirateke.

Ordian erranen deit: çu nahi bacita eneki içan, ni ere nahi nuçu çoureki, eta nic ihardexiren deyot, ukheçu, Jauna, eneki egoiteco hountarçuna, ni nahi nuçu gogo houneç çoureki içan.

Ene desircuntia oro duçu, çoureki ene bihotça juntaturic içan dadin.

---

## XIV. CAPITULIA.

### *Jesu-Kristen errecebitceco çoumbait arima debotec dien desir suç bethiaç.*

Dicipuliaren botça.

1. A *La beita handi, Jauna, çoure larderia dienen gorderic beguiratcen duçun eçtitarçunen hanitchatarçuna*; orhitcen niçanian, Jauna, çoum-

bait arima debot, çoure ſacramentiala hagn beſte debocionereki, eta ſureki hullantcen direnetçaç: ordian ardura nihaur beithan ahalkeç hourtcen nuçu; ceren çoure althare ſacratiala, eta comunione ſaintiaren mahagniala, hagn ephelki eta hotçki hullantcen niçan.

Ceren hagn idor, eta bihotceco goçoric gabe nagouen: ceren çoure aitcinian, ene Jincoua, oro ſuç betheric eniçan; eç hagn açcarki debocioniaç thiraturic, eta hounkiric, noula içan beitira hanitch debot, çougn nigar eguitetic ecin baratcen beitciren, comunioniaren deſiraren handitarçuneç, eta bihotcian ſenditcen cien amourioua cela cauſa.

Bena çoureganat beitçouatçan, barnetico goço handibateki; ô ene Jinco, uthurri bicibat cirena, bihotceco, eta khorpitceco ahoua çabalturic, bere goſſia ecin beſtela apaiſatuç eta aſſeciatuç, çoure khorpitç ſaintiaren errecebitceç baicic, placer oſſobateki, eta eçpirituçco lehia goçaxubateki.

2. Ala beitcen ſuç betheric hen fedia çougn, çu ſacramentian preſent cirela, borogantçataco cerbutchatcen beita.

Eci hec eguiareki eçaguticen die bere Jauna, oguiaren hauſtian, ceren hen

bihotça ſu ecinago handibateç bethatcen beita, Jeſus hekilan ebilten denian.

Ardura hurrun eneganic diagoçu bihotceco deſir, eta debocione houra, amourio, hagn açcar, eta ſuç betheric, dena.

O Jeſus houna, eçtia, eta hounki eguilia, heiçu nitçaç pietate, eta nahi ukhen eçaçu, çoure praube amouina galthaçalebat niçan beçala, çoumbait orduç berere, ſendi deçadan comunione ſaintian, çoure amourio bihotcian barna ſartcen denetic aphurbat; amourecatic ene fedia bethi-hambat açcar dadin], eſparantçac çoure hountarçunian profeita deçan, eta caritatia, behin ounxa phiçtu, eta celuco manna goçatu oundouan, ſecula nitan eçtadin falta.

3. Badiçu çoure miſericordiac photeria, eni nic galthatcen deyodan graciaren emaitecoua, eta ene, ſuçco eçpiritian, hountarçun ecinago handibatcki, biſitatcecoua, çoure boronthate ſaintiaren eguna jin datekianian.

Eta eguiaçki, çoumbatere eçpeitut, çouri hagn berheciki debot direnen, deſir ſuç bethia: halaric ere çoure graciac emaiten ditaçu, deſir handi garſtaturic den hartaric ukheiteco nahicuntia,

desiratcen dudalaric, eta othoitcen çutudalaric, placer naiçun çoure maithaçale, suç betheric diren hen ororen obra hounetan pharthelant eguin, eta hen lagungoua saintian eçari.

## XV. CAPITULIA.

***Graciaren debocionia ihoure jardiesten diala umilitatiaç, eta bere buriaren eçdeustiaç.***

### Maithatiaren botça.

1. BEhar duçu debocioniaren gracia lehiatuki tcherkhatu, nahicuntereki galthatu, pacentciareki, eta confidantchareki eguruki, eskerreki errecebitu, umilitatereki beguiratu, bihotçtoiki hareki triballatu, eta Jincouari eitci, gagnetico bisitaren ukheiteco, magná, eta thermagniá, jin daitian artio.

Umiliatu behar duçu, orotan gainti, debocioneric hatere, edo aphur baicic barnian senditcen eçtuçunian; bena eç sobera descorajatu, eç behar eçten beçala tristetu.

Jincouac hanitchetan memento llaburbatetan emaiten diçu, thempora luçeç ounhexi eçtian gaiça: çoumbait orduç aldiç, oracioniaren açkentcian emaitendu haxarrian, guero emaiteco, eitci ciana.

2. Berhala bethi graciá eman balin baledi, eliro guiçonaren flakeciac houra ounxa egar ahal.

Hartacoç esparantchá hounbatetan, eta pacentcia umilbateki eguruki behar-du debocioniaren graciac. Cihauri hargatic, eta çoure bekhatier oguena emaçu, emaiten etçaiçunian, edo eçabaki idokitcen çaiçunian.;

Gaiça tchipibat-da çoumbait aldiç; graciá baratcen edo idokitcen deiçuna; tchipi, handi beno lehen deitcen ahal bada, hagn hountarçun baliousa hurruntcen deicun gaiça.

Eta bada tchipi, bada handi den gaiça hori bera, cihaurganic khentcen, eta ossoki garhaitcen balin baduçu, çuc galthatu duçuna içanen duçu.

3. Eci Jincouari çoure buria eman dukeçun beçagn sarri bihotç ossoç, haur, edo houra, çoure nahicuntiaren araur, tcherkhatcen eçtuçularic, bena ossoki haren eskietan jarri ciratekianian;

edirenen duçu çoure buria bakian, eta Jincouareki juntaturic; ceren deus eçpeituçu hala goçaturen, eta deusec eçpeiteiçu hagnbeste placer eguinen, noula Jincouaren boronthate saintiaren complitciac.

Nourc ere arren bere intencionia, bihotç chuchen bateç, goiti Jincouaganat altchaturen beitu, eta bilaiciren beita, çougn nahibeita creaturaren behar eçten amourio, edo huguntarçun orotaric, houra ecinago propi dateke, graciaren errecebitceco, eta debocioniaren ukheitia merechituren du.

Eci Jincouac, ountci huxac edireiten dutian lekhian, emaiten du bere benediccionia.

Eta çoumbatenaç ihoure complitukiago lurren gagneco gaiçac eiçten beitutu, eta bere buria mesperetchatcen dialaric, hari hilteen beita: hambatenaç bertanago garcia jiten çayo, gorikiago houra beithan sartcen da, eta gorago haren bihotça threbucu gabe altchatcen da.

4. Ordian ikhoussiren diçu, eta assecian dukeçu, eta estonaturen duçu; eta haren bihotça hartan berian largaturen duçu, ceren Jincoua hareki den, eta beraur haren escu saintietan bethierecoç osioki jarri den.

Holache benedicatu içanen da Jincoua bihotç osso, tchei khatcen, eta bere arima, ounxa beguiratcen dakian guiçona.

Guissa hortan den guiçonac, comunione saintiaren errecebitciarcki, merechitcen-du Jincouarcki juntatu içatceco gracia handibat; ceren eçpeitu bere debocione, eta consolio propiari soric eguiten; bena bai bere debocione, eta consolio ororen gagnetic, Jincouaren gloriari eta ouhouriari.

---

## XVII. CAPITULIA.

*Goure beharuniac behar dutugula Jesusi eracouxi, eta gracia berauri galthatu.*

### Dicipuliaren botça.

1. OEne ecinago eçti eta maithagarri ciren Jauna, goure orai debotki errecebitcia desiratcen nikeçu, çuc ene flakecia badakiçu, eta cer gaiçaren beharrian niçan, çoumbat gaitç, eta biciotan hedaturic nagouen, çougnen ardura tentacioneç, thurburarcuneç eta theyarcuneç betheric niçan.

Jiten nuçu çouregana, erremedioua-

ren tcherkhara, othoitcen çutut, consola eta solaja naçaçun.

Gaiçac oro dakitçanari mintço nuçu, ene barnetico phensamentiac oro ciarki eçagutcen dutianari, eta çuc baicic enindiroçu ihourc complituki, eç consola eç ajuta.

Badakiçu çougn hounen, berheciki besten ororen artetiç mengoua dudan, eta berthutetan çougnen niçan praube.

2. Baniagoçu çoure aitcinian praube picarrat denbat beçala, çoure misericordiala hersaturic, gracia galtatcen deiçudalaric.

Errekeita eçaçu çoure praube gossejankina; gort eçaçu ene hotçtarçuna, çoure amouriouaren suyaç; argui eçaçu ene uxutarçuna, çoure presentciaren arguitarçunaç.

Kharax eracitçada'çu lurreco gaiçac oro: pacentciareki har eracitçadatçu greugarri direnac, eta nic nahi gaberic heltcen çaiçtadanac; mesperetcha eta ahatç eracitçadatçu pe hountaco gaiça creatu içan direnac oro.

Celialat cihaur beitharat eraiki eçaçu ene bihotça, eta enaçaçula eitç, lurren gagnen barreyaturic horrat hounat ebiltera.

Oraidanic

Oraidanic harat beithierecoç, çutan baicic eçteçadan eçtitarçunic ediren, ceren çu beitcira ene jatecoua, eta edatecoua, ene amourioua, eta boçtarioua, ene eçtitarçuna, eta hountarçuna oro.

3. Ala beinuke nahi çoure preſentciaç ſuç betha, erra, eta cihaurtara oſſoki khambia nentçaçun, amourecatic graciac, eta amourio ſuç bethiaren indarrac, çoureki bihotceç juntatu içateco, hourt eracitcen nundialaric, biec eçpiritubat baicic eçkeneçan eguin.

Eçtuçula nahi, çoureganic hurrunt nadin barouric, eta ſecaturic, bena eguiçu eneki çoure miſericordiaren araur hala noula hanitchetan çoure ſaintieki miraçu llouski eguin beituçu.

Baliçatia mira, çuganic oro ſutan jar banendi, eta nihaur beithan eçdeus nendin; çu cirenen gagnen ſu bethi phiçturic dagouenbat, eta ſecula hiltcen eçtena; amourio bihotçac chahatcen, eta enthe-leguia arguitcen dianbat.

## XVII. CAPITULIA.

*Jesu-Kristen errecebitceco, ihourc ukhen behar dian bihotceco desir handiaç, eta amourio suç bethiaç.*

### Dicipuliaren botça.

1. DEsiratcen dit, Jauna, çoure errecebitcia, debocione ecinago handibateki, amourio suç bethebateki, ene bihotceco desir, eta bicitarçun ororeki: hala noula hanitch saintuc, eta arima debotec desiratu ukhen beitçutie, bere comunionian, çougn ecin haboro çoure gogaraco içan beitira, bere bicitciaren saintutarçunaç, eta debocioniaren berotarçun ecinago handiaç.

O ene Jincoua, amourio eternala, ene hountarçuna oro, eta doharxutarçun muga gabia, çoure errecebitcia desiratcen diçut, jagoiti saintuc ukhen, edo senditu ahal dian desiric bicienareki, eta umilitateric aphalenareki.

2. Eta çoumbatere eçpeitut merechitcen, debocioneçco sendimentu henorogen ukheitia; halaric ere eskentcen dei-

gut ene bihotceco desira oro; nihaurc, desircunte suç bethe ecinago maitagarri houraç oro, beinutu beçala.

Haboroç haboro emaiten, eta eskentcen deiçut bihotç ossoç, eta aphalmentu handireki arima debotbatec eçpirituç goçatcen, edo desiratcen ahal dutian gaiçac oro.

Eçtit nahi deusere nihaurentaco beguiratu, bena bai çouri sacrificiotan eskentu, gogo ecinago ossobateç, nihaur, eta nic dutudan gaiçac oro.

O ene Jinco Jauna, ene creaçalia, eta arrerossia, nahi çuntuket egun errecebitu, hagnbeste bihotceco desireki, aphaltarçuneki, laidorioreki, eta ouhourereki; hagnbeste eskerreki, chahutarçuneki, eta amourioreki, hagnbeste federeki, esparantchareki, eta garbitarçuneki: çougnen bestereki çoure ama ecinago saintac, Maria birgina lorioufac errecebitu, eta desiratu beitçuntian; nouicere debotki, eta umilki ihardexi beitcian ainguru, incarnacioniaren mistériouaren berria ekharten ceyonari: *haur nuçula Jincouaren neseatoua, compli bedi nitan çoure hitçac dioyana.*

3. Eta hala noula Jondane Johane Batistá, çoure aitcinetic jilia, saintu oro-

taco handiena, bere amaren sabelian cer?raturic çagouelaric orano, espiritu saintiaç arguituric, çoure presentcian boçtarioç jauçcatu beitcen: eta hantic thempora aphurren oundouan, ikhoussiric Jesus guiçonen artian ebilten, umiliatcen celaric, debocione handireki beitciouan: espousaren adichkidia chuti beha daucona boçtarioç bethatcen-da, espousaren botçaren entçutiari: orobat ni ere desir handi eta saintierçaç nahi nundukeçu su garretan jarri, eta çouri, bihotç ossoç, ene buria eskentu nahi nikeçu.

Hartacoç eskentcen, eta aitcinian eçarten deitçut arima debot ororen bihotceçco boçtariouac, hen debocione sustatiac, hen eçpirituçco goiti tgaitiac, hen gagnetic ukheiten çutien arguiac, eta celuco bisitac; creatura oroc celian, eta lurrian eman, eta emanen deitcien berthute, eta laidorio ororeki, nihaurgatic, eta ene oracionetan gomendatu içan diren orogatic: amourecatic oroc, çuc merechi duçun beçala, laida citcen, eta seculacoç glorifica.

4. Har itçaçu, ene Jinco Jauna, ene botouac, eta çouri ecin khounta ahal beçambat laidorio, eta benediccione emaiteco nutukian desirac, çoure ecin erraiten

den handitarçunac hourac oro çucen handireki hartce dutianen gagnen.

Laidorio horic emaiten deitçut, eta egun, eta memento oroç emaiteco desira badit; eta celuco eçpiritiac, eta çoure arima fidelac oro, ene eguin ahal orotçaç khumitatcen, eta othoitcen citit, eneki junta ditian, çouri eskerren, eta laidoriouen emaiteco.

5. Nacione souerte oroc laida citcela, eta boçtario handireki, eta debocione suç bethebateki, çoure, eçtia beno eçtiago den, icen saintia gora beno gorago eçar decela.

Eta nourc ere ecinago gora den sacramentu haur umilki, eta debotki celebratcen, eta fede bethebateki errecebitcen beitie, hec gracia, eta misericordia çoure aitcinian edireitia merechi decela othoi, eta çoure, ene eretceco bekhatore gacho niçana, bere oracionetçaç ema eracitcecoua.

Eta ene praubeciaç orhitceco hountarçuna ukhen decen, nouicere, bere debocione desiratiaren, eta çoureki juntatatu içatiaren, goçamenian sarthu beitirateke, eta consolacioneç betheric, eta miragarriki asseciaturic celuco mahagn sacratutiç jalki beitirateke.

## XVIII. CAPITULIA.

*Eçtiala behar guiçondc sacramentu hounen sobera jakin beharreki ikherçala içan; bena bai Jesusen umilki imitaçale, fede sacratiaren pian bere ikhoustia eçarten dialarie.*

### Maithatiaren botça.

1. O Unxa beguiratu behar duçu çoure buria, sacramentu ecinago barna den hounen chehegui, eta banoki ikhertcetic, nahi eçpacira dudaren barnatarçunian itho.

*Nour ere Jincouaren majestatiaren ikhertcen jarten beita, houra, haren benaurenglariaren pheciac aphal eta eror eraciren-du.* Jincouac haboro eguin diro, ecieç guiçonac enthelega beitiro. Eguiaren tcherkhu saintu, eta umilbat bethi cerbait hounen ikhaſtiari dagouenbat, iſſeyatcen delaric, eliçaco aiten ſendimentu hounetan ebiltera, eçta irachteco.

2. Ala beita dohaxu ſimple içatia, eta eçpiritia phenatcen dien gaicen bide gaitçac eitciric, Jincouaren manien chenda ordoki, eta ſegurian ebiltia!

Hanitchec debocionia galdu ukhen die, ceren gaiça goreguiac ikhertu nahi ukhen beitutie.

Etçaiçu galthatcen entheleguiaren gora ukheitia, ecetare Jincouaren misteriouen barnatarçunaren eçagutcia; bena bai fedia, eta bicitce chahia.

Eçpadutuçu enthelegatcen, eç eçagutcen cihaur beno aphalago diren gaiçac; noula enthelegaturen dutuçu, cihaur beno gorago direnac.

Jar cite Jincouaren escu pian, eta çoure entheleguia plega eraciçaçu fediaren maniala, eta eman içanen çaiçu jakitiaren arguia, çuc behar beçalaco, eta çoure houn den beçala.

3. Coumbaitec tentacione gaitcic sofesritcen die feden gagnen, baietare sacramentu hounen gagnen; bena eçtie hec oguenic, horic exayaren gaichtokeriatic jiten dira.

Eçtuçula acholic çoure phensamentietçaç, etcitiala hekin debadiotan sar, eta eçteçaçula ihardex debriac igorten deitçun duder; bena sinhex itçaçu Jincouaren hitçac, sinhex itçaçu haren saintiac, eta profetac; eta exai gaichtouac ihessi eguinen deiçu.

Hanitchetan ounxa profeitable duçu,

Jincouaren cerbutcharibatentaco, holaco tentacioniac ukhen ditçan.

Eci eçpiritu gaichtouac eçtutu tentatcen ſede gabiac, eta bekhatoriac, ſegur dutialacoç; fidelac, eta debotac aldiç tentatcen, eta eskerniatcen dutu hanitch guiſaç.

4. Couaça arren aitcina ſede ſimple, eta duda gabeçcobateki, eta hullant cite ſacramentiala, ſuplicaçalebati ounxa daucon debocioniareki.

Eta Jinco photere oro dianari ſegurançareki eitç itçaçu, ecin enthelegatcen dutuçun gaiçac oro.

Jincouac etçutu inganatcen; bere buriatan ſobera ſinheſte eçarten diana duçu inganatia.

Jincoua badabila ſimpleki, bere içatia eçagut eracitcen-du umiler, entheleguia emaiten-du tchipier; eçpiritia idekiten-du arima chahier, eta gracia gordatcen ſobera jakin beharrer, eta urgulluxu direner.

Guiçonen arraçoua flacu da, eta ingana ahal daite, eguiaçco ſedia aldiç eçtaite ingana.

5. Arraçou, eta tcherkhu naturalec oroc ſediari jarraiki behar-die, eç haren aitcinetic jouan, eçetare hari buhurtu.

Eci

Eci fedia, eta amourioua beften ororen gagnetic han aguertcen dira, eta gaiça miragarriric eguiten die, ecin eçagutu içaten ahal diren maneria elibatec sacramentu ecinago saintu, eta beften ororen gagnetic den hountsan.

Jinco eternal eta mugga gabe denac; phorteriac oro ditianac eguiten-du, ceruan eta lurrian gaiça handiric, eta guiçonen entheleguiari eman eçtirenic, eta hartacoç dira haren obra miragarriac guc ecin eçagut beçalaco.

Halaco balira Jincouaren obrac, nour guiçonaren arraçouac ehignera enthelega litçan, eliratcke miragarri, eç ecin erran ahal beçalaco.

*Jesusen Imitacioniaren laur Librien acabantça.*